# EUZKAL-BETEKIZUNAK



UŔESTARAZU'TAR ANDONI
«UMANDI»




KARDABERAZ BILDUMA 28

# KARDABERAZ BILDUMA

1.º KARDABERAZ AITARI OMENALDIA
(lan bilduma da). 15 x 21: 200 pg., 200 pta. (Lekuona, Akesolo, Onaindia eta abar).

2.º NEURRIZTIA
(Luis Egia). 15 x 21: 324 pg. 400 pta. (Teknika gaia).

3.º SUGE GORRI
(François Mauriac — Uxola). 15 x 21: 167 pg.

4.º ESPALAK
(Uxola). 15 x 21: 181 pg.

5.º AITONAREN IPUIAK
(Ramon Murua).

6.º ERREKA-ZULOAN eta...
(Anastasio Albisu Ayerdi).

7.º 1) KOMEDIAK-SHAKESPEARE
(Larrakoetxea, Bedita).

8.º LANDARE-JAKINTZA
(Larrañaga, Gillermo).

9.º GARTZI-XIMENO eta...
(A. Albisu Ayerdi).

10.º EUSKALERRIA ETA ERIOTZA
(Anastasio Arrinda Albisu).

11.º 2 - KOMEDIAK
12.º 3 - DRAMAK
13.º 4 DRAMAK
14.º 5 - TRAJEDIAK
15.º 6 - TRAJEDIAK
SHAKESPEARE

16.º 1.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"
Método para aprender y enseñar el idioma vasco.

17.º 2.—GRAMATICA VASCA "UMANDI"
Modismos - Vocabularios - Clave de temas.

18.º TXIRULIRUKA
(Loidi'tar Paben).

19.º I.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA

20.º II.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA

21.º III.—LEKUONA'TAR MANUEL JAUNAREN OMENEZKO IDAZKI-BILDUMA
(Colaboraciones).

28.º EUZKAL-BETEKIZUNAK
(Uŕestarazu'tar Andoni "UMANDI")

C/20 13.649 500.-

UŔESTARAZU'TAŔ ANDONI

# EUZKAL - BETEKIZUNAK

EUSKAL BIBLIOTEKA LABAYRU DERIO BIZKAIA

Euskal Biblioteka Labayru
1012711
LITERATURA / N. 2572

URESTARAZU'TAR ANDONI

# EUZKAL - BETEKIZUNAK

KARDABERAZ BILDUMA - 28

*Autor: Urrestarazu'tar Andoni*
*Edita: Juan José Garmendia. - Técnicas de Difusión - Tolosa*
*Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria*
*Depósito Legal VI 406 - 1977*
*I. S. B. N. 84-400-2966-7*

# ITZAUŔEA

EUZKADI'n jayo zeran oŕi eskeiñi nai dizkizut liburu onen oŕialdeetan barna baŕeyatu nai izan ditudan asmo batzuk. Len euzkal-aldizkarietan ere agerturik dituzu geyenak. Idazki oiek, ala ere, aldizkari geyenekin batera, zugatzetatik yalgitako oŕi igaŕ eta ximelak, alde guzietako aizeek sakabanaturik, noranai doazen bezela, joan edo zaizkigu ... edonora ere. Eta egokia iruditu zait ala yaulkitako asmo aiek, beŕiro jaso ta, ona deritzaidan arau baten pean bildurik, idazti baten bidez, zuri ta gure sorteŕiari, oŕela alkarturik, opa-izatea.

Yainkoa'k emana dudan urteen bide luzean, amaika kezka, kardaba ta kexutasun, sorteŕiari buruz izan. Ez dut atzealdera luzaro so-egin; aspaldi-aspaldidanik gure Eŕia gaur ere berea dan luŕean berean ba-zala, ta ordudanik ona bertan iraun duela jakin ezkero, izandako ta iĺa dagoen beste guztiari yaramon aundirik ez. Noski, ez gure auŕekoek egin zutena uŕuintzen dudalako, ez eta kondairaren izenaz ezagutzen diran jazotako guziak ikasi, jakin eta aztertzea utzaren uŕengotzat ditudalako; ez, iñola ere.

Baña oŕenbeste urte ta mendeetatik, auxe dugu geratzen zaiguna: Euzkal-enda, euzkera, luŕa, eresia, lege ta oitura batzuk, ..., eta guzia txikiturik, aulduta, mengel, txiro; noizpaiteko bizi oparo baten gomuta; bizi sendo oŕen azkenetan apika, il-zorian ausaz. Gurean eotu dan edestiak galtzearen ikuŕa darama, aurka sortu zaizkigun indarkerien auŕean, ontaz edo artaz, beti amor-egiteko beaŕa gugan sakonki ozkaturik.

Eŕi bezela, eriotzaren auŕean burua geyegi makurtzea izan dala deritzait gure Eŕi'aren bizi luzea. Eta il ez oraindiño! Onen sendoa baita, berez, gure sorteŕiaren bizi ori! Ez kanpotik ez barnetik eldu ta sortu zaizkion basabere edo pipiak, indaŕik ez, aski, orain arte gure Eŕi'aren bizi-areitza luŕ jota uzkailtzeko. Siñeskaitza benetan, batzuek eta besteak oŕen ankeŕ, sendo ta zital izan baitira.

Ementxe dugu, egun ere, zutik endaren zugatz mazala; makal bai,

baña orandik ba-doakio eŕoetatik eta enboŕaren zeaŕ, goruntz, bizi-izerdia. Ez ote diño orixek gure Eŕi'ak bizi nai duela, ain zuzen? Ez ote dugu bere seme geranok, gure zugatz bizi ori txertatu beaŕ, bizi-uaitz ori itxaso ustel batean ayendu ez dedin; eta oŕen noraezekoak ditugun oŕi, lili ta igali mardulak eman dizaizkiguken, beaŕezkoak zaizkion bide egokien barna eramatea? Ez ote da geron abeŕiarenganako eginbide ertsiena, geron euzkal-bizia eutsi ta indartzeko naimena tinkotu ta alik eta nabarmenen nunai ageŕeraztea? Eta gure naimen oŕen arauz gotorki ekitea?

Egun'erako ta gerorako dagokigu abiatzea; bizi-izateko ezin atzealdera begiratzen egon; auŕeruntz zuzendu beaŕ begiak eta adimena; aintzina geron indaŕ eta almen guziak arteztu. Artu gure kondairak erakaŕi diguna, euzkal-biziaren ondaŕa bada ere, ta asiera biurtu, gure geroko bizi oparotsu baterako oñaŕitzat; bizi-izateko, gure elbururako, lendabizi izan diteken uŕatsa bezela.

Gure Eŕi'aren gorputza betiko luŕean berean ikusten dugu gaurko egunean bizi, zutunik; gure Eŕi'aren gogoa, gure izkuntzaren egaetan, gure euzkeraren muiñetan, geron baitan dugu, arnasartzen oraindik. Gorputzari eutsi dion luŕa, gogoa gorde digun euzkera, biak ditugu zaindu ta sendotzeko. Geron gorputza, norberarena, Euzkadi'ren luŕ gañean bizierazi beaŕ; geron gogoa, bakoitzarena, euzkeraz azi ta elikatu. Oŕa, luzatu gabe, euzkal-egitarau bikaña adierazita.

Bai, itz gutxi oietan sarturik ikus dezakegu bere sorteŕia maite duen euzkaldun batek burutzeko egitaraua. Alan eta guztiz be, amaika bide ta bidexka, inda ta zidoŕ, esateko oŕen eŕaz agertzen dan zelai ortan eta ibiltzeko oŕen zail eta zakaŕa biurtzen zaigun aldapa malkartsuan.

Ez da nire asmoa, idazti ontan gorputzari dagokionik aipatzea; gogoaren baranoan zedaŕitu nai dut esateko guzia. Ezin lenengoa ezetsi, baña bigaŕenari dagokigu nagusitasuna ematea; beti auxe aren gañetik onartzeko eta beti ere, egiazko bizia gogoan dalarik, gorputzari be eutsiko diona gogoa izango dugulako. Beste aldetik, lenengo leŕoetan aipatu dizkizudan aspaldiko lan aiek oŕela bereziki itzegiten dutelako.

Arana Goiri'taŕ Sabin'en dei sendo, altsu eta zoliaren indaŕez, tximistaren antzeko latzikara sakona sortu ta igaro zan gure Eŕi'aren gorputz eta gogo guziaren zeaŕ. Aŕi ta zur geratu ziran orduantxe, ta gero ere, euzkaldunak oro. Oŕa egia, sorteŕiari dagokion egi aundi ta zabala.

Euzkaleŕia, Eŕi bat dugu, Eŕi izenak duen zentzu sakonaren izarian; Euzkaleŕia, endeŕia da, endeŕi izen onek Eŕi'arenak baño obeto adieratzten duen mal̄an; Euzkaleŕia, sorteŕia, abeŕia dugu, izen bi auek maitasunari



buruz ertsiki ematen diguten ikuŕ edeŕean. Ortxe argia; ortxe gure egia.

Eta egi argi ori gure egipen guztien oñaŕitzat artu beaŕ dugu, egiz Eŕi bezela bizi nai ezkero; oŕ bertan gure lan guztien asiera ikusteko; eta ortik gure elbururako bideak zuzen ditzagun, yakintza ateratzeko. Oro sorteŕiagatik, oro abeŕiarentzat; abeŕia, gero, Yainkoa'rentzat oso izan dedin, alegia.

Beste elburuak eskeiñi dizkigute mendez-mende, Eŕi'arena txikia edo zalako ta euzkaldunaren garaitasunari zabalagoa izatea zegokiolako. Eta elburu bikain eta aundietarako gure laguntza eskatzen zigutenek —nik ezin ulertu zergaitik—, gure Eŕia bera ezestea lenengo uŕatsa bezela egiteko, beaŕezkoena zala esaten ziguten; geron Eŕia onen txikia izanik, gure mintzoera oŕen basati ta landeŕ, gure lege ta oiturak ain zaŕak, .... Guzti ori, zokoratzeko baño, ezertarako ez; eŕe guzti ori, euzkalduna, eta eŕautsetatik era baŕiaz berpiztu, Mundu zabalean egan abiatzeko ... . Orixe, egitan, betidanik guri egindako deia.

Euzkalduna, itz edeŕ, zoli ta ozenen auŕean, txunditurik edo geratu zan, ao zabalik oso, ikas eta ikusgaŕi zitzaizkion ainbeste gai, bide ta elburu yoranen beŕi artzean. Zertarako egon beaŕ gure aran medaŕ eta estu auetan kuzkurtuta, Ludi'an barna zelai zabalago ta oparotsuago dagozelarik? Nola bizi ezer ez jakiteko, baseŕirako bakaŕik erabil̄i diteken, mordol̄o besterik ez dan izkuntza txiro onen bidez? Utz dezagun luŕa, ta gutxienez, beste alderdietarako iñor ezpagera ere, utzi bederen mintzoera; beste jakitunago bateaz, emen ere, aintzinago jauzi al-izango baikera. Kuku gure aspaldiko lege ta oiturai. Utikan euzkalduna dan oro, bizirako oŕen eragozpen laŕia izanik. Nik neuk, nere esku ta yarei bizi nai dut eta ... . Oietxek euzkal-buruetan soŕerazitako asmo bikañak!

Eta eŕezena etxekoa bera zapuztea edo zan, odolkideen lepotik paŕe egitea, sasi-jakintzaren bidez eta atzeŕitaŕen txaloek azkarturik ... . Menderen bidean oŕ, Napaŕoa ta Araba'n, esate baterako, euzkaldunaren izena zearo bazterturik; oŕa oŕ beren biztanleek lortu duten auŕerapena; ortxe, aspaldiko euzkal-eŕi erdal-eŕi biurturik, erdaleŕi landeŕenetako ain zuzen. Oŕa oro!

Orixe noski Arana Goiri'taŕ Sabin'ek ikusi zuena, zuzen eta sakon ikusita. Bere abeŕia nora zijoan ateman zuen garaiez, Yainkoa'ri eskeŕ. Bere adimen zoliak beerako bide laban aien amayean, euzkal-gogoa zearo ta betiko galdua izango zala oartu zuen; erdaldun biurturik, euzkalduna il̄a zegoen. Eta bere Eŕia il-zorian ikusten zuela, estu ta laŕi, bere

sorteŕiarenganako maitasunaren barne-muñetik, abeŕiaren dei ikaragaŕia, oles zoliena egotzi zigun, antsiz eta kexutasunez beterik.

Ez zan Euzkaleŕia sor-goŕ geratu dei oŕen artzean; eta egia, argi baño argiago ikusi zuen abeŕiaren ikurpean. Bizi naiean abertzaletu zan Eŕia, ta bere osasunerako bideetan barna abiatu ere, urduri, arnas-estuka, berea zan guziari eusteko gurari bizienean.

Eta ortan gaude, bizi naiean; ortarako eraman beaŕ dugun guda ixil eta izigaŕia jasaten. Liburu au guda ontarako izkiĺu egoki ta on izan dedin, landu ta gertu nai dut; gudarako izkiĺu, ekintzarako lankai; eta izkiĺu baño, lankai obeki, lankai artezkari, ekinerazle.

Zuri, abeŕiarekiko kexuki bizi zeran aberkide oŕi, eskeintzen dizut, geron ametsen elbururako laguntza ona aurki dezakezun, yoranez beterik. Txikia izango balitz ere, zer-nolabaiteko izarian onurakoŕa baldin bazaizu, ez dut alpeŕikako lanik izango. Xede ortaz, goazen aitzurkatzera; goazen gure betekizun nagusienak zeintzuk diran ikustera.

**I.—Euzkadi, Euzkaleŕia, Eŕia danezkero, beste Eŕi guztiak bezela, *biziarena* du auzi nagusiena; eskubidez eta beaŕez.**

Ba ote da Euzkaleŕia, Eŕi, itz onek osotasunezko zentzuan adierazten duen izarian? Bayetz borobiŕa erantzuteko, bereala. Beste argibiderik izango ezpalitz, ortxe betidaniko bere izena: *Euzkal-Eŕi,* euzkeraren *Eŕia.* Beste Eŕi'rik ote, bere izenean eta guzti, oŕela dala adierazten duenik? Ez dugu ezagutzen eguzkipean, oŕenbeste argitasunez bederen. Ementxe dugu, Europa'ko bazteŕ ontan kokaturik mendez-mende, lenengoa zein izan ote zan iñork ez dakiela, eta ba-du gizonak mende askoren beŕi. Aŕi-aroan emen zegoen euzkalduna, bere izkuntzaz, bere gogoaz alakotz; eta ordudanik gaurdaño, mende guztietan bere biziaren zantzua ematen. Arerio bildurgaŕien auŕean beti, auen oldaŕaldi izugaŕi guztiak jasan eta eusten, eta bere bizierari itsatsita gogorki iraunerazten; gure egun auetara eldu arte.

Oŕen luzaroan toki berean eta bere biziera berezian bertan bizi dan giza-saldoa ez ote da Eŕi'tzat eukitzekoa? Ori izan ezik, zein? Nolako neuŕia bete beaŕ da Eŕi'aren izena on dakioken? Enda berezia gañera, euzkaldunarena, Ludi'ko jakintsuek ao-betean bayezten dutelarik; beste endak, beste Eŕi'rik iñoiz zapaldu ez duen euzkal-enda, gure abenda; endakeririk ez iñoiz gugan, ezaguna dala beintzat, eta oŕengatik ain zuzen ere endaz lasai mintza gaitezke. Gudan, gogorki, ari-izan danean, iñoiz ere ez berak sorturiko gudan, atzeŕitaŕek egin diotenean baño. Orixe, egiazki, beste gizonen auŕean lasaitasunez, biotz-narez, bere burua agertzeko oñaŕia. Liskaŕak bai, etxe barnean izan ditugunak, geyegitxo, lotsagaŕi, geron soña ta gogoari kalte aundienetakoa egin zietenak. Baña, nabarigaŕi, etxean bai, kanpoan ez; beste Eŕi'enganako beaŕa zaien itzala ajolaz gorderik.

Endarekin batera, oŕa euzkaldunaren izkuntza, oŕa euzkera. Beti izan da mintzaira, gizonen artean, alkaŕekiko aŕemanetan ari-izateko bidea; berebat, gizonaren gogoa ederkien adierazten duena, eta bide batez gogo berezia gorde ta eusten duena. Beraz, enda soñari dagokionez baño

era ertsiagoan, oŕa izkuntza gogoari dagokiona. Ba-dago, oŕengatik, euzkal-gogo berezia, ona dana, euzkera berarengandik edo jayo ta berarekin bizi danezkero; gure izkuntza, gure gogoaren argibide bikaña. Gaŕantzia eman zion euzkaldunak, asieran beñepein, izkuntzari; beraren eta bere Eŕi'aren izenak ez ote zituen artu, ain zuzen, euzkera berarengandik? Ez ote dio deitu "euzkaldun" bere buruari?, ez ote dio deitu berdin Eŕi'ari, bere Eŕi'ari, "Euzkal-Eŕi"? Ez ote dugu ontan ikusi beaŕ, geron Eŕia, asieran, gogo-eŕia zala? Gogoarengandik zetorkion izkuntza izan edo zan euzkaldunarentzat, garaitasunezko zantzu bereziena. Uste onek damaigun atsegiña! Euzkaleŕia gogoari emana ikustea. Ez ote da orixe bere iraupenaren oñaŕia? Soñerako mukeŕ, gogorako kexu; ez ote da jokera ori edonork, zuzen, bere burua iĺaŕaintzeko lain? Ez da, beraz, aŕokeririk guretzat, gure Eŕia oŕela ikusi ta oŕela auŕeruntz bizierazi nai-izatea. Gogoa izateko beti, nunai nagusi; gogakia, gogo-zalea dan gizonarentzat izango da gurenda; gogo-izarian bizi nai duen Eŕi'ak jaŕaituko du bizian.

Soñari buruz, enda, abenda; gogoarekiko, izkuntza, euzkera; auxe laren gañetik beti. Beti? Ez al dugu ikusi beaŕ, eŕua bezela edo, Euzkaleŕi'aren erorialdian, Eŕia danez bere galtzean, gain ori gogoari emateaz noizpait aspertu egin dala? Esan beaŕ-izango genuke orduan, gure Eŕi'ak itxukeriz utzi edo duela bere bidea, ta erbestetik eldutako sasi-zorionen abesti goxoai, belaŕiak geyegi edo zabaldu dizkiela. Argi ikusiko balu bere auzi nagusiena gure Eŕi'ak! Bere bizirako beraren barnetik, eta ez beste iñundik, indaŕ eta bide atera beaŕ dituela- Euzkerak gorde digun euzkal-gogoa, iturburu oparotsua, yori ta emankoŕa dugu; zer dala-ta ez dugu ituŕibegi ortan ao-beteka edan eta edan beaŕ? Bertatik datorkiguken bizi-uroldea dugu bideratzea, besterik ez. Batzuen batzuk, gure arteko itxu alakoak, zipoztu eragin nai-izan digute euzkal-ituŕia; ueŕitu, nastu, ibaika datozkigun ur gardenak. Alpeŕikako lana, bere baitan ainbeste indaŕ dakaŕen euzkal-ura agortu nai-izatea.

Gogoari eskeŕ eta bertatik zerion almenaz, bere legeak egin zituen euzkaldunak, bere oiturak, bizibide ta joku, bai ta bere bizi guzia ere, euzkeraz moldatu ta izendatu zuen oro. Norberaren izena, sendiarena bezela, baseŕi, bide, mendi, zugatz, landare, abereena, ..., danarena euzkeraz eman beaŕ euzkaldunak. Euzkeraz gañez eginda euzkaldunaren bizi osoa; euzkerak dakaŕen euzkal-gogoarenaz. Zer ote geyago Euzkaleŕia Eŕi bat dala egiztatzeko? Bai, ba-dago beste baldintza: izateko nai gotoŕa adieraztea. Kondaira'n zeaŕ amaika aldiz nai ori erakutsita; oŕela



jaŕaitu beaŕ; bizi ote diteke nai ez duen iñor? Oŕa, naia adierazteko, isituki ekin beaŕ dala; oŕelaxe, lan guztietan gurari osoa ipintzeko beaŕena; oŕengatik, bere sorteŕia maite duen euzkaldunak, bere naiari, nai biziari, zuŕun eta zail eutsi beaŕ dio eten gabeko ekiñaldian; ez edonolako naikundea, giza-naia baño —Axular'ek bereizten zuen bezela—; eta ageri-agerian ari-izatea ere noraezekoa da, ezinbestekoa, abeŕia bizi dedin.

Goratzekoa dugu, eskierki, beste Eŕi'en aurka gureak iñoiz ezer ez egitea; aipu aundi ta edeŕa, oŕela jokatu duen Eŕi'arena. Pozgaŕia zaigu euzkaldunoi, gureari orixe dagokiola oartzea; beti ankeŕ eta zapaltzaĺeengandik at egotea, eta beren aurka, gogorki, arerioak etoŕi zaizkionean.

Arerio ugari bizian barna Euzkadi menperatu naiean, mota guzietako izkiĺuak erabiĺirik, soña erailtzen dutenak eta gogoaren gaŕa itzaltzen dakitenak; auetxek aiek baño miĺa bider txaŕagoak, egiazko bizia gogoan baitago; ez dio iñoiz soñak gogoari eutsiko, gogoak soñari baizik. Eta xede ortaz ari-izan dira beti, setati, geron etsayak; gure abeŕiaren soña maite-izan dute itsuki, ez bere gogoa, eta oŕengatik berentzat artu nai-izan dute Euzkaleŕia; oŕela, soñaren edertasunagatik, emagalduaren antzeko, barnean zeraman gardentasun yaukala zapuzten, zikintzen, kutsatzen, naŕiotzen. Itxukeria; arian-arian, gogo gabeko soña igartzen dalako, iĺa geratzen dalako; eta azkenez gizon eta emakumeengan ikusi nai-izango luketen soin edeŕa, beste soin beŕia izango litzake, euzkaldun gorpuarengan soŕerazitako beste bat, erdal-soña ain zuzen. Gugan Eŕi-erailkera bururturik ikusiko litzake; eta guretzat iltzea izango zana, geron eraĺeentzat eta gizadiarentzat ere Eŕi baten galtzea. Norentzako irabazirik? Iñorentzat ez alegia, guzia il eta galtzea izango baitzan.

Oŕa, bizi-izateko gure Eŕi'ak berez duen eskubidea, nundik ikus dezakegun indartua; bere eriotzaz iñork ez luke ezer irabaziko, ororentzat galtze izango bailitzake. Baña ezezko argibide auek utzita, baiezkoak nabaritu ezkero, geron eskubideari indaŕ beŕi aundiagoa atxikitzen zaiola ikusi beaŕ.

Esan dugunez, euzkalduna beti, euzkaldun ez danari, erdaldun guziari, lotsa izan zaio, kondairan ezpaitago geron Eŕiak beste Eŕi'rik zapaltzeko zirkiñik ere egin duen aztaŕenik; eta bat-banaka ankeŕen alde ari-izan diran euzkaldun batzuk, norberaren iŕitsak eragiñak izan ditugu, beren Eŕi'aren izen onari orbanik ezaŕi eziñean. Okeŕ-bidean jokatu diran oien alderantziz, eunka, miĺaka, aleun euzkaldun baŕeyatu dira eguzki pean Ludi zabaleko bazteŕetan; lanerako lenengoak, zintzotasunez gañetik ko-

katu izan diran Eŕi'etan, auen legearekiko men eta eskukoi, giza-jokeran eredu. Alde guztietan oŕelako euzkaldunak goratzea entzun eta entzuten da, eta nunai beren etxekotzat artu nai dituzte gogoz.

Akatsak ere ba-ditu euzkaldunak, beste gizon guziak bezela; nola oŕelakorik ukatu? Baña bere onbideak geyago ta indartsuago izanik, itzalita geratzen dira aiek zearo. Ondorioz, gaur ere, Mundu zabalean, euzkaldun-izena, ona izan diteken goyeneko izarian ezaŕia dugu, guztiz nabaria.

Ez ote du bizi-izateko eskubidea, oŕela jokatu duen Eŕi'ak, besteentzako ere oŕen zitu edeŕak eman eta ematen dituen endak? Pake, lan, urkoarenganako adeia; oŕa oŕ Euzkaleŕi'arengandik sortzen dana. Zergatik ontzat artu beaŕ, oŕen uzta edeŕ eskeiñi dezaken Eŕi'aren iltzea? Eskubide obe, garbi ta nabariagorik, ba ote da eguzkipeko Eŕi'en artean?

Eta ukatu eriñezkoa dugun eskubide oŕek, ba-dakarkigu, gizadiari ere ba-dakarkio, gure sorteŕiak, Eŕi bezela, bizi-izateko duen beaŕa ontzat artzeko eginbidea.

Ez al da Luŕa, ta bertan dagoen guzia ere, ez ote da Yainkoa'k gizonarentzat egiña? Abere ta landareak, ura ta menastak, izadi ta gizonaren indaŕak, gaizko ta gogozko menak? Egi-egia: Izadia gizonarentzat, eta gizona Yaun'arentzat. Beraz, izadia dana ta izadia betetzen duten gauza ta indaŕ guztiak gizonarentzako baldin badira, jayo dan eta jayoko dan gizonarentzat izan beaŕ, gizon guziontzat alaber. Geroztik, Eŕi bakoitza ez da bere eŕitaŕena bakaŕik, gizon ororena baño, eta gizadiaren aberastasun-zati bat bezela begiratu beaŕ da, zuzentasunari dagokionez; ondorioz, Eŕi baten iltzea, gizadiarentzat kalte ta galtzea; eta aundiago galtze ori, ildako Eŕia goragokoa zan giñoan.

Ona emen, bada, gure Eŕia, Euzkaleŕia, gurea bakaŕik ez dana, gizadiarena ere, gizadi osoarena baño; gizon guziena ta gizon bakoitzarena; norberaren neuŕian, alegia, baña ororen Luŕ-aberastasunaren zatitzat artzeko beaŕa dana, lendabiziz gure-gurea bada ere.

Gurea bai, noski, iñorena baño gureago. Baña ez dugu aiztu beaŕ, ez du iñork, gurean eta landan, aantzi beaŕ, gizadiaren zatia gerala; oŕengatik ere iñork ez du gure Eŕia iltzeko ez eta zapaltzeko edo jopu egiteko eskubiderik; era berean, naiz eta beste baten onaren aldeko xedeetan ari-izan, ezin guretzat ere geron burua erailtzeko eskubiderik onartu, gizadiari berarena dan aberaskia kentzea izango litzakelako.

Gizon batek bere burua eskeiñi ta eman dizaieke, Yainkoa'ri, lagun-urkoari, abeŕiari, gizadiari ere; ziñopa ala giza-gorenekotzat nunai



eukitzekoa izango litzake. Alabaña ontan ez dira galgakide gizona ta Eŕia, Yainkoa'ri dagokionez izan ezik; baña nork esan noiz eta nola Yainkoa'ren aintzarako Eŕi bat il beaŕ dala? Zelan, neuŕi mil̃a bider txikiagoz, gizadiarentzat on edo egokia izatea Eŕi baten iltzea? Batez ere, gizadiarentzako onuragaŕia baldin bada? Erokeria izango litzake, oŕengatik, ez geron sorteŕia ez eta iñungoa ere, beste on aundiagoagatik il beaŕ dala esatea.

Oso ezaguna dugu, abeŕian eta erbestean, "Gernika'ko Arbola" abestia. Saŕi abesten da ereserki au euzkaldunen artean eta maiz ere aipatzen eguzkipean; batez ere "Eman da zabal zazu Mundu'an frutua" diñoen bertsoa; onen esanaiari buruz, amaikatxo iruzkin bazteŕetan; "frutu" ori —azkatasuna, noski— ta gure "Arbola"'ri eskatzen zaiona —"eman da zabal zazu"—, asmoak oietxek dirala-ta, odeietaraño jasotzeko xede ta naiean.

"Eman da zabal zazu Mundu'an frutua" eskatzen zaio Gernika'ko Areitz'ari, izen onegaz ereserkia abesten dan guzietan. Gure Eŕi'aren orokartasuna adierazteko, "zabal zazu" ori da gorenik aipatzen dana, lenengoa dan "eman" arenganako ajolik izan gabe; eman al-izateko gure Areitza il̃ezkoŕa bailitzan, eta bizi al-izateko zaindu ta elikatu beaŕ-izango ezpaikenuen. Noski baño noskiago; nola ezer "zabaldu", "eman" ezin bada? Eta nola Mundu'arentzat ona dan "frutua" "eman", bizia erkitu ta iltzen bazaio?

Beste aldetik eta beste zentzunaz ere jaŕai dezakegu. Ondo dago, alegia, ematea; eta eman beaŕ dana azkatasun-gogoa baldin bada, are obeto. Baña nola emango du gure "Areitz"'ak orain ez daukana? Emateko, eskierki, euki beaŕ da; eta geneukana ta daukaguna kendu ta kentzen bazaigu, azkenez ematekorik gabe geratuko gera. Eta, batez ere, eukitzeko gugan dagoen almena legortzen bada, nundik atera emateko ezer? Onela, ta zoritxaŕ ortara eltzeko zorian gaude, esakun arek folklorerako bakaŕik izango du zentzuna. Eta gure Eŕia, antzu betiko, il̃a izango baita.

Nork eztaki, nork ukatuko du, Gernika'ko gure Areitza, gure sorteŕiaren irudia dana? Gure sorteŕia bai, Mundu'arentzako "frutu" ta zitu onak ematen dituen iturburua da; gure abeŕia dugu, beraren bizi-eskubidez, eta bere ta gizadiaren beaŕez, bizi beaŕ duena; bere gogo-bizian barna bizi ta irautea gure ta gizadi osoaren onurako, ezinbesteko duguna.

Gaur Eŕi'en biziari buruz zuzentza aipatzen danean, Eŕi-erailketa, Ludi'an egin diteken ogen aundienetakotzat irizten da. Izan al diteke

iñun gure Eŕi'az egiten dan ogen ori baño argi, nabari, aundi ta izugaŕiagorik? Oŕa bada, eskubidez eta beaŕez, gure Euzkaleŕi'ari, gure Euzkadi'ri, Eŕi bat bezela ta beste Eŕi guztien izarian berean, bizi-izatea dagokiola. Alakotz, bizi-izatea da gure auzi nagusiena.

**II.—Eŕi batek, bizi-izateko, Eŕi-bizi izateko, *gogoaren izarian*, bere gogoaren izarian, zabal eta edatu beaŕ du bere ari-izatea; oŕela, bere *izakera* bereziaz agertzean.**

Zer ote da Eŕia izatea? Zer ete, Eŕi baten bizia? Zer, Eŕi-bizia?

Eŕi izatearena ezin zedaŕitu, gogoŕ eta tinko jaŕitako mugaŕien artean. Zabalagoan artu beaŕ dugu Eŕi'aren izate-zentzun ori. Ludi-zeaŕ bizi diran Eŕi'ai so-egin ezkero, argi ikusiko dugu berdin ez dirala guziai dagozkien Eŕia bezela agertzeko dituzten baldintzak: endarena aipatuko dute an nagusiena; lutelestiarena, emen; oŕ, indaŕ utsarena edo egokitasunarena; izkuntzarena, nunbait; naimenarena, edonun. Indaŕ, egokitasun eta naimena, alkarturik ikusten ditugu geyenetan, zoritxaŕez.

Baña, nola ontzat artu indaŕa?; zelan, edonoren egokitasuna?; edo ango ala emengo naimena bakaŕik? Kontuz, ala ere; egiazko Eŕi'ak bizi-izateko agertzen duen naimena, aipatzen duen egokitasuna edo erabiltzen duen indaŕa, oŕa ezetsi ezin ditzakegun azpegiak. Ezin ere, ordea, naikoa izan indaŕa, ezin orobat egokitasuna, ez eta naimena bakaŕik izan be, Eŕia izateko.

Eŕia izatea auxe da: izan. Aundi edo txiki, aul edo indartsu, edeŕ edo itxusi, Eŕia Ludi'an noizpait jayo da, nolabait gizonaren jayotza dugun eitean. Bein jayo ezkero, ortxe dago bizi-izateko eskubide osoaz, yarei ta bere gain bizi-izateko gañera, gizonaren antzo. Beraz, izateko naimena gero datoŕ, egokitasuna geroago; eta, alakotz, naimen, egokitasun eta indaŕaren gañetik eta auŕetik, izatea dugu. Auxe, egiazko oñaŕi sendo ta bikaña.

Izan. Bere burua uka dezake gizonak, bere burua ezeztu; eta gizonak bezelaxe, Eŕi'ak ere. Alabaña, gizona, gizona da, nai ta nai ez; Eŕia ere, Eŕia izan beaŕ, il artean, naiz eta bere bizia, bere ziñezko bizi bereziaz ateman ezpazaio ere. Izan. Goitik datorkigu izatearena. Jayotzen gera, eta une artantxe ba-gera; ezin ontaz iñorengan ukatzerik; orixe baita jayotzea, izatera eltzea. Eta izate ori, Ludi ontako izate ori, gure bizi guzian gugan izango dugu, ezin gugandik aldendu, berez bakaŕik alden-

duko da norberaren eriotzean; orduantxe bakaŕik izateari utzi beaŕ, eta orduan ere, al eta ezin.

Miĺoika ta miĺoika Ludi'an izan eta izango diran gizonak. Guziak alkaŕen antza, baña auek ere berdin izan gabe. Erkatzekoa, beraz, gizonengan eta Eŕi'engan ikus dezakeguna. Gizona jayo ezkero, bere biziari eusteko eskubidea du, zearo, bai ta eginbidea ere; gizona danezkero, bere biziari ta bere nortasunari itzal ertsikia zoŕ diete beste gizon guziek. Eta berebat esan beaŕ Eŕi'ari buruz; bere bizia eustekoa da, bere nortasuna, beste guziek ontzat artzekoa. Gizona erailtzea, ogena da; ogen laŕia ere Eŕi bat suntzi-eraztea.

Ba-dagoz, enuŕarik gabe egon ere, gizona ta bere Eŕi'aren artean, aŕeman ertsi-ertsiak, naiz gorputzarekiko naiz gogoari buruz. Noski ta beaŕezko; Eŕia bere semeak diran gizonen alkartasuna baita; aita ta semeen arteko dagoen antza bezela, berez eta indaŕez, aien artean ere sortu beaŕ.

"Beti dago ezkututako lokaŕia gizon baten izakera ta bera sortu ta elikatu duen luŕaren artean" ("Temoignage Chrétien", 1960-XI-11 - 853 zenb. - 11'gn. oŕialdean).

Oŕela izanik, Eŕi'ari buruz eta bere izarian egingo dana, ondorioz, gizona dan batasunarekiko ere bururturik izango da, ala beaŕez.

Eŕia izan, izan ere. Zer da, baña, Eŕi'aren izate ori? Nola adierazten du Eŕi'ak bere bizia? Zelan azaltzen bere izakera? Indaŕ, egokitasun naiz naimenez ari-izatea guziai dagokie; guziak berdin, bide oietan barna jotzean. Lutelestiak ba-du gaŕantzi aunditxoago, berdiña ezpaita Eŕi guztietan, eta bakoitzarenak ba-du aren biziarekiko zer ikustekoa. Endarena ta izkuntzarena ditugu gaŕantzi aundiagoak, bigaŕena bereziki gogoari dagokiolako, eta biek Eŕi'ak alkaŕengandik bereizten dituztelako.

Noski. Izateari zoŕ zaio endarena ta onen gogoari izkuntza. Beraz, izateaz sortu zan enda, eta endak sortu du izkuntza gogozko yardunetan. Oŕengatik ain zuzen, Eŕi'aren izatea, Eŕi'aren bizia, berarengandik sortutako endarengan eta onek emandako izkuntzaz edatzen dana izango dugu; baitezpadako gañera, bide oietatik at izate ura eziña baita; eta zedaŕi oietzaz landa, ezer jayoko balitz, beste izate beŕia izango litzakelako.

Ludi'an barna ba-dira, noski, izkuntza aldatu duten Eŕi'ak; baña auek, artutako izkera beŕiaz yardutean, arian-arian eta oratzeke, aurki, gogoaz ere aldatuta dauzkagu ta beste Eŕi bat biurturik aurkitzen dira.

Izateak naiz endak, biak, gorputz eta gogoa biltzen dituzte; alaz ere, gogoarengandik sortua dute izkuntza; asmo, oldozkun, gogaiak, us-



teak, izkuntzaren bidez egiñak ditugu, eta oiek erabiltzean eyotzen ditu Eŕi bakoitzak —gizon bakoitzak ere— biziari dagozkion gorabera guztiak. Eta oŕela ari-izatez bere izakera bereizia eraturik geratzen da, bere nortasuna egiña dugu.

Alakotz, Eŕi baten izakera, ortxe, gogoaren izarian agertzen da, ez beste iñun. Ortaz landa, indarkeriz edo egokitasunez edo nai utsaz egin lezaken edozerk ez dio bere izakera oŕi ezertxo kenduko ez eta gañeratuko ere. Izakera ori izango da, ostera, beste egipen guziai bere margoa emango diena.

Eta oŕela izan beaŕ, danetan Eŕia, dan bezela izateko; eta ortik datorkigu, beaŕez, Eŕia izateko, Eŕi'ak bere bizi berezia eukitzeko, gogo-izarian ari-izatea beaŕezko zaiola.

Gogoan dugu, batez ere, bizia, eta gorputzak duena ere gogoari zoŕ dio; gorputza, gogorik gabe, iĺa geratzen baita; gizonagan ori oŕen argi dalarik, berebat Eŕi'arengan. Ezin gizonik, ezin Eŕi'rik ere bizi-izan, norberaren gogorik gabe. Oŕengatik ere eta Eŕi'arentzat bereziki, gogoaren neuŕi ta baranoan egin eta edatu beaŕ bere jokabide guztiak; lenengoz, oŕela obeto yardungo du, ta gañera, oŕela ere, bere izateari ongienik eutsi al-izango diolako.

Eŕi-bizia, alakotz, esanda bezela, norberaren bizi-izatea dugu; ulerkaitza beste bidetik ibiltzea; eta oŕela gertatzen dala argi-argi ikus dezakegu nunai. Urli Eŕi'aren asmoa, berendiaren oldozmena, sandiaren gogaia; bakoitzaren indaŕ nagusienaz aipatzen dira bazteŕetan, aŕo-aŕo gañera. Naiz eta Eŕi batek, gizonez, diruz edo izkiĺuz, oso indartsua izan, bere gogoa ere, iŕika bereziaz, besteai sartu nai die bere izkuntzaz eta kulturaren bidez; ez du aski izan Eŕi menperatzaĺeak kateaz beste Eŕi'ak lotzea, menperatutakoen gogoa ito nai-izan du, eta onen ordez berea txertatu; gayezko kateak autsi ditezke, gogoarenak betikoak ditugu; beti, betikoaren yorana guziongan.

Azke izateko, norberaren gogoaren jabea izan beaŕ, bai gizon, bai Eŕia. Gogoaren menperatasuna dugu gogoŕena, geyen zapal eta biŕintzen duena. Ezagutzen dira lateŕiak, eiki, gogo berezi bat bakaŕik ez dutenak; gogo batzuk ikusteko oiengan, ainbeste enda ta izkuntzai dagozkienak. Eta gogo oietako bat beste lateŕi batean ere agertzen da, bietan enda ta izkuntza batekoak diralako. Baña, oŕengatik ain zuzen, ez ditugu izendatzen aiek endeŕiak, lateŕiak baizik.

Danetara ikusi beaŕ, bai, Ludi ontan; enda ta izkuntza bateko lateŕi batzuk, eta osterantzean, enda ta izkuntza batzuetako lateŕi bakaŕ

diranak ere. Ez diote jazotze oiek ezer kentzen gure azalpenari; Eŕi'engan, gizonengan bezelaxe, gertatzen baitira berezko ez diranak. Emen, lekoratzeko ez danaz ari gera mintzatzen.

Gaur bizi geran egunetan, gogoŕa dugu izkuntza ta kulturaen artean egiten dan guda. Gogo-guda zabaltzen da eguzkipean gogorki; eta alde guztietan ikusten ditugu naiz oldartzean naiz eustean egiten diran alegiñak. Geron ustez, gero ta gotoŕago dugu gogo-guda ori; eta oŕengatik gero ta lan aundiagoak egin beaŕ, beren burua aul ikusten dutenek, bizi nai baldin badute.

Gure egunetan ere, Eŕi guztien izkuntza ta kulturai eusteko bazkunak sortuak ditugu asmo onenaz. Alan eta guztiz be, auŕera doa gogo-guda, oldartzen dutenen norberarengan berekoikeri izugaŕiaz. Ez da, oŕengatik, naikoa izango bazkun ongiŕe oiek egin al-izango dutena betetzea; Eŕi bakoitzak lan egin beaŕ-izango du, su ta gaŕ, bere biziaren egipen guztietan bere gogo berezia erabiltzeko, al diteken indaŕ aundienaz.

Biziaren arazoa dugu ori. Ludi'an barna, gero ta barano aundiagoan, Eŕi'ak alkartzen dira, gayai buruz bizi-izateko beaŕago zaizkien erakunde beŕiak sortzen. Bide ortan abiaturik, ez da gauza beŕi esatea, azkenez, barano ortan, Ludi guzia inguratuko duten erakunde aundienak eraikita ikusiko ditugula. Erakunde oiek, jan eta lan egiteko beaŕak badira ere, galbide biuŕ ditezke, galbide izugaŕiak, Eŕi'en gogoentzat, Eŕi'en biziarentzat, beren izatearentzat beraz. Oŕa zergatik Eŕi'ak gero ta geyago alegindu beaŕ duten, bakoitzak bere izate oŕi, bere biziari, eutsi al-izateko.

Gure Eŕi'ak, besteak bezelaxe, beste Eŕi oien auŕean eskubidea du bere gogo berezia eutsi ta zaintzeko; baña bere buruarekiko, eginbide, ta eginbide ertsia ere, lotsa zearo galtzen ezpadu. Neronen gardiz, orixe bere eginbide aundiena, nagusiena, bere bizi-izateari iñola ere uko egin beaŕ ez diolako. Eta eginbide ori Euzkaleŕi'arena baldin bada, orobat euzkaldun guziona, euzkaldun bakoitzaren lana besteenarekin baturik izango baita; Eŕi osoarena, beraz.

Beŕiro esango dugu: gogoan datza bizira; euzkal-gogoan, alakotz, euzkal-bizia; eta gurean, besteengan bezela, gogoa da gorputzari bizia ematen diona. Ezin oŕengatik izan gauza argiagorik, geuk nai dugun azkatasuna, euskal-gogoaren izarian beaŕ-beaŕa zaigula, beste guztien gain eta lenengoz.

Beaŕa, bai, azkatasuna, bizi-izateko; gizonarentzat eta Eŕi-arentzat; azkatasuna, ala ere, beaŕ dan bezela jokatzeko; bidezko yardespena, bi oiengan ere; geroztik, ongi aztertu beaŕ, nai ta eskatzen dan azkatasuna zertarako erabiŕi beaŕ dugun. Eta Eŕi'ak ortaz euki beaŕ duen elburu nagusiena, bakaŕa esango genuge, auxe: bere gogo berezia zaindu, arteztu, indartu, maitatu ere; Euzkal-Eŕi'an gogo oŕen semeak ditugun euzkaldunak, gizon onak izan dira, Ludi'ko beste gizon anayenganako onuragaŕi beti. Eŕi osoa dugu, alakotz, euzkal-gogoaren seme; nola ez du maite beaŕ seme on batek, izan duen aita, naiz ama ona ere?



Len esan dugunez, Eŕi'aren izateak bere gogoa sortu zuen; eta bere biziaren edatzean, gero ta geyago tinkotu edo zuen gogo ori; baña urte ta mendeen bidean, Eŕia beste gizonengan, beŕiro eta eten gabe jayo ta beŕizten zan, eta gizon jayobeŕiak gogo aren eguratsean azi ta bizi gero. Oŕengatik, gogoa bera izanik eta Eŕia gizonengan beŕizturik, gogoa biurtu zan geroko Eŕi'aren eusle ta zaintzaŕe. Eta ain zuzen, gogo berezi oŕi eskeŕ iraun al-izan du Eŕi'ak.

Uste dugunez, argi ta garbi dago, Eŕi batek bere gogoaren izarian bere bizi osoa edatu beaŕ duela. Gurean orain arte ez da ardura aundirik izan ortaz, geyenetan, eta oŕela galtzen eta galtzen ari gera; eta gure izakera berezia ezabatzen doakigu beste Eŕi-gogoen pean.

Bide oŕen amayean, eriotza dugu Eŕi-arentzat; amai ortaraño eltzen bagera, gure Eŕia iŕa izango dugu betiko, eta orduan geratu ta bizi-izango diran gizonak, euzkaldunengandik datozela esan al-izango dute, baña besterik ez; ezin beren burua euzkalduna deitu, euzkal-izakera zearo galdurik izango dalako. Eta azkenez, euzkaldunakaz mintzatuko da, gaur etrusko edo hititakaz itzegiten dan bezela. Ludi'aren edestian, gogorapen bat, besterik ez.

Argi ere, beraz, geuk, euzkaldun geranok ertsi-ertsia dugun eginbidea: Gugan lenengoz eta arlo guztietan gero, gure euzkal-gogoari eustea; eta ortarako gero ta neuŕi aundiagoz, gogo oŕen izarian bizi, ta gure itz eta egipen guziak, bertan ere, egin eta bete. Orixe beaŕ-beaŕezkoena.

**III.—Eŕi baten izakera, gogoari dagokionez, gogo-arlo guzientzakoa dan bidean barna ibiĺi ta nabari beaŕ da, norberaren bide bakaŕa dan *izkuntzaren* zeaŕ.**

Edozein Eŕi bizi-izateko, bere gogo bereziaz inguraturik, eta batez ere bere gogo oŕen barnean eta gogo oŕezaz beterik egon beaŕ, bere izakeran irauteko eta Eŕia danez eten gabe ta beti izan al-izateko. Bizia, egiazko bizia, gogoari dagokionez, oŕela izan beaŕ nunai, guziontzako dugun legearen arauz, orokartasunean.

Eŕi baten bizia, beraz, bere gogoan eta bere gogoaz azaldu beaŕ, baita edatu ta iraun ere. Zer da, alabaña, Eŕi'arentzat bizia, bere bizia? Guzia berarentzat: bere naiaz legeak egitea, bere gogarako ekandu ta oiturak jartzea, lanerako ta alkaŕen arteko bere seme guztien aŕemanetan berari dagokionez ari-izatea, ertia ta gizadiaren yakintza bere margo bereziaz ulertu ta irakastea, uskurtza bera bere sen eta oldeaz bereganatzea.

Amaika maĺetan barna, nabaritzen da Eŕi baten bizia; gogoa, bat izanez, mail guzti oietan ageri beaŕ da; eta bidezkoa danez, ala beaŕik, bide egokia euki beaŕ gogoak, beraren barna ibiĺi ta ari-izateko; bide bakaŕa, gañera, mail guzti oietara el ditekena, edonora doakena. Berebiziko bidea eukitzeko, noski, Eŕi bakoitzarentzat bat, berea izan beaŕ dana; eta Eŕi guztietan argi agertzen dana, nunai ta alde orotan, zentzuna bera berarekin daroana: Eŕi guziena, Izkuntza izenaz ezagutzen duguna.

Iruko au, alakotz, nabarigaŕi oso, Eŕi bakoitzean ageri zaigu: Bere *bizia,* bere *gogoa,* ta bigaŕen au lendabizikoan barna ari-izateko beaŕa zaion bidea, *izkuntza.* Irurok alkartasun berezi ta ertsia dagite; irurok ditugu noraezeko, Eŕi baten *izakera* adierazteko, Eŕi baten *izatea,* egiz eta beaŕ danez azal dedin.

Izkuntza gogoarengandik datoŕela, ontzat artzen da bazteŕetan, naiz eta etoŕera au argi oso ikusten ezpada ere. Dana dala, ta beste eraz sortua izanaŕen, berdin emen esan nai dugunerako. Gaur, atzo bezela ta ertsiago apika, gogo ta izkuntza alkaŕekin baturik ikusten ditugu, beren agerkera danetarako, gizon batengan soña ta odola dagozen antzo; Ola-

bide aita ospetsuak egokiro onela esan zuen bezela: "odola soñari, orixe izkuntza gogoari".

Oldoztea gogoaren, adimenaren egipena izanik, ongi sortu zitzaion Unamuno'ri esakun au: "itzen bidez oldozten da". Alkaŕen ondo jartzeko, gure yakintsu bi oien gogaiak, kidekoak baitira. Eta asmo oien antzeko amaikatxo aipa genitzake.

Ona emen euzkalduna ez dan beste baten iritzia: "Gogalpena, barneko iza da; bertan esakunak, oguzitako itzak bezela, alkartzen dira" (91'gn. oŕialdean). Eta: "Esakunen bidez oldozten dugu" (99'gn. oŕialdean) ("El Lenguaje", J. Vendryes'ek parantzeraz egiña; Montoliu'taŕ Manuel eta Casas'taŕ José M. jaunak espaŕeraz ipiñita. "Cervantes" etxeak argitaratua. Barcelona. 1943).

Eman dezagun oso egokia deritzaigun beste azalpen bat. Bayona'n agertzen dan "Gure Herria" euzkal-aldizkarian, 1958'gaŕeneko buruiĺan (iraiĺan) ageri zan zenbakian, Suezia'ko Naert'taŕ Kepa jaunaren lan oso egokia ageri zan, bere asmoa onelaxe jakinerazten zigula: "Linguistika'k esaten duenez, oldozkun guzik, naiz eta doi-doi eratua bada ere, izkuntza dagoela adierazten du ta onengandik alderatzea eziña da". "Beraz, okeŕa baño besterik ez, aspaldiko asmoan, izkuntza oldozmenaren agiria dala ziñoena". "Oldozpen eta izkuntza alkaŕengandik aldendu ezin ditezken egi baten azpegi bi dira; onela giza-gogoak mundua atematen du. Eta oraindik gaŕantzidunagoa dan auxe: mundua atemateko era au, izkuntza batetik bestera aldatzen da; izkera bezenbat era, ikusteko. Linguistika'k ere irugaŕen irakaspen au ematen digu, gure arloa borobiltzeko bein-betikoa dana: mundua atemateko era bereizi auetaz ezin esan diteke, beren batzean, batzuk gorengoak eta beste batzuk bekoak dirala. Eta amaitzeko, nere irakurleentzat, naiz eta auek euzkaldunak izan, nabarmengaŕi oso edo izango dan beste irakaspen bat: aldin--erkatzeak egin ditezken izarian, ots, ein berezietzaz —batzuetan gaŕantzi aundienetako diranak— *ia beti, antziñakoak deitzen diran izkuntzak, gitxienen izkerak, izkelgiak, gorengoak agertzen dira*".

Aspaldiko izkuntzaen ikasketak egiten eta batez ere bere edatzeak azterkatzen, izkuntza oŕen iturburua aurki edo liteke, ta, apika, bai ta mintzoaren etorburua ere; izkuntza guztien auŕetik gizonen artean izan edo zan mintzoarena, ots, gizonek alkaŕi ulertzeko erabili edo zituzten lenengo eskuarte ta bideak. Ondorioz, Kondaira'ren auŕeko gertaerak. Ortxe be, alakotz, yakintza aldetik datorkigula, izkuntza guztien eusteko ta indartzeko beaŕa.



"Izkuntzaz aldatzea, gogoz aldatzea da"'la esan da, esan ere, Eŕi'ai buruz mintzatzean, gizonarekiko baño berezikiago. Noski, gizonarentzat zaĺa izango da oŕelaxe gertatzea, txikitan eta gaztetan eratzen zaion gogoa ez da eŕaz berarengan aldatuko, naiz eta beste izkuntza batera igaro, naiz eta beste kultura batean bere burua murgiltzen badu ere.

Eŕi batentzat, ordea, nai ta naiezkoa da aldatze ori, beaŕ-beaŕez egingo dana. Eskierki, izkuntza gogoaren bidea bada, gogo bakoitzak beŕea izanez, berarekin daramazki bere gogoaren azi ta bii bereziak, eta bidezkoa danez, auetxek erneraziko dute Eŕia'ren izakeran, baitezpadakotz eta eten gabe, berengandik sortu ta loratu beaŕ duena, bere gogoa bera. Asieran, Eŕi batean izkuntza beŕia sartzen asten danean, eiki, guda antzeko ta nasketa ere sortzen dira, izkuntza biei dagozkien gogoen artean; baña mintzaera beŕiak zaŕa menpera ta alboratzen badu, orobat onen gogoa; zaŕaren ordez, jaun eta jabe geratuko da Eŕi oŕen bizi ta izakeran. Auxe, ain zuzen ere, erdaldunak ditugun gure uri ta alderdietan oŕen argi gertatu dana. Egitan eta len esan dugun bezela, Eŕi baten bizia gogoarena baldin bada, azkenez, Eŕi zaŕa iĺa izango dugu, eta naiz eta lengo izenaz izendatuaŕen, izkuntza beŕiaz ari-izango dana, beste bat ere dala bayeztu beaŕ-izateko.

Beraz, izkuntzaz aldatu ezkero, ondorengoz, gogoa ere guztiz aldaturik ikusteko; eta gogoa aldatzeko, gogo beŕia izateko, auŕekoa ayendu ta suntziturik geratuko da, iĺa oso. Alakotz, Eŕi batentzat egokiago izango litzake onela esatea, obeto: Izkuntzaz aldatzea, Eŕia iltzea da.

Gero ta argiago ikusten da egi au eguzkipean, eta naiz eta Eŕi'en kulturaz Eŕi'en izkuntzaz baño geyago mintzatzen bada ere, Eŕi batentzat, bere kultura indaŕez eta bidegabekeriz zapal eta ezabatzen bada, "jenozidio" edo "Eŕi-erailketa" izen beŕiaz izendatzen dan ogentzat artzen da egun; "jenozidio", ots, Eŕi bat erailtzea. Eta oraindik erailketa ori itzez bakaŕik gaitzesten bada, uste-izatekoa dugu noizpait orixe eragozteko lege ta bideak eman eta idekiko dirala, gizon baten erailketarako jaŕiak dauden antzekoak.

Oso nabaria ta gero ta ezagunago, izkuntza bakoitzaren gaŕantzia. Guk geuk, eta Eŕi'ari buruz, bere bizia bere izkuntzan dagoela esango genuke; ezin ukatzekoa, gañera, izkuntza aldatzea Eŕi'aren iltzea baldin bada. Oŕengatik Eŕi batek bizi-izateko, bere izkuntzarena du bide beaŕezkoena.

Auxe Vendryes'taŕ J. jaunaren iritzia (esandako liburuan bertan - 320'gn. oŕialdean): "Gizarte-taldean, den dena ta uste diteken zabala

izan, izkuntza gaŕantzi aundieneko egin-eskuartea dugu. Aren atalak alkartzen dituen lokaŕi indartsuena da; bide batez alkartasunaren goiburu ta zaitzaĺea da. Ba ote dago taldearen izana tinkotzeko izkuntza baño eskuarte eraginkoŕagorik?".

Oso egokia dala deritzaigu Eŕi bakoitz eta guzientzat, oraintxe esan eta zabaldu dugun asmoan barna sakontzea. Eŕi'aren gogoarentzat izkuntza bidea dala esan dugu; eta orixe dala-ta, Eŕi'ak bere mintzoera *bidez* erabiĺi beaŕ-izango du. Bere oldozkun izan eta jakinerazteko, bere asmoak azaltzeko, bere naimenak adierazteko, bere gogoarekiko dagozkion agerpen guziak erakusteko, bere izkuntza erabiĺi beaŕ-izango du zabal-zabalean, eta zabal bezin luze ta sakon.

Ez da naikoa izango Eŕi batentzat, bere mintzoera gai bat bezela bakaŕik erabiltzea; ots, ikasteko dan gai bat beste gai guztien artean; orixe utzaren uŕengoa izango litzake. Eiki, oŕela, gai bat bezela artu ezkero elitzake Eŕi'aren bizi guzira edatuko; beste gayetan gertatzen danez, giza-talde baten arloan zedaŕiturik ikusiko genuke.

Ez dugu, iñola ere, ezestuko, gure izkuntza, beste edozein bezela, ikasteko gaiaz erabiltzen bada, ortan ikusi beaŕ dan gaŕantzi aundia; baña gure Eŕi'aren bizirako ez dugu oŕezaz naikoa izango. Gurean eta beste Eŕi'etan, mintzoera bakoitzak gogoarekiko bazteŕ guzietara eldu beaŕ du, bizia emateko eragin beaŕ duen biotz indartsu batek egozten duen odolaren antzera; indaŕ aundienaz, mutuŕ guzietaraño, uŕutikoeneraño ere; Eŕi'aren soin osoan ziŕikiturik eta iŕiñarterik utzi gabe, zabaldu arte, Eŕia bezela zirkin eta zantzu txikiena, esandako bidearen barnean egin eta eman arte.

Oŕa xede ta elburu edeŕak gurea bezela dagoen edozein Eŕi'arentzat. Oŕa gizadiarenak ere izan beaŕ-izango lirakenak; Eŕi guztien eskubideai eusteko ta bide batez gizadiari berari dagokion bizia eraman eta indartzeko. Len aipatu dugun Naert'taŕ Kepa jaunaren idazlanean, amerikaŕa izan zan aipu aundiko izkuntzalari onenaz mintzatzen da: Lee Whorf'taŕ Benjamín, 1897'gaŕenean jaio ta 1941'gaŕenean il zana. Yakintsu onen lan batzuk, bera il ondoren argitaratu omen dira, "Mintzoera, oldozkun eta egitasun" idazpuruz. Bertan auxe esaten omen du: "Ludi'an edozein izkuntza bakaŕa itzegiteko amets egin dutenek, giza-gogoaren eratoŕera galeraziko lukete neuŕi aundienean".

Gero Naert jaunak onelaxe jaŕaitzen du bere kabuz: "Eŕi txikien izkuntzaen iltzeaz, gizadiak ez du ezertxo ere irabazten; osterantzean, ortxe guzia izango du galtzeko" "Gaurko izkuntzaen aindoa gutxituko



balitz, eta "aundiak" deitzen diranak soiĺik geratuko balira, giza-oldozmenaren gogortasunera elduko giñake; ergelkeria antolatzea izango litzake". Gure izkuntzari buruz mintzatzen, onela jaŕaitzen du: "Giza-oldozmena ez da ezer auŕeratzen, euzkaldun batek bere izkuntza utzi ta espanñera edo parantzera artzen duenean; aitzitik, edonork euzkera ikasten duenean edo euzkaldun batek oldozkun beŕiak euzkeraz adierazteko lan dagienean, giza-oldozmenak auŕeruntz dagi uŕats eraginkoŕa". "Izugaŕizko kaisarkeriak zematzen du Ludi'ko kultura, eta oŕen aurka auxe sendakai bakaŕa: jatoŕizko kulturak oindiño adierazten dituzten Eŕi'en buru-egitea". Eta onelaxe amaitzen du: "Gogoa il ez dedin, euzkerak beti bizi beaŕ du".

Yakintsu oŕek euzkerarekiko diñoena, Ludi'ko izkuntza guziai buruz berdin esan diteke: Eŕi bat il ez dedin, bere izkuntzak bizi beaŕ du, bizi oparotsuenaz gañera; mintzoeraren bizia Eŕi'aren bizi-neuŕia izango baita.

Beste aldetik ere: Bere luŕean eta bere izkuntzaz azitako Eŕia, ez ote da elertirako ta erti guztietarako, bai ta danetarako ere, zitu onenak eman ditzaken gogo-okuntza berezienetakoa, mintegi emankoŕena?

Ludi guziko mintzoerak, berez, eta ainbeste Eŕi'en gogoak eusten, zaintzen eta iraunerazten dituztenezkero, gizadiaren aberastasun aundienetakoak dira, gizadiaren bizi-aberastasuna. Oŕela ikusi beaŕ izango lirake, guziak ere, nunai ta edonork ontzat arturik. Eta gizadiaren aberastasuna izanik, zurea ta nerea ere, beste guztienak bezela; beraz, bat ere ezetsi gabe, alkaŕen laguntzean ari beaŕ-izango lirake oro. Ortan edo oaŕerazi liteke gizonen artean bizi-bizirik ikusi beaŕ-izango litzaken anaitasunerako bide egoki ta berebizikoa; alakotz gizadiaren pakeari indaŕ berezi ta aundiago eman lizaiokena bezela artzeko.

Gero ta aundiago agertzen da, begiratu nai duenarentzat, izkuntzaren gaŕantzia, eta len ondo ikusten ez zan edozein egiaren auŕean, noizpait argi azaltzen zaigun antzera, ontan ere, gaur, aŕigaŕia iruditu beaŕ mintzoeraren arloa aspaldian oŕela arturik ez izatea. Alaz ere, ta aren sakontasun osoaz baldin ezpazan·be, zeredozer atematen zuten aspaldiko auŕekoek. Ontzat artzen zan orduan, Eŕi batek beste bat zapaltzea ta jopu bezela erabiltzea, ortarako emengo naiz ango zioa edo aitzakia oñaŕiz jartzen zanean. Eta oŕelakoetan Eŕi menperatzaiĺeak besteari, bere izkuntza artu eragiten zion indaŕez, zapaltzaĺearen agintaritza egokiro ta gogoŕago bestearen gain jaŕi ta edatzeko; noski, oŕela jokatzean, askotan, besteari ona egiten ziolakoan; baña, oartzeke, gaurko "jenozidioa" ongienik burutzen zutela.

Gure asabak —edo nork?—, antziña-antziñean —noiz?—, izkuntza artu zuten, besteengandik beren burua bereixteko; eŕitaŕai, euzkaldunak (euzkera dutenak) deitu zieten; beste gizaseme guziai, erdaldunak (erdera dutenak). Mintzoeran, ots, gogo-izarian, ikusi zuten aiek gizonen arteko berezkundea egiteko zioa; izkuntzari gaŕantzi osoa ematen.

Ikasgai guztietan, gaur, auŕerapenak egiñak ditugu; arazo guztietan gero ta ertsiago azterkatzen da. Eta izkuntzari buruz ez da gutxi auŕeratu dana; izkuntza bera ikastean eta izkuntzak gizonarentzako duen gaŕantziaz; batez ere gizonek, alkarturik, Eŕi'ak osotzen dituztenean.

Eŕia ere, gizadiak berak sortutako izaki bat bezela artzen da, jopu izateko asmoa be zearo baztertu naiean. Eta margo guziko Eŕi'ak azkatasunera eltzen diranean, beren gogoari arauz jokatzen ari dira, lenengo uŕatsetan norberaren izkuntza aintzakotzat artzean.

Trinkili-trankala, auŕeruntz doa gizadia, orain arte ontzat artzen ziran indarkeriak, askotan indarkeri bezela ikusten ez ziranak ere, baztertzean. Egia da beste indarkeri beŕiak sortzen zaizkigula, baña alaz ere, auŕeruntz goazela deritzaigu.

Kultura ta izkuntzai buruz batik bat, alde guztietan onartzen da Eŕi guzienak eutsi ta gordetzea; ez noski, beaŕ-izango litzaken beren osotasunean, baña bide on batetik asi ezkero, elburu egokieneraño elduko gerala uste-izan beaŕ, batez ere, Eŕi guziak, aundi ta txikiak, bakoitzak berarena gero ta geyago maite duelako, norberarentzat bizi-izateko beaŕ-beaŕena dala ikusirik.

Zabalera doan aldaketa ori, sakonera ere edatu beaŕ-izango da, auzia bere osotasunean ikusi ta erabiltzeko; onela geron ustez; Eŕi batek, bizi al-izateko, bere izakeraren zeaŕ ari beaŕ-izango du; bere izakera ori, gogoari dagokion maĺean bereziki edatzekoa da; beraz, gogoaren arazo ta arlo guztietan beaŕa zaien bidean barna, buruz eta biotzez ibili beaŕ; eta azkenez, bide ori, guzientzat berbera dana, izkuntza, bakoitzaren norberarena, erabiltzean.

Yarei izan beaŕ-izango litzake onezkero Ludi'ko Eŕi txikiena ere, bere auzi gogoŕ onekiko, beste Eŕi guztiak bezela, ta guzientzako berdiña dan eraz, erabakitzeko. Jakiña, ezin, iñola ere, itz auetan ulertzeko, Eŕi bakoitza bere mugaen barnean bakaŕ-bakaŕik bizi dediĺa, antzu izango litzaken bakartasunean; ezin aiztu, Eŕi guztiek ere alkaŕenganako adeiez eta alkaŕen artean euki beaŕ dituzten aŕemanetan yardun beaŕ dutela; ta ortarako, danak edo geyenak, beste izkuntza bat erabiĺi beaŕ-izango dutela. Ez da, bearkizun ortarako, esaten ari geran Eŕi bakoitzarena eragozpenik izan beaŕ; biak ongi betetzekoak dirala-ta. Aski izango litzake Eŕi guzien artean sor ditezken aŕemanetarako mintzoera bakaŕ bat aukeratzea; bat edo beste, emengo naiz angoa, berdin guretzat. Oŕela Eŕi guzietan bidea bera bearkizun biak betetzeko: izkuntza bi jakitea, norberarena ta Ludi'arena.



Esperanto edo bera bezelako beste izkuntza beŕiaren asmoak ez bide ditu jaŕaitzale asko iritxi. Beste bideŕik edo doa egun Ludi osorako mintzoera bat jartzeko beaŕa betetzekoa; gaur eguzkipean geyen mintzatzen diran lau edo bost izkuntzaen artean bat aukeratzea, Eŕi bakoitzak berea ere gordetzean. Beraz, elebitza agertzen da, oŕelaxe atondua, guztien beaŕa ta bakoitzaren berezitasuna onartzeko, ta, bide batez, gizaseme guztien arteko aŕemanetan eŕaztasun egokia izan dedin. Gure gogarako asmoa.

Ba-dakigu, gauza bat dala mintzatzea ta beste bat egitea; eta jakin ere, ba-dakigu eragozpen aundiak daudela gaur oŕaraño laisteŕ eltzeko. Baña, geron gardiz, elburu egoki bat bezela begira dezakegu, ta oŕenganuntz abiatzea dagokigu; bakoitza al diteken bezin ongi ta gartsuki.

Edonola, jakin, ikusi ta aztertu beaŕ dira guzion beaŕak, eta korapiĺo guztiak askatzeko gerturik izan, norberak egin ditzaken alegiñak betetzean. Eta beaŕ guztien artean, gogoari dagozkionak lenengoak izateko beti.

## IV.—Euzkaleŕi'arentzat, bere gogo ta izakera edatu ta zabaltzeko, ba-dago berarena dan bide berezia: *Euzkera*, bere izkuntza.

Euzkera dugu, bai, euzkaldunok, gure izkuntza; Euzkaleŕi'aren mintzoera, Euzkadi gure abeŕiaren gogo berezia bizierazten duen mintzaira indartsua. Orixe, enurarik gabe, gure Eŕi'aren izakerak zabaltzeko duen bide egokiena, edatu al-izateko bide bakaŕa. Eta bide ortaz landa, gogo ta izakera, zearo bidekaturik, ez izatera joango dira, Eŕia eriotzara eramaten; ortan amaituko bailirake gogo, izakera ta Eŕi osoa.

Eŕi guztientzat lege orokaŕa dugu auŕeko atalean azaldu duguna: norberaren gogoarekiko, bakoitzaren izkuntza zaion beaŕa. Lege oŕen barnean dago Euzkaleŕia ere; Eŕi bat izanik, beste Eŕi'entzako neuŕian berean. Baña egi utsa dan bayetza ortan asi-ta, asmoa guregan barneratzen eta gure baitan sakontzen baldin badugu, mila bideŕ margo biziagoaz ikus dezakegu lege ori gurean, euzkerari berari eskeŕ.

Zer da Euzkaleŕia, euzkera duen Eŕia baño? Nortzuk gera euzkaldunok, euzkera dugunok baizik? Eta Euzkaleŕia ta euzkaldunak euzkera darabiltenak baldin badira, bidezkoa izan beaŕ, onen semeak bezela artu ta eukitzea; beraz, gu geu eta gure Eŕi osoa baño lenagokoa dugu. Eta azken bayetza au yakintzaren aldetik eusteko gai eŕaza baldin espalitz ere, argi baño argiagoa da, euzkerak, naiz gure Eŕi'ari naiz geroni, "izena" eman digula; eta oso aspaldiko noizpaidanik, bederen, ezin ukatu euzkaldunak, jayotzean, beren burua euzkerarekin alkarturik aurkitzen zutela.

Izena, Euzkaleŕia dan Eŕi'ari, Eŕi onen semea dan euzkaldun gizonari, eta Eŕi ta gizon auei dagozkien asierazko izaki guziai. Ortxe ditugu tokien izenak, euzkeraz egiñak, Eŕi'aren zabalera osoan; ortxe, abere, txori, aŕain, pizti ta zomoŕo ezagunenak; ona, abesti, oiturak eta langintzaenak; oŕa, esakerak, atsotitzak; ara, elizti sakona ta elerti berezia; noranai ere, Eŕi-bizia dan guzia, euzkeraz okitua.

Mendez-mende, euzkerak eman dio Eŕi'ari bizia; onen gogoarekin ertsiki alkarturik, gogo ta izkuntza batasun berezia osotzen duten zati

anai bi bezela, indartsuago agertzen zaigu gure mintzoera, egun beñepein, eta beti geron uztez, gogoari eusten diolarik.

Aspaldiko galdera zal̃a: zein lenago, gure Er̃i'aren gogoa ala euzkera; auxe arek egiña ote, ala axe onek eratua? Gure aber̃iaren gogoa "euzkal-gogoa" dala-ta, euzkera lendabizi izan zala bayeztea bidezko; ala ere asiera-auzi ori argitzeko ardura gutxi guregan gaur; beste egi aundi au dugu aski ta naiko: aspaldidanik eta gure aldi ontan ere oraindiño, euzkera da gure euzkal-gogoari eusten diona, ta euzkera dugu, gañera, gure gogo or̃i eutsi dizaioken bide ta indar̃ bakar̃a.

Auxe dugu euzkaldunok, euzkal-abertzaleok batik bat, begi ta biotz aur̃ean, une orotan euki bear̃ dugun egia, egi aundia, egi sakona, ondore bear̃ezkoena, geron Er̃ia maite badugu ta bere bizia zaintzeko gerturik baldin bagera. Baitezpadako arloa; gure Er̃i'arentzat euzkera izan bear̃, bide, lankai, laguntza, bearkizun, eusle, indar̃ eta bizierazle. Beste Er̃i-entzat beren izkuntza bezelaxe, gutxienik, eta emen adierazi nai dugunez, bai ta izari berezi ta sakonagoan ere.

Noraezekoa zaigu gure sorter̃iaren auzia beste Er̃i'ekiko galga berean ikusi ta kokatzea. Beste Er̃i'enganako Euzkaler̃ia ta beste gizonenganako euzkalduna, gizadian anayak izanik, ezin eska ditzakegu guretzat, besteak ari diran mal̃ak baño goragokoak. Ez dugu izan nai beste iñor baño geyago; izari berean bai, jar̃i ta ibil̃i nai dugu, gure bizia aur̃era eraman al-izateko, eskubidea baitugu ortarako; ta or̃ela, beste gizonentzat, beste anayentzat, gure Er̃i'aren semeak askoz onurakor̃ago izango diralakoan eskier̃ gaudelako.

Er̃az, bigun eta egoki edatu zan euzkera gurean, euzkal-izena artu zuen guzian barna. Apika, onela adieraziko genuke asmo au obeto: Gure Er̃i'aren gogoa, euzkeraren bidez zabaldu zan, arek sortu ta onek izendatu zuen guziaren izaeran, ots, euzkal-bizi osoan. Berez, noski, ta bidezko ondorioaz, er̃azki, legun eta bear̃ez. Zergatik ez ote zuen jar̃aitu gure Er̃i'ak asitako bidearen zear̃. Zer dala-ta, beste norabideetan abiatu?

Ausaz, gurean, beste alderdietan ere jazotakoa gertatu zan. Gizadiaren adimena, yakintza erabiltzeaz, aur̃eratzen asi zanean, latera zegoen nunai nagusi. Ba-zirudien beraren landa giza-adimenari edatzerik eziña zitzaiola; eta Eliza'ren izkuntza zalarik, or̃a besteak aintzakotzat ez artzeko beste oñar̃ia. Gero, noizpait, ezeztutako izkuntzak beren burua jasoten asi ziranean, eta yakintzarako gaietan sartzerakoan, ipar̃ eta egoaldetik sortu zitzaizkion euzkerari beste izkuntza bi, berarenganako lengo lateraren egikera beraz, eta indartsuago gañera; eta gure izkuntza, gero



ta beartuago, landa ta lar̃e guztiak uzten ari da, eriotzera doan bidean.

So-egin dizaiogun sorter̃iaren egoaldeari; bertakoak odolez "euzkotar̃ak" baldin badira ere, aspaldidanik "euzkaldunak" (itz onen zentzun bereziaz) ez izatean, "erdal-er̃i" biurtu digute alderdi ura; an "Euzkal-Er̃ia" il̃a da, eta angoak, izkuntza ber̃iaz, beren gogoa ere aldatu dute.

Europa'n bizi diran gaurko kultura-izkuntzak, len laterak jar̃itako kateak eten egin bear̃-izan zituzten, eta beren bideetan barna abiatu, gaur dauden gal̃ur̃eraño eltzeko, bear̃ezkoa izan zitzaienez. Argi dugu jokera ortan, adibidea guretzat; bizi-izateko ta aur̃eruntz ibil̃i al-izateko, euzkerak orobat egin bear̃. Or̃a guzientzako dugun beste lege orokar̃a, gurean ere bete egin bear̃ dana.

Len, Europa'n, ikastunen izkuntza latera zanean, kultura bat bakar̃ik zegoela esan genezake; gero, ikastunak latera utzi ta norberak bere Er̃i'aren izkuntza yakintza guzirako, bidez, artu zuenean, ara nun sortu ziran Europa'n barna, mintzoera ikasita ainbat kultura, izkuntza bakoitzak duen indar̃a dala kari. Etzan erabil̃i gurea yakintza ta irakasketarako, ta maldaz bera pulunpatu zan, suntzitzeko bide ertsian, nai ta naiezkoan.

Gero ta gogor̃ago kate aiek gure Er̃i'arentzat. Beren estunak areagotzen dira egunean-egunean, bai ta estuago ere biurtzen, gure bizia zal̃ago egiten, geron sorter̃ia il̃obira bultzatzen, beruntz beti, iltzer dagoaneko. Nola ta nundik aterako dugu, euzkaldunok, kate erail̃e oiek austeko indar̃a? Zelan ari bear̃? Ez dago emen ezmezean geratzeko aiko-maikorik; euzkera bide bakar̃a dugularik, beraren alde jokatzean etsaiai bipilki buru-egiten; lenbailen yarduteko, gero ta kemenago ari-izateko, gero ta kartsuago ekiteko.

Orixe dugu sorter̃iarentzako bide egokiena, bide bakar̃a era berean. Ez dago, gañera, ontan, gauza ber̃irik ikusi bear̃, Er̃i guzietan orobat ikustekoa baño. Er̃i bakoitzak bere izkuntza du berarentzat bide dana. Ez dugu, onengatik, eskatzen gure Er̃i'arentzat, besteai ukatzen dieguna, iñundik ere or̃elako asmorik; osterantzean, Er̃i guzientzat orokar̃a dan bidea bera eskatzen dugu Euzkadi'rentzat ere, Ludi'ko guztien artean, geu be, ororen galgan bizi aal-izateko.

Ain zuzen, Mundu'an or̃en bear̃a dan pakeak, ba-liteke, ortan, Er̃i guzientzako jar̃i bear̃ litzaken izari berezi batean izateko asiera. Guziak, naiz aundi naiz txiki, ontzat artu ta beren esku izateko duten eskubidea bear̃ dan bezela babestu. Ez iraizean artzeko eskubide au, gero, bere sakontasunean baizik. Asko mintzatu da Ludi'an gizonaren eskubideakaz, askoz gutxiago Er̃i'enakaz; eta izari berberakoak ditugu biak, Er̃ia ja-

toŕizko gizonen alkartasun bidezkoa baita, gizon oiek bereziki burutzen baitute gogo bateko alkartasuna.

Eŕi batean izatearena sendoki nabarierazteko, aren gogoa izan beaŕ da neuŕia. Noski, gogo oŕek ematen dio bere Eŕi'ari bere izatearen berezitasuna, beste Eŕi'engandik ezagungaŕi; eta gogo berezi oŕen gabe ez dago Eŕi'rik; oŕela geratuko zana, iĺa izango genuke, gizagorpuaren antzeko.

Zer da, ordea, Eŕi'aren gogoa? Nola azalduko dugu oŕen izatea? Ez da, alegia, gauza eŕaza, arpegiko begientzat mukulurik ezpaita. Onela adieraziko genuke, geuk, Eŕi'aren gogoa zer dan:

Gaiezkoa ez dan *zerbait*. Ona emen *zerbait* ori nola agertzen zaigun: *Izaeraz, Egiteko* ta *Ekiteko eraz*. Eta *era* ori, Eŕi bat osotzen duten gizon geyenengan izari orobatsuan agertzen dalarik. Esate baterako: Euzkeraz, "ALKAR" itzaren bidez, *zentzun* berezi bat sortu duen "euzkal--gogoa". Alkartasunaren asmoa adierazteko, "alkaŕ" itza sortu zan euzkal-gogoarengandik: Nik zu ikusten zaitut, eta bide batez Zuk ni ikusten nauzu = Zuk eta Biok "alkaŕ" ikusten dugu; "alkaŕ" besteren bat izango balitz bezela; Zuk eta Biok *aita* ikusten dugun antzera. Oŕa euzkal-gogoak euskeraren bidez eman duen gogai berezi bat, bere-berea dana.

Beraz, iĺa ez dagoen Eŕi batengan, bere gogoa bizi ta ari da, naiz ez den gaiezkoa, naiz ez den ikusia. Beste azpegian, izkuntzaren landa agertzen dan egipen au erakutsi dezakegu euzkaldunok, gure gogoak ere eman eta eusten duena. Miĺaka ta miĺaka erbesteratu zaizkigu aberkideak, beren bizia auŕera eramateko asmoz Ludi zabalean. Beren osotasunean eta gutxi gorabera, onbide ta txarbide berberak ageŕerazi dituzte bazteŕetan, eta oŕengatik oso ezagunak ditugu nunai. Elitzake oŕelakorik gertatuko, guzti oiek sortu dituen Eŕia bizi-izango ezpalitz, eta onen bizian bere gogoak lan egiten yardungo ezpalu, Eŕi'aren semeengan bere ikuŕ sakona gogoŕ ezartzen.

Auŕerago joan beaŕ dugu asmo onezaz. Eŕi batengan —oraintxe esan dugu— bere gogoa dugu lanean, aren semeak eratzen. Oŕatiño, eratze ori beste Eŕi'engandik bereizteko bakaŕik izango balitz, bost ajola gogo ura izan ala ez izateagatik. Baña bere gogoa oso beaŕa ta ezinbestekoa du Eŕi bakoitzak, bizi al-izateko. Eta geyago oindiño; bere berebiziko gogoak Eŕi baten semeak artezten ezpaditu, seme auek ez dute, geyenek beintzat, eman al-izango berengandik, Eŕi'aren gogoaren bidez



eman lezaketen zitu bera; seme oiek gitxituta geratuko dira, eŕi bezela, ta berak osotzen duten Eŕia gitxituago.

Asmo au dala bide, askotan erabiĺi dugu geron baitan ayeru au: Zer nolakoa izango litzake erdiko euzkalduna, bere bizi guzian, eguneroko beaŕetan, ikasketa guzietan, bere gogoetan eta inguratuko luken gogo-eguratsa guzia euzkaldun ere osoro izanik, ots, euzkal-gogoan jayo, bizi ta iraun izango balitz? Oŕa galdera, eta berarentzako erantzuna orain bizi geranok iñoiz bizi ontan ez dugu jakin al-izango. Bai, ordea, sumatu, beretzat eta bere Eŕi'arentzat ere, etekin geyago, zitu obeak utziko litukela; bere bizi guzian oztopo gabeko ekintza berean eta, batez ere, bere gogoari egoki ta bidezkoa izango litzaioken bide berezi ta onuragaŕian ari-izango litzakelako.

Oŕa amaika zio, egokitasun eta beaŕ ertsi aunitz dirala kari, Euzkaleŕi'ak, Euzkadi'n jayo geran guziak, gure Eŕi'aren biziari buruz euzkeraren arazoa buru-belaŕi artu beaŕ dugula ikusteko; bizi ori eutsi ta indartu ta auŕera eraman dezakegun, bide berezi ta ezinbestekoa dalako. Eziña beste biderik xede ortarako; alegia, beste gogo-bide guziak, beste mintzoerak izango lituzketenak, danak eta bakoitzak, beren baitan daramaten gogoaz, gurea itoko lukete, berena jartzeko. Ontan ez dago erdizka ari-izaterik; Eŕi batek, gizon batek bezela, gogo bakaŕa du, ezin biekin bizi; eta iñoiz, gurean legez, bi gogo ez berdiñak alkaŕenganako gudan sartzen badira, bide ta izkiĺu indartsuenak, ots, izkuntza altsuena izango duena, garaiĺe aterako da beti, enurarik gabe.

Egi argi ta garbi au ikusteko, ez da Salamanka'ra ez eta Oxford'era ere ikasteko joan beaŕik, itsuenak ere, lañorik gabe ta bereala, nabaritzeko baita. Aŕigaŕia dugu gure auŕekoek auzi sakon au oŕela ez ikustea; aŕigaŕiago, Ludi'ko gizalagun guztiak, bat ere oldoztu gabe, beren mintzairaganako izan duten maitasuna bera, gure asabaengan, berena zan euzkerarenganako, oŕela, berez, ez sortzea; eta auengaŕia, bere izkuntza, bere gogoari eusten zion mintzaira edeŕenetakoa uzteko izan zuten eŕaztasuna; ura ergeltasun izugaŕia!

Baña aiei, ez jakiñean, guk nai-izango genukean bezela yarduteko —lentxoago esan dugu—, berez sortu beaŕ-izango zitzaiekean, euzkerarenganako lera bizia, maitasun gotoŕa. Alan eta guztiz be, gaur, auzia bere zabalera ta sakonera guzian ikusten dugunean, oŕelaxe, euzkera sorteŕiarentzat bizi ta bide dala aitortzen dugunean, uraxe bera gertatzen da gutaŕen artean; geyenak, beren burua abertzale sutsutzat daukatenak ere, lengoen antzeko jokatzen dute. Aspaldikoek ez egitea aŕigaŕia ba-

zan, oraingoen jokera bera zearo txunditzekoa dugu. Nun aurkituko genituzke jokera oŕen azalpena izango liraken zio berezi ta bidezkoak?, geron arpegiak lotsagaŕizko margoaz goŕi-goŕi ez ditezen?

Larogei urte baño geyago dira gizon mazal, zoli azkutsu ta bere burua zearo ukatu zuenak, bere ta gure Eŕia esnarazi zuela; mende erdi oso luzea, guregan argi distiratsua piztu ta zeaŕetara zabaldu zanetik ..., eta sorayokeria nagusi, oraindiño be, gure artean; guda ikaragaŕienetakoan miľaka gazte ta zaŕ, to ta no, abeŕiaren alde beren odol guzia, beren bizia eman da gero ..., gogo-bizia lotara beŕiz abiatzeko edo, euskal-bazteŕetan. Ba-dirudi beste Arana Goiri bat, beaŕa dan bezela zabarkeri guziak gogoŕ astintzeko, beŕiro sortzea noraezekoa dala.

Ez da izan, gurean, Arana Goiri, gure auzia ikusi duen bakaŕa ez eta lenengoa ere. Bera baño lenago, eta bera bezin argi izan ezpadira ere, beste batzuk izan ditugu, auzia nolabait bederen ikusi zutenak. Ona emen 1767 ta 1845 urteen artean bizi-izan zan Iztueta'taŕ Juan Ignazio euzkal-idazle ospetsuak uste zuena, arestian atera dan "Historia de la Literatura Vasca" liburuko 248'gn. oŕialdean, oŕen egiľea dan Villasante aitak diñoenez: "Euskal-bizian guztiz murgildurik bizi zan euskaldunaren susmo zoŕotzaz, auxe: Fueroak gorde nai baldin bazan, ortarako euskera eutsi ta indartzea bide onena zala idatzi zuen; arean, bera baño yakintsuagoak ziranek ikusten ez zutena".

Eta onela jaŕaitzen du Villasante aitak esandako bere liburuaren 250'gn. oŕialdean: "Iztueta'k bere oiturazko senaz, untzea nun dagoen erakusten du emen. Enurarik ez, alegia, Euskaleŕi'aren gaitz aundiena ta eŕotiko okeŕa, ontan dagoela ain zuzen: ez kulturadun euskal-gizataldeŕik ez eta euskerazko kulturarik ere, iñoiz soŕerazi ez dala; oŕela, gaztelera (edo parantzera) kultura ta irakaskintzarako bidea izan da. Ortik kulturadunen uŕutiratze ta uztea, eta azkenez eŕiak berak, kultura ta irakaskintzaren onuradun bere burua egiten ari dan neuŕiaren arauz, orobat egitea".

Aieneka ari gera, nai ezezik ere, oŕen barnetik sortzen baitzaizkigu deadaŕka aŕi-izateko gogoak. Ala ere, aienekaz ez da iñun ezer zuzentzen, alpeŕikakoak ditugu osoro. Lengo asmotara jo beaŕ dugu beraz, beŕiz ere, gure Eŕi'aren beaŕa azaltzen eta bidezkoak ditugun osagaŕiak biľa ta azterkatzen.

Jaŕi dezagun atal onen amayera bezela, beraren zeaŕ esan duguna, itz labuŕ egoki batzuetan bildurik, aanzgaŕizkoa izan ez dedin oñaŕi sendo ta gotoŕ baten antzo.



Gure Eŕia, gure abeŕia, il-zorian izanik ere, gaizkatu diteke; ortarako nai-izatea du beaŕa, bere burua gaizkatzeko nai sendoa. Egiazko naia sortu ezkero, ba-du, izan ere, bidea, bere eskuetan dagoen bidea, bere naiak eŕaza egin dezaken eskuartea; ez du sorteŕiak kanpora joan beaŕik osagaiaren biľa; ez dago osagaŕi bat baño, ta bera Eŕi'arengan bertan dago; itz batez esanda, *euzkera* da bide, eskuarte ta osagaŕi ori, ez dago besterik. Eta eŕiketa, gizartekoa ta egiteko beste gorabera guzi-guziak ere, euzkera aupatzekoak izan beaŕ; ez, noski, beŕiro esan beaŕ, gure izkuntza dalako, orixe be naikoa izanaŕen; gure Eŕi'aren gogoari eusteko, ots, gure, abeŕiaren bizia gorde ta indartzeko, bera bide bakaŕa ta baitezpadakoa dalako baño. Labuŕago, auxe esan genezake: Euzkaleri'aren bizia euzkeragan dugu kokaturik, eutsirik, landare batena bere azian dagoen bezela; azia ernetzen eta zabaltzen ezpada, ez dago bizi-izango dan landarerik.

## V.—Euzkeraren *alde* ta *aurkakoak.*

Aufeko atalean esan dudanez, euzkera dugu euzkal-gogoa edatzeko bide berezi ta bakafa; Euzkalefi'an bizia, arean, euzkal-bizia, euzkeragan kokaturik daukagula. Aundia, beraz, euzkeraren gafantzia euzkaldunontzat, gure gogo-bizirako, alegia.

Asko mintzatu da, ta mintzatzen eta mintzatuko ere euzkerari buruz; onerako, gaitzesterako; jauresteko aña batzuetan, zearo ufuñatzeko besteetan; danetara izan dugu aspaldidanik, eta gure egun auetan ere ez bide dira amaitu, alde ta aurka ari beaf diranak. Zer dauka gure euzkera onek, ofen gogorki gañera, alde ta aurkako adiskide ta etsai soferazteko?; gotofak izaten baitira euzkerarekiko, sutsu ta askotan alkafen aufezko, irizpideak artzen dituztenak. Baña guziak, nai ala nai ez, euzkerak beste izkuntzak ez edo duten zertxobait berezia ba-duela, batera ta nabariki adierazten dute; bere berezitasuna, beraganako erakarmena ala beragandiko ukagafia dan zerbait, ...; euzkeraren ezkutapena. Ez bide digu azaldu nai nundik datofen; ez eta nun, noiz eta nola sortu zanik ere; ez zaio efaz igartzen nola lortu duen gaur arte irautea, nola ito ez dan alde guztietatik inguratzen duten mota guzietako erderaen itxaso zabalean; ez bide digu esango bizi ala il beaf ote dan, eta bizi ezkero, noruntz abiatuko dan ere. Ba-du, bai, gure izkuntza onek bere baitan, geuk ere, euzkaldunok eta euzkaltzale geranok, atsiki ezin dezakegun bere ezkutapena.

Baña zergatik, euzkera dala-ta, ofen gogorki alde ta aurka jokatu beaf? Zergatik ez joan, zentzunez, gurbil, erdiko bidetik, beste edonolako izkuntza bat bezela erabiltzeko? Izan ere, egoki, bidezko ta txalogafia da, euzkerarenganako maitasuna euzkaldunen biotzetan gartsu bizi-izatea; au ezpaita, gero, beste izkuntzaenganako eguzpikean beti ikusi ta ikusten dana baño. Nor txunditu amarenganako maitasuna semearengan ikusteaz? Ez ote da nolabaiteko ama ere, mintzoera, itzegiten duenarentzat? Norberaren izkuntzarenganako maitasuna, alegia, erdiko bidean dugu; eta ala ere, euzkera maite dugun euzkaldunok erotzat gauz-

kate bazteŕetan. Gelgaŕi ta aŕigaŕi: euzkaldunen artean ere!; gure lagunarte txiki ontan, danetara ikusi beaŕ baita.

Amaikatxo irizpide ta aburu entzun eta irakuŕita, ba-dirudi ez dagoela euzkerarentzat erdiko biderik, zentzunezko jokabiderik; goitik ala bealdetik, oso goi ta be gañera, ibiĺi beaŕ da euzkerari buruz nolabait ari-izan ezkero. Euzkaldunok, bakantxoak bide gera, iritziak geron baitan moldatzean; eta bein iritzi baten jabe, edo, obe apika, iritzi baten meneko geron burua eginda, aguŕ lagun, ortxe amaya, ez dago besterik..., setatiak izatean be mutiĺak baikera. Ez zaigu, ez, oso eŕaz izango euzkeraren auzia erdiko bidera ekartzea, gerok ere ostopo gogoŕak izango gera-ta.

Alde ibiĺitako gutaŕen artean, Laŕamendi'taŕ Imanol, yosulagun gipuzkoaŕa dugu lendabizi, nabarienen artean bederik. Apaiz ospetsu au, beraren aldian gure mintzoera ezesten ari-izan ziran Mayans eta Armesto jaunen aurka bipilki jeiki zan adorez beterik. Eta auentzat nazkagaŕia zan guzia, aupa ta goratu egin zuen arek, euzkeraren onbide ta almena goienetarano jasotzen. Eta bere aburua guztien auŕean egiztatzeko bere elizti ta iztegia atondu zituen; au iru izkuntzetan (euzkeraz, españeraz eta lateraz) eta ura izenpuru onezaz: "Eziña menperatua". Izen onek ematen digu, berez eta argi, aldi artan ere (XVIII'gn. mendean) euzkerarenganako orokaŕa zan iritzia: "eziña".

Gure artekoa dugu, ukan be, XIX'gn. mendean Astarloa'taŕ Paulo ere, durangoaŕa. Onen ustea, berebat, berezia da, berarena bakaŕik ez izanaŕen. Apaiz onentzat euzkera Ludi'an mintzatutako lenengo izkuntza da; ta ez itzorkuna bakaŕik, izkien esanaia ere azterkatzen ari-izan zan, itzen zentzunetik aterata. "Ikastola" egin bide zuen eta ez dira gutxi ikastola ortakoak bezela agertzen zaizkigunak.

Polita baita, esatekoa dugu, aren ikasletzako aŕ dezakegun beste apaiz baten iritzia; durangoaŕa bera ere, Belauste'taŕ Pantzeska jauna, amaika paper-oŕi idatzita zeuzkana, bere asmoari buruz beztuak; argitaratu nai bide zuen bere lan guzia, baña guk dakigunez ez zuen lortu bere gurari ori beterik ikusi. Apaiz oso on onentzat, ez zegoen ezpairik; euzkera izan zan Yainkoa'k gure lenengo arbasoai itzegin zien mintzoera; egibide ta argibide asko zerabilzkien bere aburuaren alde. Nere etxean orduak xautu zituen onezaz mintzatzen eta, alegia, begikoa baitzan bera, ziñoena entzuten egotea oso atsegiñ zitzaidan. Ezin berak esandako guztia gogoratu, orduan entzundakoa idaztea buruak eman ezpaitzidan; baña guzietatik gatza darion zeatz au ez zait iñoiz aiztu:



Bere ustaŕia benetan egiztatzeko, edestiak, edesti doneak ain zuzen, korapiĺo edeŕ bat aurkezten zion: Noski, euzkera Yainkoa'k gure lendabiziko gurasoai itzegin zien mintzaira baldin bazan, axe eskierki Ludi'an izandako lenengoa; ta bera izan beaŕ Adan'ek eta bere emazte ta seme-alabak eta auen ondorengoak ere itzegiten zutena. Alaz ere, nola eldu da euzkera guregañaño, menderen bidean Babel-doŕea ta onen ondorioa izan ezkero? Eŕaz korapiĺo ori askatzea. Yainkoa'k gizonai egotzitako zigoŕ orokaŕ guzietan, zigortutako ogen pean ez zegoen norbait izan da beti; danetan eŕugaberen bat, zigoŕa artzekoa ez zana eta zigoŕetik at geratutakoa. Ara Noe Ugoldean; oŕa Lot Pentapolis'etik garaiz irten arazitakoa. Ona ... Babel-doŕea eraiki nai ez zuen sandia ... euskera igarotzeko autaturiko zubia.

Ba-ditugu, ukan ere, euzkaldunak ez diran oŕelako euzkaltzale batzuk. Oŕa Cejador'taŕ Julio jauna, españaŕa; onentzat euzkera da España osoaren lenengo izkuntza. Ara italiaŕa dan Trombetti jauna, Europa egoaldeko mendi, ibai eta toki geyenen izenak euzkeraz azaltzen zituena. Ona sortaldeko Eŕi-ak, turkoaŕak eta "osetes-alanos" deitzen diranak (Kaukaso alderdietako batzuk auek), eta japondaŕak eta beste ainbat, bakoitzaren izkuntzaren bidez, aspaldienetako mendeetan jakiña, euzkaldunekin aŕemanak izan zituztela adierazi nai dutenak.

Yakintzaren bideetan, alde ari izan eta diranak ere aipagaŕiak ditugu: Menendez Pidal, Urkijo, Bonaparte, Kanpion, Azkue, Gavel, Budha, Lafon, Tovar eta beste ainbeste, gure egunetan batez ere; guziak egokienik yarduten; buruz batzuek, buruz eta biotzez besteak, baña danak euzkeraren alde lan txalogaŕia egiten.

Ez da eŕaz euzkeraren alde, ontaz ala artaz, aldietan barna emen eta oŕ azaldu diran guztiezaz gogoratzea. Alde ta aurkakoak ere. Aymeric Picaud aipatzen asteko, bigaŕenen artean.

Aspaldiko bidazti onek —ongi dakigunez— Santiago'ra ibiĺaldian zijoalarik, Euzkaleŕi'aren zeaŕ igaro beaŕ-izan zuenean, ez bide zituen gure asabaengandik lore politak artu; eta buŕukan ari-izan ezkero, ez da aŕitzeko gure Eŕi'tik atera zuen aburu txatxaŕa.

Ez dugu ezagutzen, España'n izan ezik, euzkerarekiko arerio asko erbestean. España'n bai, ordea; asi, bederen, Laŕamendi'k zigortu beaŕ-izan zuenaz eta gaurdaño, orokaŕa izan dugu España'ren zeaŕ, euzkerarenganako ezespena; goŕotoa ere amaika bider.

Aipu txaŕa lortu bide zuen noizpait gure euzkerak: zaĺa zaĺa, txiroa, abereekin mintzatzeko bakaŕik egokia, menditaŕena, gotzon jausiak

ikasi al-izan ez zuen izkera bakaŕa, ...; amaikatxo onelakoak. Eta ba--dirudi aipu ori egi osotzat artua izan dala espaŕaŕen artean. "Vascuence" izenaz ezagutzen, beren "Erdaltzaindi"'aren iztegian be, onela ematen dute "vascuence"'ren esanai bat: "oso nastuta egoteagatik ulertzeko zaŕa dana".

Auxe ulertzeko ez dana, uste ori nola burutu danik eta iztegian ere oŕela jartzeko iñori nola otu zaionik. Eta aŕigaŕia, oŕela oldoztu ondoren, nunbait euzkeraren aunditasunak yakintzaren izarian aipatzen badira, berealaxe datozkigu zalapartaka, euzkera España'ko lenengo izkera dala eta gaurko espaŕera latinetik sortua dalako, euzkera izan beaŕ dala España'ren egiazko izkuntza edeŕa. Beti goi ta beko mutuŕ uŕutienetan.

Dana dala, guztiz zabalduta dugu euzkeraren aurkako ekitea espaŕaŕen artean; eta naiz ez jakin aundienetakoa izan, ao betean botatzen diote edonungo euzkaldunari irain beltzenetakoa: "kristaueraz mintza". Eiki, euzkera gaxoa ez bide da kristau batek itzegin dezaken diña.

Alan eta guztiz be, askoz ulerkaitzago, txundi ta laboŕi oso uzten gaituna, bere izkuntzarekiko euzkaldunen berberaen jokaera dugu, maiz oŕen auengaŕi duguna. Nola ez zuen gure Eŕi'ak garaiz ikusi, bere biziarentzat euzkerak duen gaŕantzia? Nola yardun dugu beti oŕen sorayokeri aundiaz? Zelan, baña, oŕen eŕaz, edonorenganako begiko izateagatik edo, amor-egiten ari? Zer izan dala-ta, gure gogoaren mamia bera dan gure izkuntza utzi ta, saŕi, arerioekin bat egiñ, ura uŕuñatzeko ere?

Atzeŕietako batzuek eta geuk ere, amaika bider itzegin dugu gure aspaldiko azkatasunaz, gure legeez eta auek egiteko almenaz, gure batzaŕ eta biltzaŕetaz. Eta egia da gure arbasoak azkatasunez biltzen zirala, eta legeak, berak ere egin zituztela, berentzat eta berenentzat. Alaz ere, batzaŕ aietan —noizdanik?— erdiarodanik bai bederen, erabilitako arazoak agirietan jartzen asi ziranetik —guk dakigunez— erderaz idazten zituzten gorabera guztiak.

Bide ta bide zabala eman zioten erderari etxe barnera sartzeko, eta atzeŕitaŕen izkuntza erabili naiago zuten, paperetan zerbait jaŕi beaŕ zanean. Jakiña, ordudanik edo datoŕ euzkerarenganako ezespena, eta ... ontzat artu bide zuten gure aiten aitek oŕen zabalduta egon dan iritzia, euzkera mendirako bakaŕik zala.

Orduko gure batzaŕen agirietan idatzitako guzian, euzkal-itzik agertzen ez dala ikusteak min ematen du, benetan, abertzalezuŕian; legearen izen au berberaz astean, bertan bildutako dana ta euzkaldun guztiak



ere izendatzeko, azken itz nimiñoena jaŕi arte, guzi-guzia erderaz idatzita dugu.

Bilkura bakoitzean, auŕekoaren agirian idatzitakoa euzkeraz itzuli beaŕ zuten, batzarkideak uler lezaketen. Ez ote zion iñori buruak eman, guziak euzkaldun izanda eta geyenak euzkera baño beste izkerarik jakin gabe, agiriak ere euzkeraz idaztea egokiena izango zana? Aŕigaŕia bada ere, ala dirudi, eta dana dala erderaz idazten zan beti guztia. (Oŕela diño Belasko'taŕ Ladislao jaunak "Los Euskaros" bere liburuan. — Ikusi: "La Democracia en Euzkadi". J. de Ariztimuño - 136'gn. oŕialdean).

Eŕaz ulertzeko, era artaz jokatzean, legegiŕe bakun aien yarei-gogoa aularazi beaŕ zala, naiz eta guziak onez onean ari. Naiz eta lege ta erabaki aietan, euzkaldunen azkatasuna gordetzeko alegiñetaz yardunaŕen izkuntzaren bidez —pipia bezela— lortu dute azkenez arerioek, orduko indaŕ ura makaltzea, eta azkatasunaren bidetik gure Eŕia bidekatu ta alboratzea.

Guretzat ortxe dago, ez gure izkuntza jausteko bakaŕik, bai ta Eŕi osoaren makaltzerako ere, ibiŕitako bide egokiena. Erdera bere lana egiten ari da ordudanik ona, eŕiz-eŕi, uŕatsez-uŕats, euzkera landara bultzatzen; eta txunditzekoa da, gure sorteŕiak nola ez duen, oraindik ere, eriotza, bereziki, nundik datorkion ikusi.

Azteŕ dezagun, aŕetaz, gurean erderaren lana nolakoa dugun, eta ikus dezagun ere, oŕen bidez gure euzkal-bizia nola suntzitzen ari dan.

Asiera bezela, jaŕi dezagun berdintasun au:

$$\frac{\text{Erdera}}{\text{Euzkal-gogoarentzat}} = \frac{\text{Gudalari, ertzain eta txapel-okeŕak}}{\text{Euzkal-gorputzarentzat}}$$

(Emen, "erdera" itzaren bidez, espaŕera ta parantzera adierazi nai ditugu, bereziki).

Asteko jartzen dugun berdintasun oŕen asmoa, ausaz, onela ipiñi dezakegu obeto: Euzkal-gorputzarentzat, gudalari, ertzain eta txapel-okeŕak dirana, orixe bera da Euzkal-gogoarentzat erdera.

Eta geyago, noski, areago. Goazen berdintasun ortan agertzen diran bi zatietan, egiz, zer dagoen ikustera, gure bayetzari eusteko xedeaz. Asi gaitezen bigaŕenaz.

Guda bero izugaŕia egin ziguten, orain beŕogei urte dirala, España'ko gudalariek, ertzain, txapel-okeŕ eta besteek lagunduta, jakiña. Mi-

r̃aka il̃ak orduan, aleun espetxeetan zigortuak, nun-nai ebasketak, edonun irain eta ezespenak. Er̃i bat zigorturik izan bada, or̃a gurea, orduan eta ordudanik ona ere. Guda irabazi ziguten gure arerioek, baña etzan izan garaipen ura berentzat naikoa, ta ar̃ezkero ar̃erazi diguten bizian barna, il, espetxeratze, makilkatu ta erbesteratuak, eunka urteen bidean; bereziki gaurko gaztediak ere bereak eta bost jasan bear̃ ditu sar̃i. Espetxeratuai beren epaikundeak egin dizkiete, ta gauza txikienagatik espetxeko urte ta urreak jar̃i dizkiete, zigor̃ez, iltzeko zorian utzi ez dituztenean. Len gure belaunaldikoak izan giñan zigorkaturik, orain oraingoak, eta guziok ere. Len eta orain gure Er̃ia da guzia jasan bear-izan duena, bera baita bein-betiko suntzitu nai-izan dana. Ta kontuz iñork ezer egin ez dezan, zema ta ankerkeri izugar̃iak dagoz guzion gain jar̃ita.

Eta gudalari, ertzain eta txapel-oker̃ek, alkar̃en leyan, euzkal-gorputza loturik euki dute ertsiki, edozer gauza zigorkatzeko gerturik oso. Gure Er̃i'aren aurkako erakunde aundi ta izugar̃ia antolatu dute beren xedea burutzeko, ta gero ta aundiago ta bildurgar̃iago egiten ari-izan dira beren erakunde ori; ba-dirudi eziña dala zera ortan geyagorik egitea, euskaldun guziok erailtzea ezpada, ta amaikatxo dagoz orixe ain zuzen egin nai-izango luketenak.

Baña zema, zigor̃ eta ikara-erakunde guzia ere, ez dira aski euzkal-gogoraño eltzeko; alkar̃en ondotik, abertzaleak ugari aber̃iaren alde ekiteko, eten gabe sortzen zaizkigu, gure euzkal-gorputzean egindako zuloetara, utzak betetzeko gogoaz; gure euzkal-gogoa bizi aundikoa dugu ta bera da Er̃i'ari eusten diona. Ez, indarkeri, ankerkeri ta ikara-erakunde guziak, ez dira ezer euzkal-gogoari kalterik egiteko.

Baña, ots, ba-dute gure arerioek ortarako oso egoki ta bereziena dan beste bide bat, beren erderaren bidea; ta mutil̃ak dira bide ori ere ongienik ustiatzeko. Or̃ela, gurean dagoen biziera guzirako erdera ori erabiltzeko guztiz bearturik gagoz; euzkerarik ez, iñola ere ez, ortarako. Eskoletan asten dira erderazko lan ortan; gure aber̃ian zabaldu dizkiguten eskola guzietan eztago euzkera sartzerik, orobat irakaskintza guzian ere. Ume txikia eskola oietako batera joan diteke erderaz tutik jakin gabe; berdin zaio irakasleari, ta lenengo egunetik, erdera bakar̃ik erabil̃iko du aur̃ or̃ekin ere. Ez da esan bear̃ or̃elako aur̃ai, eskoletan jasan bear̃-izan duten guzia nolako izan zaien mingar̃i. Eta eskolatik ateratzen diranean bietatik bat: batzuek, indar̃ez eta nekez, zerbait ikastea lortu dute, baña oietatik geyenek, irakasleak buruan sartu dielako, beren neke guzien er̃ua euzkerarena dala uste dute, ta aur̃eruntz beren gurasoen izkuntzarekiko muker̃ biurtzen dira edo gor̃otodun bearbada; ta, berena etzan izkuntzaren bidez irakasi dietelako, ezer ez edo oso gutxi ikasi dutenak, geyago ikasteko gogorik gabe geratzen dira beren bizi guzirako.



Or̃a izugar̃ia dan kaltea, euzkal-gogoari buruz egiten dana, aspaldidanik egiten ari zaiguna. Ez da ori naikoa oindiño. Guzioi, ikasi dugun guzia, indar̃ez, erderaz ikasi dugulako, erdera ezur̃etaraño ta buru-muiñetaraño sartu zaigu, ta guziok, euzkera ar̃etaz ikasi dugunok ere, gure oldozpen guziak, berez, erderaz egiten ditugu, ala bear̃ik. Gure adimena erderaz elikaturik dagoelako, euzkeraz yardutean ere, erdal-itzen bidez oldozteko bearturik gagoz. Eta or̃ela, gure gogoa erdaldunagoa da euzkalduna baño; or̃a gure gogoa ere guztiz menperaturik, eta erdera izan da lan ori gugan burutu duena. Gudalari, ertzain eta txapel-oker̃en bitartez lortzeko eziña zana, erderaren bidez egin digute; ta aien indar̃az euzkal-gorputza, lotu, estekatu ta jopu biurturik baldin badago, areago, askoz geyago euzkal gogoa erderaren indar̃az; eta egoera ontatik azkatzea lengo artatik baño mil̃a bider zal̃agoa izango zaigu, enurarik gabe. Naiz eta er̃iketari buruz azkatasun aundiena izan, urteak eta urteak, gizaldiak ere, ta lan eta naimen biziena izango zaizkigu bear̃ak gogoaren izarian yarei izateko.

Zer egin bear̃, bada, geron aldetik egizkoa dan gure egokera itun ontan? Euzkera ikasi, noski, lendabizi, ta ondo ikasi ere. Euzkera ikasten ez duen euzkaldunak, naimenez ala naimen berezirik gabe, ontzat artzen du gure jopu-egokera au, ontzat artzen du aber̃iaren eriotza; aitzitik, euzkera ikasten duen euzkaldunak lanik egokiena dagi bere burua azkatzeko ta Euzkadi'ren azkatasuna laguntzeko. Ta guziok beti egi aundi onezaz gogoratu bear̃ dugu: Euzkadi'rentzat erdera eriotza da, ta euzkera bizia; erderaren bidez iltzera goaz, euzkeraren bidez bizira; ta arazo ori ain argi dugularik, ez da esan bear̃ ibiltzeko gure bidea zein dan.

Erderaren esker̃ eta gure arerioen naiaz, gaur gure Er̃i'an erdal-gogoa nagusitu zaigu, euzkal-gogoa ur̃utiko mendietara baztertuta dagoelarik; eta ur̃utiko txokoetaraño ere eltzen ari zaigu, gure Euzkal-Er̃ia zearo Erdal-Er̃ia biurtzeko xedeaz. Ortxe dago gure ebazkizun guziaren muña.

Gure artean asko ta gogor̃ mintzatzen da gudalari, ertzain eta txapel-oker̃en aurka, ta guzia oso gutxi dala esan bear̃, guzti oiek gure kaltez egin dutena gogoratu ezkero. Osterantzean guretzat askoz txar̃agoa dan erderaren aurka oso gutxi da entzuten dana; ulerkaitza benetan ori,

erdera guretzat gogo-gudalari, gogo-ertzain eta gogo-txapel-okeŕa batera izanik.

Erdera ta erdal-gogoa alde ta txoko guzietan sartu ta sartzen ari zaizkigula esan dugu, bai ta euzkeran bertan ere. Gaur erderakada bat ontzat artzen da gurean euzkeraz egitean, gero beste bat eta biar geyago; ta erderakada oiek euzkal-itzak baztertu ta oien tokian geratzen dira gure izkuntzan pipiaren lana burutzeko. Lan kaltegaŕi ori dagoaneko bururturik dala esan beaŕ, toki batzuetan besteetan baño neuŕi aundiagoaz: emen, euzkal-baseŕietan, eunetik amaŕ edo; oŕ, euzkal-eŕi txikietan, eunetik ogei apika, ta aundiagoak diran beste eŕi batzuetan, beŕogei ausaz; an, uri aundietan, Bizkaya'ko sartaldean, Laburdi'ko itxasaldean, ia Araba ta Napaŕoa osoan, eunetik eun. Oŕek erakusten du, garbi, erderaren auŕerapena ta euzkeraren atzerakada; oŕ ikusten da, argi, gure Eŕi'aren eriotzarako bidea.

Gudalari, ertzain eta txapel-okeŕak, egiten digutenagatik, gure arerio amoŕatuak baldin badira, orixe bera da erdera guretzat, eta geyago ere, beste guzti aiek baño kalte aundiago ta sakonago gure gogo-bizian egiten digulako.

Onezkero izugaŕia dugu gure Eŕi'an egiña dagoen kaltea, ta izugaŕiak ere kalte oŕezaz sendatzeko egin beaŕ ditugun alegiñak. Al̄egin oien bidez, euzkera gure bizi guzian barna, gero ta geyago, sartu beaŕ dugu, bakoitzak bere aldetik ta guziok batera; euzkeran bertan, alik eta geyenak, erderakadak baztertu beaŕ ditugu ta oien ordez zokoratu ala aiztuta geratu diran euzkal-itzak erabiltzeko, edo euzkal-itz beŕiak eratzean. Eziña izango zaigu, eiki, erderakada guziak kentzea, ain barneraño sartu baitira batzuk. Amaika gaietan, noski, beste itz beŕiak soŕerazi beaŕ-izango ditugu, ta askotan erderazkoak izango zaizkigu beaŕak eŕoak; baña beaŕ ortarako oso egokia izango litzaiguke españera ta parantzera ez diran beste erderaetara jotzea, esandako bi oiek guretzat oŕen kaltegaŕiak diralako.

Lan aundi ta ikaragaŕia, benetan, auŕean agertzen zaiguna; baña oso osorik ontzat artu beaŕ dugu lan ori, gure Eŕia bizi dedil̄a nai baldin badugu, oŕen ezinbestekoa baita. Barne-barnetik euzkaldun guziai gartsuki eskatzen diegu ororena dan ebazkizun ori aŕeta aundienaz begiratzea ta aztertzea; bai ta, bereziki, lanerako mukeŕ iñor gera ez dedin. Baitezpadakoa baita bide ortan barna ari-izatea, gure euzkal-gogoari eusteko ta gogo-bizi ortan, azkenez, yarei izan gaitezken.

Ortxe apika, esandako euzkeraren baztertzean, gure Eŕi'aren ogen



laŕia, gaur dagoen egokera itun ontara ekaŕi duena. Eta sakon sartu zan aspaldidanik euzkerarenganako iritzi medaŕ ori gure artean. Gaur bertan, beren burua abertzaletzat daukaten geyenak ere otz eta sorgoŕ geratzen dira, gure kalte izugaŕiaren auŕean. Gure abertzaletasunaren egia ezagutu ondoren, adigaitzena, euzkeraren alde buru-belaŕi jokatu gabe geratzea dala deritzaigu.

Oŕa nola euzkaldunak berak beren izkuntzaren etsai biurtu diran; urte ta menderen bidean, orixe beren jokaera izanik, gero ta zal̄agoa izan zaigu jauste oŕi eustea, beruntz joan ordez goruntz abiatzeko. Ajolagabea benetan, euzkalduna, bere sakela ikutzen ez diotenean; odola irakiten eta biotza biuŕitzen zaizkigu onela itzegin beaŕean; baña egiak, bere bidea beaŕ du, ta, nork daki?, ba-liteke gauzak gordinki esanda, ortarako erabil̄i beaŕ diran itzak onurakoŕenak izatea, egizkoak izan ezkero, beintzat.

Zer gertatuko zitzakean gure aspaldikoek beren batzaŕetan guzia euzkeraz erabil̄i balute? Ez mintzo bakaŕik —itzegitean eskierki euzkeraz zegiten beren alkaŕekiko solasetan— bai ta idatzi ere; baña aiek idatzi ez, idatzi eskribauak egin beaŕ eta, jakiña, erderaz; eta itzegindakoaren itzulpena nolakoa izan zan ..., ori beste arloa da. Beren legeak berak izendatzeko ere, erderari amor-egin beaŕ eta ... "fuero" itza izan zan artarako ontzat artutakoa. Gero, menderen buruan, "fuero" itz ori izan beaŕ amaika naspil̄en iturburua, naspil eta anai-guda ikaragaŕienena ere.

Amor-egin beaŕ beti euzkaldunak, pakean bizi nai-izan ezkero; iñoiz ere ez arerioak, euzkaldunen auŕean. Eta noizpait euzkaldun batzuk iritzi batean tinko egin badute, ara nundik beste anayak aurka sortu beaŕ-izan duten; baña orduan ez, iñola ere ez, anayari amor-egiterik; oŕekin bat egin baño lenago, oŕi zerbaiten puxka ñimiñoena utzi baño len ... il, il beaŕ baldin bada.

Zer izango zitzakean Azkoitia'ko Zaldunak beren lan, asmo ta xede guztiak euzkeraz itzegin eta idatzi balituzte? Nork esan! ..., gure "balitzko ola" arezaz oroitu beaŕ. Alabaña, nolabait "balitzko ola" oiek lana ta lan onurakoŕa egin dezakete. Orduan, aspaldin, beren burnia eman ezpazuten, apika orain emateko gai izango genituzke, "balitz" ura "ba-da" biurturik, ibiltzen jaŕiko bagenitu; guzia oraindiño galdurik ezpaita; eta bein bidea ezagutu ta maite izan ezkero, bertan barna ibil gaitezke; naia da, beŕiz esateko, bakaŕ-bakaŕik beaŕ dana; eta naia ere nabaritzen bide da euzkal-bazteŕ aunitzetan. Itxaropena, bizi.

Alakotz, euzkeraren alde jotzea dagokigu euzkaldunoi; buruz, arètaz, arteziz; batzuetan maitasunak ere aurka egiten baitaki. Alde jari beaŕ guziok biotz eta adimenez bete-betean.

Aurkako, gerok ere mutiľak gera, gero, gure aburuetan setatsuki tinkoturik eta beaŕ danean ere amor-egiten ez jakiteagatik. Gurea bezela dagoen izkuntza bat jasotzeko, amaikatxo lan, eroapenez, bete beaŕ.

Lendabiziz, batasuna dugu beaŕa euzkaldunok, ortarako ta gure biziaren azpegi guztietarako. Euzkerari buruz gaur, zorionez, ba-dugu batasun-mota bat ia lortuta: ortografiarena; ez dugu ontan ere guziok batera jotzen oindiño, baña bai geyenok. Eta onelako beaŕetan ez gera euzkaldunak soiľik ari geranok. Ona emen, ortografiari buruz ere ain zuzen, gure leŕo auetan saŕi aipatzen dugun Vendryes jaunaren "El Lenguaje" liburuan, berak zer diñoen (445'gn. oŕialdean):

"Frantzia'n XVI'gn. mendearen azken aldian, ortografiak jakitunen eragipena jasan beaŕ-izan zuen, auek antziñako jokerak eta itzorkunen kardabak bultzaturik. Aiek izan ziran gaur eroan beaŕ ditugun ondoreak ekaŕi zituzten zentzungabekerien lenengo eŕudunak; alabaña aien aldiaren gizonak ziran".

"Berdin jazo zan Eire'n; ango ortografia, alde batera ta bestera ibiľi ondoren, antziñako jokerarekiko zaleegi ziranek tinkotua izan zan". "Ala ere ez dugu geyegikeriz ari-izan beaŕ irlanderak darabiľen ortografiaz; neuŕi aundiaz, asieran egindako okeŕ batetik datoŕ aren nasketa; auxe okeŕa: izki batzuen ebakera tinkotzeko, beste izkiak erabiľi ziran, "diacritico" deitzen diran ikuŕen antzeko" (1).

446'gn. oŕialdean: "Gure izkuntzak (parantzera) beste edozeñek baño geyago zentzungabekerien eragipena jasan du". "Oŕela yardun ziranek aspaldidanik izkuntzak oguzten ez zituen izkiak beŕitu zituzten. Zoritxaŕez, batzuetan, izki aizun oiek oguzpenean beŕiz azaldu dira".

Alde ta aurka izandakoaz mintzatzen geranezkero, ezin aipatu gabe utzi, euzkaltzaleen artean len eta gaurko ontan ere sortzen diran eztabaida gogoŕak, alkaŕen aurka jokatzen dutenak; buruz-buru itxu ari diranak: garbizaleak eta mordoľozaleak. Ez bide gera oraindik euzkaldunok osasunerako bidera eldu. Zergaitik, baña, oŕen zoŕozki geron iritziak jokuan oŕela ipiñi beaŕ? Zer dala-ta, oŕek "zuria" esan duelako,

(1) Esate baterako: Parantzeraz G darabilte N'tik Ñ egiteko: "campagne". Beste mintzoera batzuetan *H* darabilte ortarako: "mountan*h*a", limusineraz esaten dan bezela; bai ta limusineraz ere *L*'tik *L̄* egiteko: "famil*h*a".



nik "beltza" esan beaŕ, naiz eta argi-argitan "orlegi" baten auŕean baldin bagera? Nola izan diteke gure artean erdiko bidera irtetzea oŕen zail?

Bere orduan beste Eŕi'etan bezela egin ez genuelako, euzkera gure egunetara nola eldu zaigun ikustekoa da: lau izkelgi berezi-berezietan sailkaturik, eta gaia pizkat geyago zoŕoztu ezkero, Bonaparte'k oartutako zortzietan. Eta izkelgi bakoitzean zenbat berezitasun eŕi ta baseŕietan barna! Batasuneruntz abiatu ordez, gero ta banatuago euzkera Euzkaleŕi'an.

Eta aŕigaŕia dana. Beste arazoetan trebe ta burutsu agertzen zaigu euzkalduna edonun. Nola ez du oŕela jokatzen bere izkuntza ikutu beaŕ baldin badu? Berarengandik onura naikoa ateratzeko biderik ikusten ez duelako? Norberaren sabel edo sakelerako onura, jakiña. Ez ote dago beste onurarik diruz neurtu beaŕ dana baizik? Baña ez ote da ezer gure Eŕia? Ez ote dugu auxe guzion artean betetzen? Ez ote dira berarengandik, erlijio, gizadi ta urkoarentzat gizon on eta zindoak irten? Ez ote da guzion aberastasuna, gure Eŕi'aren bizia? Ala ... zearo itsutu ete gaitu geron gerekoikeriak?

Alde jaŕi beaŕ, gerok, sutsuki; gure izkuntza onen alde; alde, gotorki, gure Eŕi'aren bizia euzkeraren beaŕ goŕian baitago, landare batek bere izerdiaren beaŕa duen bezela; zugatz ostotsu ta abartsuena ere aurki legortuko da izerdirik gabe. Euzkeraren alde, Euzkadi'ren alde yardun al-izateko; euzkeraren alde, gure Eŕia bizi diteken, eta bizirik, gizadiarentzat ere berarizko zitu onak, gero ta obeak, eman ditzan. Guzietarako dugu on euzkera berpiztu, indartu ta zabaltzea, geronentzat eta gure lagun urkoarentzat, bai ta gizadi osoarentzat ere.

Eŕaz jartzen gera euzkaldunok alde ta aurka, arazo guzietan; ortxe, ausaz, gure galbidea, bein oŕelako asmo bat artu ezkero, iñork ezpaikaitu aldatuko. Oŕengaitik, geron izaera ori ezaguturik, aŕeta aundienaz dagokigu yardutea, erabakirik artu baño lenago. "Zeron burua ezagun ezazu" diño esaera zaŕak. Oso egokia izango litzaiguke esaera ori buruan maiz eukitzea ta, apaltasunez gogoratu ta erabiltzea.

## VI.—Euzkeraren indaŕa. Euzkeraren korapiĺo ta koskak. Euzkeraren almenak.

Ba ote du euzkerak indaŕik?; almenik aski ete gure izkuntzan?; ez ote dira geyago ta aundiagoak bere korapiĺo ta koskak? Asi gaitezen astiro galdera auetan ikus ditezken asmoak aztertzen; guretzat zaĺa bada ere, alegiñak egin ditzagun, gure zaletasunak, on izanda ere, atzipetu ez gaitzan. Goazen alik eta zuzenen, alboetara ez makurtzeko eta lei zindoenaren laguntzaz.

Indaŕik bai euzkerarengan? Nork ukatu? Aspaldi-aspaldidanik, iñork egitan esan ezin dezaken asagoeneko aroetatik eta egun arte, euzkeraz eten gabe mintzatu da; euzkera bizirik ikusi da, ordudanik ona, Eŕi baten, Euzkal-Eŕi'aren semeen ezpañetan, mendez-mende, urtez-urte, egunen bidean barna, bere yoritasunez elikaturik, isikoŕ, tinki, orain arteko oldaŕ guziai buru-egiten.

Ez dira nolanaikoak euzkerak jasan beaŕ-izan dituen aurkako oldaŕak: eskola ta kultura orokaŕenak; auzoan dituen lateŕienak; yakintza, kultura bera ta beŕiak edatzeko ezagutzen ditugun gaurko bide altsuenak; gudaenak; giza-lagunen artean, norberaren bizi-beaŕak; bere semeen itsukeri ta itsupenarenak; bere batasun eza ta izkelgietan erdibitzearenak. Esan ote diteke geyago?

Eta oŕ dago euzkera; ogeigaŕen mende betean bizirik oraindik. Ilargi ta are uŕunago be joateko, gizonak bideak asmatu dituen aro auŕeratuen ontan, arnasartzen; guzien aurka zutik eta jaŕaitzeko gogoaz gotoŕ; iĺobiaren ertzetik aldatz goruntz abiatzeko naiean; txil egin nai ezean.

Mendeetan barna, amaika urteen zeaŕ ... oŕela, eutsi ta eutsi; bakaŕik, laguntzarik gabe, arerio guzia, guzia etsai, bere seme yaukal batzuk izanezik. Ez ote da indaŕ eta indaŕ aundia euki beaŕ, guda oŕen luze ta ezberdiñaren ondoren, bizirik egoteko? Indaŕa, bai, noski, euzkerarengan. Nundik datorkio, baña, indaŕ ori gure izkuntzari? Beste mintzoerak, beren edatzearen bidean, beren elertietan, beren bidez lortutako yakintzan eta idatzitako liburu ta aldizkarietan, bizi al-izateko ezaŕerazi

duten beaŕean eta ... oŕa nundik bildu dituzten auŕera jotzeko indaŕak. Euzkerak ez du, beaŕa zaion neuŕian, bide altsu oietatik bat ere. Nundik eta nola atera du berak bizian irauteko indaŕa, beraren eŕaietatik bertatik ezpada?

Enurarik ez; egiazko indaŕa euzkerak bere barne-muiñetan daukana; ez bizi-izateko bakaŕik, gañera; nolabait eta zabuka ta bilin-balan bada ere, bai ta egunero bizi-moduaren ereduz jartzeko be. A!, indaŕ ori egunen batean, euzkaldunak bide egokietan ibil̃eraztea lortuko balu! Norañо ez ote litzake eldu al-izango gure mintzaira maite ta zoŕigabeko au?

Berez eta bakaŕik bizi beaŕ-izan zuen aintziñean, eta gizonaren inguruan agertzen ziran gauzak deitzeko, naiz gizonaren beraren barnetik sortu ziran oldozkunak eta kanpotik eldu zitzaizkion asmoak erazagun eta adierazi beaŕ-izan zuenean, izenak ain egokiro jartzea jakin bazuen, gaur oraindiño egokitasunez jaŕaitzen duten izenak, alegia, ez ote zuen ederkien egiztatu ortarako zerabil̃en indaŕ berezia? Eta gaur bertan, nabarigaŕi dugun indaŕ oŕek ez ote digu itxaropen aundienetako ematen geroko bizi ta lanai buruz? Zergatik ez, geron aldetik uste on osoan izan, oŕen argiro ikusi beaŕ dugun euzkeraren indaŕ ortaz?

Ainbestetan aipatuak izan diran "dana" ta "duna" itzak eratzeko erabil̃ita dauden iru zentzun banakoak: "da+n+a" ta "du+n+a", ez ote dira, beren osotasunean, beste zentzun bakaŕ beŕi bana biurtu, oldozmenaren beaŕetarako euzkera erabilgaŕi egiten duen indaŕari eskeŕ?

Oŕen antzekoak diran ALDI ta ALDE itzak, geyenetan ulertzen diran oŕen zentzun ezberdiñak adieraztean, filosofilari ta olerkariei yakintzari buruzko susmoak soŕerazten dizkiete, zentzun oien arteko biona izan diteken edo asieran izan zitekean besteren bat, ote dagoen ala zegoenentz.

Orobat esan dezakegu BETI, BETA ta BETE itzen zentzunai buruz (1).

Oŕa beraz, gure euskal-egipen guzietarako euzkaldunok aiztu beaŕ ez dugun gure mintzoaren indaŕ berezia: ontaz eskieŕ egonik, bipil edatu beaŕ dugu euzkeraren bidez, gerorako oldaŕ-aldia; burutsu ekin ezkero,

---

(1) Ikus: Paris'eko "Euzko-Deya"; 1959'ko irail̃aren 1'ko 435 zenbakian Leizaola'taŕ Yosu Mirena jaunak gai oŕekiko egindako idazlana.

1961'ko epail̃aren 1'ko 452 zenbakian Etxebeŕia'taŕ P., aita agurgaŕiak, "ALDI" idezpuruz idatzitako bertsoak.

Ikus: "Euzko-Gogoa": 1955'ko ilbeltza-otsail̃aren 1-2 zenbakietan Ormaetxea'taŕ Nikola jaunak, "Orixe"'k gai oŕezaz ere egindako lan eta bertsoak.



ez zaigu iñola ere peituko edozertarako noraezeko izango zaigun euzkeraren indaŕa; ez eta, iturburu batetik ura galgaraka bezela, gure izkuntza zaŕ onen muiñetatik sortzen eta sortuko diran eskuarte berezi ta egokienak ere.

Euzkeraren indaŕetan itxaropena jaŕi beaŕ baldin badugu, ez dira aiztutzeko ere izan beaŕ, gure izkuntzak berak dituen korapil̃o ta koskak.

Nai-izango genuken bezin azkaŕ noranai edatzeko ikusten dugun lenengo eragozpena, auxe geron gardiz: kulturarako bideetan oso atzeraturik egotea. Beste izkuntzetan aspaldin, irakurtzen eta idazten ikasteaz, gaurko kulturarako ematen asi ziran lenengo uŕatsak, oraindik gurean ematekoak edo ditugu gaur bertan.

Ongi ikusten al da, gaur oso auŕeratuta dauzkagun izkuntzetan mil̃oe ta mil̃oe gizasemeak mendeetan barna, idazten eta irakurtzen, ikasten eta irakasten bakaŕik, beren kulturarako egin duten bide zabala? Luzeran, zabaleran eta sakoneraz, zal̃a dirudi izkuntza batzuetan, Europa'ko izkuntza landuenetan, geyago egin al-izaterik, gaur ezagunak diran gayetan noski.

Eta ikaragaŕia agertzen zaigu, oŕerañо eldu al-izateko, euzkerak ibil̃i beaŕ duen bidea; auxe, eiki, beste izkuntzek igaro dutenaren antzekoa izatea noraezeko baita. Agian, gaur erabil̃i genitzaken erak eta gaien eskeŕ, ba-liteke luzeran asko moztu al-izatea; baña zabal eta sakoneraz? Naiz eta gaurdanik Euzkadi'ko biztanle ta egoiliaŕak oro lan berean buru-belaŕi sartuaŕen, beste izkuntzetarako ekin eta ekin ari beaŕ-izan diran gizalagunekin gure guztiak erkatu ezkero, argienik agertzen zaigu, aien auŕean, urte ta urte luzeetan barna, labuŕ geratuko gerala. Batez beste, gure arteko bakoitzak beste izkuntzaetakoak baño amabost edo ogei bideŕ geyagoko lana egin beaŕ-izango luke, urte asko ta askotan, euzkera kulturazko mail gorengoenetarañо jaso al-izateko. Guzi ontan dago, ausaz, gure mintzoerarentzat korapil̃o aundiena.

Irakurtzen eta idazten ikastea, lenengo uŕatsa bezela, nolako beaŕa zaigun argi ikusteko, egunero gure artean jazoten dana oartzea izan liteke aski. Gure euzkaldunak, jatoŕiz oso euzkaldun ditugunak, erdal-ikastoletara joateko beartuak daude aspaldidanik; oietako geyen-geyenak, guztiak ez esateaŕen, naiz eta, eskolakoa egin ondoren, bizian barna euzkal-giro jatoŕenean irauten badute ere, zerbait irakuŕi edo idatzi beaŕ-izan ezkero, erderaz egingo digute dana ala geyen-geyena; bidezkoa danez, berak izandako eskoletan, oŕela irakasi zitzaielako.

Oŕen uŕengo koska, eta geron ustez, bera bezin eragozgaŕia, aun-

diago ezpada, euzkaldunaren eta euzkotaŕen baitan dagoena; berak nai--izanezik eta berak nai-izanda. Jakiña, mendeak joan zaizkigu gure kultura guzia beti ta eten gabe, beste izkuntzetan artzen ari gerala; eskoletan asteko ta bizian barna, gero, nunai dauden beste bide guztien zeaŕ; oŕela, kanpotik eta barnetik, eta oso aspaldidanik, okeŕ izugaŕia egin dalako; okeŕa, noski, geron aldetik; besteak, gure Eŕia ezestu nai zutenek, berenekiko zuzen eta artez jokatu zuten, gure itsukeriari eskeŕ.

Arerioen xedea obeto burutzeko, euzkeraren aurka —gure biziaren aurka— bide guziak erabiĺi zituzten; baña bide guzietatik, ausaz, berentzako onuragaŕiena gure izkuntza edeŕ eta maite au paŕegaŕi ageŕeraztea izan dute, alde, aldi ta une guztietan; begirapen osoz erabiltzen dan beren iztegi nagusitik asi ta ez-jakin aundienarenganaño: euskera, ankerkeri ta atzerapenak oro agertzeko bide egokiena edo dugu. Eta españaŕen artean edonork bere burua aintzakotzat dauka oso, auzi ortan oŕela, ozenki ta ziuŕ epaitzeko.

Benetan egoki erabiĺi da bide au; euzkaldunen artean ere sakon sartu da oŕen iritzi bakana; eta euzkaldun asko, beren euzkaltasunaz lotsaturik, beren ama bezin maite beaŕ-izango luketen beren mintzoera, goŕoto-izateraño eldu dira. Ezin etsaien xedeetarako geyagorik egin.

Alde ta bide guzietatik yardun eta, egoaldetik batez ere, gure Eŕi'aren izakera ezabatzen ari-izan da; izkuntza galerazten lendabiziz, betidanik euzkerak ematen zuen izamena, berarekin batera galtzen zan eŕietan barna; eta bere ordez, erderarena jartzen zuten nagusi; gero, bi edo iru gizaldi baŕu, ez gogoratu ez eta otu ta siñistu ere, eŕi oietan iñoiz euzkaldunak izan ote ziranik; berak, dagoaneko, erdaldun utsak ziran, eta oso atzeratuta zeuden euzkaldun oietakoak, an, baseŕietan, mendietan edo, bizi ziran oindiño. Oŕela, Arana Goiri'ren asmoak zabaltzen ari-izan ziranean, aŕiturik geratzen ziran baztеŕetan, berak ere odolez euzkotaŕak zirala bayeztu zitzaienean. Ortxe, izkuntza baten indaŕa noraño eltzen dan, argi ikusteko. Gaur eta luzaroan ere zerbait egin naiean, ortik asi beaŕ; ez da, arean, nolanaikoa, Euzkaleŕi'ak bizi nai baldin badu, auŕean egiteko daukan lana; Aitzkoŕi mendia igierazteko aña, nonbait.

Beste aldetik, atzeŕietako kulturan barna azita dugun Eŕia, eta ia berea bezela daukana, gerturik izango al dugu iñoiz —bipil, kementsu, zangaŕ— bere egiazko gogoaren biĺa gotorki jartzeko? Eta ortarako nai ta nai ez eta ezinbestekoa dan bide bakaŕean barna, euzkeraren bidez, alegia? Ementxe dugu beste koska aundia. Egiazko gogo bizia, biotz



erdian sortzen diran naimenetakoa izan beaŕ elburu ortaruntz abiatzeko. Emengo edo ango gizon bat edo beste ortarako gerturik izatea ez da noski gauza zaĺa; baña Eŕi oso bat edo beraren semeen arteko geyenak, asko beñepein aurkitzea, ez da oŕen eŕaz izango. Oŕengatik batez ere, Euzkadi zuzenduko duen gutxieneko taldeak, eroapenez ari beaŕ-izango du beti, astiro ibiltzeko ta beti ere senaz eta zentzundun ekiten. Ortan baita gaintzeko izango dan eragozpen aundienetakoa.

Beste azpegiz, yakintza ta kultura auŕeratzen ari zaizkigu eten gabe, lenengoa batez ere; orixe dala-ta, eratortze ortan, guretzako beste korapiĺo aundia ikusteko; jakiña, gure arazoa ez da, naiz eta gaur oso uŕutian izan, geldirik dagoena atzematea, beti gure auŕean aruntz dijoan zerbaitenganaño eltzea baizik. Alakotz, geron ekintza alde ortatik ere zaĺagotzat euki beaŕ.

Beste koska ta korapiĺo asko sortuko dira, eiki, Euzkaleŕi'ak galdutako bere gogoarena, beŕiz bereganatzeko egin beaŕ-izango dituen lan eta alegiñetan. Ez dugu uste emen guziak azaldu beaŕik izatea, ta gañera, ibilkeran soŕ ditezke gaur sumatzen ez ditugunak eta ezin ditzakegunak ere.

Goazen, oŕengatik, euzkeraren izakeran oŕelako ekintza baterako almenik ote dagoen ikustera. Alegia, len euzkerak bere baitan indaŕ aundia daukala bayeztu egin dugunezkero, ondorengoz almen aski ba-duela usteko bidezkoa deritzaigu. Alan eta guztiz be, azteŕ dezagun gure arazoen ikuspegi au astiroago ta zeatz.

Izkuntza guziek beren eliztia dute, bai ta geyenak ere beren elertia; aberatsago naiz txiroago, bat eta bestea. Eliztia beren oñaŕi ta ezurdi bezelakoa da; elertia beren kanpo ta barneko mamia. Eliztia betikoa dugu, batez ere aditzetan eta joskeran; itzetan aldatzen da zerbait, batzuk iltzen eta beste batzuk sortzen baitira. Elertia, beŕiz, aldagaŕia dugu, olerkari ta idazleen erabiltzeaz eta aroetarako arauz.

Euzkeraren eliztia aberatsa dugu, ziñez; ez da ikasteko zaĺa, berez; eta bere joskeran, arauen barna zindo doakigu; bere aditzak naiz eta zerbaitean galdu badu, bere osotasunean dirauela esan beaŕ, eta bere zabaltze osoan jakintsuak aŕiturik geratzen dira, buru argitsuenetarikoak eratua bezela begiratzen. Joskeran ere egokienetakoa dugu, eta batzuetan zaĺa agertzen bada, bere izakera erdera ezagunenak dutenaren alderantzikoa dalako izaten da; baña erderak aña eskola ta ikastetxeetan ikasita izango balitz, aiek bezela ikusiko genuke euzkera; eta aitzitik erdera guziek euzkeraren zoritxaŕa jasan beaŕ-izan balute, orain gure izkun-

tza bezin atzeratuta ikusiko genituzke. Itzetan bakaŕik, eta gaurko asmoetarako, txiro geratu zaigu gure mintzoera, irakaskintza iñoiz erabiľia izan eztalako. Eta Olabide'k diñoenez, "Euzkerarenganako zaletasun utsetik asi-ta, naiz eleketan, naiz irakaskintzan, naiz izpaŕingietan, bidez (euzkera) erabiltzera igaro nai-izan duzutenok ongi atematen baituzute, egiazko naimen oldartsuenak ere lenengo uŕatsetatik poto-egin duela, beaŕezko izan zaizuen izarian, esan nai duzutenerako itzak aurkitzea eziña zaizuelako; gure mintzoeraren altxoŕean dagoen guzia ezagutzen ez duzutelako, edo egitan peitzen danean, beraren utzak betetzeko euzkerak dituen almenak nolakoak diran ez dakizutelako". (Oñate'n, 1918'gaŕenean "Eusko-Ikaskuntza"'ren lenengo Batzaŕean emandako ikastaldian esana; gero Bilbao'n 1919-20'gaŕenean argitaratutako liburuan).

Eliztia, aberatsa baldin badugu, berez oŕela izanik, ez da berebat gertatzen elertiaz; auxe beste kulturetan azitako gizonek egiña izan edo dalako. Alabaña, mende ontan, edatzen ari zaigu era guzietara naroro, itz-neurtuz naiz itz-lauz, aitzina guztiz oldarturik, naiz eta oraindiño idazleak erderaz irakasita izanaŕen. Oŕengatik, ortan ere, egiazko almenak adierazten ditu gure mintzoerak, eta gerorako itxaropen aundia eskeintzen digu, eskeiñi ere. Oŕela agertzeko, naikoa izan dugu gizon zintzo batzuk lanean buru-belaŕi sartzea; eta ziñez esan dezakegu, mende onen lenengo erdian bakaŕik gure Eŕi'aren auŕeko bizi guzian baño askoz geyago idatzi ta irakuŕi dala.

Agiri-agirian dago; euzkerak bere baitan zeukan elertirako almena, bera erabiltzeko norberaren zai edo zegoen; auxe eldu ta bereala, almen ori azaldu zaigu bere indaŕ guziaz. Eta elertian gertatzen dana, beste euzkal-ekintzetan ere berdin jazoko dalakoan egon gaitezke; arena, siñeskoŕ, uste-oñaŕitzat aŕ baitezakegu.

Burnia, lantzeaz garbitzen da; euzkera, beaŕ dan bezela lantzen bada, ez bere gorputzean euki ditzaken orbanetaz garbiturik izan dezakegu bakaŕik; orixe baño obeki, bere barnea dauzkan indaŕ eta almenak oparotsuki edatuko zaizkio, bere bizia sendotzeko ta, bide batez, gure Eŕi'aren gogo berezia eutsi, indartu ta zabaltzeko ere.

Margo ederenetako gerokoa, gaur ere, euzkerak gure abeŕiari eskeintzen diona; bere indaŕez eta bere almenaren bidez, orbanak izan ditezken korapiľo ta koskak, askatu ta legundu al-izango ditu; guretzat eztago ortan ezpairik; bide zabala auŕean idekirik daukagula ikusten dugu; beraren barna ibiltzeko beaŕezkoa dan asgiro sortzea guri dagokigu; eta sorteŕi ta kondairaren auŕean, ortxe gure erantzukizuna.

## VII.—Euzkal-kultura. Euzkal-eguratsa. Euzkaldun osoa.

Euzkaldun osoaren asmoa adierazteko, asi gaitezen kulturari buruz gure Eŕi'an orain arte zer jazo dan ikusten, eraman diran bideak aztertzen eta ondorioak ere zeintzuk izan ditugun ezagutzen.

Kultura guzirako lenengo uŕatsak, izkuntza baten baranoan, izkuntza ortan irakurtzea ta idaztea ditugu. Aoz-ao ta buruz eman eta artzen diteken kultura, antxiñan egiten zan bezela, nai ta nai ez, motza izan beaŕ, zedaŕi ertsietan gutxituta, uŕituta. Kulturak, orotarako kulturak, idazten eta irakurtzen artu du zabaltasuna, ta idazteko ta irakurtzeko bideak obetu ezkero kultura ere zabal eta sakonago.

Euzkal-kultura edatu gabe dugu oraindik. Zer dala-ta? Askotan esan da, euzkalduna, irakurtzeko ta idazteko, beti gogo gutxidun izan dana; eta gogo gutxi ori euzkerarenganako beaztoporik aundiena bezela erakutsi digute. Noski, baietza ori ontzat artu ezkero, ondoreaz be orobat egin beaŕ. Baña, egia ote da, euzkaldunarengan irakuŕ eta idazteko zaletasunik ez dagoela?, eziña dala oŕelakorik eukitzea? Guk geuk, bederen, ez dugu ori egi utsa.

Ludi guzian, eta Europa'n zer esanik ez, gogoz ageri dira beti gizasemeak irakuŕ eta idazteko gurari bizienaz. Jakiña, beti ta edonun ageri da gizona jakiteko egaŕi goŕienaz; jakiteko ikasi egin beaŕ, eta ikasteko irakurtzen eta idazten jakin ere; alakotz, bidezkoa eukitzeko, xede ontaz alegin aundienak egitea, berezkoa noski, irakurtzeko eta idazteko gogo aundiena eukitzea. Guretzat, nai ori, giza-izanaren beraren yoranekin sortzen dala ikusi beaŕ; eta giza-izanarena duguna, euzkaldunen artean ez ote? Ezin auxe berealakoan egitzat artu, nunbait ortarako azalpen egokia egon beaŕ.

Esan beaŕ dugu, ala ere, euzkalduna, egun arte, alaxe agertzen dala: euzkeraz irakurtzeko ta idazteko beti gogo aundirik gabe, euzkeraz eta erderaz ere. Eta zaletasun gabeko izate ori, alegia, euzkerarentzat kaltegaŕienetakoa. Zergatik, alabaña, esandako gogo gutxi ori? Ona emen, gure ustez, bidezkoa dan erantzuna:

Euzkaleŕi'an, beste Eŕi geyenetan bezela, lekaideak izan ziran, irakurtzen eta idazten, lenbizi ari-izan ziranak.

Lekaide aiek, beren bizi-moduarengatik edo, lateraz egin beaŕ izan zuten; eta latera, ikasteko ta idazteko, mintzaira nagusi ta bakaŕa zalakoan, beste guztiak ezetsi. Lekaideen ondotik, beste batzuk ere asi ziran gero irakurtzeko ta idazteko naiean; eta auek ere, lengoen ereduz eta orduan beste biderik ez zegoelako, lateraz be egin beaŕ.

Uŕengoan, lateŕiak sendo ta tinkotzen asi ziranean beren izkuntzai tokia ematen ere asi zitzaien; gero beren Irakastola Nagusiak eraiki zituzten. Eŕi'aren ikasketak ere antolatzen; asieran eta luzaroan latera be izan zuten ikas-bide onenaz, baña bakoitzaren izkuntza sartzen ari zalarik, latera gero ta geyago baztertu ta Eŕi'aren mintzoa erabil̃i ta goratu zuten; bakoitzaren nortasuna indartzeko, guztiak bide ortatik alegintzen.

Gure Eŕi'an ere, lendabizi laterara jo zuten, bai lekaideak bai ta sortzen ari ziran beste ikastun guztiak ere; baña gero, euzkerara jo beaŕean, idazteko ta ikasteko erderaetara joan ziran. Oŕa oŕ okeŕa.

Eŕia, eŕi xea noski, jakintsuenganako, itzal aundikoa izan da beti, ta gurean ere, jakintsuek zegitena ontzat arturik, onena zalakoan, euzkerarenganako zaputz eta erderarekiko egaŕiz; ura etxean bakaŕik erabiltzekoa baitzan; au, ordea, Ludi'aren zeaŕ ibiltzeko beaŕa, ta jakintzarako bide bakaŕa.

Eta lateŕietan, agintariak, guztiak irakurtzen eta idazten ikas zezatela agindu zutenean, Euzkaleŕi'an, jakiña, iñori ez zitzaion otu euzkeraz orobat egin beaŕ zala. Bai zera!, irakurtzez edo idaztez mintzatu ezkero, erderaz egin beaŕ zalakoan zeuden beti; beste edozein asmo, orduan, erokeritzat artzeko noski.

Urte aunitz joan zaizkigu, gurasoak ere asmo beraz eta aŕeta aundienaz, umeak eskoletara bialtzen asi ziranetik. Eta Euzkaleŕi'an erderaz ikasi beaŕ zala-ta, urte ta urteetan gure euzkaldun umeak, euzkaldun utsak, erdaldun irakasleengana joan beaŕ. Orduan, alkaŕekiko eziñezko ulertzean, irakasleek, beren jakin ezean, astotzat artu beaŕ umeak; eta auek, orobat, beren burua ere astotzat euki! Noski, eskolan egia esaten baita beti, eta ikastera bialiak baitziran!

Irakasleek, ondore gabeko egiñaletan, zigortu; umeak izituŕik, zearo. Amaika neke ta negaŕ, gure umeenak, oŕengatik eskoletan jasan eta egindakoak! Askorentzat, geyenentzat esango genuke, beren bizitzaren gomuta txaŕ eta itunena, eskolarena eskierki!

Ementxe dugu, apika irakurtzeko ta idazteko euzkaldunen zaleta-



sun gabekoaren jatoŕi nagusiena. Gogo gutxidun, bai, baña ez berez, Eŕi'an irakasteko izan dan ankerkeriagatik baño.

Urte luzeetan oŕelango bizi-beaŕak, eŕiaren gogoan sendoki soŕarazi du, tinko ta isituki eustean, euzkera gauzik ez dala ustea, ez irakurtzeko, ez idazteko, ez eta ... ezertarako ere; eragozpenerako bai, agian, askorentzat.

Gure ustez, asmo auxe da, euzkaldunen artean gogoŕen bizi dana; ta oŕen zabaldua danezkero, legea bezela geyenentzat. Abertzaletasuna bera ez da izan, oraindiño, uste bakan ori menperatzeko aña. Alakotz, gure lenengoetako lana, iritzi ori kendu ta biŕintzea izan beaŕ.

Nola, ordea, oŕen sustrai aundi ta sakonak dituen landarea erauzi? Ezin gero, lan au, urte betekoa izan; urteak beaŕ ortarako. Asko? Gutxi? Gutxi izatea nai-izango genuke, baña bein bide onean gaudela ziuŕ izanik, onezkero naikoa zaigu lanean astea. Beraz, bidea aukeratzea izango da aŕeta aundienaz egin beaŕ duguna.

Zelan, baña, uste ori eŕotik atera-erazi ta, oŕen ordez, gure mintzoeraz al diteken ondoen irakurtzen eta idazten ikastea beaŕezkoa zaigula eŕian sakonki saŕ-eragin?

Zabalkundea egin beaŕ ortarako, ajola aundienaz antolatutako zabalkundea, bide asko erabil̃i baititezke; bide batzuk onak eskualde ontarako, beste batzuk artarako obeak; argi dago, izan al ditezken bide guztiak erabil̃i beaŕ dirala, aŕanguraz gero, ta elburu bakaŕ ta garbi ontaz: euzkaldunok, Ludi'ko beste gizaseme guziak bezela, gure izkuntzaz irakurtzen eta idazten ongienik ikasi ta jakin beaŕ dugula.

Edonolako zabalkundea bezela, gurea ere eten gabe egin beaŕ dala, ez da gero ukatzekorik. Gauzak eunka ta mil̃aka bideŕ esateak duen indaŕa nolakoa dan, ongi dugu ikasia; askotan, bai ta gezuŕ aundiena egitzat artzeraño ere.

Zabalkundea egiteko izan ditezken bideen artean, bat aipatu nai dugu emen, gure ustez egokienetakoa, egokirik baldin bada: Bertsolariena.

Bertsolariak, beren gogara, nun-nai ekin dezakete; bertsolariai gure eŕitaŕak ao-zabalik entzuten diete beti, ta aiek esandakoa, aiei entzundakoa, gogoko zaie beŕiz oroitu, abestu ta esatea; beraz, ereile onenak aiek, euzkaldunen artean azi emankoŕak edatzeko. Bertsolariak, gañera, euzkaltzale bikañak, beti euzkeraren alde ari-izateko gerturik daudenak; ontzat artuko balute gure asmoa, beren bertsoen bidez, zuzen-zuzen eta

ia oartu bage, euzkaldunen gogo ta biotzeraño elduko litzake guztioi dagokigun artegatasun au.

Izkuntza bat eutsi, zabaldu ta iraun-erazteko, bizi sakona izan dezan, ez da naikoa gero idazle onak eta auek egindako liburu edeŕak eukitzea; liburu auek, naiz eta Ludi'ko onenak izan, irakurtzen ezpadira, ezin onurakoŕik ukan, ezertarako gauzik ez.

Euzkal-irakurleak; ona emen geyen beaŕ duguna. Ba-ditugu idazle onak, eta ez gutxi, ari ta ari diranak, euzkeraz ongi, apain eta eŕaz idazten dutenak. Baña nun dira auen liburu ta lanen irakurleak? Iñun ez. Idazleak berak alkaŕi irakurtzen dizkiote beren lanak; beren obo txiki ta itxi ortaz landa, irakurle gutxi, oso gutxi oraindik.

Oŕengatik, gaur, beaŕ-beaŕenik, irakurleak. Alde guztietan idazle bakoitzarentzat miĺaka irakurle; euzkaldunen artean ezin gaur oŕen-beste.

Agintaritza gure eskuetan izango balitz, dana, irakurle ta guzti egingo genituzke; baña gaur eztugu oŕelakorik, eta oraingo agintariak, ego-aldekoak batez ere, aurka beti. Auxe dala-ta, beste bideak biĺatu beaŕ, egun.

Bertsolariena aipatu dugu, eŕiak euzkerarenganako duen iritzia aldatzeko. Baña naiz eta iritzi ori aldatu, ta ona deritzaiguna berarenganatuaŕen, irakurtzen eta idazten IKASI beaŕ da; IKASI ta IRAKASI.

Eskolarik gabe ere, eŕi ta uri bakoitzean irakasteko lana bere gain aŕ dezan, euzkaltzaleen bat biĺatu beaŕ-izango litzake.

Lan edeŕa eŕi bakoitzean, aunditxoenetan beñepein, euzkaltzale bat irakasle jaŕiko balitz! Gerorako ere, nolabait gure esku gaitezeneko, irakasle piĺoa eukitzeko asiera polita!

Irakasleak, beraz, irakurtzen eta idazten irakasteko; eta ikasteko beaŕ dan zaletasuna, biotzetan su-gaŕez pizteko, bertsolariak.

Ala ta guztiz ere, oŕen bidez egin litekena elitzake aski izango noski. Oŕezaz gure akats bat zuzenduko genuke eiki; baña bein gauzak zuzen jartzeko alegiñetan jaŕiko geranezkero, gure baitan ditugun utz guztiak zertzen alegindu beaŕ dugu.

Aipa dezagun, bada, beste bat, lendik esandakoa baño aundiagoa; ura sortzeko, beste ontan jatoŕi nagusiena dugulako.

Ona emen zein dan: euzkerarenganako aundiki ta ikastunen zabarkeri ta zapuzkeria.

Umeak, aitak dagiena egin nai duen bezela, eŕitaŕak ere, eŕi xumeak batez ere, beren burua baño geyagotzat dauzkaten antzera joka-



tzeko iŕikitzean beti, naiz eta, geyenetan, oarkabez izan. Apaiza, legegizona, sendagiĺea, irakaslea ta abaŕ, ontaz edo artaz, ari-izan eta, baseŕitaŕa, neskamea, aŕantzalea, langiĺea, orobat egiteko naiean. Oŕengatik, lenengoak euzkera utzi ta erderara jo ezkero, ara nun ditugun gure gizaseme aŕuntak euzkeraz lotsatzen eta beren sasi-erderaz yarduteko alegintzen.

Gure aundiki ta ikastunak, bada, eŕudun euzkeraren ondatzean; eŕudun aundienetakoak. Beraz, auengan ere zabalkunde berezia egin beaŕ-izango da, orain arte erabiĺi duten jokera zuzen dezaten; euzkeraren pizkundean, danen auŕean joanik, eŕiak ere, gero, jaŕai dizaien.

Oiek egin dezaketena nolako gaŕantzitsu izan ditekenik oaŕaraziz, dei berezia egitea deritzaigu ikastun eta jakintsuentzat egokia. Berengandik erantzun ona lortu ezkero, ziuŕ gaude eŕitaŕen artean ondorengo edeŕa aurki ikus genezakela. Eŕia, bertsolariek zirikatu ta jakitunen jaŕaibidez, pizkundearen barna ibiltzeko gogoz leyatuko litzakela, zalantzik ez gugan.

Alabaña, batzuei ta besteai bidea eŕaztu beaŕ-izango zaie, aldapak leguntzen eta zola gogortzen. Beaŕezkoa zaigu lan au ere egitea; lan berezia, idazleai dagokiena.

Ba-dago, beraz, idazleengan ere zer edo zeri so-egiteko, idazte utsaz landa.

Esan dezagun lenengoz, argi ta garbi, jaŕi ezin dakiokela idazle bati idazteko estutasunik. Bere esku jo beaŕ du idazleak idazkeran; norberaren aztarna, bakoitzaren nortasuna, bere idazkietan ager dedin.

Alan eta guztiz be, euzkerari buruz eta beraren onurako, ezinbestekoa zaigu ororentzako bide edo bide antzeko bat aukeratzea, zabala naikoa, jakiña, beraren barna guztiak lasai ibiltzeko, baña elburu bati sendoki zuzenduta: Euzkera indartu ta zabaltzeko elbururantz.

Bide ori aukeratzea ere ez da gero lan eŕaza izango; guztiok geren irizpide-zilo baikera!

Guretzat, aspaldian Garitaonaindia ta Azkue jaunak aolkatutako bidea, egokiena: Gipuzkeraren osotzea.

Alaz ere, ortara edo oŕen antzeko beste batera eltzeko, naimen onen eta aundienaz be, pizkanaka-pizkanaka joatea beaŕa deritzaigu. Eta naiz bide batetik naiz bestetik ari ezkero, euzkeraren batasuna izango dugu elburu. Ortaruntz abiaturik, asi lezakete idazleak, esate baterako, demostratiboak berdintzen; gero, astiroago, aditzerak, izkelgi bakoitzarenak beñepein. Batasun bi auek iristea, gauza luzea izango litzakelakoan ga-

goz; baña ontan ere, astea da naikoa, astea da beaŕena. Jaŕaitzeko gero, jakiña.

Asmo guzti auek onela jaŕi ditzakegu labuŕ:

1—Euzkeraz irakurtzeko ta idazteko eŕian gogo ta zaletasuna soŕarazi.

2—Euzkeraz irakurtzen eta idazten irakasteko, irakasleak gertu.

3—Ikastun eta jakitunak auŕetik asi ditezela, eŕiarentzako ikasbide onez.

4—Euzkal-batasunari buruz, idazleen laguntza.

Oŕela egin dezakegu, ene ustez, gure kulturaren egiazko asiera; onen ondoren irakaskintza guzian sartu, gero ikusiko dugun bezela, ta irakaskintzatik euzkal-bizi guzira edatu. Orduan izango ditugu gure olerkari yaukal bien ametsak buruturik: Detxepare, XVI'gaŕen mendekoa ta Lizardi, XX'gaŕenekoa. Goiburu bezela artzeko, bion bertso aiek: Lenengoarenak:

"Heuskara! Ialgi adi kanpora
Heuskara! Ialgi adi plazara
Heuskara! Ialgi adi mundura
Heuskara! Ialgi adi dantzara".

Eta bigaŕenarenak:

"Baiña nik, izkuntza laŕekoa,
nai aunat ere noranaikoa;
jakite-egoak igoa;
soña zaŕ, beŕi gogoa;
azal orizta, mami betirakoa".

Garai onean bota zigun Detxepare'k Euzkaleŕi'an barna, bere deadaŕ zoli ta baŕenkoŕa. XVI ta XVII'gaŕen mendeetan, gaur galendurik ikusten ditugun kulturak moldatzen asi ziranean. Ura aldiune egokia, euzkal-kultura bereizi bat burutzeko, aukerako asiera ona ukan al genezakeana: "Heuskara! Ialgi adi dantzara!".

Eta lau mende baŕu, oŕa oŕ gure Lizardi argidun olerkari yaukalak beŕiro adierazi digula, beste eraz, Detxepare'ren leia bera: "Nai aunat (euzkera) ... jakite egoak igoa".



Lau mende auetan euzkera ta euzkal-kultararekiko egindakoa ... ia utza. Oŕ ditugu Lizardi'ren itz auek egibidez.

Bitarte luze ortan kulturazko bazkun batzuk sortu ta il dira gure Eŕi'an: Azkoiti'ko Zaldunak eratutakoa; Oñati'ko Irakastola Nagusia; Gasteiz'koa, Iruña'koa; "Euzko Ikaskuntza" ta; oiek aipagaŕienetakoak.

Azkenengo bazkun ontan izanezik, euzkerarenganako ajola gutxi besteetan. Zergatik ote? Ez gera emen galdera onen erantzun zuzenaren biŕa ibiŕiko. Aski zaigu, oraingoz, egipen itun ori nabarmentzea.

Gogo-biziaren eratoŕera, luzaroan, jakitun eŕitaŕek eratua izan da gurean. Eta jakitun auek batetik, eta aipatutako gure olerkari yaukalak bestetik, alkaŕengandik aldenduta agertzen zaizkigu. Jakitunak, euzkera baztertzen; olerkariak, eutsi ta goratu naiean.

Ona emen alkaŕen oso berezturik doazkigun bide bi. Ba-dirudi, gure Eŕi'aren biziari so-egiñez, beaŕezkoa dala bi bide oiek aurkako izatea: Euzkaleŕi'an yakintzaren bidea ibiŕi nai duenak, izkuntzarena utzi beaŕ; eta berebat bestea: euzkeraz yardun gura duenak, ari aguŕ esatea noraezeko.

Nori ta zeri jaŕaitu? Geron aburuz, goyeneko olerkariak, geyenetan, beren Eŕi'en abotsa dira; beren baŕeneko doaia, Eŕi-gogoarena nonbait; eŕiak barneko gunetan duen gaŕaren txinpart eta erlantzaen antzekoak dira, noski. Oŕetxengatik nabarigaŕi beti beren itzak; eta auen bidez adierazten dizkiguten beren asmo bikañak aintzakotzat artu beaŕ. Beraz, olerkariai ta berak esandakoari jaŕaitzea dagokigu, alegia, gure auzi ontan ere.

Bai, egoki ta beaŕezkoa zaigu gure izkuntza zaintzea, oŕen bidez Eŕi'aren gogoari eutsi al-izateko; izkuntza, mintzoera danez bakaŕik erabiltzea elburu ona izanaŕen, ez da ala-ere naikoa; Eŕi'aren bizia zaintzeko gai ta bide egoki ta bakaŕa izanik, oŕa elburu bikañago.

Olerkariek nabaritutako asmoak, beraz, guretzat artu beaŕ. Baña zer esan nai ote du emen ezaŕi dugun ondore onek? Yakintzazko beste bidea zearo utzi beaŕ dugula? Ez, iñola ere ez, oŕelakorik. Gurekiko, len esan dugunez, aipatutako bide biak —euskera ta yakintzarena— alkaŕengandik alde egiten doazela irudiaŕen, bestelaz eragitekoak ditugu, ta orain arte osteturik izan ditugun bide bi oiek alkartzea dugu gure eginbeaŕa, gure eginbide nagusienetakoa.

Bakoitzari dagokigun izari bereizian, oŕi buruz abiatu ta ari beaŕ dugulakoan gagoz. Oŕela danez geroz, norbait, batzuen batzuk, beren eginkizunetan aldatu beaŕ, nai ta nai ez. Eta beŕiro esanda, gure oler-

kariak zuzen dabiltzala bayeztu ezkero, yakitunak dira, noski, beŕen egikerai Eŕi'ak beaŕ duen zuzenbidea emateko bearturik dagozenak.

Ezinbestekoa dugu auxe, ta gure jakitunengan jaŕi dugu gure oldozmen osoa, berak baititugu beaŕezkoenak gure euzkal-kultura eratzeko.

Euzkera ta yakintza alkartu beaŕ, ertsiki alkartu gero; naiz euzkera "jakite-egoak" jasoa izan dedin, naiz yakintza euzkeraren egoek eutsi, iraun-erazi, jaso ta eŕitaŕ geyenenganaño elarazteko; alkaŕekin eta alkaŕ lagunduz egan egin beaŕ.

Ona emen euzkaldun yakitunen egiteko lan goyenekoa. Ez da izango, eiki, gauza eŕaza oŕelako asmo bikaña burutzea; zaĺa, astiro ta luzaroan egitekoa baizik; gure euzkera au, mendez-mende, oŕen bazterturik egon baita. Baña beaŕ-beaŕa dugu bazteŕetik ateratzea, ta yakitunen eginbide oŕi, guztiona ere izanik, danok lagundu beaŕ diogu, ezpairik gabe.

Guziok, beraz, bide batean eta elburu bateruntz: euzkeraren bidez, euzkal-kulturarenganuntz. Argi agertzen zaigunez, euzkal-kultura, egitan, euzkeraz egindako kultura baita; ez besterik.

Oŕa oŕ, gañera, goi ta beko euzkaldun guztiok, ederkien batu gaitezken xede bikain eta yayoa. Ezpekie yakitunai, aŕokeriz, eŕi-xea aiztu!

Orain arte gizadiaren auŕean, gure nortasun nabarmenak Eŕi bereizi baten antzeko aurkeztu gaitu. Noraezeko zaigu, gero ta geyago, gure aurkezte ori, asmo batez eta, gañez gain, naimen oso batez egitea.

Goyeneko egipen batean, guziok batera diardugularik erakutsiz, gure asmo ta naimen oiek adieraziko dizkiegu besteai ongienik.

Egipen onena guretzat, euzkal-kulturarena dugu; gure abururako edeŕ-edeŕena. Eta gure kultura ori, euzkeraz eta ez bestez egin beaŕ danezkero, euzkera dugu gure euzkal-bizirako bide bakaŕa.

Alkaŕ ikus dezagula, ugari, bide ortan barna.

"Enbata" deritzaioten euzkal-ikasleen bazkunak, Donibane Loitzun'en, 1955'ko uztaiĺaren azkenengo egunetan bere zortzigaŕen biĺera ukan zuen.

Biĺera artan Larzabal apaiz jaun agurgaŕi ta euzkal-antzerkiĺe ospetsuak itzaldi bat eman zuen euzkal-antzerkiaz mintzatuz. Eta kulturaren adaŕ berezi au goraturik, bertan baŕena idazle ta egiĺeak areago yarduten ikusi nai-izango litukela esan zuen.

Ona emen orduko aren itzak: "Euzkal-idazleak euzkal-gaiak erabiĺi beaŕ izango lituzkete, gizadiari ta gizadiarentzat beŕi ta jatoŕizkoa den zerbait eskeiñi ta emateko; nabarigaŕi den ori euzkal-gogo bereziarengandik sortua izanez" (Egun aietako "Basque-Eclair" egunerokotik



artuta). Noski, ez besteak beste izkuntzetan egin dutena euzkeratu bakaŕik, gogo berezi arezaz zerbait soŕerazi baño.

Itz auek ikusirik eta egin dituena nor dan gogoratuz, berez eta bereala datorkigu susmoa: ia orain arte antzertian egin dana, guztia ezpada, geyena bai agian, andik edo emendik artutako asmo ta gaien antzeko izan ez ote dan.

Eta antzertiaz diñoguna, ezin orobat esan kulturaren beste adaŕ guztiai buruz? Elitzake alpeŕikako lana izango, eiki, gaur arte idatzi dan guztian, zeatzez, adaŕez, lan edo egiĺe bakoitzaren jatoŕia nun ote dagoen ikustea ta jakitea; nolako kultura edo idazkerak, oarturik ala oarkabez, bakoitzari eragin dion.

Egoki ta onurakoŕ izan liteken onelako ikasketa, lan eziña guretzat, ortarako gai ezpaikera. Dana dala, ez ote dugu uste-izan beaŕ euzkal-elerti osoan jatoŕizko gutxi dagoela?

Geron aburuz, gañera, oŕela izan beaŕ; lantzen ez dan kultura batetik, nola sortuko litzake kultura oŕen berezitasunik? Gure idazle geyen-geyenak (guztiak ez esateagatik), beste kulturetan moldatu dute beren yakintza, txikitarik asi ta burutzeraño; bidezkoa beraz, kultura oiek daramazkiten bide berezietatik ari-izatea, naiz eta euzkal-gaietan sartzen diranak, nai-ezik edo oartu gabe yardunaŕen.

Beste kulturaetaz kutsuturik ez dagozenak, gurean koblakari ta bertsolaria baño besterik, gutxi noski; eta gure ertilari jatoŕ oien lana beti mugaŕi ta zedaŕi ertsien artean ari beaŕ.

Beaŕezkoa izango zaigu, beraz, gure kulturan barna lan eta lan egitea; kultura au bera ongien antolatzea ta erabiltzea, berarengandik jatoŕizko zituak ardietsi al-izateko.

Eta, zer esanik ez, gure lan berezi guzti oŕen bidea euzkera izan beaŕ. Oŕetxengatik egokia zaigu gogoaren eginkizun guztietan gure izkuntza au sartzea; lenengo irakaskintzan asi ta al ditezken goikoenetaraño; eratutako irakastaldietan ikasten danaz moldatzen baita norberaren izaera.

Bide luzea auŕeruntz agertzen dana, gure elbururaño eltzeko egin beaŕ duguna; argi baita ikaskuntza guzietan, batera, euzkera bidez sartzea eziña dala. Maĺaka ari beaŕ, lenengoetatik asita; gero, eten gabe ta kemenez jaŕaituz, ikasketa, yakintza ta gogoari dagokion guztia benetako euzkal-eguratsaz bildu ta inguraturik egon arte.

Orduan, eta orduan bakaŕik, jatoŕizko lanen sortzea itxaron genezake. Ba-liteke buru argi-argidun bat, bide luze ori egin gabe ta bertan

abiatzeke agertzea; ezin, alaz ere, oŕen zai egon; zentzudun bideetatik ibiltzea dugu egokiena, ta buŕu argidun ori sortu ezkero, askoz eŕezago irtengo da ongi borobildutako euzkal-eguŕats ortatik.

Nola baña elburu ortaruntz doazen bideak atondu? Oŕa azkatasuna zertarako nai dugun. Azkatasunean yardun dezaken Euzkal-Jaurlaritza batek, eta berak bakaŕik, egin lezake egoki lan aundi ori, noizpait buruturik izan zedin.

Eta noiz lan ortan asi? Oraintxe bertan. Ezin, noski, orain asi Euzkadi'n egiazko Euzkal-Jaurlaritza agintariz jaŕia izango balitz bezela. Baña bai, gutxienez, ordu artako lan berezia eramateko beaŕak izango diran arau egokiak gertutzen, lenen-lenengoko une egoki artatik zalantzik gabe asteko.

Ziuŕ egon beaŕ guztiok Euzkadi'ren bizian egun ori elduko dala. Ziurtasun ortaz gure almen osoaz alegintzea dagokiku, orain eta orduan gure agintariak beren egipenetan barna laguntzen; batez ere euzkal-kulturarekiko dagokion guztian.

Esan duguna ikusirik, nork edo nork esan lezake kultura ta politika nasten ari gerala. Ez oŕelakorik, ongi ezagutzen baitugu politika bat dala ta kultura bestea; baña bien gaia gizona bera dalarik, nai ta nai ez, beren artean aŕemanik beti sortu beaŕ.

Euzkal-Jaurlaritza batek euzkal-gogoari ta euzkal-kulturari buruz, politika berezia ukan beaŕ; noraezeko ta ezinbestez ori. Beraz alde ortatik zuzendu beaŕ gure agintarien politika berezia, ta zentzun oŕezaz ari dira emen gure gogaketak.

Esanak esan, ia guztia egiteko dagoela gañeratu beaŕ. Eta naiz gure Jaurlaritza laguntzeko, naiz onen lanetatik at ari-izateko, gertu egon beaŕ beti bere burua euzkaltzaletzat daukana. Zein goiko maŕetan ari diranak, zein bekoetan diardugunok, argienik dakusgu nolako beaŕa zaigun euzkeraren bidez ekitea, gure Eŕi'aren bizirako ezinbestekoa dan euzkal-kultura berezia eratu, indartu ta eusteko.

Guretzat auxe zio aski, besterik gabe ekiteko. Baña Ludi'an gagoz, luditaŕ guztienganako eginbideak ditugu, ta eginbide oiek ere ongienik betetzeko, gure bereizitasunetik aterako da, alegia, bide egokiena.

Bide au jatoŕizkoa izan beaŕ, zalantzik gabe; jatoŕizko zituak, gureak izanez, eskeiñi al-izateko. Ezinbeste ta noraezeko bidea.

Alakotz, naiz gizadiarekiko, naiz guri dagokigun beste ikuspenari buruz, euzkal-jatortasuna zaindu ta eutsi beaŕ; eta ortarako euzkal-kultura bereizia dugu egokiro eratu beaŕ duguna.



Eta, esan dugunez, euzkal-kulturarik ez, euzkeraŕik gabe. Euzkera dugu, beraz, gure gogo, jatortasun eta egipen guzien oñaŕi. Euzkera, bizi-izateko beaŕa zaigun euzkal-eguratsa izan dezagun. Gure kultura eŕitaŕa izatea dagokigu, osoro, erabat; eta kulturaren bidez euzkera ta euzkal-gogoa yagon eta sendotzeko beaŕa baitugu, alderantziz, gure kultura oŕek eŕiaren guna xurgatu egin beaŕ eta ortarako eŕikoen izakeraz, euzkal-eguratsaz, elikatu ta inguratzea dugu beaŕenik.

Gure Eŕi'aren bizia beaŕ dan bezela izan eta eda dedin, euzkal-eguratsean egingo dan euzkal-kultura osoa dugu, bada, baitezpadakoa; itzegiten ikasten ari-izango dan umearen lenengo itzetatik, yakitun gorenengoaren irakaspen sakonetaraño, naiz eguratsa naiz kultura ta gogo-lantzea izango dan guzia, euzkeraz ikasi, irakasi ta erabiltzean.

Eta biotz-barnetik nere abeŕiari orixe opa diodalarik, egitan oŕelaxe izan zediñean, orduan agertuko litzake 'euzkaldun osoa', orain arte, guk dakigunez, gure Eŕi'aren kondairan iñoiz izan ez dana. Euzkaldun osoa, amaren esnea xurgatzen ari-izango litzaken unealdi gozo artan asi-ta, gizon egiña ta ikastun oso izan arte, bere adimenerako janari guzia euzkeraren bidez artuko duen euzkaldun-gizona.

Auxe, gaur, ametsa noski; beterik izango al da iñoiz? Nork esan orain? Ene ustez beaŕ-beaŕa izanik, elburu bikañenetako Euzkadi gure sorteŕiarentzat. Ez ote da guztiz bidezkoa, euzkalduna beste kulturetan, emen eta an, bat-banaka izan bada ere, yakintzaren goragoko maŕetara igo baldin bada, bere kulturan barna aisago, etekintsuago ta kopuru aundiagoan oŕenbeste egingo duela ustea? Aurkeztu ditugun baldintzakaz lanean ari-izango liraken Euzkal-Irakastola-Nagusi'etatik, ez ote lirake irtengo gaur Erdal-Irakastola-Nagusi'etatik sortzen diran euzkaldunak baño yakintsuago, egiñago, gertuago? Ustekoa, bai, bederen; erabat ustekoa.

Noski, geron asmoetan, beaŕezkoa da oŕela gertatzea. Gaurko egunean erdal-ikastolara doan euzkaldun jatoŕa, bere gogoarena ez dan mintzoeraren bidez irakaskintza bereganatzeko gogoŕ indartzen zaionean, bere gogo ortan irendurik geratzen da oso, eta oŕengatik bere almenak gutxiturik ere. Nola emango du berarengandik beste Eŕi'etako gizonak ainbat etekiñ? Ez berarentzat, ez bere abeŕiarentzat, ez eta gizadiarentzat ere, iñorentzat. Alakotz, orain arte euzkaldunaren kulturari buruz egiten dana, berarenganako, bere abeŕi ta gizadiarenganako, ogen izugaŕienetakoa izan beaŕ; gaurko ontan "jenozidio" izen bereziaz ezagutzen duguna osoro burutzen dana, guztien kalterako gañera.

1959'gaȓeneko udan, Napaȓoa'ko Betelu eȓian, "Príncipe de Viana" izeneko erakundeak jai berezi bat antolatu zuen. Jai oȓen elburua, Betelu, Araiz, Azpiroz eta Lezaeta eȓietako auȓak, euzkerari buruz aztertu, ta aien artean sariak banatzea izan zan. Bertan Arbizu'ko euzkaltzale jatoȓ eta sutsua zan Goikoetxea'taȓ Yon apaiz jaunak itzaldi egokia eman zuen, eta auetxek ditugu arek esandako itz zuzenak: "Euskaldunaren betetasuna izkuntzaren bidez bakaȓik iristen da eta izkuntza ori galtzen duenak euskaldun-izakeraren mami bedegaȓa, bere biziaren oȓen berezia dan bere izatea ere galtzen du". Alegia, oȓela egiten duena edo ori izatera eltzen dana, euzkaldun osoaren beste mutuȓekoa dugu ta aren ukabidea.

Itz egokiak Goikoetxea jaunak esandakoak: "Euskaldunaren betetasuna", arean, euzkaldun osoaren asmoa. Bertan ipintzeko Mundu ontarako, Euzkadi'ren elburu nagusiena.

## VIII.—Kultura edatzeko oñaȓi beaȓa: Irakaskintza. Euzkal-kulturari dagokiona: Euzkal-irakaskintza.

Gero ta geyago erabiltzen da, alde guztietan, "kultura" laterazko itz au; bere esanaia zedaȓitu da onezkero; noski, len, zentzun zabalagoan, landu egin beaȓ zan gauza guztietarako erabiltzen zan; egun, "kultura" aipatzen dugunean, gogoaren kultura esan nai dugu geyenetan; oȓela dala-ta, norbaitek, asmo oȓezaz, euzkeraz "kultura" esateko, "gogo-lantze" eratu zuen egokienik; alegia, gogoa izaten baita kulturaren bidez lantzen dana.

Kultura zabaleko gizona, kultura aundiko Eȓia ta auetako esakunak saȓitan entzuten dira nunai. Bereiziki ezpada ere, kultura edo da gaur gizon eta Eȓi'en elburu aundia; guziak bereganatu nai dute kulturadun izenondo ori, eta alegiñetan ari ere bera irabazteko; bizi-izateko ere bide egokiena edo dalakoan.

Dana dala, auxe da gaur guzion yardunketa: gure gogoa ta gure Eȓi'arena kulturaren bidez eratzea. Gizonaren elburu nagusiena ezpada ere, bai elburu aundia, nagusiarenganuntz eraman gaitzakena; ortarako baitugu Yainkoa'k emana, gure gogoan adimena, ain zuzen, gizonaren berezia dana; ta geron baitan dugun goi-pindaȓ ori, ta bera eman diguna, batera, uȓuñatzea izango litzake, beaȓa dan bezela, yakintzaren bidez elikatu ta goragotuko ezpagenu.

Bere gogoaren lantzea, beraz, gizonaren beaȓa bezela ikusteko, bai ta gizonaren eginbideaz ere. Eta gizonari buruz bayezten duguna, bere izarian eskierki, Eȓi'ekiko ere esatekoa dugu egoki oso.

Gogoa lantzea, gizon eta Eȓi'engan. Gizadian izan dugun kardaba aundienetakoa, gero ta orokaȓago duguna. Eta amaika iritzi mendez-mende, egite ori betetzeko bide onenak aukera ta eramateko. Nola landu, nola eratu gizonaren gogoa?; zelan egin orixe, Eȓi-gogoari buruz? Lenengoa eȓazago, apika, bigaȓena baño, aren gogoa bigaȓenarena baño yarei ta zaluago dalako. Noski, gizonak edonun lan dezake bere gogoa, bere nayari arauz; jayo dan eguratsan ala, auxe utzita, bestelako batean

ere. Eŕi'ak, ordea, ezin oŕelakorik egin; Eŕi'ak bere eguratsan bertan egosi beaŕ du bere kultura guzia; beste batera sartzen bada, bere izaera ukatu ta bere burua iltzea izango litzakelako.

Alaz ere, gaur, gero ta argiago ikusten bide da, gizonarentzat ere mila bideŕ egokiagoa dala, bakoitza bere Eŕi'aren eguratsan eratzea; beraz, gizonaren kultura ta bere Eŕi'arena bat ezpadira, bai gutxienez senide, alkaŕ eragiten eta gizonak batez ere Eŕi'arenaz onurartzen. Orixe, gaur, beaŕenezko bidea bezela artu beaŕ dala argi agertzen da; eta beste biderik erabiltzen bada, ara "jenozikio" izenezko ankerkeria betetzen dala, Eŕi'ai buruz egiten baldin bada.

Naiz gizonari dagokion izarian, naiz Eŕi'arekiko neuŕian, guzien kultura eratzeko lenengo uŕatsa, gogo guztiak elikatu ta lantzeko lendabiziko azkuŕia, orokaŕa dugu oso, bi aiengan bat izanik: Irakaskintza. Auxe pelokeri dirudien egia. Ala ere, oartzekoa dugu irakaskintza antolatzeko eguzpikean erabiltzen dan aŕeta; ortarako eratu dituzten egitarauak, bateratsu ditugu geyenak; mila bider aldatuak, guziak ikusten dira norabide batean zuzendurik. Ezer baldin bada, orixe zeazki atondurik ikusten duguna, zeazkiegi ausaz batzuetan.

Ona emen Vendryes'taŕ J. jaunak zer diñoen (aipatutako "El Lenguaje" bere liburuan - 364'gn. oŕialdean): "Parantzera, eskolan ikasten dugun eraz, elertilari ta eliztilarien alegin alkartuai zoŕ diegu. Aiek eta auek lankai edeŕ au landu dute, edonungo erdoiak loŕindu ez dezan aŕetaz begiratzen. Izkuntzaren garbitzea, mende batzuetan barna jaŕaituta, muŕitz eta aŕoputzen lana dala irudi diteke; ala ere, ortatik onura aski datorkigu, egin dutenenganako eskeŕ-oneko izan gaitezen. Idazleen ikasketan eratu diran eskola-irakasleen eskeŕ, gure oldozkunak adierazteko eŕa egokiena daukagu, zentzu zeatza duten itzen izkuntza; eta onen birak beren lits xeenetan tinkotuak daude".

Asmo ta gogai guziak, alkaŕen leyan, umeak eta gazteak jabetu nai dituzte, bakoitzak norberaren eyeran eyotutako iriñaz zuritzeko xedean; guziek ederki baitakite irakaskintzan barna artzen dala, nai ta nai ez, bizi guzirako kultura baten oñaŕia, gogo batentzako norabide tinkoa. Beraz, naiz guzientzako naiz berezienentzako kulturan, irakaskintza dugu lenengo uŕats, beaŕa ta eraginkoŕa.

Lentxoago beŕiz aipatu dugun Vendryes jaunaren liburuan bertan (365'gn. oŕialdean) oŕela irakuŕi diteke: "Geuk, guziok eta bakoitzak, naiz eta artutako irakaspena oso txikia izan, mintzatzean, oartzeke askotan, eskolako gure gogorapenetik onura ateratzen dugu".



Urduŕi beti endeŕi ta lateŕietan barna, beren xedearekiko ume ta gazteak eratu naiean; alik eta laisteŕen gurasoengandik artu ta beren bideetan sartzen dituzte; mail batetik bestera jaŕai-eraztean, umea koskortu ta gizondu arte, lendik ajola aundienaz ezaŕitako bideetan barna joan beaŕ; guztiak, beren kulturaren egitarauetan egindako eŕetenen norabidean eramaten; eta ikasleen gogoa, alegia, auŕetik ere jaŕitako asmo batek zuzendurik. Egiz, gaŕantzi izugaŕia gizonarentzat, eta Eŕi'entzat batez ere, irakaskintzak duena.

Ezinbestekoa dugu, bada, irakaskintza, gizon eta Eŕi'ak beren kultura eratzeko, orixe edozein izanik. Eta nolako irakaskintza, alako kultura izango dugu; eta zelango kultura alango gogoa ere.

Gure Eŕi'an joan dan mendean eta oraingoan egiten ari-izan dana, ajolaz begiratzen badugu, argi ta berealaxe ikusiko dugu irakaskintzaren gaŕantzia benetan aundia izan dala. Erdibiturik gaituzten lateŕien asmoetarako eratu ta jaŕai-erazi digute guzia, mugaren alde bietan, bakoitzak bere xedeari buruz antolaturik. Bakoitzak bere kulturan barna, bakoitzak bere izkuntzaren bidez, bakoitzak gu osoro berarenganatzeko asmoz. Egitan izkuntzaen guda dugu gurean, eta Vendryes jaunak diñoenez ("El Lenguaje" - 374'gn. oŕialdean): "Irakastolan gertutzen da izkuntzaen guda; baña biziaren ekitaldian lortzen da gurenda". Guda ori, orain eraman beaŕ dugun eraz, argi dago gurean nork galdu beaŕ duen.

Ez dira alpeŕikako izan aien xedeetarako, bete ta betetzen ari diran alegiñak; gaur mugaren egoaldeko euzkaldunak gero ta españaŕago, eta ipaŕaldekoak gero ta parantziaŕago; batzuk eta besteak, oro, gero ta euzkaldun ezago, gutxituago. Oŕela jaŕaitu ezkero, urte gutxi baŕu, suntzitu ta ezabaturik geratuko da Euzkaleŕia; España ta Frantzia, pozik, españaŕ eta parantziaŕ batzuk geyago izango dituzte, eta Ludi'an izan diteken "jenozidio" aundienetakoa aŕas buruturik izango dugu.

Mende ontan, gure ezbeaŕak giño ta kaizu oŕen izugaŕiak artu dituenean —gerokoak esateko nonbait garaiz ala berandu izan ote dan— gure Eŕia itxartzen ari dala dirudi. Lo-betean zegoelarik, astiñaldi gogoŕena izan du beaŕa, lotan zegoela, iltzera zijoala ikusteko. Arana Goiri'taŕ Sabin izan zan iñaŕosaldi ori ausarki ta gotoŕ eman ziona; il ondoren ere ematen ari zaiona. Begiak ia itxita zeuzkalarik, berari buruzko egi garbia auŕean ezaŕi zion abeŕiari euzkaldun argi arek, eta egi ori oŕen gardenik dala-ta, bere lan onuratsua betetzen ari da Euzkadi'ko seme guztien artean.

Politika edo eriketaren bideak artu zituen Euzkadi'k, bereziki lenengoz, ortan untzea zegoela ustean; eta ortxe dagoen auzia onbideraturik, beste guztia atzetik eraz etoriko litzakelakoan. Ala ere, larogei urte auetan jazo dana ikusita, argi agertzen da eriketari buruzko bideak oso zuzenak ez dirala, ta uste-izandako baño beranduago dagoela izari ortako korapiloa askatzea. Bide batez eta politikarena alboratu gabe, bere gogoarekiko beara zaiona ere, nolabait batera atondu egin ditekela oarturik, ortara jotzen dute gaur euzkaldunek asko, beren gogo bereziari nola eutsi dizaioketen azterkatzean.

Ongi ikusi bide dute oiek, gure gogoa galdu ez dedin, kulturaren beara dugula; ez edonolako kultura gero, euzkal-kultura egitan dei ditekena baño; euzkal-kultura ori, aureko atalean esan dugunez, euzkeraz egindakoa ta euzkal-eguratsan burututakoa ere izan bear dala; eta azkenez, euzkal-kultura orek, beste guziak berena bezela, euzkal-irakaskintza ere bear-beara duela. Ortxe ta orela euzkal-gogoarekiko auzia, auzi osoa.

Eskierki, Euzkadi'n azkatasun osoa ezagutu arte eziña izango da asmo oiek burutzeko bide egokirik eta bide aski izatea. Alan eta guztiz be, auziaren bearak auretik ikusi-ta, asko egin diteke gaur bertan gerokoa antolatzen asteko.

Euzkal-kultura bear dan bezela eratzeko, euzkal-irakaskintza jartzea eskatzen dugunean, alegia, yarei diran beste Eri'etan lasai ta zabal betetzen dana baño besterik egin bear dala ez dugu esan nai. Beraz gizaseme guztien izarian barna ekin nai dugu, ez geyagotan baña ez eta gutxiagotan ere.

Egun zer egin diteken ikusteko, Eri osoaren egokera gaur nolakoa dan ikusi bear. Biztanleai buruz, orain Eri guziaren laurdena baño geixeago bakarik dugu egiazko euzkalduna dana. Alakotz, naiz eta oraintxe bertan gure egitarau guztiak egin eta ibiltzea jartzeko almen guzia izango bagenu, eziña izango litzaiguke berealakoan euzkal-irakaskintza aberiaren eskualde guztietan antolatzea, eta egiz euzkaldunak diranen artean bakarik al-izango litzake asmo ori burutzea.

Baña euzkal-irakaskintza on batek bearak izango lituken egitarau bereziak ez dira egun batean atontzen; beraz, gaur, len esan dugun almenik izan ezean, orelakoa eltzen dan arteko aldi au ongi bete dezakegu, egitarau oiek antolatzen. Ora or iñoren zai egon gabe ongi egin dezakegun lan onuratsuenetakoa.

Ez da, noski, ori bakarik aski izango; euzkera, gaya bezela, ikasi ta



irakasi egin bear da eten gabe etxean eta kanpo; etxean, eri guztietan eta erabil ditzakegun bide guzietan barna; kanpoan, euzkaldunak bizi diran alde guzietan, edonun; ezin aberia utzi duten euzkaldunak, ororena dan eginbidea bete gabe geratzea; sorteria guziona da; orain arte odolez oso gareztia dugu, ta ez da gurea, orengatik, aiko-maikotan ibiltzeko ta erabiltzeko arazoa.

Euzkera bera dugu, geroztik, gure almen eta indar guziaz zaindu, ikasi ta irakasi bear duguna. Bietarikoak ditugu lan ortan sar ditezken euzkaldunak: euzkaldun garbiak eta euzkaldun beriak. Goazen bi euzkaldun-mota oien eginbideak nola bereizten eta nola batera el ditezken ikustera:

Guztien eginbidea izanaren, euzkeraz ikasi bear dala esaten danean, uste oker bat sortu oi da askoren aburuetan; zentzunezko iritzia gañera, auzia azalez begiratu ezkero. Egitan, zerbait ikasi bear duena, nor ote?; eraz erantzutea, bidezkoa oso: zerbait orezaz ezer ez dakiena, noski. Alakotz, euzkeraz ikasi bear duena, erdalduna; euzkaldunak ba-daki, oretxengatik deitzen dio "euzkalduna" bere buruari; beraz, euzkeraz ikasteko eginbidea, iñoiz ez berarengan.

Itz oiek berberak, alegia, jaiotzezko euzkaldunak, euzkaldun garbiak, beren baitan ezpadarabilzkite, gai orekiko oien egintzak bide ortatik doazela esango genuke.

Bide oker eta kaltegari, alajaña. Euzkeraz jakin bear dala esaten dugunean, txikitan, amaren besoetan edo auzoko adiskideekin ikasten dana baño besterik ikasi bear eztalakoan, ezin iñor egon.

Zenbat eta zenbat euzkaldun ez ote diran, beren aurtzaroan entzunez ikasitako euzkera baño besterik ez dakitenak. Zer esango genuke, españar, parantzetar, englandar, ... bateaz, orenbeste esan bear baldin bagenu? Eredutzat emango al genioke orelakorik, españeraz, parantzeraz, englanderaz, ... ikasi nai zezanari? Eta ain erabiliak diran izkuntza oietan, euzkeraz baño itz eta gauza askoz geyago ikasten dira, gero, umeen artean.

Kulturazko izkuntza guzietan eta ainbestekoak ez diranetan ere, alik eta laisteren, guraso ta agintariak alegiñak dagizkite, umeak irakurtzen eta idazten ikas dezaten, eta gogoz eta aretaz irakasten diete mintzoera, bakoitzaren eliztiaren bidez. Orixe dugu Ludi guztian gizasemeak oro beren kulturazko bideetan barna dagizkiten lenengo uratsak.

Beraz, euzkal-kultura eraiki bear baldin bada ori ere bearena; ga-

ñera, euzkera zaindu ta iraunerazi nai-izan ezkero, oñaŕi sendo ortatik bertatik asi beaŕ geuk ere. Alakotz, txikitatik eta entzunez bakaŕik ikasitako euzkera, ezin, iñola ere, naikoa dala uste-izan, eta, ondorioz, euzkaldun garbiak diranak ere, irakurtzen eta idazten ikasi beaŕ. Gañera, berak dakite ondo ta oartzeke —txikitan ikasita, euzkera beren lenengo izkuntza dutelako— gure mintzoera onen joskera jatoŕa, eta oŕengatik idatzi dezakete euzkeraz beste iñork baño obeto; idatzi ta euzkaldun garbiak ez diranai irakasi ere.

Ba-dugu euzkerarekiko beste gauza oargaŕi bat, danok —euzkaldun garbiak ere— gogoratu beaŕ duguna. Euzkaleŕi'an euzkelgi batzuk ditugu, ta, euzkera eskolako izkuntza ez izateagatik edo, gaur euzkelgi batean bizi diran itz asko, beste euzkelgietan aiztu edo galdu egin dira; ta, arean, euzkaldun garbiak ezin naikotzat euki miĺa bider entzun dugun au: ba ... oŕela ez da Gipuzkoa'n, edo Bizkaya'n, edo Laburdi'n, edo ... nire eŕian esaten. Oŕela bada ere, aiek ez dakizkiten itz oiek euzkerazkoak dira besteak bezela, ta aien eginbidea oietxek ere ikastea da.

Galdera bat ontaz amaitzeko: Gaurko euzkaldun garbien artean euzkeraz txikitan ikasi ezpalute, orain zenbat ote euzkaldun? Negargaŕizko erantzuna entzun beaŕ izango genukena.

Alakotz, euzkaldun garbiak ere, utzi bezate alboan zabarkeri oro ta ikasi, ikasi euzkeraz irakurtzen, ikasi idazten, ikasi euzkal-eliztia; eta gero, al dan guztietan irakuŕi ta idatzi euzkeraz. Eginbidea dute ori, eginbeaŕ nagusienetakoa; nerea bezela, euzkotaŕ eta euzkaldun guziena bezela. Ez uko egin, gure Eŕi'ak bizi-izateko beaŕ duen euzkerari, beaŕa zaion laguntza. Bide ortan barna ibiĺi, ta gogoŕ ibiĺi beaŕ dute aiek gañera; bestela, euzkera il ezkero, eŕudun izango dira, naiz eta txikitan ikasitako euzkeraz euzkaldunak izan.

Goazen orain euzkaldun beŕiengana: Eŕitaŕak ditugun erdaldunen artean euzkerarenganako maitasuna ta jakin-naia soŕeraztea beaŕa da. Ez dagokigu emen elburu ori nola lortuko dan esatea. Jakin-naia duenarengandik asi beaŕ dugu emen mintzatzen:

Naiz euzkeraz nai edonungo beste mintzoeraz, ez dugu uste gizon batek bakaŕ-bakaŕik ongi ikasi dezakenik, ez mintzatu, ez irakuŕi, ez idatzi, ez ulertu; dana ongi egin nai baldin badu; beraz, beaŕa izango zaio edonori irakasle bat biĺatzea, naiz eta au oso on eta gorengoa ezpada ere; bai, egoki ta beaŕa, nolabait gutxienez, zuzendu dezaken bat edo bat eukitzea.



Gero, ba-liteke zein euzkelgi autatzeko zalantzan ibiltzea. Oŕi buruz, naiz eta, oraindik ere, Bonaparte'k ikusitako zortzi euzkelgiak iraunaŕen, lauetara laburtu ditzakegula uste dugu, gaurko ontan, esandako zortzi oiek: bizkaiera, gipuzkoera, laburdiera ta zuberoera. Napaŕoa aldeko beste laurak, guipuzkoera ta laburdiera'rekin alkarganatzen ari diralakoan gaude, zuberoera'rekin ere zerbait, eta oŕetxengatik ez dugu oietaz besterik esango.

Lenengoa, zer esanik ez, bizkaitaŕentzat egokiena; gipuzkoera, Garitaonaindia ta Azkue jaunak aolkatu zuten bezela, ots, euzkeraren batasunari buruz, gipuzkoera oñaŕitzat jaŕi ta beste euzkelgietatik artu ditezken itz, aditzerak eta abaŕ, erantsita aberasturik, bide ortan barna goazera uste dugu; irugaŕena, ipaŕaldean erabiltzen diran Laburdi ta Benapaŕoa'koak egiten ari diran alkarganatzekoa; ta Zuberoa'koa, laugaŕena, au ere berezia.

Euzkeraren batasunerako ekintzean, auetxek ditugu gure ustez egin litezken bi uŕats nabarienak: esandako lau izkelgi oietan tinko ta sendotzea, bat; gero, erdikoak diran gipuzkoera ta laburdiera alkarganatzeko bidean jaŕi ta abiatzea, bestea. Onela, iru izkelgi bereizi soiĺik geratuko litzaizkiguke; sortaldekoa, zuberoera; erdikoa, gipuzko-laburdiera; ta sartaldekoa, bizkaiera.

Oraingoz, lenengo, irugaŕen ala laugaŕen euzkelgia autatzeko zio bereziren bat izanezik, bigaŕena dugu geuk egokiena. Gure idazle ta olerkari onenetako asko bide ortan barna ari zaizkigu azkenengo urte luzetsu auetan; orixe beste zio aundi ta egokienetakoa ere izanik, bide ta aukeratze oiek oso ontzat artzeko.

Ala ere ortan, norberaren aburuz, ibiltzeko bidea aukeratzea. Eta bat edo beste aukeratu ondoren, gure ustez guzientzako onak izan ditezken oaŕ batzuk aipatzea, onuragaŕi deritzaigu.

Lenengoa: Izkuntza guztietan beren joskera gaŕantzi aundienetakoa izanik, aŕeta aundienaz ikasi beaŕ izango du edonork euzkal-joskera berezia; irakaslearengandik eta liburuetan bai, baña batez ere euzkaldun garbiengandik. Auek, ba-liteke, beren jardunetan erderazko itz asko erabiltzea, bai ta erdal-eskoletan artutako jatoŕ ez den esakunen bat ere; baña, geyenetan, berak darabilte, nere ustez, gure joskera ori ongienik; obeto baseŕietan, kaleetan baño; obeki erderaz gutxi edo ezer ez dakitenak. Eziña ezpada ere, zaĺa bederik euzkaldun beŕi batek, ortan, garbiari zuzendu al-izatea, asko ikasia izanaŕen.

Eŕaz beaztopo egin diteken aŕia dugu au. Euzkaldun beŕiari, asieran beñepein, min edo ematen dio euzkal-jardunetan erdal-itzak entzuteak, eta zuzendu nai. Beste aldetik, libururik irakurtzen ez duenak, geyenetan, itzal aundia izaten du liburuetan dabiltzenganuntz. Oietxengatik, geron ustez, euzkaldun beŕiak kontuz ibiĺi beaŕ-izango du beti garbiekin itzegiteko, iñoiz irakasle bezela agertu gabe.

Itz beŕietan ere erdi-iritzikoa izan beaŕ; ez zapuztu iñoiz erdal-atsonik eukitzeagatik, ez eta, aitzitik, itz beŕia dala-ta. Erdal-itz batzuk aspaldidanik sartu ziran gure mintzoeran eta eurekin euzkerak beste batzuk eratu zituen gero; oiek ontzat artu beaŕ ditugu. Yakintza gaietarako ere, euzkera erabiltzea eŕez ezin bada, beaŕezko ta egoki izango zaigu edozein erderatik artzea, ta oŕela, itz oien bidez, euz era aberastuko da, ziñez. Ba-dira beste erdal-itz batzuk euzkal-jardunetan alpeŕik sartzen ari diranak, gure izkuntzan asmo berberak adierazteko jatoŕ eta egokiak izateagatik. Oietatik asko aiztuta edo daude ta beŕiz gureganatu edo berpiztea beaŕezkoa dala deritzaigu; beste aunitz sakabanaturik dabiltz euzkalgietan barna, emengo ontan oso ezaguna dana ango artan iñork eztaki, ta an egunero erabiltzen dana emen iñoiz; oiek ere edatzea dugu noraezeko. Oŕetxengatik gaŕantzi aundiko, euzkelgi guztiak alkaŕengandik artutako itzen bidez aberastea; bai ta aiztuta dauden beste batzuei bizi beŕia ematea ere. Alegia, alkaŕi emate ura ta zaŕen beŕitze au, naiz euzkaldun beŕi naiz garbiai, guztioi dagokigun lana.

Aditzeraetan eta aldakoŕak diran eliztiaren itzetan, batasunik ez oraindiño batzuetan, ez eta izkelgi bakoitzean ere. Eta beaŕezkoa zaigu batasunaren bidetik abiatu ta kirmen joatea; ezin, ala ere, iñungo agintzetaz oldoztu, batasun ori ez eta izkuntza osoarena ere lotzeko; iñoiz batasuna burutu ezkero, berez elduko zaigu, berez etoŕi beaŕ, ezin ortan zalantzik izan. Bideak bai, atondu ditezke, ta oŕengatik euzkal-ikasleak, irakasle ta idazleak dagitenari so-egingo diote.

Eliztiaren bidez zerbait ikasi ezkero, euzkaldun beŕiak, ikasleak, alegiñak egin beaŕ-izango ditu, bere eŕitik kanpoko beste euzkaldun garbi edo beŕi bat topatzeko, biak alkaŕi maiz idatzi dizaioketen. Gero, urtean bein edo, ta al diteken egun geyenetarako euzkaldun eŕi batera joan, euzkal-egurats jatoŕ batean arnasa artzeko, euzkera belaŕien bidetik saŕ dakion; eta beti euzkeraz mintzatzeko mugon guztien biĺa ibiltzea.

Bein euzkeraz ikasten eta egiten asi ezkero, ez da egunik igaro beaŕ euzkeraz zerbait irakuŕi gabe, eta bizi guztian ikasten eta ikasten



ari-izango da, norberaren itz-kopuruaren ezagupena aunditzen eta alakotz esaerak, atsotitzak eta beste izkelgietako aditzerak ere beraganatzen. Lan au, jakiña, euzkaldun guziona izanik, guztiok alegin aundienaz egin beaŕ, euzkera gaizkatzea iritxi nai baldin badugu.

Izugaŕizko lana auŕean daukaguna; eta nolako aundia dan ikusi ta, siñizgaitza benetan, Euzkaleŕi'an jayo izatea, ta batez ere norberaren burua abertzaletzat eukitzea, ta lan ortan buru-belaŕi ez sartzea. Eten gabe esango dugu, miĺa bider bada ere, lan ori guziona dala, eta guziok gogoz artzen ezpadugu, alpeŕik batzuen batzuk esan eta egin dezaketen dana.

Maite dezagun, bada, gure izkuntza egipenen bidez; oŕen landa, itzetan, indaŕik ez, egirik ez, iñungo maitasunean.

Eta beŕiro esateko: Orain egingo dugun guzia ez da izango azkatasunean egiteko danaren asiera baño, orduko oñaŕia baizik; ortik ikusteko, oñaŕi ori alik eta sendoena antolatzea oso beaŕa zaigula. Ez dugu aiztu beaŕ Euzkadi'n irakaskintza geuk antolatu beaŕ dugula Eŕi'aren bizirako onugaŕia izan dedin; guregan eskubide ta eginbide, biak batera.

Auxe begien auŕean beti eukitzeko egia: Eŕi guztietan, gaztearen gogoa, irakaskintza artzen duen urteetan eratzen da, bakoitzak beregatzen duen irakaskintzan barna. Eta bidezkoa, eskierki, aurtzarotik eta gizondu arte igaro beaŕ diran auŕ eta gaztearen urte oietan, bakoitzaren molda ta eratze ortan, izkuntzaren indaŕak bere maŕa sakona egitea. Maŕa ori bakoitzaren bizi guzirako izango da, enura gabe, bakoitzak ikasteko erabiĺiko duen izkuntzaren maŕa; beraz, euzkerari dagokio gurean, auŕ eta gazteak eratzea, oiek euzkaldunak eta sorteŕia "Euzkal-Eŕia" egiazki izan ditezen. Erderaz egiten dira oraingoan ikasketa guztiak, eta oŕela doa, ala beaŕez, gure Eŕi guzia erdalduna biurtzen. Guzti ortatik ateratzeko, irakaskintzaren bide onen indaŕ eta gaŕantzia.

Arazo ta auzi guztietan, auŕetik ikusi ta antolatzea izaten zaio edonori egokiena. Berebat gure euzkal-irakaskintzaren arloan. Garai onean gaude; zerbait egiten ari dala esan dezakegu, pozik; ara Bayona'n buruturiko, irakasleak eratzeko bilkura bereziak eta ipaŕaldeko eskoletan euzkera irakasteko asi dan bidea. Biĺera oietatik "Ikas" bazkuna sortu da, ta izen berbera daraman oŕen aldizkariaren bidez ikas-bidea atontzen ari da ongi. Ez gera gu soiĺik arazo onen gaŕantzia ikusi dugunok; besteengan ere sutsu nabaritzen da; kezka ori zabaltzea dagokigu aberkide guziek lanera beren burua lotu dezaten; ortik etortzekoa baita sorteŕiarentzako osasuna.

Azken urte auetan ere "ikastolak" izen bereziaz deitzen diran aur-eskolak gure baztefetan barna antolatzen ari dira, gero ta geyago zabaldurik pozez ikusten ditugunak eta euzkal-andereño gogotsuak irakasle dauzkatenak. Orixe, gerorako gure euzkal-irakaskintza ta euzkal-kultura osorako, oñafi edefenetakoa izan diteke; beraz, efi ta uri guzietan ofelakoak ideki ditezela nai-izan beaf.

**IX.—Euzkal-irakaskintzarako egitarau orokafa. Baitezpadako asiera, lenengo irakaskintza. Beitik goruntz abiatzea. Euzkadi'n erdaldunak diranentzako irakaskintza.**

---

Gure auzi au, ofen gafantziduna dugun gure arlo au, bere osotasunean begiratu beaf dugu, ala beafik; nundik asi, zeren zeaf ari ta nora goazen, kontuz eta zeatzez begiratzeko. Bere osotasunari aufetik ongi so-egiñik, eskiertasunez artuko dugu asiera, zalantzik gabe norabidea eta, beafa izango zaigun bezela, bidean sortuko diran oztopoak bildufik gabe ta kemenki alboratzeko gerturik joango gera.

Aipatua dugu len (VII'gafen atalean) euzkaldun osoaz dugun asmoa. Efi osoa begiratzen badugu ta asmo ofi buruz oldozten, garbi ikus dezakegu gure Efia, bere kultura dala-ta, nola dagoen: geyenez, gaurko Europa'ko kulturadun Efiak Erdi-Aroan zegozen bezela; bai ta aundiena izan diteken gizon jakitun baten aurtzaroaren antzeko ere. Bere kulturarekikoa, guzia dago egiteko gure Efi'an, ia lafu gofia dugu Euskalefia.

Ez dira aiztutzeko, alegia, mende ontan, euzkal-abertzaletasunak eraginda, euzkera ta euzkal-kulturaren alde egindako alegiñak, oso txalogafi ditugunak. Baña guzia, bai ta "Eusko-Ikaskuntza"'k, "Euskaltzaindi"'ak ete beste batzuek burututako lanak ere, izari txit medafean zabaldu dira; ta gure abefiak bere bizirako beaf duenaren aufean ia utzaren ufengotzat eukitzeko. Azken urte auetan umeentzako ikastolak lan oso egoki ta onurakora betetzen asi zaizkigu, ain zuzen emen asteko esondatzen dugun lanaz; baña ori ere oso gutxi da oraindiño; ofelako ikastolak gure Efi'ko baztef guztietan ideki beaf-izango lirakelako, agintariek gogof eutsita gañera.

Gure kulturaren oñafi bear-beafa irakaskintza dugularik, gure irakaskintza osoa, euzkal-irakaskintza, bere osotasunean begiratzea dagokigu, egoki ta beafa izango zaigun bezela antolatzeko.

Gaur arte, euzkaldunak, kultura bereganatzeko, bere izakera, beti, alboan utzi beaf-izan du; eta bere izakera ofen aurkako diran besteetan

barna aŕi-izan beaŕ. Argi dugu egipen oŕen ondore txaŕa Euzkaleŕi'an barna: Euzkera galdu dan tokietan —gaur gure Eŕi'an geyenak zoritxaŕez— beste izakera bateko gizonak sortu zaizkigu (españaŕak, paŕantziaŕak), eta iñun ez euzkaldunak bezin egokiak. Ezin ukatzeko, beraz, gure Eŕi'an euzkeraren galtzearekin, gizonen izakeran ere galtzen ari gerala. Eta gurekin batera, aldameneko beste Eŕi'ak ere ta gizadiak berak. Bere neuŕian, jakiña, gizadiarekiko neuŕi txikian, noski, baña beti guziontzako galtze. Eta gizadiarentzat oŕen txikia bada ere, galtze ori guretzat aundiena da, iltzera, gure Eŕi'aren eriotzera, eramaten gaituelako.

Geron elburua, euzkal-kulturaren bidez euzkalduna osotzea izanik, gure irakaskintza osoa euzkeraz egin eta erabiltzea noraezekoa zaigu. Oŕa zergatik gure egitarau orokaŕaren mamia irakaskintzan bertan egoteko beaŕa.

Askotan esan danez, gure Eŕi'ak bizi al-izateko, euzkera du beaŕenik; euzkera eutsi, zaindu ta indartzeko, euzkal-kultura ainbat beaŕa; eta euzkal-kultura eratzeko, euzkal- irakaskintza ezinbestekoa. Beaŕ-beaŕenezkoa, beraz, euzkal-irakaskintza eratzea.

Zer da, baña, euzkal-irakaskintza? Egoki, geron ustez, asmo au zer dugun argi adieraztea: Euzkal-irakaskintza, euzkeraz egindako irakaskintza, besterik ez. Oŕa oŕ, argi ta labuŕ.

Oŕengatik, beaŕa izango zaigu, gero ta neuŕi aundiagoan, euzkera gure irakaskintza osoan sartzea: *Gaiaz* lendabizi, noski; *bidez* ere, uŕengoan, astiro-astiro. Euzkadi osoa, eŕi guztiak eta goi ta beko gizaseme danak, "euzkaldun" izan arte.

Oŕa noraño edatu beaŕ-izango dan gure egitarauaren asmoa.

Beste Eŕi guztietan bezela, gurean ere, irakaskintza guziaren lendabiziko mal̄a, "lenengo irakaskintza", alegia. Gero, ortik asi-ta, beste mal̄etara igoteko beaŕak izango diran uŕatsak, astiro baña tai gabe ematekoak.

"Lenengo irakaskintza", noski, auŕai ematekoa. Egi uts au, aipatzea dugu beaŕa, emen oñaŕi gotoŕez ezaŕi nai duguna esateko:

Nor euki beaŕ dugu auŕentzako irakaskintza-gaiaz erabakitzeko agintari nagusienaz? Alde guztietan izan dugu ori, eztabaida aundien zioa. Eztabaida oŕek mutuŕ bi auek izan ditu alkaŕen aurka: "Gurasoak" eta "Lateŕia". Geron gardiz, biak izan beaŕ agintari, bakoitza bere neuŕian; baña gogapeari buruz, gurasoak beti erabakitzeko nagusi, ta Lateŕia gurasoen naiari eusteko begirale. Arlo minberagaŕi ortan, bidezkoa da gure ustez onela erabakitzea: Siñestunak Yaungoikoa'renganako ta naiz auek naiz siñesgabeak lagunaŕtearekiko ekitean, gurasoak euki beaŕ beti beren umeen zuzen-bidearen yardespena. Eta yardespen au bete al-izateko, guraso guziai neuŕi berean, beren umeak azkatasunez zuzentzeko almena, eskubidetzat artzea beaŕa ta egokiena dala deritzaigu (1).



Geron ustez, eta *al dediñeko,* Euzkadi guziko irakaskintza osoa, "bazkun" berezi batek eratu, zuzendu ta bere egipen eta erabakien pean egoteko, beaŕa zaigu; bazkun oŕek azkatasun aundienaz yardutean.

*Azkatasun* oŕek "Euzko-Jaurlaritza"'rekin egindako itunpen batean izango du bere oñaŕi sendo ta bakaŕa.

*Itunpen* au goyeneko arlo batzuen izarian egiteko. (Gero ikusiko danez).

*Bazkun berezia,* aspaldiko "Eusko-Ikaskuntza" izan liteke. 1936-39'gaŕeneko guda izan zala-ta, bazkun ura gure arerioek zearo suntzitu zuten, orduan gurean Eŕi'arena zan guztia bezela. Egokia, beraz, apika, bazkun ari, beŕiztura, esandako guzia egiteko almen guztia ematea; gureak diran beste arazo guztiak bezela, ben-benetako eŕikoya izan dedin.

Itunpen ortan sartzeko gaiak, bitarikoak: *gogozko* ta *gaiezkoak.* Lenengoen artean lendabizikoa, euzkaldun guztien gogapearenganako itzala, itzal aundia, alde ta mail guztietan eginbidetzat jartzea. Gure Eŕi'ko biztanle guztiak bi talde aundietan sartu ditzakegu: "siñistunak" eta "siñisgabeak". Lenengoak irakaskintza guztia erlijiozkoa izatea nai-izango lukete; bigaŕenak erlijiorik gabe. Eziña, noski, bi talde oien naia bere osotasunean betetzea; lenengoa ala bigaŕena jaŕi ezkero, batak bestea menperaturik izango lukelako. Beraz, erdiko bidea artu beaŕ, eta irakaskintza, ortaz, bitarikoa eratu.

Alakotz, bide egoki ta lenengo baldintza, eiki, guzientzako eskubideari eustean, lenengo irakaskintzaren eskolak, zein motazkoak izan beaŕ diran erabakitzeko, eŕi bakoitzaren agintariak eta kultura- batzordekoak izango dira nor. (Gero azalduko danez).

Bigaŕen eta goiko mal̄etakoetan, erlijiozko ikasgu bereziak jaŕiko dira, irakaskintzaren egitarauan barnean; baña azkatasunez, ikasleak bertara joan ala ez joateko.

Gero: Irakaskintza osoa uŕurik eman beaŕ, eŕiko auŕ guztiak, kulturazko mail goyeneraño eldu al-izateko; ororentzako eskubidez, noski.

---

(1) Ikus, XX'gn. atalean, 1948'gnean. ONU'k egindako "Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna"'ren 26'gn. atala.

Bi baldintza oiek gorde ezkero, beste guzirako azke izan beaŕ irakaskintza eratu ta zuzenduko duen "Bazkuna".

"Euzko-Jaurlaritza"'ren eginbide nagusia, gaiezko izarian, irakaskintzari dagokion guzia ondo ordaintzea izango da.

Irakaskintza guzia "Bazkun" berezi batek eratu ta zuzenduaŕen, "Euzko-Jaurlaritza"'k, mail guztietarako ikusleak jaŕi al-izango ditu, Jaurlaritza ta Bazkun'ak egindako itunpenaren baldintzak gordetzen ote diran ikusteko; orobat, Eŕi guzia euzkalduntzeko bideetan barna irakaskintza ote doan egiztatzeko. Eta irakaskintza orokaŕaren goraberak, lendanik egindako egitarau baten neuŕian gutxienez ematen ote diran begiratzeko.

Asmo auen ondorioz, eŕi guztietan eta bakoitzean, "Kultura-Batzorde" berezi bat eratu ta eustea beaŕa dalakoan gaude. (Eŕi ta uri aundietan, bost eskolaetarako geyenez, "batzorde" bat edo).

"Kultura-Batzordea", "sei" notiñen artean, eŕi bakoitzeko semeak betetzeko. Lenengoan edo asieran eŕi bakoitzeko Udala'k izendatuko ditu.

Batzorkide bakoitzak ezin bi urte baño geyago jaŕaitu; eta beŕiro Batzorde'an sartzeko, beste bi urte egin beaŕ izango ditu kanpoan.

Beti, sei batzorkide oietatik iru (erdia), eskoletan ari-izango diran auŕen gurasoak izan beaŕ; beste irurak, oietakoak ere edo ez.

Urtero aldatu beaŕ izango da batzordearen erdia, eta lenengo urtean ateratzekoak, bat zaŕena ta beste biak gazteenak izateko. Uŕengo urte guztietan, bi urte betetzen dituztenak, noski, aldatzeko.

Iru beŕietatik bat, beti, Udala'k izendatzeko; eta beste biak, auŕeko Batzorde'koak berak; ao-batez ezpada, autarkiz. Utzi beaŕ dutenak atera baño lenago, Batzorde'ko guztien artean, uŕengo bi urteetarako bi beŕiak izendatu beaŕ-izango dute; eta auek izendatu ondoren, Udala'ri esango diote, onek irugaŕena ere izendatu dezan. Onela, uŕengorako Batzordea beteta izango da.

Ikastaro bakoitzean, *lau bider*, gutxienez, bilduko dira batzorkideak, ikastolaetako irakasle guztiekin; eta erabakiak artzeko, naiz batzorkide naiz irakasleen artetik, bi iruren bana bildu beaŕ, eta gero, ao-batez ezpada, bildutako guztien autarkiz erdia ta bat alkartu, batera etortzeko.

"Batzorde"'ak erabakitzeko gaiak: Lenengoz, eskola bakoitza, legearen arauz, *erlijiozko irakaskintzaz* ala *ez* izateko; ortan, beste guzien gain, gurasoen naiari yagon eta eusteko. Gero, *irakaskintza osoarenaz* eta eŕi bakoitzeko izan diteken *irakaskintza bereziaz*. Irakasleen *lanaz*, alde ala aurka, beaŕ-izan ezkero, *ekiteko*. Eŕiko liburutegia *zaindu, zu-*



*zendu* (liburularia izanezik, eta berarekin izan ezkero) eta *aunditzeko*. Eŕi'an kulturazko gai guztietzaz *ikusi* ta *begiratzeko*. Eskolak ikustera, *ikuslea* eldu ezkero, berarekin ere ibiltzeko. Udarako, euzkeraz obeto ikasteko, euzkal-eŕietan bereziki jaŕiko diran egon-aldietarako, auŕak zeintzuk izango diran autatzeko.

Eskola bakoitzean sortu diteken auŕ zoli adimentsuren bat, goi-ikasketaruntz abiatu ta laguntzeko, nor ote diteken erabakitzea; gero auŕ ori benetan lagundu ta lenengo uŕatsetan zuzentzea. Guzia auŕ oŕen gurasoekin erabakitzeko, noski.

Izari orokaŕean, gero ta beaŕago dan bizibiderako norabideari buruz bete beaŕ-izango diran "test" edo argibideak erabiltzea.

"Lenengo irakaskintza"'k *xede* nagusi bi auek euki beaŕ:

1—Auŕen *lenengo ikasketa orokaŕak*; ikastola guztientzako egiña izango dan egitarau osoaren barna, agindutako egongo dan izari txikienean bederen.

2—"Euzkadi" osoa "Euzkal-Eŕi" (itz onen zentzun osoan) beŕiro egitea.

Ortarako, asieratik ikastola guztietan *euzkera* irakasiko da. Onen uŕengo, zuurtasunez eta pizkanaka-pizkanaka, *euzkeraz* lenengo irakaskintza guzia egiteko.

"Lenengo Irakaskintza"'rako gaiak autatu ta maĺetan ezaŕi; ortarako egitarau berezi bateaz. Egitarau ori, al danean, oraingo erdal-eskoletan erabiltzen danaren antzekoa izateko. Beaŕak izango diran aldakuntzak soiĺik egiten, eta auen artean, noski, euzkera ikasteko ezaŕiko dana.

Beaŕa dugu, bada, gure irakaskintza guziaren etxea egiteko, oñaŕitik asi, eta onela gero, beitik goruntz bizitza guziak jasotzea. Ba-daude, beti, berebiziko jakitunak goi-maĺetako galgan ari-izan ditezkenak; baña emen eŕi osoari buruz ari-izan beaŕ eta iñola ere ezin iraduz ibiltzea. Lege ona dugu au beti ta toki ta gai geyenetarako; baña gure Eŕi'aren arazo ontarako, lege obetzat euki beaŕ.

Alde batetik bide oso luzea izango da euzkal-kulturarena, bide beŕia gañera; baña bestetik ez dugu aiztu beaŕ Frantzia ta España'ko kultura kementsuak ezuŕetaraño sarturik dauzkagula mendeetan zeaŕ, eta euzkeraren bizian, euzkeraren mamian be guztiz sarturik ditugulako, bide ortan oztopo izugaŕiak ere izango dirala. Astiro ibiltzeko beraz, ezinbestekoa; astiro ta eroapenezko lan gotoŕean barna.

Ba-dago beitik goruntz ari-izateko beste zio berezia; gurean besteetan baño bereziago, apika. Irakaskintza mail bakoitzeko gaiak auŕeko maīan dituzte oñaŕi ta iturburu, bai ta itz bereziak ikasteko bide egokiena ere. Ońengatik, euzkera irakaskintzarako iñoiz erabiīi ez danezkero, gai guzietarako itz bereziak egin edo soŕerazi beaŕ ditugu; guziak ontzat artzeko gañera, beaŕa baita baldintza ori euzkeraren batasunerako onak izan ditezen. Nola, beraz, bigaŕen irakaskintzarako beaŕak izango diranak eratu lenengorakoak baño lenago? Bidezkoa, alakotz, guziagatik, lenengo irakaskintzan astea, ortik gero beste maīetara abiatzeko.

Euzkal-irakaskintza gertutzen ari-izatean, ez dagokigu aiztutzea, gaur Euzkadi'ko luŕ geyena erdalduna duguna, eta ońengatik bertako irakaskintza erderaz antolatu beaŕ-izango dana. Ala ere, jakiña, Eŕi osoaren irakaskintza eratzea, euzkaldunen eskuetan izango dan asieratik, euzkera Eŕi'ko eskola ta ikastetxe guztietan irakasi ta ikasiko da, beaŕez; eta beaŕez diñogunean ez dugu esan nai, iñola ere, indarkeriz.

Alabaña ez da izango ori naikoa. Erdal-eskolaetako ikas-liburuak ta irakasteko erak euzkal-eskolaetakoen antzekoak izango dira, Eŕi'ko irakaskintza guzia norabide batean jartzeko.

Beste aldetik, Euzkadi'ren edestia ta beste gai bereziai buruz ikas-liburuak berak euzkeraz eta erderaz berdin egiñak izango dira, aŕeta aundiaz, umeak artuko duten sorteŕiaren beŕia berbera ere izan dedin.

Itz bateaz, Euzkadi'ko erdal-irakaskintza, ikasle guztiak noizpait euzkaldunak izateko bidea izango da; eta orixe izan beaŕ, ain zuzen ere, bere xede nagusiena.

Ońela, batera etoŕiko da irakaskintza osoa, ta bide egokiena izango dugu gure azken elbururako.



**X.—Euzkeraren gaurko egokera. Euzkal-izkelgiak. Euzkeraren batasuna. Euzkal-irakaskintza, euzkeraren batasunerako bide egokiena. Euzkera gaizkatzeko egitaraua.**

Eŕi arerioen egiteagatik eta euzkaldunen ez jakiteagatik edo aien erasoaldian geyegi amor-egin dalako, ala gure sorayokeria izan dala kari, ala Eŕi'aren buruzagien itxutasunagatik, dana dala, ituna benetan gaurko egunean euzkera dagoen egokera.

Bi lateŕi aundi ta indartsuen pean bizi da gure Eŕia aspaldidanik, eta bi lateŕi oiek beaŕez ezaŕi dizkiguten beren bizi-erakundeetan, iñundik ere ez zaio ideki euzkerari, beaŕezkoak diran aŕemanetan, erabiltzeko biderik. Aitzitik iñoiz ez da iñun oldoztu izari ortan ezertarako erabiīi beaŕ dala, oso aiztuta egon da eginkizun oietarako ta noipait aipaturik izan bada, uŕuñagaŕitzat euki ez danean ... paŕegaŕia oso, oberenean. Beraz, ez eta Euzkaleŕi'ak berak antolatutako erakundeetan, ez eta aspaldian ere beren legeak egiten zituztenean, gure arbasoai ez bide zien iñoiz buruak eman lege aiek eta arau guztiak idazteko, beren izkuntza erabiīi beaŕ zutela.

Ausaz, kulturadunengan edo, erdi-aroan eta lenago ta gerokoan ere, kulturari buruz ontzat arturik zeuden asmoetan barna aurkitzeko, euzkerarenganako ezezpenaren zioa. Jakiña, orduan eta oso luzaroan, latera izan zan yakintza ta kulturaren bide bakaŕa, ta erdal-elertian ere ba-ditugu, bere asieran, uste oŕen aurka jeiki ziran idazleak beren izkuntza jasotzeko naiean. Irakastola Nagusietan ere ia gure egunerarte latera erabiīi da ikasketa batzuetan. Eta asmo ori oŕen orokaŕa zalarik, ez aŕitzeko Eŕi'en izkuntzak guztiz bazterturik geratzea. Gelgaŕia, ostera, euzkerak eta bera bezelako beste izkuntzak ere oraindik dirautela ikustea.

Argi-argitzat eukitzeko, kulturadunek izkuntzaen bizian ukan duten eta daukaten eragipen aundia; yakintzak beti izan dituen ororentzako erakarpen eta guziengandiko itzal eta eraspenagatik, aiek, naiz eta oartu gabe, bidea erakutsi diote eŕiari; onek, aiek esan eta idatzitakoa, ukagaitza dan irakaskintza bezela artu du itxu-itxuan. Ońela, gaur be-

deren (eztakigu antziñako aldietan zer jazo ote zan), eŕiak ez du ia ezer egiten mintzoerai buruz, irakasten diotena jaŕaitzea baño.

Gure euzkerarekiko, kanpotik eldu zaion eragintasuna, bi aro aundietan ikus dezakegu berezita: bat, laterazkoa, Eliza'ren mintzoerak yakintza guzirako bidez iraun zuen aro luzea; bigaŕena, gaurko beste kultura-izkuntzak irakaskintzan eta yakintzan bertan, era berean sartu ziranetik orain artekoa.

Lenengoaren zantzu ta aztarnak, eliz-gizonen bidez, noski, bizirik ditugu oindiño eguneroko eletan: Eliza, done, abade, kristau, zeru, aingeru, domeka, apaiz, giristiño, abendu, lege ta beste amaika itzetan barna. Bigaŕenarenak askoz geyago ditugu, gure mintzaira gero ta areago ta itsusiago mordoiltzen dutenak.

Lenengoarenak, askoz gutxiago izanik eta geyenetan erlijiozko biziari dagozkionez, ez dute gaŕantzi aundirik izan gure izkuntzaren bizirako. Bigaŕenarenak bai, ostez, oso aundia, eten gabe ta gero ta estuago euzkeraren bizia itoten dute zearo.

Aiek amaitu ziran, aldian eta lekunean; ez dira geitu; berberak ditugu gaur gure izkuntzan diardutenak eta aspaldikoak; gañera, eratu ziran artean yakintza berez eta zabaltasunean oso gutxi zegoen edaturik; besteak, beŕiz, gero ta geyago geitzen ari dira, beren aroan bertan, egunean-egunean areago, yakintza sakontasunean, gaietan eta zabalbidean alde guztietara edatu dalako.

Joan dan mendean indartsuago asita, eta gure ontan txoko guzietara eldurik, eskolaen bidez lenengoz, eta aldizkari, zinema, iŕati ta ikus-iŕatiaz gero, bide oiek berentzat artu dituzten kultura-izkuntzak beren legeak ezartzen dituzte munduko bazteŕ izkutueneraño.

Oŕela sartu ta sartzen ari zaizkigu gurean, euzkeraren beraren muñetaraño ere, jopu gaituzten erdera biak: parantzera ta espanñera. Joan dan mendean eta onen lenengo laurdenean, eskola izan da naspiĺerako bide egokiena; gero, ez aldizkariak soiĺik, zinema ta iŕatia ikastolaren lagun egokienak; eta gure egunetan, bi oiek bat egiña dugun ikus-iŕatia, eguzkipean oŕen indaŕez zabaltzen ari zaigun bide altsu oŕek gure mintzairaren bizia zematzen digu uŕenetik eta gogoŕenik.

Izkuntza-gaiari buruz ukan eta ba-ditugu gure Eŕi'an, ukan ere, gureak diran beste zio bi, aurka ta alde eragin eta eragiten dutenak. Lenengoak, aurkakoak, gure egunerarte iraun du eta ba-dirau oraindiño indaŕez; bigaŕena, aldekoa, ia mende onekin batera jayo zala esan genezake.

Lenengoa, ez jakiña izan dugu, eŕiarengan noski ta bere buruzagi



ta kulturadunengan ere; ez zuten ikusi gure Eŕi'aren bizirako euzkerak zuen eta duen gaŕantzia; eta Mundu'an zebiltzan yakintza, kultura ta izkuntzai buruzko asmoak, berentzat artu zituzten lasaiki; oŕengatik ezin aiei bota ezagutzen etzuten yardespenaren eŕua.

Bigaŕenaz begiak zabaldu zaizkigu oso; eta Arana Goiri'k uŕatu zigun atekatik lendabizi, ta gaurko yakintzak irakasten digunaren bidez gero, gure sorteŕiaren bizirako, euzkeraren beaŕa nolako etrsia dugun, argi baño argiago ta garbi ikusten da.

Alegia, Arana Goiri'k piztutako euzkal-abertzaletasuna dugu euzkeraren alde egin duen eta dagien lan obe ta aundiena; ukatzerik ezin emen; gaur, naiz eta abertzaleak ez diran euzkaltzaleak, oartu ta nai gabe apika, abertzaletasunak bultzaturik ari dira, onek soŕerazitako eguratsean murgildurik.

Asko egin du, noski, euzkal-abertzaletasunak; askoz geyago egin beaŕ-izango lukela aitortu beaŕ egizale-zuŕian; larogei urte, mende-erdi luze luzea, epea naikoa dugu abeŕiaren barna, euzkerari buruzko lan aundiago egiteko.

Ez dugu aiztu beaŕ, alaz ere, oso zaĺa izaten zaigula mende ontako euzkaldunai, yakintza osorako, bai ta irakaskintza txikienerako ta eguneroko gai askotarako ere, gure izkuntza au eroso erabiltzen. Olabide aundiak onela oaŕerazi zuen ori 1918'gaŕenean Oñate'n egin zan "Eusko-Ikaskuntza"'ren lenengo batzaŕean eman zuen ikaskizunean ("Lexicología y Lexicografía"): "Euzkerarenganako zaletasun utsatik asi-ta, naiz irakaskintzan, naiz izpaŕingietan, bidez erabiltzera igaro nai izan duzutenok ongi ateman baituzute, egiazgo naimen oldartsuenak ere, lenengo uŕatsetatik poto-egin duela, beaŕezkoa izan zaizuen izarian, esan nai duzutenerako itzak aurkitzea eziña zaizuelako; gure mintzoeraren altxoŕean dagoen guzia ezagutzen ez duzutelako, edo egitan peitzen danean, beraren utzak betetzeko euzkerak dituen almenak nolakoak diran ez dakizutelako" (1).

Jakiña, mendez-mende ta aspaldidanik, bizitzara sortzen ari-izan diran gai, gauza ta yakintzazko izan diran beŕiak, dena den kari, euzkaldunak ez ditu euzkeraren bidez artu, ez eta obeto jakin eta ulertzeaŕen, bere izkuntza erabiltzeko alegiñik egin; ez eta otu ere; lenengo aldie-

(1) Itz oietxek len ere aipatu ditugu (Ikusi: VI'gn. atala); baña emen ere beŕiro jartzea egokia deritzaigu. Ango ta emengo asmoak alkaŕen antzeko izanik, guztietarako dugu ona Olabide'ren iritzia.

tatik iruditu bide zitzaion euzkera iñola ere ortarako etzala. Ořen aipu aundikoak ditugun antziñako batzařetan, nola ez zuten euzkera erabiľi beren agiriak idazteko? Euzkera ez edo zan gure arbasoen aburuz, idatzi edo irakurtzeko. Eta amor-egin zieten beste izkuntzai, guzietarako; ořela "lege" ta "fuero" itzak artu zituzten beren erabakiai izen oietako lenengoaren zentzuna emateko. Eta bidezkoa, irakuř eta idazteko euzkera ezpazuten, nori bururatu irakaskintzan sartu beař zala?

Oŕa, geron gardiz, nola burutu dan euzkeraren gaurko egokera; nolabait egotekoa dala dirudi, ez ibiltzeko; eta egotea, geratzea batez ere, iltzea da Mundu ontako bizian barna. "Euzkerak dituen almenak" (2), ala ere, ořen aundiak izanik, ezin etsigařitzat artu igitzeke digun egokera ori ta almen oietan ikusi beař zutitzeko bidea; beraz, almen oiek ezagutu beař eta ibilpidean jaři; orixe arloa.

Euzkeraren egokera ontan, izkelgien arazoa ikusi beař. Bonaparte'k ikusitako izkelgi-muetak ontzat artzen dira nunai; beraz, zortzi izkelgi gure txikitasunean ere; gaur, noski, erabiltzen dana begiratzen badugu, zortzai oietatik lau geratzen zaizkigu egiazki berezita: Bizkaiera, zuberoera, gipuzkoera ta laburdi-napařoera; azken bi auek bat egiteko bidean edo ditugu, ta ořela izan ezkero, azkenez iru soiľik geratuko zaizkigu, batasunaren norabidean.

Gaur erdibitzen gaituzten lateřien mugak, ipařalde ta egoaldeko izkelgiak bereizten ditu, aiek eta auek parantzera ta españerazko eragipenak artzen dituztelarik. Baña ipařaldeko izkelgietan españeraren eragipena ere oartzen da, argi, amaika itz baitarabilzkite españeratik artuak eta ain zuzen, mugaren egoaldean erabiltzen ez diranak. Nun ote egipen ořen argibidea? Ba-dirudi noizpaiteko ařemanen ondorioa izatea, baña kondairaren zeař ez da garbi agertzen noiz eta nola izan diran, apika, ařeman oiek. Izatekotan egoaldeko euzkaldunekin batera etořiko zitzaketean, eta muga alde bietan ezagutu beař itz oiek. Ez da ořela geyenetan, eta yakingaři geratzen bide da arazo ori.

Gaurko gure xedeetarako ez da beař ori argitzea; aipatu nai-izan dugu, gure euzkeraren egokera, alde guztietatik begiratzeko bakařik.

Eta egokera ontatik asi beař dugu batasuneruntz, izkelgi guztien batasuneruntz jotzeko. Alabaña, egokia al zaigu euzkeraren izkelgien batasuna? Ez dut uste ontan enurarik dagoela. Agian, batasunaz, gaur euzkelgien zeař dagoen aberastasuna, izari aundian galduko genuke, ta

(2) Ikusi: VI'gn. atala.



alde ortatik bakařik, geron ustez, batasuna ořen gartsuki gura ez izateko. Baña euzkera iltzen ari zaigu, ta zuzpertu beař badugu, batasuna agertzen da ortarako izan diteken bide onenaz. Izatea ala ez izatea dugu gure arlo aundi ontan erabakitzeko; ta "izan" beař bada, euzkaldun guzioi bat izatea dagokigu, elburu bikain ontarako: euzkaldun bezela bizi-izateko ta euzkaldun-zuřian beste gizon guzientzat onuragařiago izateko. Eta geu bat izateko, izkuntza ere bat izatea dagokigu beařez.

Beste saldo aundien ondoan, gure giza-taldea ořen txikia izanik, beařagoa zaigu euzkaldunok bat egitea, gure izkuntza, oitura, lege ta biziari, eusteko; ořela izanda ere, laři ta estu ibiľiko baikera. Beraz, ona, beařa ta ezinbestekoa zaigu batasuna.

Nola egin eta burutu, baña, asmo bikain eta ořen beařa dugun ori? Gure iritziz, euzkeraren batasuna, berez etoři beař da egiazko batasuna izateko. Okeř aundia izango litzake, batasun ori indařez egitea; euzkera, beste izkuntzak bezela, biziduna dugu ta ořengatik bizi ořek dituen almenak dira igitu ta eragin beař ditugunak, eta erokeria izango litzake beren bideetatik at irten-eraztea.

Eztu ořek esan nai, norabideak eskeiñi ta eman beař ez dizkiogula; bizidun jatořena dan gizonari ere orixe egiten zaio bere lenengo urteetan. Norabide oiek dira, beraz, ajolaz atondu beař ditugunak, kontuz gero erabiltzeko.

Batasunerako norabideak asko izan ditezke, eiki; eta guztiak atondu ta erabiltzea dagozkigu. Alan eta guztiz be, bat agertzen zaigu berealaxe egokienetakoa bezela, eta beařena ere bide batez: irakaskintza, euzkal-irakaskintza. Euzkaleři'an beařa dan zabaltasunean bederen, iñoiz edo ezagutu ez dana, eta ezinbestekoa zaiguna.

Ez dugu uste arlo aundi ta gařantzidun ontaz, gaur arte beař ainbat iñoiz oldoztu danik gurean. Eta ařigařitzat eukitzeko, euzkaldunak maiz agertzen duten joera begiratu ezkero. Bai noski; biziaren amaika ekintzaetarako, euzkaldunak kanpoan egiten ari dana ikustera doazkigu; gero, ikasita, beař dana, berak Euzkadi'n orobat egiteko.

Bidezkoa edo, bide ori bera erabiltzea, irakaskintzari buruz yarduteko. Eta ia peľokeria dirudi orain esan beař dugun au: Noski, eřialde guztietan irakaskintza ajola aundienaz antolatzen ari dira aspaldidanik, bakoitza norberaren irakaskintza. Eta ez ori bakařik; Europa'ko Eřiak, esate baterako, beren menpean euki dituzten beste Eři-etan ere, beren izkuntza ta irakaskintza indařez ezaři dituzte, beren nortasun, agintasun, almen eta aberastasuna, alik eta geyen zabaltzeko.

Baña batez ere, bere orduan, yakintzarako zeukaten latera alboratu zuten, eta, ba-liteke ongi oartu gabe, bakoitzaren izkuntza erabili dute, beraren bidez ezagupen guztiak ikasteko ta aurtzarotik beren semeai jakin-erazteko.

Bide beaŕa, baitezpadakoa, Eŕi'aren gogoa iraun-erazteko. Egitan, gaur batez ere ezagupen aundiagoaz, Eŕi ta Lateŕi'ak ez darabilzkite beren irakaskintzarako erakundeak, yakintzazko gayak auŕ eta gazteai irakasteko bakaŕik; bai ta, bereziki, erakunde oien egitarau berezien bidez, auŕ eta gazteen gogoetan asmo bat, oldozmen bat, norabide bat, izakera bat sendoro irartzeko ere. Beste itzez, gizaseme guziak gogo batean pulunpatzeko, gogo batez alkartzeko, guziak gogo batekoak izan ditezen, Eŕi ta Lateŕi bakoitzari dagokion gogokoak.

Eta ez bide da aski oraindik eskolak eta irakaskintzak duten indaŕa. Gaurko auŕerapen aundienak ere elburu ortarako antolatzen dituzte laisteŕen eta urduri. Ortxe ditugu iŕati ta ikus-iŕatia, lateŕien jaurleak berak atontzen dituztelarik. Geyago gañera genezake asmo oŕi buruz salatzen dugun joera oŕek duen indaŕ guzia adierazteko; baña esandakoaz naikoa dalakoan gaude.

Bertan guretzako eredu ta ondorengoa. España egoaldetik eta Frantzia ipaŕaldetik orixe egiten ari dira, gure Eŕi'arenganako kexutasunik gabe; oso txikiak edo gera, jaun aundi oiek gure biziaren beaŕari jaramonik egtieko. Eta lateŕi oien aunditasunerako, gure sorteŕian Eŕi-erailtzea edo berak esaten duten "jenozidio" borobiĺa burutzen ari dira lasai.

Alpeŕik egongo giñake lateŕi aundi oiengandik guganako euki beaŕ-izango luketen adei onaren zai. Gu gera ekin beaŕ dugunok, gaur bertan euzkal-irakaskintza atontzen, biar erabiltzen jartzeko xedeaz. Euzkal-irakaskintzaren bidez, eutsi, beŕiz eratu, indaŕ eta zabalduko dugu euzkal-gogoa abeŕiaren txoko guztietan. Euzkaldun bezela bizi-izateko, orixe dugu beaŕena, gure eŕitaŕ guztiak euzkal-gogoaz gertutzea, lenengo eskoletan asi ta irakaskintzaren mail goituenerańo.

Eta xede ori betetzen ari-izango geran batera, euzkeraren batasuna ere berez sortuko da, irakaskintzarena baita ortarako bide onena.

Ez dugu esango gure elbururako orixe bide bakaŕa dala; bai, ordea, bide onena ta ezinbestekoa, beaŕena; berarekin izan ditezken besteak, onuratsuagoak izango ditugu, eta bera gabe, besteak ia antzu ta elkoŕ geratuko zaizkigu.

Nai ta nai ez, erdal-irakaskintzari, euzkal-irakaskintza aurka jaŕi beaŕ diogu; ez aurkako bakaŕik izateko, jakiña, gure bizi-beaŕerako baitezpadako bidea dalako baizik.



Ba-dakit, naiz eta azkatasunean ere, eŕaz izango ez zaigula euzkal-irakaskintza bidean jartzea; ainbeste urteetan baitagoz gurean erdal-irakaskintzak jaŕita; eta beste aldetik, oŕen atzeratuta baitugu gure euskera, arlo ortan erabiltzeko. Baña ekin beaŕ dugu, ta ortik ekin, ain zuzen ere, egitan bizi nai baldin badugu.

Gauden, beraz, asmo ontan: Euzkeraren eta Eŕi'aren batasunerako, bai ta abeŕiaren bizirako ere, euzkal-irakaskintza beaŕ-beaŕena zaigula.

Beste aldetik, geron ustez, egokia izango litzake, beste elburu askotarako bezela, gure izkuntza au gaizkatzeko ere, egitarau on eta eragikoŕ bat eukitzea, euzkaldun guzien edo gutxienez geyenen aldetik onartzeko izan genezakena; ta oŕela izateko, guzion iritzietatik sortu beaŕ-izango litzakelakoan gagoz. Jakiña, ortarako guzion iritziak jakin beaŕ-izango genituzke, alkaŕen artean erkatzeko ta ortik atera litezken ondorioak ikusteko. Oŕela, beaŕa deritzaigun egitaraua era liteke, geron aburuz.

Saŕ gaitezen arlo ontan eta, egitarau egoki bat eratzeko, abia gaitezen beaŕak deritzaizkigun uŕatsetan.

Beaŕa bezela ikusten dugu, lendabiziz, euzkeraren bizian barna azterkatzea, bizi oŕen beŕi ta jokerak alik eta garbienik ateratzeko ta euzkerak berak ematen dizkigun bideetan ibiltzeko. Euzkeratik at eziña izango zaigu egiazko iturbururik aurkitzea. Geron gardiz, euzkera, guretzat ere, luzaroan itxita egon dan idazti bat da; gaur idatzi ori nolabait idekitzen ari zaigu, baña oraindik bertan egokiro irakurtzen ikasi ez dugula uste dugu.

Zer ikas dezakegu idazti ortan? Guzti auxe bereden: Alde batetik, zaŕa, oso zaŕa dala, iñork eztaki noizdanik gizonen artean mintzatua, euzkaldunen artean alkaŕi itzegin eta ulertzeko erabili dana; bai ta asmo, oldozpen eta biozketak adierazteko erabili duen era nolakoa izan dan ere. Ala nola, alkartasunezko asmoak "alkaŕ" itz eta zentzun berezien bidez; norberarekiko asmoetan, "nire, zure, beraren, ..., burua" esakunak edo "baita" itz berezia erabiltzen; itz-jokorako, asmo batzuetan, zentzundunak eta zentzungabeak alkaŕengandik bereiztea, e. b., bide*an*, gizon*arengan*, ...; aditz-jokorako, itanozko era bedegaŕak; eta abaŕ.

Bestetik, gure izkuntzaren edestia bi zati aundietan ikus dezakegu erdibitua: bat asieratik, edesti orokaŕa ezagutzen dan baño askoz lenago guk suma dezakegun asieratik, eta edesti ezagun oŕen zeaŕ, lateraren era-

gitea artzen asi arte; bestea, eragite ori asi zanetik eta egun arte. Ustekoa da, latera baño lenagoko beste izkuntzekin ere gureak aŕemanak izan zituela, baña, iñundik ere, laterarekin izandakoen ainbat; beraz, gaŕantzi aundirik ez aietan. Lateraren eta, gero, lateratik sortutako beste izkuntzaen eragitea, bai, gaŕantzi aundia, oso aundia izan dala nabaritzekoa dugu, enurarik gabe. Oŕengatik jartzen dugu mugaŕi aundia bezela beren eragitearen asiera.

Guziok dakigunez, ebakitzeko erabiltzen diran tresna batzuen izenak, euzkeraz, "aitz" oñaŕiz egiñak dagoz; eta ortik atera dugu, bidezko zentzunez, aŕiaroan, ots, edestia asi baño askoz lenago, euzkaldunak euzkeraz mintzatzen bizi zirala. Baña ba-dago oŕ ikusteko beste zerbait: "aizkora", "aitzuŕ", "azkon", ..., itz oiek eratzeko erabiŕi dan bidea, berbera izan dala guzietan, zentzun egokiaz gañera; "aitz" oñaŕia agertzen da oietan itz beŕia eratzeko lenengo zatia, ta tresna bakoitzaren zentzun berezia jartzen da gero, era berean beti, bigaŕen zatiaz, itz beŕiori osotzeko. Jakitunezko jokera, lengoa dan gaitik asi, ta gerokoa dan beste gaira eltzeko. Oŕa bidezkoa dan jokera.

Ez da oso zabala aipatu dugun adierazpen ori, eiki; bai zentzun sakonaz, atera diran ondorioak gaŕantzi aundikoak bezela ikusteko aña.

Ba-dauka, alaz ere, gure euzkerak, ori baño miŕa bideŕ zabalagoa dan beste adierazpena, tokiak izendatzeko erabiŕi diran izenetan agertzen dana. Noizdanik erabiŕi da gurean izendatze ori? Nork ziuŕ esan! Baña ontzat aŕ dezakegu, edestia asi baño lenagotik ere izan dala; ta edestia asi ondoren ere, eten gabe ta egun arte. Miŕa ta miŕaka agertzen dira gure baztеŕetan toki-izenak, batzuk besteak baño zaŕagoak, eta guztietan, len bezela, lengoa dan gaiaz asten da bakoitza, ta bigaŕen izena eratzeko, gai ari dagokion berezitasunen bat gañeratzean: Aitz-goŕi, Ara-laŕ, Mendi-eta, Zubi-ondo, Eŕeka-alde, Ota-zu, Ibaŕ-luzea, Gorosti-di, Aŕi-ola, Muru-be, Landa-zabal, eta abaŕ, eta abaŕ, eta abaŕ.

Zer ikas dezakegu guzi ortan? Auxe geron iduriko: Euzkerak, berez edatzen danean, beti, adiera-bidezko jokera berbera darabikela; ta ondorioaz, jokera berbera ori jaŕaitzea deritzaigu euzkerari buruz egin dezakegun guzirako on eta egokia. Oŕela jokatzearen aurka zerbait irakuŕi dugu nunbait, baña emandako iritzi ori guztiz okeŕa dala deritzaigu, ta, aitzitik, beste au dugu egoki ta beaŕena: Euzkera, edatzeko ta beste izkuntzaen galgan jartzeko, alegiñetan ari-izatean jaŕaitzekoa dan ezinbesteko bidea, bere baitan ikus ditzakegun oñaŕi, indaŕ eta jokera ustiatu



ta erabiltzea. Oŕela izan beaŕ; orixe, geron ustez, ukatzekoa ez dan lenengo baldintza.

Lateraren eta bere alabaen egikera oso aundia izan dala ezin uka dezakegu; ta egikera ori eliz-gizonen bitartez asi zan noski, ta gerokoan ere luzaroan jaŕaitu dute, Eliza'ri dagozkion otoi ta abestiak, geyenetan bide izan dirala; bai ta aien itzaldiak eta egindako lenengo idaztiak ere. Argi agertzen da, eliz-gizon aiengan bidezkoa zanez, xede berezi ta nagusia, erlijioari zegokiona izan zala, ta, izari orokaŕean, ajola gutxi, izkuntza bezela, euzkerarenganako. Aientzat, Europa'ko jakitun guzientzat bezela, latera zan yakintzaren eta ertiaren izkuntza nagusia, ta beste mintzaira guziak aŕuntak ziran, ozte xearenak bakaŕik; oŕela, eŕi xearen izkuntzaren bat erabiŕi beaŕ-izan zutenean, lateraren ereduz erabiltzeko alegintzen ziran; orain arte gurean oso luzaroan iraunkiro bizi-izan dan "Aita gurea" aipa dezakegu esan duguna egiztatzeko; ta gure egun auetan ere, oindiño, ezin esan dezakegu egikera artatik osoro atera gerala.

Beste egikera bat aipatu nai dut emen, eta eztakigu bertan dagoen gaŕantzi aundia iñun salaturik izan ote dan. Guztiz gaŕantzidun agertzen zaigu guri egikera ori ta ondo aztertu beaŕ-izango litzakela uste dut. Ona emen zein dan: Guzien aburuz, geron ustez, egunero darabilgun "zu" izenordea ta berari dagozkion aditzerak ere, len, bi ta geyago, askoren zentzuna adierazten zan oien bidez; orduan, "i" ta "zu", bat eta geyagokoaren zentzunak adierazteko genituen. Zer zala-ta, igaro zan "zu" bakaŕaren zentzunaz erabiltzeko?; apika beste azalpenaren bat emango ligukete jakitunek, baña guk gaur ez dugu ikusten bat baño, auxe: gugandik ipaŕaldean bizi dan izkuntzan "vous" erabiŕi zuten eta ba-darabilte egun ere, asko ta bakaŕaren zentzunak adierazteko; ta gugandik egoaldean bizi dan beste izkuntzan "vos" erabiŕi zan era berean. Eta bi izkuntza oien jokera bera onartu zuten euzkaldunek, askorena zan "zu" bakaŕarena adierazteko arturik; eta utzik geratu zan askoren zentzuna adierazteko, "zu"'ren ordez "zuek" eratu zuten, eta aren aditzerak oñaŕiz arturik, "-te" atzizkiaren bidez beste beŕi batzuetan biurturik geratu ziran: "zera" ta "zerate", "duzu" ta "duzute", ta abaŕ. Alakotz, esandako "zuek" izenordea ta "-te" atzizkiaz egiñak agertzen diran aditzerak gure izkuntzan oso zaŕak ez dirala ustekoa da.

Baña aldatze aren bidez, esandakoa baño geyago ta gaŕantzi aundiagoa izan zan zerbait gertatu zan. "Zu" ta bere aditzerak erabiltzean, ala beaŕik, "i" izenordea ta itanozko aditzerak alboraturik izan ziran, ondorioz, eta gero ta gutxiago erabiŕita. "Zu"'ka jaunen eta jakitunen

izkera bezela artu zan, eta "i"'ka eŕi xeaŕena bakaŕik; eta batzuetan, ba-liteke askotan ere, "i"'karekiko ezespen aundia zabaldu zan gurean; nunbait izkera ori ijitoena zala uste-izan zan.

Oŕa gurean eta euzkeraren kaltez gertatu zan aldakuntza; arengatik itano'ren aditz-jokua gero ta geyago galdu zaigu, ta euzkerak zeukan aberastasun edeŕ ura ia zearo txiroturik ikusi beaŕ dugu gure egun auetan.

Geron aburuz, aldakuntza ori erdi-aroan gertatu zan, eta aro oŕen ondorengoan gure lenengo euzkal-idazleak sortu ziraneko, oso sartua zegoen gure bazteŕetan, nonbait eliz-gizonengan asi ta gero besteengana edaturik.

Aldakuntza ura, beraz, gaŕantzi aundi-aundikoa izan zan euzkerarentzat; ta, guztiz okerturik ezpagagoz, aldameneko erderetan erabiĺitako jokera euzkerarentzat arturik izan zalako. Ausaz egikera aundiena orixe izan da izkuntza oiek gurean egiña; gaŕantzi aundienekoa ta kaltegaŕi oso.

Gero itzetan eta esakunetan, joskeran ere, egikera bera jasan beaŕ-izan dugu, ta izugaŕia izango litzake, bearbada, egikera oŕen zeatzak bildurik egin liteken zeŕenda; bai ta, oŕen bidez, bazterturik geratu diran euzkal-itzena ere.

Uste dugunez, ez digu iñork ukatuko aipatu dugunaren egia; izandakoak egipenak ditugu, argi ta berez egiztatzen diranak. Alakotz, egiz ere esan dezakegu, latera ta beste erderaen egikerak, euzkerarentzat, guztiz kaltegaŕiak izan dirala; ta egikera oiek onartzean, egin dezakegun okeŕ aundiena burutzen dugula.

Guzi ortatik ikaskizun au atera beaŕ dugula uste dugu: Euzkera gaizkatzeko egin beaŕ dugun uŕats berezienetako bat, esandako egikera oŕen aurka jotzea izango da, auŕerantzean ez onartzeko ta bide ortaz len egindakoa, alik eta egin diteken neuŕi aundienaz astantzeko.

Beste motazko kaltea ere eldu zaio euzkerari bere biziaren zeaŕ. Ikastolan, ikas-gaietan eta gogoari dagozkion maĺetan erabiĺirik izan ez dalako, itz askoren zentzuna dantzan eta tinkotu gabe geratu da, ta zentzun ori, batzuetan, ez da berbera toki guzietan. Oŕengatik, euskera gaizkatzeko egitarau batean, itzen zentzuna tinkotzea beaŕezkoena bezela agertzen da. Ain zuzen orixe izan da esondatua Paris'en izandako jakitunen batzaŕ batean (Unesko'n), gurea bezela dagozen izkuntzaetarako.

Geyago edo ikus diteke euzkeraren edestian, baña esandakoa nai-



kotzat aŕ dezakegula uste dugu, oñaŕi bezela, euzkera gaizkatzeko egitarau egoki bat nola izan beaŕ-izango litzaken begiratzeko.

Bi norabide eraman beaŕ-izango lirake, geron iritziz, egitarau sendo bat osotzeko: Bat, euzkeran sarturik dagozen erderakada guziak edo geyenak bederen, al ditezken guziak, bat-banaka astantzea; bigaŕena, euzkal-itzen zentzuna tinkotzea ta beaŕak diran beŕiak euzkal-oñaŕiz soŕeraztea. Ta esan beaŕik ez, zentzuna ta azalpen guziak euzkeraz ematean.

Lan guzi ori ezin egin diteke epe labuŕ batean eta elbururaño eltzeko bide oso luze bat ibiĺi beaŕ-izango da; oŕengatik zentzuna tinkotzeko ta itz beŕiak atontzeko, beaŕenezko gaietan asi beaŕ-izango da, batez ere lenengo irakaskintzari dagozkionakaz.

Nola egin liteke guzi ori? Geron ustez, batzaldien bidez eta nai-izango luketen euzkaldun guziek oietarako onartzean. Bietariko izango lirake batzaldi oiek: Bat, erderakadaen ordezkoak eratzeko; bigaŕena itzen zentzuna tinkotzeko ta itz beŕiak atontzeko, batera. Bigaŕen ortarako, gaiak jaŕiko lirake auŕetik, gaŕantziaren maĺetan, uŕenez-uŕen ; eta urte bakoitzerako gai bat edo geyenez bi bakaŕik erabiltzeko.

Batzaldi oietarako elduko liraken lan guziak toki berean, eta toki batzuetan bearbada, ageri beaŕ-izango lirake, lendik jaŕitako epe batean, eta beste epe egoki bat jaŕi liteke agertutako iritzien alde edo aurka eman nai-izango liraken besteak ageŕerazteko. Gero, bi epeak amaitu ondoren, agertutako guziai buruz auteskunde bat era liteke, autarki geyenak lortuko litukena onartzeko.

Urte askotarako lan luzea izango litzake ori, baña guztiz beaŕa geron ustez. Eta eginkizun oŕen bidez bi motazko euzkal-iztegi orokaŕa egin liteke: bat, gaiez-gai, gai bakoitzerako berezia, ta guztiak alkaŕen uŕengo argitara litezkenak; bestea, ain beaŕa zaigun itz guziena. Euzkal-lan guzietarako, iztegi ori izango litzake lankai egoki ta edeŕenetakoa.

Batzaldi oietan, len esan dugunez, nai-izango luketen euzkaldun guziak sartu al-izango lirake, naiz beren asmo ta iritziak emateko naiz autesle izateko.

Eta lan guzi ori zuzentzeko, gogo-lantze edo kulturazko bazkun guzien artean era lezaketen batzorde berezi bat izango litzake egokia; bazkun bakoitzetik ordezkari bat batzorde ortan sartzeko; ta ordezkariren bat il edo alde-egin ezkero, bere bazkunak izendatuko luke beste bat joandakoaren ordez batzordikea izan zedin.

Batzaldietarako sariak jaŕi beaŕ-izango liŕake, ta batzordearen lanak

egin al-izateko, dirua naikoa aurkitu ere. Geron ustez, asmoa zeatzez eta argi aurkeztu ezkero, Eŕi'ko agintariek elukete beren laguntza ukatuko, eta asmoa ontzat artuko luketen gogo-lantzeko bazkunek, ortarako, eskari egokia egin lezakete. Bai ta arpide berezi bat ere jaŕi liteke, lagundu nai-izango luketen guzientzat.

Eta lan guzia Eŕi'ak egiña izango litzake, Eŕi'arentzat (1).

(1) Ikusi: XI'gaŕen atala.

**XI.—Iztegi ta itz beŕien beaŕa. Izkelgi guzietako itzak onartu ta guzientzako erabiltzea. Asmo-iztegia. Irakaskintzarako gai guzientzako iztegi bereziak. Orobat beste gai ororentzat. Olabide'ren asmoak.**

Euzkal-irakaskintzari buruz ia guzia egiteko daukagula beŕiz esan dezakegu; joan diran mendeetan iñoiz ez da gure Eŕi'an bizi-arlo au aurkeztu, ez bere gaŕantzia atemateko, ez eta gutxiago zabalarazi-bidean erabiltzeko ere. Gure auŕekoen egipenen artean, iñoiz ez da agertzen ortarako kexutasunik. XVIII'gaŕen mendean bakaŕik, Azkoitia'ko Zaldunak, Munibe bereziki, asi ziran zertxobait ikusten, eta elertiaren izarian gauzatxoren bat egin zuten; baña berak antolatutako ikastaldietan, bidez, erdera erabiĺi zuten bereziki; euzkera ez bide zan irakasteko egokia, beste gaiak beraren bidez irakasteko, jakiña. Aien araudiaren 9'gaŕen atalean, izkuntzak ikasi beaŕ zirala agintzen zuten, euzkeraz eta españeraz asi-ta, lateraz, parantzeraz, englanderaz eta italieraz jaŕaitzeko (1); beraz, euskera, geyenez, gaia bezela bakaŕik. Deitoragaŕia, besteetan oŕen argi ikusi zuten jaun uren aiek, euzkeraren auzia ez ikustea; on ugari etoŕiko zitzaiokean gure mintzoerari, orduko yakintza ta ezagupenak euzkeraz erabiĺiak izan balira; mintzoerari ta Euzkaleŕi'ari. Baña "balitzko olak burnirik ez", eta goazen gure arazoak, gaur dagozen bezela artzera, gure egokera ontatik asi-ta auŕeruntz abia gaitezen.

Esan dugunez, gure irakaskintzari buruz, egitan, asteko gaude (2); eta orain arte Eŕi bezela ezer egin ez dala ikusi beaŕa auengaŕia baldin bada, agian, bere alde ona ere ba-da 'utzaren uŕengo egokera ortan: ya-

(1) Ikusi: "El Conde de Peñaflorida y los Caballeros de Azcoitia" - J. de Aralar. Editorial Vasca "EKIN". Buenos Aires.

(2) Ba-dakigu, aŕean, irakaskintzako liburu batzuk egiñak daudela, bai ta eskola txiki batzuk ere bizi-izan dirala, eta orain ere zertxobait egiten dala; baña guzia barano txikietan eta ezer ez Eŕi guziarekiko gerturik. Azken urte auetan sortu diran euzkal-ikastolak gaŕantzi aundiko ta guztik aintzakotzat artzeko ditugu.

kintza, irakaskintza ta izkuntzaen arazoetan, asko ikasi ta auŕeratu da eguzkipean eta ongi ustiatu ditzakegu gai oietan gizadiak iritxitako auŕerapen eta ezagupen guztiak.

Egokera ontatik emateko dagoen lenengoetako uŕatsa, iztegiarena dugu, zalantzik gabe. Egiñak ditugu, alegia, iztegi on batzuk, Harriet, Duvoisin, Azkue, Lande, Bera-Mendizabal, Muxika, ... . Baña guziak euzkera-erderaz ala erdera-euzkeraz antolatuak; ez dugu oraindiño gure iztegia, euzkeraz egiña, ots, itzak eta beren esan-nai ta azalpenak euzkeraz aurkeztura eman dizaizkiguna. 1936-39 arteko guda auŕetik, Azkue, Olabide ta Ormaetxea, Euskaltzaindi'ak aginduz uste dugunez, iztegi oso aundi bat egiten ari ziran, txit auŕeratuta edo zeukaten urte mingaŕi aiek eldu ziraneko, eta dakigunez Euskaltzaindi'k gordetzen du. Ba ote dago an lan aundi ori osotzeko asmorik? Eta argitaratzeko? Noraezeko izango litzaiguke, benetan, euzkal-irakaskintza antolatzean asteko ta jaŕaitzeko ere. Eztakigu nola zegoen egiña ez eta, noski, bera atontzean egileek beren xedeen artean irakaskintzaren beaŕa ere izan ote zuten.

Dana dala, orixe ezpada beste bat, iztegi osoa dugu beaŕ-beaŕa irakaskintzarako oñaŕi berezi ta egokia izan dedin. Jakiña, esan dugunez, iñoiz ez da erabiľi euzkera eskoletan (Bizkaya'ko Diputazioak guda auŕetik antolatutako auzo-eskoletan, Donosti'ko Muñoa'koetan urte batzuetan eta ba-liteke besteren batean, oraintxe asi zaizkigun ikastoletan ere izanezik,) ez bera ikasteko ez eta gutxiago ere, beraren bidez beste ezagupen-gayak azaltzeko, irakasi ta ikasteko. Ortik etoŕi beaŕ gai guzti oietarako ia euzkal-itzik ez eukitzea; eta bidezko ta beaŕezkoa agertzen zaigu bereala, utsune ori betetzeko dugun beaŕa, beaŕ ertsia.

Oŕa nola, lenengo uŕatsa dugun iztegia egiteko ere, itz beŕien auzia bidera datorkigula. Ez dugu ori auzi makala, azken aldietan gorbizten ari zaiguna, batez ere mutuŕetara dijoazkigun iritzien bidez; ortxe ditugu garbizale puŕukatuak eta mordoľozale itsuak; ez bide dago besterik; alde ta aurka, alkaŕen leyaz, gogorkien mintzatu ta idatziz, ez diote alkaŕi ezer parkatzen. Itungaŕi dugun jokera ori begiratzean, beŕiro agertzen da gure Eŕi'ak duen akats aundi bat, berarena bakaŕik ez izanaŕen. Euzkaldunak arazo batean gogorkien aŕi-izateko, alkaŕen aurkakoa izan beaŕ arazo ori; orduan bai, besteetan iñoiz erabiltzen ez diran kemen eta indaŕa, alkaŕen aurka jotzeko bizi-bizirik eta aundienak erabiľi beaŕ.

Gure aldetik ez genuke, ez bat ez beste mutuŕerañо eldu nai-izango, erdiruntz baizik; ala ere urbiľago gaude garbizaleengandik besteen aldetik baño; egitan, garbizaletzat dugu geron burua, baña garbizalekeriraño eldu gabe; ortxe ikusten baitugu osasunerako bidea. Eta goazen gure asmoa azaltzen.



Aipa dezagun lenengoz, alkaŕengandik oŕen uŕutian dauden bi mutuŕetakoak, beren iritzi ta aburuetan, gogo onez eta zindo jokatzen ari dirala eskieŕ gaudela, guziak bide oberenean ari dirala ustean. Beraz, eta beti, gure iritzia ere oŕela egin beaŕ eta oŕela azaldu beaŕ, zintzotasun-betean.

Argibidez, erdal-itzen zaleak eŕiak erabiltzen dituela esaten digute gogoŕ; alde batetik ori; bestetik kulturazko izkuntzetan oŕela egiten dala gañeratzen dute; bai ta oietan beste izkuntzaetako itz asko lasai artzen dirala, norberaren mintzairako kalterik gabe; aitzitik, oŕen bidez, aiei aberastasuna aundiagotzen zaielarik. Eta noski, besterik gabe, jaŕaibidez eskeintzen dizkigute, besteetan ikusten dituzten bi egipen oiek.

Iritzi oŕen alde makalena salatzeko, beren argibidea bera erabiltzea dugu naikoa, geron ustez. Guk geuk, beste izkuntza ta kulturetan egiten dana dugu betetzeko ere; gutxi gorabera, oŕela da erdal-itzen zaleen argibidea. Eta oso osorik ontzat artzen dugu ori geuk ere, bere osotasunean artzeko baldintzaz, ez iñola ere zatika bakaŕik.

Eman dezagun egia osoa dala kulturadun ditugun Eŕi'etan ontzat artzen dituztela, eŕi xeak darabiľena ta beste izkuntzaetatik eltzen zaizkien itzak ere; egi-egia ezpaita ori ere. Baña Eŕi guzti oietan, gurean gertatzen ez diran beste egipen sendo auek ikusten dira zabal eta sakon: lenengoz, Eŕi oietan eŕitaŕ guztiak izkuntza bera guzietarako darabiltela, eta bigaŕenez txiki-txikitandik asi-ta, bertako ikasketa ta kultura guzia, izkuntza bera oŕen bidez eman eta artzen, irakasten eta ikasten dala. A!, baldintza bi oiekin bai, bete-betean artzeko iritzi ori.

Gurean ez da oŕelakorik gertatzen; gaur, geyen-geyenez, iruren bat dugu, Eŕi'an euzkaldunak diranak; eta naiz auek naiz gure odolezko erdaldunak, Euzkadi'ko seme guziak erderaz ikasi ta ikasten dituzte irakaskintzan gauza guztiak; oŕela, kulturaz, guztiz erdaldunak izaten. Gure eŕietan eraiki diran eskola ta ikastetxe geyenetan, naiz kanpotaŕak naiz gerok antolatuak izan, erdera erabiľi da irakas eta ikasteko bideaz, euzkera zearo uŕuñaturik. Eta eskola ta ikastetxe oiek ditugu gure Eŕi'aren semeengan euzkal-gogoa erailtzen duten bide bikañenak.

Eta eskola ta ikastetxe oietan ikusteko, gure mordoľokeriaren iturburuak ere; egia da eŕiak mordoľokeri asko darabiľela, baña eŕiak, ge-

yenetan, ez du itz beŕirik eratzen, ez mordol̄oz ez eta garbikeriz ere; eŕiak besteek aurkezten eta eskeintzen dizkioten itzak darabilzki ta erabil̄iko ditu; beste oiek egunkari ta aldizkariak ditugu, bai ta iŕati ta zinema, bai ta inguratzen duen erdal-eguratsa guzia ere; baña batik bat eskola ta ikastetxeak. Ikas-toki oietan, gaiak ikasten diran batera, oarkabez bada ere, ume ta gazteen baitan, bidez darabilten izkuntzaren gogoa txertatzen da biziki, eŕo sendoenak artzean. Oŕela, mintzoeraz eta gogoz, gure gazteak eskola ta ikastetxeetatik erdal-gogoaz ateratzen dira, barne-barneraño kutsututa.

Arestian, azken guda orokaŕaren ondoren, burmuñaren ukuzteaz asko itzegin da. Orokarkerizko alderdietan, gudan bertan batez ere, egindako anderkerien artean orixe, burmuñaren ukuztea, aundien eta nazkagaŕienetakoa bezela, aipatu da. Gurean dagozen eskoletan gure auŕak euzkal-gogoz oldozten sartzen dira, ta eskola oietatik erdal-gogoz oldozten irten. Ez al dugu ortan gure auŕai egin dieten gogorkeri izugaŕia, euzkal-burmuña zearo ukuzita uzteko? Argi dago, noski, ta oŕ ere ikusi beaŕ dugu gure Eŕi'aren gogo-biziak noraño jasan beaŕ duen; oŕa gure abeŕia suntzitzeko bide berezi ta egokienetakoa, zuzentzeko guretzat beaŕ-beaŕa dana.

Itzetan, al eta ezin, gizonen gogoa dizdiratzen da nolabait. Ona emen Vendryes'tar J. jaunak, maiz aipatutako bere liburuan ("El Lenguaje") zer diñoen (259'gn. oŕialdean): "Itzak ez dute berezko bizia; gizonen gogoan bakaŕik bizi dira. Baña gogoaren eratortzea, ekitean beti dalarik, itzetan agertzen da". Oŕela, erdal-itzetan erdal-gogoa ere ikusteko beaŕa.

Eta gurean, orain bezela, beti; len neuŕi txikiagoan, eskierki, baña bere giñoan berdin; aspaldin, apaizak izan ziran eŕiaren irakasleak soil̄ik; eta apaizak lateraz egin dute beti, len geyago, beren kultura geyena; gero, itzegin ala idatzi beaŕ-izan zutenean, adierazi nai zituzten asmo, oldozkun eta egipen aunitz, euzkerazko itzak ez zeudelako edo berak ez zekizkitelako, eŕazago edo zitzaien erderazkoak erabiltzea; berengandik, ondorioz, eŕiaren aora igarorik.

Aspaldiko gure idazle aundien artean, XVI'gaŕen mendean bizi-izan zan Leizaŕaga'taŕ Joannes dugu aipatuenetako bat. Itun-Beŕia jaŕi zuen euzkeraz, 1571'gaŕen urtean La Rochelle'n argitaratua izan zana. Euzkal-gaietan ari geranok maiz irakurtzen dugu aren izena idazti ta aldizkarietan barna. Ona emen Omaetxebaŕia'taŕ Iñaki Aitak (O.F.M.) "Euskera" izenaz eman digun liburu edeŕean, Leizaŕaga'tzaz diñoena



(156'gn. oŕialdean): "Bere itz-bilduma laterakoia da biziki. Baña ori ulertzeko, berak Europa'ko kulturadunek orduan zegitena dagiela gogoratu beaŕ da; naiz parantzetaŕak, naiz españaŕak, edo italiaŕak eta abaŕ: laterara jo, zearo".

Aspaldidanik oŕela eten gabe, euzkeraren uaŕian morlol̄okeriak sartzen dira lenengoz; gero erderaz asten da mintzatzen, euzkal-itzak tartean erabiltzen, eta azkenez, erdera garbitzeagatik euzkal-itz guztiak baztertu. Orixe mordol̄okeriaren etoŕera: Eŕi'aren arerioekin, itsuki ta nai gabe noski, bat egitean.

Mordol̄okeria beraz, guretzat, txit kaltegaŕia dugu. Ez gera oŕengatik beste mutuŕeraño joango, ez orixe. Aspaldidanik oso sartuta ditugun erdal-itzak ontzat artzea bidezkoa dugu ,guziz euzkeratuta ditugulako; eta alpeŕik izango genuke beste beŕi-beŕien bidez aldatzeko alegiñak egitea.

Atzeŕitaŕen itzak artzeko, gu baño mil̄a bider obeto dauden españaŕ eta parantzetaŕak, ajolaz ikusten ditugu egunero, beren izkuntzak iraunerazteko nai bizian. Kari ortara Kanada'n, Mundu zabalean parantzeraz mintzatzen bizi diran Eŕi guztien ordezkariek batzaŕ berezia egin zuten 1956'gaŕenean. Eta Frantzia'n bertan, garbizaleak gero ta geyago dira, bazkun eta batzorde bereziak antolatzen, parantzeraren garbitasunari buruz kexu. Ikus dezagun "La Tribune de Genève" egunkari edeŕean (1960-I-8) oŕekiko esaten dana; lenengo tokian agertzen da idazpuru onezaz: "Parantzera zaintzeko oldaŕaldi aundia antolatzen ari da", eta Dudan'daŕ Camille jaunak izenpeturik. Auetxek beraren itzak: "Parantzera gure izkuntza on au, ba-dirudi bere buruaren alde ta kemenaren jabe agertzen ari dala; edonork baitaki, zoritxaŕez, maiz gaizki erabil̄ia izaten dala, aurkako zentzun ta paŕegaŕizko irudiakaz eragotzia, eta gañera atzeŕietako itz-mordo lotsagabeaz kutsutua ikusten dala".

"Ona adoregaŕi dana: oldaŕaldi ori ez datoŕ beren goiko burutapenetan bizi diran idazle yaukalengandik; yakintza, teknika, izparkariak eta injenieroak, eta eguneroko gauzetan ari diranengandik baño".

Esandako asmo ortaz, Paris'en eta Camus'taŕ Paul'ek eragita "Cercle de Presse Richelieu" deritzana eratzen da. Larousse iztegien etxeak "Vie et Langage" aldizkaria ateratzen du, Frantzia'ko Akademi'an dagoen Duhamel'daŕ Georges jauna buru dan "Office du vocabulaire français" erakundearena aguro biurturik. Erakunde onek, ongi idazteko onu ta zuzenbideak ematen ari da, ta arestian "Coupe Emile-de-Girardin"

Paris, Frantzia, "Navarre", Suiza, Beljika, Kanada, Haiti ta Mauricio ugarteko ongien idatzita dauden egunkariai eman die.

Bide batez, injenieroak, teknika-gaietan eŕuz sartu diran beste izkuntzaen itzen auŕean ikaratuta, "Comité d'étude des termes techniques français" eratzen dute. Batzorde oŕen buru Comber'taŕ N. jauna dugu, Frantzia'ko "Polytechnique"'ko injenieroa; eta batzorkideak "Polytechnique"'ko beste injeniero bat idazkari ta beste ogetamalau injeniero dira, auek mota askotakoak izanik. Batzorde oŕek "Yakintza'en Akademi"'aren laguntza du, eta atzeŕietatik eldu diran teknikarako itzak ajola aundiaz aztertzen ditu, parantzeraz egindako beste batzuen bidez baztertzeko, eta auŕerapenak soŕerazitako asmo ta gauza beŕientzat parantzerazko itz beŕiak ere eraturik.

Ez da ori dana. Alegin guziak alkartzeko, Camus'taŕ Paul jaunak goierako talde berezia antolatu du, "Défense de la langue française" deitzen dana; bazkun au, izkuntza, elerti ta yakintza maiĺetan ezagunenak diran yakintsuek laguntzen dute, beren artean Akademi'ko izen asko ikus ditezkenak.

Oldaŕaldia Frantzia guzira edatu da, bai ta Beljika, Kanada ta Suiza'runtz ere. Genève'n Snell'daŕ Honoré jaunak "Club de la grammaire" atondu du ta argitaratzen dituen "Cahiers"'etan, an izaten diran eztabaidak azaldurik agertzen dira. Berne'n ere "Fichier français" deitzen dan beste erakundea sortu da esandakoen xedeetarako.

Guzti ori irakuŕi dugun idazlan ortan, bere egiĺeak, amaitzeko, alegin guzti oiek txalogaŕiak dirala bayezten du; bertan aŕoputzkeririk ikusi beaŕ ez dala esaten, izkuntzaganako xekutasuna baizik. Eta parantzeraren alde ari diran jaun oietako baten itz auek beŕidazten ditu bere lana bukatzeko: "Nik parantzera, bere buruaren jabe nai dut, oŕela guztien laguntzaĺe obeki izan dedin".

Parantzera, Europa'ko izkuntzaetan aberatsenetakoa dugu, miĺoika gizasemeen aoetan bizi dana; miĺaka eskola ta ikastetxeetan ikasten, irakasten eta zaintzen dana; aleun egunkari ta aldizkarietan egunero idazten dana; liburuetan eten gabe ta buŕustaz agertzen dana. Frantzia osoan eta landan ere, Europa'n eta Ludi'aren zeaŕ ... . Nork esango luke oŕen moldatu ta erabiĺia dan izkuntza, zaintzaren beaŕean egongo zala? Baña oŕelaxe da, ikusi dugunez ... eta laguntzaren beaŕ goŕian ere dirudienez. Arestian Frantzia'ko Jaurlaritzak teknika-gaietan sartuta zegozen englanderazko itz-mordo baten ordez, parantzeraz atondutako itz beŕiak ontzat artu ditu ta, auŕerantzean bere agirietan erabiltzeko erabaki du.



Guzti ori, Ludi'an gaur, auŕeratuenetakoa dugun parantzera izkuntzari buruz.

Ikus dezagun oso aspaldiko ta gurearen antzekoa dan "Thora" (Mois'en legea)'ren mintzoeraz zer egiten ari dan Israel'en.

Ongi dakigu guziok gaur Israel lateŕi beŕia (aspaldiko endeŕia, endeŕi zaŕa) bere luŕ gañean, Palestina'n egiten ari dan lan aundia Eŕia antolatzen eta onen bizia oñaŕi sendoetan indartzen.

Oñaŕi oietatik nagusiena, geron ustez, izkuntza darabilte. Noski, abertzalezuŕian, Eŕi'aren izkuntza zaŕa, Itun-Zaŕa'rena alegia, aukeratu dute lateŕi beŕiaren arazo guzietarako, israeldaŕ guziek erabil dezaten: etxean eta eskoletan, lateŕiaren arazoetan eta kalean, ikastetxe ta irakastola nagusian, Eŕi'aren bizi guzian.

Mende ta mendeetan oŕen esitua iraun duen izkuntza ori, gaurko biziaren beaŕetarako atontzeko, lan izugaŕiaren auŕean aurkitu dira israeldaŕak asieratik. Zer egin dute? Ona emen Genève'ko "La Tribune de Genève" egunerokoan (1960-V-21 eta 22'gaŕenean) nola azaltzen zuten arlo oŕi buruz egin eta egiten ari dirana:

"Ongi zegoen Thora mintzoerari bizi beŕia ematea. Beaŕezkoa zan, alaz ere, gaurko munduarekiko egokitzea; eta geyenetan mendeen bidean barna eguzkipean eratu dan itz-bilduma guzia izkuntza ortan soŕeraztea ere. Eta noraezeko izan zaizkien itzak, beste izkuntzetatik artu ordez —parantzeraz saŕi egiten dan bezela— eberkerazko eŕo zaŕetan biĺatzen, zati guztien bidez landu dituzte. Oŕela Itun-Zaŕ'etik atera dituzte, naiz yakintzarako, naiz gudaritzarako edo gaurko gauza guztiak deitzeko izen beŕi guztiak...". Ben-Yeuda jaun yudutaŕa izan omen da lan guzti oŕen egiĺe yaukalena.

Oŕa garbizaleentzako eredu edeŕa. Ez dugu guk oŕerano eldu nai; baña bai, ordea, israeldaŕek beren izkuntza eutsi ta indartzeko antolatu dituzten erakunde aundi ta zabalak gurean ere jartzerano.

1954'gaŕenean UNESKO bazkun omendunak liburu bat argitaratu zuen idazpuru onezaz: "Eŕotiko azipideari buruzko ikasketa". "Ama-izkuntzak irakaskintzan erabiltzea". Liburu oŕen 69'gaŕen oŕialdean eta beste idazpuru berezi onen ondoren: "Itz-bildumaen berezko edatzea", onela irakurtzen da:

"Izkuntza baten itz-bilduma, ura itzegiten duten gizalagunen biziarekin aŕemanetan dago". "Itz-bildumaren edatzea, neuŕi aundian, berez egiten da, mintzatzeko indaŕ banatu askoren ondorioa dalako. Ala ere, irakaskintzan eta kulturan norabide beŕia asten danean eta, bereziki,

ama-izkuntza eskolan lendabiziz sartzen danean, edo irakaskintza zabaldu ta yakintzazko liburuak, len ortarako oso gutxitan erabiĺi dan izkuntzaz idatzi nai danean, *itz-bildumaren edatzea aŕetaz atontzea* beaŕa da".

70'gaŕen oŕialdean eta beste idazpuru onen azpian: "Itz-bilduma baten edatzea lendik jaŕitako egitarau baten bidez", onela jaŕaitzen da:

"Ondore onak lortzeko itz-bilduma baten edatzea atontzen danean, izkuntzak duen berezko joera al danean erabiĺi beaŕ da".

Paris'en 1951'gaŕeneko aziĺan, UNESKO'k antolatutako yakintsu berezien biĺeran emandako txostenean agertzen dira ona ekaŕi ditugun asmo guzti auek. Biĺera oŕen gaia auxe izan zan: ama-izkuntzak irakaskintzan erabiltzea. Eta esandako txosten ori len aipatu dugun liburuaren bigaŕen atalaz bezela agertzen da.

Liburuaren 70'gaŕen oŕialdean bertan, asitako gaiari jaŕaitzen, auxe irakuŕi diteke: "Sauvageot jaunak onela egitea esondatzen du: Geyenetan gertatzen dana, itz-bilduma bakaŕik egokia ez izatea da". "Orduan, izkuntzari peitzen zaizkion itzak ornitzea aski da; ortarako bide auetako edozein erabil diteke; bide auek egokitasunari buruz uŕenezuŕen jaŕita daude:

"a) lendik dagozen itzetatik itz beŕiak eratortzea, itzak eratzeko izkuntzan dauden arauen bidez;

"b) atzeŕiko itzen antzeko besteak egin, aien zati bakoitza izkuntzaren beste antzeko bateaz aldatzean;

"c) atzeŕiko izkuntzaetatik oñaŕizko itz batzuk artu ta fonetikari buruz izkuntzaren arauz eratu".

"Azken bide au al dan guzian ez da erabiĺi beaŕ (1), izkuntzak duen itzorkunaren oreka lardaska dezakelako. Gañera, beste izkuntzaetatik itzak artzea, egin diteken neuŕia edozein izan, kaltegaŕia da, berealaxe beren itzorkunari buruz ulerkaitzak diralako, eta oŕela irakaskintzaren lana zaĺagoa egiten da".

---

(1) Emen gogora dezakegu Euskaltzaindi'k Arantzazu'n 1956'gaŕeneko iraiĺean egin zuen batzaŕean eman zuen aolku au: "Badaki batzarreak zenbait kultura-sailletan itzen eskas gabiltzala. Geroago, bear den garaiean, Euskaltzaindiak bere erabakiak ar ditzan, euskaldun ikasi guztieri eskatzen zaie orretarako egokiera dutenean, gai oriek, bai itzez eta bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekagaŕiago izan". ("Euskera").



UĹESKO'ko biĺerak beste bide batzuk aolkatzen ditu ta bigaŕenean onela diño (71'gaŕen oŕialdean): "Orokaŕean erabiltzen diran jatoŕizko itzak daudenean, alegiñak egin itz beŕiak ez eratzeko; itz jatoŕ aien zentzuna eŕaz aldatu liteke gogai beŕia adierazteko ta nastagaŕiak izan gabe".

Asmo onekiko Sauvageot jaunak auxe esondatzen du: "Argi-argi dago alegin guzti auen xedea auxe dala: sortzezko gizasemeari, beraren oldozpenari indaŕik kendu gabe, gaurko gogapenaren galgan jartzeko, eskuartea izan diteken izkuntzaren bidea ematea. Jatoŕizko kulturak berak, edatuak izan diran izkuntzai eustean bakaŕik, gaizkatuak izan ditezke, euste ori aŕoiñezko izari guzian egiñik; jakiña, izkuntza beaŕ beŕietara egokitzen baldin bada egin diteke ori soilki. Bestela, igartu ta maĺez-mail erkituko da ta azkenez suntzituko da. Itzegiten duten Eŕi'ak mintzoeraz aldatuko dira, ta aldakuntza ori oiek zeukaten kulturaren iltzea izango da".

"Itz-bildumaen eratzea". Gai onezaz, esandako liburuaren 72'gaŕen oŕialdean, onela agertzen da Unesko'ko bilkuran emandako iritzia: "Lenengo irakaskintzarako itz-bilduma eŕaza atondu beaŕ dediñean, lana, azibidean trebeak ditezenak batzorde txiki bat osotzean, burutu al-izango da. Izkuntza yakintzaren izarian erabiltzeko, xedea baldin bada, iraunkoŕa izan dedin batzorde bat jartzea egokia izango da".

"Itz-bilduma'ren aberastea", geroko beste idazpuru onen pean, onela irakuŕi diteke len aipatutako liburuan bertan (138'gaŕen oŕialdean):

"Itz-bilduma'ren aberastea, zatiz egin zan, eta berez, ots, beste izkuntzaetatik artutako itzen bidez. XVIII'gaŕen mendeko azken aldian Suomi'ko izkuntzan eta Hungaria'koan, bai ta XIX'gaŕen mendeko erdi aldian Estonia'ko mintzoeran, beste izkuntza batetik artutako itzak ugari ziran, eta oietatik asko ez zeuden guztiz aienganatuta. XIX'gaŕen mendeko asieran suomitaŕ baten eleketa itz suomitaŕ eta sueziaŕen ots ezainezko nasketa zan. Hungaria'n, kulturadunen artean, itz doistaŕ, parantziaŕ, laterazko ta abaŕ eŕuz artuta zeuzkan mordoĺoa mintzatzen zan".

"Artezlarien lenengo kardaba, oŕelako egokera zuzentzea izan zan, beste izkuntzaetatik arturako itzen ordez, esandako izkeretan jatoŕak ziran eŕoen bidez eratutako beste itzak sartzeko".

Liburuaren beraren 141'gaŕen oŕialdean auxe idazten da:

"Hungaria'n 1790 ta 1848'gaŕen urteen bitartean, "be izaleak" eta "garbizaleak", alkaŕen aurka gogoŕ egin zuten. Miĺa ta miĺaka itz beŕi eratu zituzten, eta aietatik geyenak etziran egunerozko erabiltzean sartu".

"Zein ote alegin guzti aien ondorioa?".

"Hungarierak amabi mila itz baño geyago zoŕ dizkie, eta itz oiek zearo aldatu dute iztegiaren azpegia. Desiré Kostolányi olerkariak gogoratzen zuenez, gaur hungariaŕ bati eziña izango litzaioke bere ama-izkuntzaz ari-izatea, era artaz egindako itz guztiak kenduko balitzaizkio. Eleketa luzetxo batean edo idatzitako ikas-liburuan, itz oien saŕitasuna % 30 eta 40'en artean izaten da".

142'gaŕen oŕialdean, onela jaŕaitzen da: "Orobat gertatzen da suomieraz. Gaur Suomi'n argitaratzen diran liburu geyenak moztuta geratuko lirake, ezinbestez, XIX'gaŕen mendearen asieran eratutako itzak kenduko balira. Estonia'n beŕikuntzak etzuen lortu oŕenbeste, gutxi gorabera 1910'gaŕen urteko aldi arte asi etzalako. Alaz ere ia oraingoa izana'en, bere ikuŕaz izkuntza galgatu du ta azpegi beŕi bat eman dio oni".

"Ikusten danez beŕizaleen yorana ez da alpeŕik izan".

143'gaŕen oŕialdean, iru izkuntza oietan egindako oaŕikaspenetatik aterakizun batzuk ematen dira labuŕ. Auxe bakaŕik jasotzen dugu:

"Baiezko ta ezezko ondorioen artekoa tinkotzen bada, auxe esan diteke: Izkuntza oietan sartutako aldakuntzek, beren osotasunean, onurazki eraldatu dituzte, ta ama-izkuntza soilak ziranak kultura-izkerak biurtu dira, gure aldi ontako oldozpena egokiro adierazteko lain izanik".

Nora jo geron aldetik ereduaren bila? Gure Eŕi'an orixe izaten baita oitura, bai aal! Gurean, maiz, geyenetan esango nuke, edozein gauza egitel o, Eŕi'tik kanpora doa euzkalduna, ia besteak zer eta nola dagiten ikustera, gero berak etxean, orixe egin eta oŕela jokatzeko.

Ba ote da, euzkaldunarengan, oldozteko nagitasunik?

Emen ikusten ari geran gaietarako, eskierki, Eŕi guztietan ibilitako bideak ez dira izan guztiak berdin. Zein ote guretzat onena? Len esandal o bide oiek berdin-berdin izango balira, ezkenuke enurarik izan beaŕ, ororena artu ta kito. Baña ala izan ez danezkero, beaŕa zaigu euzkaldunoi, gero ta geyago geuk oldoztea, geuk geron kabuz yardutea; ez, ordea, besteai ikastea bakaŕik egin, geuk gurean bereziki ongi aztertu ta ikasi baño. Geuk erabaki azkenez, eta gure bidean ibili.

Gogoratzeko ditugu emen Olabide'ren asmoak (1). Izkuntzaren eŕoen bila ibiltzea nai zuen onek ere; baña gurean eta aldamenean dugun aŕobi bizi batean: baseŕi ta basetxeetan irauten duen izkera min-

(1) Ikusi auŕeraxeago (atal ontan bertan) asmo auek.



tzatuan; israeldaŕen antzeko, berak baño lenago ta bide eŕaz eta egokiagoz gañera.

Esan beaŕik ez. Guzti au irakurtzen, idazten eta aztertzen ari geralarik, euzkerarenganako gure oldozkun eta kardabak. Ez ote ditugu aŕeta aundienaz laguntza ta zaintze oiek eman eta antolatu beaŕ? Ez ote zaigu egokia, ortarako asita dauzkagun bideak ere onak ote diranentz begiratzea?

Euzkera lareun edo geyenez bosteun mila aoetan bizi da, bizi motza bada ere. Oso eskola gutxitan irakasten da gaia bezela; gutxiagotan lenengo irakaskintzaren gai batzuk irakasteko bideaz. Ostez, gure eŕietako eskoletan gure auŕentzako irakaskintza osoa españeraz ala parantzeraz ematen da, umeen kultura, izkuntza oietan lantzen eta bide batez aien gogoa era berean ere moldatzen; geyago, eskolaetatik at mintzatzen jaŕaituko dan euzkera bera, beste izkuntza oien izakeraz kutsuturik izango dugu, gero ta neuŕi aundiagoaz. Eta asieran eskoletan egiten dana, gero, beste ikastetxe, irakastola nagusietan eta nunai tinki osotzen da.

Eta ... onez onean ari izanaŕen, euzkeraren aurka jokatzen duten ainbeste oldarkundeak, ez ote ditugu gerok ere itsupenez laguntzen?

Goragoxean aipatu dugu parantzeraganako aŕeta aundia, miloika ta miloikak mintzatu ta erabilia dan izkuntza ori zaintzeko; oŕen kultura aundia duen izkuntza ortarako. Ez ote da bidezko gure txikitasunean eta gure egokeran aŕeta aundiago izatea? Ala deritzaigu, ta oŕengatik ezin ontzat artu mordolo-bidea.

Len eŕan dugunez, euzkal-iztegi osoa beaŕ-beaŕa zaigu; bertan itzen azalpen guziak euzkeraz ere egiñak ager ditezen; oŕela itzen zentzuna ere tinkotuago azalduko da. Ba-dauzkagu, noski, iztegi batzuk dagoaneko, baña oiek, onak izanaŕen, ez dira egiazko euzkal-iztegiak, euzkera-erderaz ala erdera-euzkerazkoak baizik. Oietan ez da ematen euzkal-itzaren adikera euzkeraz, erderaren itzulpenaren bidez baño; beraz beaŕa da erdal-itzaren zentzuna jakitea euzkerazkoarena ardiesteko; galdera oni erantzungo bagenio bezela: Nola esaten da euzkeraz erdal-itz onen zentzuna?

Ona ta egokia da era ortaz atondutako iztegia, baña ez da aski euzkeraren beaŕerako. Beaŕ oŕek auxe eskatzen du urduri: Euzkeraz bakaŕik egindako iztegia, ots, euzkal-itzaren zentzuna, adiera edo esan-naia euzkeraz emango duen iztegia. Geron ustez guztiz beaŕa zaigu orixe eukitzea, ta lenbailen abiatu beaŕ-izango genuke oŕelakoa egiteko bidean.

Lan ori beaŕa bezin aundia da gure euzkerarentzat bai ta gure

Eŕi'arentzat ere. Oŕengatik aŕetaz begiratu beaŕ da auŕetik nola asi, nola jaŕaitu ta nola burutu beaŕ dugun. Ona emen asmo oŕekiko gure iritzia:

Zentzun orokaŕean, gure euzkal-iztekia, izkuntza guzietan egiña dagoen antzeko izan beaŕ da; baña gure beaŕa ezagutu ezkero, berezitasunen bat ere euki beaŕ-izango du.

Itzak, noski, abedearen arauz, uŕenez-uŕen jaŕita izango dira. Ta itz bakoitzak zeaztasun auek eramango ditu: 1) izen, izenorde, izenondo, aditz, aditzondo, ... ote dan, laburpen berezi bateaz adierazteko; 2) izkelgi batena ala ororena ote dan, laburpenez ere esatea; 3) itzaren itzorkuna ematea, ta itzorkun ori euzkerarena ezpada, zein erderari dagokion jakin-eraztea; 4) euzkeraz egindako itzaren adikera edo esan-naia. Itz batek zentzun bat baño geyago baldin badu, ukan ditzaken guziak jaŕi; ta, beaŕ-izan ezkero, zentzun bakoitzarentzat, esandako lau zeatzak ere ematea. Adibide egokiak ere jartzea, oso ona izango litzake. Geron gardiz, oietxek dira egiazko euzkal-iztegiak ukan beaŕ dituen zeatzak.

Ez da esan beaŕ oŕelako iztegiak nolako gaŕantzi aundia izango luken euzkal-irakaskintza ta euzkaldunen gogo-lantze osorako, berez argi ta nabari agertzen baita. Baña oŕezaz gogoratu beaŕ dugu, iztegi aundi ori atontzeko eman beaŕ diran uŕatsak, sakon ikusi ta neuŕiz emanik izan ditezen; alakotz, lan ori antolatzeko, aŕeta aundienaz ibiltzea beaŕenetakoa izango zaigu beti. Arlo oŕezaz, auŕetik ere ausaz, ona izango litzake aunitzen iritzia ezagutzea. Gurea emen ere ageŕerazi nai dugu:

Geron ustez, "Euskaltzaindi"'ari dagokio lan guzia zuzentzea beste gogo-lantzezko bazkun guzien laguntzarekin; lana bera, ordea, alik eta euzkaldun geyenak egiteko; ta ortarako, batzaldien bidea egokiena deritzaigu, ongi ordaindutako sarietaz. Batzaldi bakoitza gai berezi baten itz-bildumarako izango litzake, ta, apika, urtean bi batzaldi atontzeko, sei iĺebeteko epean bakoitza; oŕela urte osoan bi gaitarako itz-bildumak eratzeko.

Auŕetik, oñaŕi bezela edo, iru uŕats auek eman beaŕ-izango lirake: a) "Euskaltzaindi"'k edo gogo-lantzezko bazkun guziek batera Eŕi osoari asmoa gaindiroki aurkeztea, ikastun guziai, naiz giza-lagun bakarki naiz taldeka, lan ortan saŕ ditezen eskaturik; b) Diputazio, Udal eta nai-izango luken guziari diru-laguntza eskatzea, agian sariak zenbatekoak izango liraken adieraztean; d) Batzaldietarako gaiak zeintzuk izan litezken aipatzea, gaŕantziari buruz zeŕendan jaŕirik, eta beste gaiak eta beste uŕenkeran jartzeko iritziak emateko bidea idekitzeaz.

Asmoa ta bere zeatzak "Euskera" aldizkarian eta baztéŕetako beste



izpaŕingi ta aldizkarietan, lenengo egunetik argitaratu beaŕ-izango lirake, ororen ezagutuak izan ditezken. Batzaldi ta sarien beŕi emateko batez ere, esandako "Euskera" iruiĺebetean bein ateratzea egokia izango litzakelakoan gagoz.

Euzkal-iztegiaren lana, oŕela egingo balitz, Eŕi osoarena izango litzake, ta oŕengatik, agian, guziengan ortarako zudu aundi bat soŕeraziko litzake; ta gure Eŕi'ak bere Iztegi aundia buruturik izango luke urte batzuetan barna.

Noski, batzaldi bakoitzean sariturik izango litzaken itz-bilduma "Euskaltzaindi"'k berak edo gogo-lantzezko bazkun guzien izenez ari liteken Batzorde bereziren batek argitaratu beaŕ-izango luke, eŕuz argitaratzen eta salneuŕi egokiaz, al-izango litzaken merkeena, erosteko bide zabala jartzean. Lana ongi egiña ta aurkeztuta izan ezkero, itz-bildumak eŕuz ere salduko lirakela ustekoa dugu.

Jakiña, esan beaŕik ez, bilduma bakoitzerako, Iztegi osorako aipatu ditugun zeatzak erabiĺi beaŕ-izango lirake.

Urte askotarako lana da emen esondatzen duguna; oŕengatik ere ongi atontzeko dagoen beaŕa nabari agertzen da; beraz, atontzean ere aunitzen iritzia lortzea noraezekoa da, atontze ori ta lan guzia bide onenean asieratik jartzeko asmoz.

Itz-bilduma bakoitza argitaratzean, egiĺearen izena ere emango litzake, alegia. Gero, bilduma guzien bidez Iztegia egingo litzakenean, itz bakoitzerako ere egiĺearen izena jaŕi liteke.

Eta Iztegi osoa egiña izango genukenean, bi eraz egiña ukanen genuke: abedezko uŕenkeraz eta gaiez-gai; Iztegi-liburu aundian lenengo eraz, eta itz-bildumaetako txikiagoetan bigaŕenaz.

Gai bakoitzerako batzaldian, auxe gerta liteke: itz bat edo batzuen adikera egokiena egiĺe batena izatea, ta beste batzuena beste egiĺe baten ala batzuena. Orduan saria, itzen giñoan sarigaŕi guzien artean banatuko litzake; ta argitaratuko litzaken itz-bilduma, guzien artean eratutakoa izango genuke, saritua bezela; baña itz bakoitzaren ondoan bere egiĺearen izena agertzean. Gero, egiĺe bakoitzak, berak egindako lan osoa argitara lezake, ongi irudituko balitzaio.

Geron aburuz, lan guzi ortarako, "Euskaltzaindi"'k 1956'gaŕenean Arantzazu'n, itz beŕiai buruz eman zuen aolkua beŕitu beaŕ-izango luke.

Oŕela asiko ta burutuko litzaken lana, uste dugu ororen aldetik guztiz onarturik izango litzakela (1).

(1) **Ikusi: X'gaŕen atala.**

Ez, ala ere, orixe gure beaŕetarako naikoa. Iztegi oŕen ondoren beste berezi bat dugu noraezeko: asmo-iztegia; lenengoetan itzetik asmora joatekoa dugu; alderantziz, asmotik itzera joateko ere bidea izan beaŕ dugu, bide ori asmo-iztegia izanik. Oso egokia da mota ortako iztegia izkuntza guztietan, eta oso aipagaŕia dugu Casares'taŕ Julio jaunak espafieraz egindakoa. Baña ba-dago gurean beste zio berezia iztegi ori eukitzeko: gure izkelgi guzietako itzak bertan azalduko lirake, eta zentzunez alkartuta egongo lirakelako, oso bide ona ori, idazle ta irakurleen eŕaztasunerako, ta batik bat, euzkeraren batasunerako onuragaŕi oso izango litzakelako.

Esandako bi iztegi oietaz lan aundia egiña izango genuke gure izkuntza laguntzeko ta gure kultura indartu ta edatzeko. Ala ere, esan dugunez, gaiez-gai, beste iztegi bereziak egitea be oso egokia deritzaigu; askoz txikiagoak, gai baterako bakoitza zedaŕiturik.

Bi mota aundi auetan biltzekoak edo dira iztegi berezi oiek beaŕ dituzten gaiak: Irakaskintzarako gaiak eta besteak. Lenengoak, batez ere, lendabiziko irakaskintzakoetan asteko. Ez dugu aiztu beaŕ, eta beŕiro esango ta aipatuko dugu, ume ta gazteak eratzeko eskolak duen indaŕa. Irakaskintzan dugu, gaur, kultura guzien oñaŕia; irakaskintza nola, kultura ala; eguzkipean, edonun. Egi ori beaŕ dan bezela auŕean jaŕi ezkero, argi edonorentzat nolakoa izan beaŕ dan irakaskintza guzia, eta batez ere lenengoa atontzeko ukan beaŕ ditugun aŕeta ta ajola. Lenengoa batik bat diñogu, beste mail̄een oñaŕi ta asiera baita. Beraz gure Eŕi'aren onurako, buru-belaŕi ari beaŕ-izango genuke guziak euzkaldunentzat lenengo irakaskintza bere bide berezi ta beaŕenetan barna ipiñi ta eramateko.

Euzkal-irakaskintza izateko, elitzaiguke eŕan beaŕik izango, euzkeraz idatzita, irakuŕita, irakasita ta ikasita izan beaŕ osoro. Ortxe izango dugu gure berezitasuna, euzkal-gogoa eutsi ta elikatzeko ezinbestekoa zaiguna. Alakotz, itzetan, joskeran eta irudi ta asmoetan alik eta euzkera garbiena erabil̄i beaŕ-izango da; ez garbikerietan eiki, baña bai zentzunezko giñoaz, neuŕi gardenean.

Beaŕ ortatik datorkigu irakaskintzaren gaietarako aipatu ditugun iztegi bereziak egiteko egokitasuna. Geron aburuz, ikas-liburuak egin baño lenago, arazo ontaz batera eldu beaŕ izango genuke arlo oŕi buruz kexu gabiltzan guziok. Dana egiteko gaudenezkero, egitarau osoan oldozten, lenengo uŕatsak ditugu aŕeta aundienaz ematekoak. Iztegi berezi oiek izan ditezke uŕats oietako onuragaŕienak.

Len eŕandako bigaŕen gai-mota, zabalagoa dugu eta askoz geyago



izan ditezken gaietatik auetxek aipa ditzakegu: langintzak, amaikatxo baitugu gaurko egunean; jokuak, gureak batez ere, abesti ta dantzak; esakerak, Mokoroa ta Giltsu apaiz jaunak egiten ari diran bildumetan daudenez edo oien antzeko gertu ditezken besteak; euzkal-aditzarena; izenkidetasuna; atsotitzak; eresi, elerti, izkidetasuna ta beste ertiak; sal-erosketa; landareak, abereak, egaztiak, aŕaiak, mamutzak; eta abaŕ. Guziak, noski, euzkeraz bakaŕik egiñak, naiz izenak naiz azalpenak ere. Gai oietako asmoai buruz arestian argitaratu diran liburu batzuk oso egokiak dirala deritzaigu.

Geron iritziz, iztegi guziak, gure irakaskintzarako lenengoz eta bereziki, eta gure kultura guzirako gero, lankai beaŕak ditugu; oŕengatik batez ere, ongienik antolatzekoak.

Iskuntza ta irakaskintzari buruz ari-izateko oso beaŕa ta egokia deritzaigu Olabide'ren asmoak aztertu ta erabiltzea. Geron gardiz, gutxi edo euzkaldunen artean berak bezin argi, sakon eta ongi gure euzkera ta euzkal-kulturaren arazoak ikusi dituztenak.

Onela geniñoen auŕeko gure lan batean (Ikus: "Euzko-Gogoa" - 1958 - irail̄a-gabonil̄a - 5-6 zenbakiak - 460'gn. oŕialdean):

"Euzkera ta euzkal-kultura bide ziran Olabide'ren iritziz, euzkaldun biziari dagozkion beaŕenezko bide biak. Gure izkuntza au, mendez-mende, oŕen uŕuñatu ta bazterturik izan dala ikusirik, erdoya bezela, pipiaren antzeko, iristen ari zitzaion txirotasuna argi oartu zuen; txirotasun ori, baŕen eta kanpoko bide askotatik eldua, gotoŕ atsiki zitzaiolarik, alegia. Eta bide oietako gaŕantzidun bateaz, itzena, iztegiarena aipatu ta oaŕerazi zigun, Araba'ko gure idazleak".

"Beaŕezkoa; kultura orokaŕa, gurean, beti erderaz ikas eta irakasi izan danezkero, amaika ta amaika itz jatoŕ geratu edo zaizkigu bazteŕetan galdurik erderazkoek xokoratuta; eta egiazko euzkal-kulturaren bidez, ots, euzkal-irakaskintzaren eskeŕ, astiro ta egoki, urtez-urte eratu al-izango zitzaketean itz beŕiak ere, jayo-bidean geldituri k".

Ona emen, orain, gai oni buruzko Olabide'k 1916'gaŕenean argitaratutako bere "Giza-soña" liburuaren itzauŕean jaŕitako itzak:

"Izen-pil̄o au argitara yaurtitzen det aizkide askoren onuz. Euzkaltzaleak atsegiñez artzen badute, beste pil̄o batzuek daŕayokete bildu ditzakedan euzkel-itzak, yakingai bakoitzak daskanez euzkel-idazleei dakarzkiedala, ayen arloa nolarebait arintzeko, ta beaŕa zaigun euzkel-idaztiyasa gertutzeko. Euzkeldunik asko yakite-sail oroetan ikastunak ditugu; dakitena euzkeraz idazteko gairikan ez. Erderaz orok dakiguna ikasi

ta irakatsi oi dugu. Iñork iñoiz beŕi zerbait argitaldu nai badu, erderara yo, ta erderaz idatzi-beaŕez aurkitzen da; euzkel-itzak, oŕ andik sakabanatuak, aren deyarekiko soŕ ta goŕ datzate, idazti yakintsuetarako bidetara ez ditualako iñork ere gaurdaño ekaŕi. Okul̄uetatik eta baseŕietatik, ordea, euzkeldunok gure ele edeŕ mamitsu au ekera ekaŕi beaŕ ta nai degu, yakingai guziak azaltzeko: beste edozein ele bezain adiñona baidalarik, Yainkoak emana degulako, bere oneskunetan eta gure azi-oŕazietan erabil̄i dezaguntzat. Yainkoak, baña, bat, eta gure asabak, zoritxaŕez, beste bat aspaldi aspalditik nai-izan dute. Gure asabak euzkera txokoratu ta sukalderatu dute, ikastolarako ta erausi yakintsuetarako erdera beti erabil̄ik, eta Yainkoak yesandako izkera oroldiz estalita, erdoiz yanda, akatsez beteta, erabilgaitza ta elbaŕiz yota oñordekoei utzi digutela. Ez da, beraz, aŕitzeko, yakingai askotaz idatzi nairik gure artean ainbeste lagun egonaŕen, ipuin eta gogo-arazotzaz izanezik idazti yakintsuren bat ere ezpadu iñork egundaño atera".

Bere asmoari berari jaŕaitzen dio Olabide'k, "Giza-Soña"'ren asieran diñoenez: "Bertan bildu ta moltsokatu ditut Euzkeleŕian oŕ andik zirpizindu ta bakanduta dauden euzkel-itz yatoŕak, *giza-sointzaz* yardutekо erabilgaŕiak. Beste pil̄o baten *giza-gogotzaz* yardutekoak bereala argitalduko ditut. Eta bide ortaz, yakingai oroen zeaŕ igaroko naiz, poŕokatutako ormaen aŕi banatuak iñondikan ere biltzen, yauregi osorik eraiki-arteraño. Eraiki diteke, ba, noski, ta eguzkitan sendo ta edeŕaren edeŕez oargaŕia nabariko da, orko utsuneak emengo ala ango itzez betetzen ba-ditugu. Neraunek al dezakedan apurtxoa ornitzen *giza-sointzazko* izen-pil̄o aunetaz asi nai det, geroenean giza-gogoari, uzkurtzari, lugintzari, kimiari, t. a., dagozkien izen-pil̄oak argitaltzeko asmoz. Iñork ez beza pil̄o auetan euzkel-itz guziak aurkituko dituanik uste. Beste itzik asko ortikan kukuldurik gelditu bai-dira: bildutako batzuk ere oilbeaŕak edo-dira".

"Bere "Giza-Soña" burutzeko —geniñoen guk— 6.500 itz baño geyago bildu zituen gizonaren gorputzari dagozkionak. Itz oiek dirala-ta, ara zer diñoen esandako bere itzauŕean: "Azkue'ren iztegitik izen eta izengairik geyen-geyentsuak yetxi ditut". Eta len esan dugunez, "beste itzik asko ortikan kukuldurik gelditu bai-dira"'lakoan zegoen.

Ez du uste Olabide'k bere lana bein-betikoa dala; apaltasunez, onela adierazten du: "Guzien begitara-ezkero, utsuneak eta geyegikeriak eŕaz ageriko dira: ta urliak zerbait iñausi, ta berendiak zerbait eratsi ta kopuratzen ba-du, yakingai bakoitzarako laingo ornia lasteŕ izango dugu".



Esandako "Euzko-Gogoa"'n onelaxe geniñoen guk ere: "Beste yakintza-gai batzuk aipatu zituen, berai buruz beste ainbeste egiteko gerturik zegoela esaten. Zenbat, ote, ikutu al-izan zituenak? Ba-liteke, naimenez, guziak buruan erabiltzea, osoraño eltzeko, ez beragan ez eta iñoizko gizon batengan ere, almenik izatea eziña bada ere. Eta auŕean egiteko lana nolako aundia zala ikustean, euzkaldun eta euzkaltzale guziengana zuzendu zan antsiz beterik. Azkue yakintsuaz mintzatzen, onela ziñoen: "Gizon bakaŕ batek egin dezakena Azkue'k egin du, ta ederki gero. Enparau guziok ark bildutako kopurua geitu beaŕ degu, iñuŕiak bezela".

Gure kontuz jaŕaitzen genien itz oiei onelaxe: "Irudi ona —"iñuŕiak bezela"— gure eginbeaŕa nola izan beaŕ dan adierazteko; eten gabeko lanean ari beaŕ, alegia, bakoitzak geron garaua edo garauak, guzion txinduŕitegira eramaten. "Iñuŕiak bezela", bai, lanean, guziok elbururuntz bertaruntz bideraturik; baña yakintsuki aukeratutako bideetan barna, ontan batez ere, gizon burutsuen antzera jokatzeko".

"Elburu ta bideak ondo erakutsi zizkigun Olabide'k. Elburua ontzat arturik, bizi nai badugu alda-eziña baita, bideak ditugu azterkatzeko, ta guzien artean, onen eta ziuŕenak autatzea guri dagokigu, oien zeaŕ eta aren atzetik jaŕaitzeko".

"Guziok lanean ari-izatea nai zuen Olabide'k, eta "guziok" auetatik ez dugu iñor alboratu beaŕ. Guziok, Euzkadi jaiotakoak oro ikusi nai ditugu alegiñetan, beaŕa baita gure Eŕi osoa ekintza aundi ortan yardutea. Alegia, euzkal-kultura Euzkaleŕi osoarena izan beaŕ; beraz, guziona, guziok burutzeko eta guziontzat izan dedin. Geron kultura egiazko Eŕi-kultura izan dezagun".

"Eta oŕelakorik izan dedin, euzkeraz eratutako irakaskintza dugu biderik egoki ta ibiltzeko beaŕ-beaŕena. Gure euzkalduna, ben-benetako euzkalduna izateko, txiki-txikitan artu beaŕ dugu, eta lenengo itzak irakasten, abede'az asi, euzkal-irakaskintzaren mail guztietan barna eramateko, egiazko euzkal-yakintsua egin arte. Orduan, eta orduan bakaŕik izango genuke egiazko euzkaldun osoa, orain arte ezagunik izan ez dana".

"Gizon batek, bakaŕik, asko ikasi dezake, eta Olabide bat bezela, yakintzetan goikoeneraño eldu ere; alan eta guztiz be, ez da naikoa; yakintsu oŕi ere eguŕats egokia eukitzea dagokio. Zer izan zitekean Olabide bera, bere kultura aundia euzkeraz eta euzkal-eguratsean barna egin balu?".

"Oŕa zergatik izan beaŕ dan, geron xedeaz, Eŕi guzia lanean sartu nai-izatea. Eŕitaŕak oro iñuŕi!... Eta bidea da oŕelakorik iristeko gureganatu beaŕ duguna, ezinbestekoa dan irakaskintzarena, besterik ezpaita. Eta euzkal-irakaskintza gure-gurea izan beaŕ, geuk antolatua, geuk zuzendu, ordaindu ta burutu, ta geuk ere bere arnarietaz gozatua".

"Asmo guzti auek ez edo dira, Olabide'k berak azaldutakoen jaŕaitzal̄eak baño. Orobat gure Eŕi'an emandako amaika uŕats".

1918'gaŕen urtean, Oñate'n egindako euzkal-batzaŕ aundian "Eusko-Ikaskuntza" sortu zan, eta egun aietan emandako itzaldi ta ikastaldietan, ona emen Olabide'k nola azaltzen zituen bere asmoak: "Bere mamian osoa ta bere eraz bidezko, iztegi bat zaigu noraezeko, oŕela bildutako gaiak eŕazki zabaldu al-izateko, idazle ta irakaslearen lana eŕeza egiteko, eta mendez-mendeko sorayokeriz irauneko arloetan —oŕa gurea—, yakintzaren adaŕ guzietan barna edaturik, euzkal-elertia irazatea al-izateko, eta biziaren erabilkunde guzietarako gure izkuntza ibiltzen jaŕi diteken".

Itz oiei VI'gn. eta X'gn. ataletan aipatutakoak jaŕaitzen diete; beste auek gero: "Eta gure izkuntzaren alde ainbeste ekiñaldi bete ondoren, ona nola gauden gaur oindiño, eragozpenez beterik, irteera ikusteke, euzkeraren irabaztea lortzeko dagizkigun alegin eta leyaketa guztiak alpeŕik galtzean; dana, baŕeneko izatearen korapil̄oa bein-betiko askatzean ari ez izateagatik; eraikitzeko gure gaiak oso baŕeyaturik egoteak eta berak ondo ez ezagutzeak, gure ibiltzearen aurka oztopoak jartzen dizkigutelarik, oiñen pean luŕa kenduaz". ("1er. Congreso de Estudios Vascos - Oñate - 1918"). (Bilbao'n 1919-20'gaŕenean argitaratutako liburuan, 450'gaŕen oŕialdean).

Gure euzkeraren auzi sakona, Olabide'k argi ta garbi ikusi ta azaldu zuen ordurako: Irakurleak, idazleak; ikastolak, irakasleak; irakaskintza, gai guzietako argitalpenak; euzkeran bertan dagoen lan-gai ugari, eta gai guzti oiek azaltzeko, bildurik izan ditzan iztegi betegaŕi oso ta bidezkoa.

Nolakoa ote, "idazle ta irakaslearen lana eŕeza egiteko" iztegia? ... Asmoai buruz egindakoa ala irakaskintzarako gaiak azaltzeko beaŕak diran itz bereziena? Ba-liteke bietarako izatea Olabide'ren xedean.

Asmo ortaz jaŕaitzen zuen Olabide'k geroxeago; 1919'gaŕeneko ilbeltza ta otsail̄ean "Euskal-Esnalea" aldizkariak argitaraturiko zenbaki bietan, "Itzetazkuna" (Lexicología) izenezko lan eze ta mamitsuan. Bigaŕen zatian, otsail̄ean agertu zanean, zeatz geyago ematen digu, aren ustez, "euzkel-iztegia" nola eratu beaŕ-izango litzaken adierazteko; arlo oni gaŕantzirik aundiena ematen. Ona emen aren itzak:



"*Itzetazkuna*'n aitatu ziran yakingayak —("Otsetazkuna (fonética), Ikurtzazkuna (semantike), Itzikuŕ-edestiak (semántica histórica), Aldekako-itzikuŕak (semántica geográfica)")— lasteŕ ta eŕaz bururaño ikeŕiko lirake, *Euzkel-iztegi* biribil ta mamitsu bat ba'geneuka. Antxe bapetan euzkelgai guziak ikusirik, ayen aotsari, ikuŕari ta ereduari dagozkien arau oro igeŕiko genituke. Ez da ori ordea, euzkaltzaleok alako iztegiaren iŕikan yartzeko ziririk eraginkoŕena. Euzkeraren bizitza bera auzi aunetatik dingilizka dago".

Olabide'rentzat ez edo zan naikoa *zegoena'ri* bakaŕik eustea; zabaldu nai zituen arek euzkeraren zedaŕiak, sorteŕiarenekin bat egin arte. Eta onela jaŕaitzen du:

"Euzkel-eguratsa geroago ta aulago geratzen zaigu. Gutxi gera, ta erderaz beti yakinbide orotan aziak oro. Euzkera gotoŕ ta mardulik bizi beaŕ ba'da, euzkel-eguratsean murgildurik egon beaŕ gera. Oŕelako euzkel-eguratsa, beŕiz, sortuko dute, alde batetik euzkel-irakurgayak, eta bestetik euzkel-ikastolak, irakurgai oyentzat irakurle-samalda aztekoak. Irakurgayak, ordea, idazlerik gabe ezin sortu; ikastolak irakaslerik gabe ezta ere. Ta oraindaño oŕ andik sakabanatuta dauden euzkel-itzak bildu ta mordozkatu baño len, ez idazlerik, ez irakaslerik ezin ditugu; beaŕak dituzten euzkel-itzak, oraingo baŕeyakeriz, eskumenean ez dituztelako, erabil̄i nai dituztenean".

Onen ondoren, onela jaŕaitzen genuen, geron aldetik, esandako aldizkarian "Euzko-Gogoa"'n): "Euzkal-itz dirala-ta, bazteŕ eta zokoetan erdi galdurik zeuden guziak bildu gura eban, euzkal-iztegi aundian, euzkal-"Thesaurus" berezian egokiro metatzeko. Gura bakaŕik ez, asi ere asi zan beste euzkaltzain batzuekin "Thesaurus" ori egiten; eta esan digutenez oso auŕeratuta zijoan, guda, zoritxaŕez, eldu zitzaigunean; egindagoa Euskaltzaindi'k edo dauka, eta oso lan edeŕa izango litzake bera burutu ta argitaratzea".

Eta berak, gero: "Euzkel-itz guzi-guziak, beraz, iñongo zokoetatik bildu ta gero adiñonez moltzokatu beaŕ ditugu. Orixe da *Euzkel-iztegia* egitea".

"Iztegirik asko aspalditik ditugu. Baña beaŕ deguna, ez. Euzkeraz irakurtzeko, ta erderatik zerbait euzkeraltzeko egokiak dira Azkue'rena, ta Bera-Mendizabal'ena. Euzkeraz egiteko ta euzkeraz idazteko geronez mintzatu ta idatzi nai genukena, iztegi egokirik ez dugu, ordea".

"Iztegia egiterakoan, auŕen-auŕena da euzkel-itz guztiak biltzea. Ta noya yo itz-eske? Toki izenak eta abizenak itz-kopuru ugari damaiguke-te. Idaztiak eta idaztaltxoŕak itz yoritsu ere emango dizkigute. Baña, uzta sorotik bezela, itzak eta izkerak euzkaldunen aotikan yaso beaŕ dira. Ori gaitza da, ta eziña dirudi; lagun askorena, ez iñor batena: ez da axola! *Euzkeltzai-Bazkuna* lasteŕ izango degu; ta Bazkun oŕek arazoaren eredutzat artu ditzake, gaurdañokoan idekorik ez duten oŕelako lan aundi bi".

"Euzkeleŕi osoaren zeaŕ, sarea bezela, biltzaĺeak edatu beaŕ, euzkel-itz bat ere ez dedin oŕ galduta gelditu. Biltzaĺe oroei iĺabete bakoitzean *Euskeltzai-Bazkunak* bidaliko lizkie: a) uŕengo iĺabeterako saĺa, galde zeazka bereizturik iĺabete artan eskatzen dizkien itz eta izkerak; b) ingurtza edo txartel-txorta bana, biltzaĺeak ayetan aurkitutako itzak yaŕi ditzatentzat".

"Itz-biltzea oŕela egiñik, eŕazago izango dute iztegiĺeak beren arloaren beste saĺa, saĺik gaitzen ta zakaŕena, noski. Ainbeste itz noĺa moltzokatu, iñork nai lukena eŕaz aurkitzeko? Gaurdaño oŕelako axolarik ez bide zan. Bilgiñak *agakaren* yaŕaikeraz ipiñi... ta kitu. Baña *agakaren* yaŕaikera ona da ta danik eŕazena irakurtzen diranetako itzen ikuŕa aurkitzeko, ta izkera batetik beste batera itzultzeko. Ez ordea, iñork bere izkeraz yarduteko ta idaztekotan. Alpeŕik iztegian, oŕek bere oldozkunarentzako itz egokia biĺatuko luke. Iztegiak, itz ezagun batek zer ikurtzen duan, dasayoke; ez, ordea, esan nai duanari zein itz dagokion".

"Beste aurkibide beŕi batetik iztegian ibiĺi beaŕ da. Itzak moltzokatu beaŕ dira ikuŕ-buruka; moltzoan berberan bildurik ikuŕ bati ditxezkan itz guziak, bai ainbatekoak, bai aitzikoak, bai zera oso oŕi, bai bere zati bakoitzari dagozkienak".

"Oŕelako iztegirik ez da gaurdaño ageri; baña bidea zabaldu ta erakusten yakitun batzuek ari dira. Doitxeŕian, Sander; Engaleŕian, Roget; Italia'n, Zanotto. Gurenean bide beŕi aunetatik dabil *Giza-soña*'ren egiĺea. Aitatutako *Thesaurus* ta *Diccionari* izango dira gure *Iztegia*'ren auŕelari bakaŕak, *Euzkaltzai-Bazkuna* laster artaratzen ba'da. Jainkoak argitu beza".

Asmo bikañak Olabide'renak. Aipagaŕi ta beŕiro nabarmentzeko auxe: "Agakaren yaŕaikera"'z egindako iztegiak, "itz ezagun batek zer ikurtzen duan, dasayoke; ez, ordea, esan nai duanari zein itz dagokion".

Noski, azken beaŕ oŕi buruz egin liteken iztegia —asmo-iztegia— beaŕezkoa dugu. Eta ez, asmoetatik itzetara eŕaz eltzeko bide egokia izango litzaken aldetik bakaŕik. Gurean, len esan dugun bezela, oŕelako iztegiak beste zitu edeŕ bat emango liguke: gauza bera baterako, izkelgietan sakabanaturik dauden ikuŕ bateko itzak, alkaŕen ondoan ikusiko genituzke; idazleentzako aberastasuna yoritzen eta, bide batez, euzkeraren batasuna eratzen.



Eta beaŕ-beaŕa iruditzen zitzaion oŕelakoa izatea, batez ere euzkaldunen sorayokeriak gure izkuntza, onen atzeratuta utzi dutela ikusi ondoren. Beaŕa zaigu iraduz ibiltzea, Olabide'ren ustez; galerazko aldapa beera gure mintzoera azkaŕegi baitoa, ta onezkero galdutako aldia oŕen aundia izanik.

Argi ikusi zuen arek, bein gure auzia ondo azterkatu ezkero, oŕen agirian dagoena: idazterakoan aurkitzen ez ditugun ainbeste itzen beaŕa. Euzkera'k berak ez dauzkalako? Ez du oŕelakorik uste Olabide'k. Iñoiz eskoletan landu ez dan euzkera alde guzietara baŕeyaturik, eta erbesteko kulturak dirala kari, amaika itz ibiltzearen kanpo geratu zaizkigu itota ayenatzen. Eta asmo beŕi askotarako egiazki peitzen diranak eratzeko, eŕo mamitsu ta ugari ikusten ditu arek izkuntzaren aberastasunean.

Galera ta utz guzti oiek betetzeko, benetako euzkaltzaleak nai ditu Olabide'k, "iñuŕiak" legez lanegiten. Eta ez noski aukerazko yakintsu kopuru txiki baterako, Eŕi osoarentzat baño. "Irakasleak eŕuz gertu ditzaten euzkel-ikastolak" eskatzen ditu gure josulagunak.

Eta guzientzako, irakurleentzat naiz yakintsuentzat, euzkal-eguratsa edatsua iŕikaz nai du. Bera, irakasle izan zalarik, ongi ikusi edo zuen, irakaskintzaren zeaŕ eta onen barano ta inguruan zabaltzen dan bizian, nola moldatzen dan ikasleen gogoa, beren bizi guzirako iraungo zaiena. Irakaskintzak, bere eguratsa soŕerazirik, ikasle ta irakasleai bere giroa ezartzen die. Nolako irakaskintza alako gizona, oŕa egia. Ez ote dugu, alakotz, alegin aundienak egin beaŕ, gure euzkal-irakaskintza antolatzeko, ondorioz ben-benetako euzkaldun gizonak izan ditzagun, Euzkadi guziko bizia euzkal-bizia izan dedin? Argiagorik! Bai, noski, argi Olabide'rentzat; oŕela, bere iritzia zuzen-zuzen eratu zan eta gure lanetarako norabidea ederkien erakutsi zigun.

Itsu-itsuan jaŕaitzeko, Olabide dugu eredua. Onuak eman eta bideak erakutsi bakaŕik ez; ben-benetako eredu yaukala izan zitzaigun, berak esandatutako bideetan barna ibiltzen. Nola, gañera: Zut, zaloi, euzkaldun jatoŕa mendian gora doan ibilkera kementsuaz, adoretsu beti, adimena elburuaren norabidean tinko, begi zoĺiek bide onenak idoroten,

au'eruntz oldartua; oztopoak, gañeratzeko bakařik begiratzen, bide-lagun urkoari bere laguntza guzia ematen ... ; mende ontako euzkeraren bide zail eta nekegařietan, aunditasunez beterik agertzen zaigu Olabide, nagusi ta garaile, gure euzkeraren jokuan bere mařa iraungařia egiten.

Gaurko amaika idazle doazkigu Olabide'ren uřatsak jařaitzen, andietsi ta maite dan Irakasle'tzat arturik. Bai, "eskola" egin digu, egiz, Olabide'k euzkeraren ikasketan; gai oni buruz mende ontan ari-izan zaigun langiře ta irakasle yaukalenetakoa izanez.

**XII.—Iztegi bereziak eta irakaskintzarako liburuak; aiek lenengoz, auek gero. Ikas-liburuak.**

Auřeko atalean, iztegietaz mintzatzen, gure beařetarako noraezekoenak, geron iritziz, zeintzuk diran aipatu ditugu; euzkeraz oso egindako iztegi orokařa ta asmoai buruzkoa, irakaskintzarako beař-beařenak ditugularik, irakaskintza ortarako oñaři bezela izan ditezen.

Arean, irakaskintza osoa dagokigu begiratzea ta ongienik eratu beař dan batasunaren zentzun eta zuzenbidea ematea. Ez dugu aiztu beař elburua, ez eta Eři osoaren gaurko egokera ere. Elburua, noski, Eři osoa Euzkaleři biurtu, gaur geyena erdal-eři baitugu, eta bere kultura euzkeraz landu; bide batez, euzkera zaindu, edatu ta indartzeko, eta Euzkadi'ren bizia euzkal-gogoaz sendotu ta bizkortzeko.

Deitoragařia, benetan, oraingo egokera ori; giza-lagunez, lauetatik bat bakařik dugu euzkalduna; beste irurak erdaldun oso, eta auenetako toki askotan, euzkaldunekin odolezko ařemanik dutela ez eta sumatu ere. Beraz, Eři osoari so-egiñez, lenengo zatia euzkaldun irauneraztea dugu xede berezi bat, eta beste irurak egunen batean euzkaldun izateko bidean jaři. Bi xede aundi auek irakaskintzaren bidez burutzeko. Alakotz, gure irakaskintza guzia, zuzenbide oietzaz antolatu beař, elbururaño obekien eltzeko. Berebat irakaskintza osorako idatziko diran ikas-liburu guztiak ere. Erderaz egingo diranak euzkerazkoen antzeko izan beař, oien itzulpena askotan, erderaz ere euzkal-gogoaren asimasiak erakusteko eta ortaruntz ume ta gazteak zuzentzeko.

Ez da iñor, eskierki, asmo ontan aburukide ez dugunik: iztegietan eta irakaskintzarako ikas-liburuetan, *itzak* berberak izan beař dira; gauzak eta asmoak izendatzeko, itzak berak; astakeria izango bailitzake, ikas-liburuetan ageri ditezken itzak, iztegietan ez agertzea. Kulturazko beste izkuntzetan, ez da noski asmo ori aipatu beařik; baña gurean bai, geyenetan bakoitza bere bidetik doalako, besteenganako ajolik gabe, ta, txařena dana, Eři osoari dagokionaz zearo aiztuta, norberaren burubideetan barna itsuki jařaitzeagatik.

Aspaldidanik beste mintzoetarako beren kulturetan iritsitako dagoen ori, gurean eginkizuna dugu, eta ortxe ikusteko gure beaŕetarako ta gure elburutik zein uŕuti gauden. Beraz, asieran ere beaŕ ori betetzeko alegiñak egitea dagokigu, gure euzkal-irakaskintza ongi ta eŕezen edaerazteko.

Eta oŕengatik ain zuzen, iztegiak buruturik, argitaratuta euki beaŕ-izango genituzke, euzkerazko orokaŕa beñepein, ikas-liburuak egin baño len; onela, liburu guzti oiek iztegi oietan aurki litzakete beren gaietarako itzak berak, egil̄e bakoitzak bere kabuz ibil̄i ordez. Egil̄entzat eŕaztasuna izango litzake, bai ta ikasleentzat ere; eta bide batez, naiz irakaskintzarako naiz mintzorako batasun edeŕa izango genuke.

Asmo onezaz lenengo irakaskintzan erabiltzen diran gaiak, iztegiak egiteko, lendabiziz artzea bidezkoa dugu; bai ta liburuak atontzeko ere. Euzkal-kultura euzkaldunentzat izan beaŕ danezkero, obeki antolatzeko, kultura ori burutzeko, euzkal-seme bakoitzarengan txertatu beaŕ dala gogoratu beaŕ dugu; oŕengatik, euzkaldun umea dan unealditik artu beaŕ dugu, mal̄az-mail, kultura guziaren zeaŕ igo dedin; bidezkoa beraz, auŕ batek bere lenengo urteetan beaŕ duenaz astea, ots, lenengo itzen bidez eta lenengo irakaskintzak erabiltzen dituen gaietaz. Gañera, ezin bigaŕen irakaskintzaz asi, lenengoa egin-egiña izan baño lenago; zurubian gora igoteko, lenengoetan asi-ta, mal̄ez-mail ari-izan beaŕ. Euzkal-irakaskintzarako gure egitaraua eratzeko, gure semea izango litzaken auŕarekin egingo genukena, begien eta bururakizun guztien auŕean euki beaŕ-izango dugu, bide egokietan barna ziuŕ joan al-izateko.

Noraezekoak ditugu, alakotz, iztegiak, ikas-liburuak egiteko; era ontaz, aiek lenengo, auek gero, gure euzkal-irakaskintza ongien antolatzeko. Beaŕak dira iztegi oiek eta beaŕak ere euzkal-l̄iburuak.

Bai, beaŕak ditugu liburuak, oso beaŕak, amaika zio dirala kari. Ona emen irakaskintza, ona batez ere euzkal-irakaskintza, liburu-beaŕ goŕian dagoena, utzaren uŕengoan baikaude gure beaŕ aundi ortaz.

Eztakigu noiz, baña egunen batean gure irakaskintza osoa antolatu beaŕ izango dugu; biziaren bil̄akatzean, Eŕi'en biziari buruz ari gera mintzatzen, Eŕi bakoitzaren gogo berezia zaintzeko erabil̄i beaŕ izango dan egikera elduko baita; aundi naiz txiki, Eŕi guziai dagokien eskubidea berari eustean.

Orobat gurean. Ez dugu iñoiz aiztu beaŕ gurea dala, izan ere, bizi-izateko eskubidea; ez eta bizi-izateko ere geron gogo bereziari eutsi beaŕ diogula; gure euzkal-gogoari eusteko euzkera ezinbestekoa dugula



ta gure izkuntza au zaindu ta indartzeko be, euzkal-irakaskintza beaŕ-beaŕa zaigula. Oŕa gure bizi oŕen katea, argi-argi agertzen zaiguna.

Euzkal-irakaskintza dugu, alakotz, antolatzeko beaŕa. Aunitzetan azaldutako bayetza, baña bein eta beŕiro alkaŕi esan beaŕ dioguna, eta mil̄aka bideŕ oindiño esateko dana. Noiz aski?

Gauza zabala dugu irakaskintza; zabalagoa gurean, euzkal-irakaskintzan oro egiteko baitago; noski, orain arte mail ortan egiñikoa oŕen gutxi izanik, oro peitzen zaigula jartzea ez deritzaigu geyegi esatea danik.

Gai edagaŕia bai, irakaskintzarena. Mal̄etan atondurik dugu bazteŕetan, eta gutxi gorabera alde guztietan berdin. Lau mail ditugu, arean, nabarigaŕienak: Umeena, lenengo, bigaŕen eta goiko mal̄ak. Oien alboetan amaika bide bereziak, yakintza ala kulturazko elburuetara doazenak. Esandago lau mail oiek, alabaña, orokaŕenak.

Irakaskintza, eguzkipean oŕelaxe edaturik baldin bada, egokia eiki gurean ere oŕenbeste egiteko ontzat artzea. Oŕela, gure lau mail oiek be gurezat, gure beaŕ eta egokitasunerako antolatzekoak dira. Ezin, jakiña, guzia batera egin, eta nunbaitetik asi beaŕ. Goiko aldetik, beko mal̄etatik? Geron aburuz ezin zalantzik izan, beko aldetik asi beaŕ; beraz, umeen eta lenengo euzkal-irakaskintza dugu noraezeko asiera.

Ona emen, aipatzeko ere beaŕ-izango ez litzaken zio bat: Eŕi guztietan eta ikasleen adiñari dagokionez, oŕelaxe, beitik goruntz, egiten dalako. Ba-dago alaz ere, gurekiko beste elburu berezia, oŕelaxe jokatzeko beaŕa egiten zaiguna: Euzkadi osoan euzkera zabaltzearena; txit beaŕezkoa zaigun elbururako.

Bide beaŕa ta egokiena, lenengo irakaskintzaren eskolaena, alik eta laisteŕen, Euzkadi'ko baztеŕ guztietan euzkera bera irakasten eta ikasten asteko; izari txikienean bada ere, baña toki guztietan. Euzkal-bideetan astea zaigu beaŕena, orokaŕena den neuŕian; ortxe guretzako giltza.

Eta uri ta eŕi guziak, pitinka-pitinka, bere burua beŕiz euzkalduna egingo duen bide batez, euzkeraren batasuna ere, berez burutzen ari-izango zaigu, zalantzik gabe. Oŕa oŕ, beste zio bat ere.

Okerturik egon gaitezke geron asmo ta gogoketan; norberak, alarik, ere, gauzak ikusten dituen bezela esan beaŕ. Eta dena dela, ez dugu uste, aipatu dugun bidea egingaŕia dala iñork ukatuko digunik.

Umeena ta lenengo irakaskintza ditugu noraezean antolatzekoak. Eta ba-liteke, umeena bi zatitan ere erdibitu beaŕ-izatea: lendabizikoa iru edo lau urteetako umeentzat, alde guztietan edatzen ari diran "ama-

baratz"'en bidez; bigaŕena, bost edo sei urteko auŕentzat, lenengo irakaskintzaren asimasiak ikasten asteko.

Onela, zazpi urte bete ezkero, oŕa umea uŕengo maĺan sartzeko gerturik, lenengo irakaskintzan, eskierki. Eta naiz asimasietan, naiz uŕengo uŕatsetan sartzeko, ara liburuen beaŕa sortzen zaigula, naiz eta neuŕi txikienean bada ere.

Alde batetik irakasteko erak eta bestetik liburuak, beaŕak ditugu. Lenengo ta bigaŕenak onuragaŕienen artean aukeratzeko, onelako gauzetan nor diranai eta gai oni buruz kexu daudener, bidea eskeiñi beaŕ zaie. Bide egokiena, geron iritziz, ongi saritutako batzaldiena.

Nor oŕelako batzaldiak eratzeko gai? Ez dugu uste oŕenbeste egiteko lain aurkitzea zaĺa izango zanik, asmoa ontzat artu ezkero. Bazkun eta aldizkariak oŕ bazteŕetan ditugu aski; berdin emengo, orko ala angoa izan. Ekitea dugu beaŕ-beaŕa.

Eta beste bide obeak baldin badaude, betoz bide onenak; bein betiko bideak aukeratu ta oietan barna ibiltzea dugu noraezekoena. Ez geldirik egon, gelditzea iltzea dalako. Bizirik dagoena ibiĺi dabil; bizirik gaudela ta bizi nai dugula adierazteko ibiĺi beaŕ dugu. Eta bizi-izateko oŕela jokatzea ezinbestekoa zaigulako, oŕa gure ekintza guzirako egiazko zio nagusiena.

Ibil gaitezen, bada, oŕen beaŕak zaizkigun euzkal-liburuak egin eta atontzeko.

Lenengoz, apika, liburu bakoitza lau izkelgi auetan egiteko: Bizkaieraz, Gipuzkoeraz, Laburdieraz, Zuberoeraz; edo bigaŕen eta iraguŕenerako batasunean bat egiñik, iru izkelgi geratuko litzaizkiguke beren berezitasunakaz liburuak egiteko. Noski, oŕela jokatuz, gareztiagoak izango lirake liburu oiek; baña oŕela egitea beaŕa ta egokia izan ezkero —eta orixe da geron iritzia— diruarena ez litzake iñoiz oztoporik izan beaŕ. Eta, jakiña, liburu oien itzulpena, edo beren ereduz, erderaz ere egin beaŕ erdaldunak ditugun eŕietarako. Baña guzti-guztiak gure azken elbururako antolaturik izan beaŕ; batasun ori, bederen, ezinbestekoa zaigu asieratik.

Oŕela egitean, abeŕiaren alde guztietan, norabidea bera izango genuke jaŕita, ta orixe bai, benetan, gure osasunerako uŕats edeŕ eta egokienetakoa.

Lenengo irakaskintzarako ikas-liburuak egin eta bereala, batera al baldin bada, auŕentzat egokiak izan ditezken beste mota guzietako liburuak ere atondu egin beaŕ: ipuiak, irakurgai onak, edestiak, gizon ospatsuen bizi ta egipenak, bidaldiak, itz-neurtu motz eta eŕazak, eta abaŕ. Ume baten jakin-egaŕiak eska dezaken orotarako.



Eta bideak aurkitu beaŕ liburu guzti oiek merkeak izan ditezken; ortarako dirutza bereziak bildu egin beaŕ bakoitzean noraezekoa izan diteken laguntza emateko. Euzkera gaizkatzea ta euzkal-kultura tinkotzea, lenbailen burutu egin beaŕ dugu, ta ortarako alegin guziak beti izango dira gutxi, ortarako be iñoiz diru aski.

Merkeak izan beaŕ dirala diñogunean, ez dugu, iñola ere, esan nai beren tasuna edonolako izatea naikotzat dugula. Irakasteko ta ikasteko liburuak gero ta obeto egiten dira bazteŕetan, umeentzat begikoagoak edo izateko. Orobat gerta beaŕ gurean; gure euzkal-liburuak, ikas-liburu guztiak, poliki egiñak eta ikusmenerako ere edeŕak izan beaŕ. Laguntza dugu, beraz, beaŕa, diruaren laguntza; Euzko-Jaurlaritza'rena ta esku zabalena ere.

Azken urte auetan, "Kili-Kili" izenaz, Bilbao'ko "Euskerazaleak" oso polit eta egokiak deritzaizkigun liburutoak atera dituzte, gure asmoetan barna bete-betean ikus ditzakegunak. Egitan inguŕazti bereziak dira, auŕai irakurtzen eta idazten irakasteko atonduak.

Auŕ bakoitzari etxera bialtzen zaizkio, ta onezkero ondorio edeŕak lortu dituzte; Bizkaya'n bakaŕik miĺaka dira etxeraño eltzen zaien irakastola bikain ortan ari diran umeak.

Oŕa bide apain eta egoki bat, gure bazteŕ guzietara zabaldu beaŕ-izango litzakena, ikastolaetan egiten dan lan onuragaŕia ere ederkienik lagun dezakelako.

XIII.—Euzkadi'ko eŕi ta uri guztietan, euzkera *gaiaz*; euzkal-eŕietan, *bidez*. Elebitza. *Gaiaz*, nola erabiĺi. *Bidez*, asteko, *lenengo irakaskintzan* bakaŕik. Amaŕ urteren bat oŕela igaro ondoren, *bigaŕen irakaskintzan* sartu, *gaiez-gai*. *Bigaŕen irakaskintzan*, bereziki, *elebitza* erabiltzeko. Beste amaŕen bat urte bigaŕenean asi ta gero, Irakastola Nagusi'an eta beste Ikastola Aundietan, *gaiez-gai* ere sartu. Beti elebitza erabiltzen.

---

Euzkal-irakaskintza ibiltzen jartzeko, egitarau berezia egokia zaigula esan dugu len (IX'gn. atalean), izari ortan orokaŕa izateko. Beaŕezkoa edo zaigu, egitarau oŕen norabide aundienak bederen nola izan ditezken begiratzea, onuratsua izateko nola jaŕi diteken aztertzea. Ona emen geron aburua.

Gure kultura ta gure gogo-arlo guzietarako, euzkera lenengoz eta ezinbestekoa bazaigu, bera ere egitarau oŕen mami ta guna izan beaŕ. Alan eta guztiz be, gure Eŕi'aren gaurko egokera, euzkerarekiko egokera jakiña, nola dan begiratzen badugu, noraezekoa izango zaigu, bera erabiltzeko jaŕi beaŕ ditugun bide nagusi bi auetatik eramatea: bat, euzkera bera ikasi, irakasi ta zabaltzekoa; bestea, gai guztiak ikas eta irakasteko, euzkera bidetzat artzea. Ba-dago ortan, geron ustez, sakon eta gaŕantzi-duna dan litsa, aietaz gogoratzekoa dugun bereizitasuna.

Euzkera ikas eta irakasteko arloa, berealaxe ta iraduz, giza-mail guztietan, orokaŕean, eŕuz eta buŕustaz eragitekoa. Yakintzazko beste gaiak euzkeraz ikastekoa, ordea, gurbilki ta uŕats labuŕetan barna erasotzeko.

Euzkeraren ikastean, asieratik, Eŕi'aren mail danetako gizasemeak arazi egin beaŕ. Aberats eta txiro, lugin eta uritaŕ, gazte ta zaŕ, ..., mail bakoitzeko berezitasuna gogoratuz, al diteken etekin aundiena alik eta laisteŕen iristeko; eta ikaste ortan, izkuntzaz, naiz euzkaldunak naiz erdaldunak ezinbestez abiatzeko.

Eta oŕelako lan aundia egin al-izateko, irakasleak noraezeko, ira-

kasle on eta ugari; alakotz, oietxek gertutzea, gaŕantzidun lan berezia ta aŕeta aundienaz ekitekoa.

Gero, euzkera irakaskintzan sartzeko, *bidez* erabiltzeko, ikasteko gaiak leŕokatu beaŕ, gai guzti oiek, beren gaŕantziari buruz, mal̄aka jaŕi-ta; geron ustez eliztia lenengoa izateko.

Euzkera, beste gauzak ikasteko bide eroso ta egoki izan arte, erderaz eratu beaŕ-izango da ia gure irakaskintza guzia; umeentzako eskolaetatik, orain arte iñoiz euki ez dugun Irakastola Nagusi'raño. Baña, lenengo egunetik euzkeraren ikastea, ikas-mail guztietan beaŕez jaŕi ta erazirik.

Euzkera, euzkal-irakaskintzan erabiltzeko, lentxoago esan dugunez, bi bide nagusi auek ditugu, ongi bereizita biak; baña, ala ere, elburua bera osotzeko alkarturik joan beaŕ diranak:

1—Euzkera, lenengo egunetik, irakaskintza mail guztietan, *gaiaz* sartzea. Euzkadi osoan.

2—Euzkera, euzkaldun eŕietan eta lenengo irakaskintzan asi-ta, beste gaiak irakasteko *bidez* sartzea.

Arazoa onela ikusita, berealaxe artzeko gure irakaskintzan "elebitza" erabil̄i beaŕ-izango dala; Eŕi osoaren izarian beti, eta eskola ta ikastetxe bakoitzean maiz. "Elebitza", ots, irakasteko bi izkera erabil̄i beaŕ-izatea; alde ta aldi nolakoak izan eta alako; eta naiz eta ortarako norabide aundiak emanda, beti irakaslea izango da zentzunez erabiltzeko egokiena.

Ez da gurean bakaŕik beaŕ au sortua; amaika Eŕi ta tokietan orixe bera antolatu beaŕ-izan da. Gure azken aldi auetan, Europa'ren batasunari buruz atondutako erakundeetan ere auzi bera sortu da; erakunde oietan, Eŕi batzuetako gizalagunak izanik, beren auŕak, norbera bere izkuntza mintzatuz, guzientzako antolatu duten irakaskintza elebitzaz ematen da.

Beaŕ orokaŕ ori ikusita, Ludi guzirako izkuntza bat eukitzea oso egokia izango litzakela bayeztea dugu noraezeko. Orduan, elebitza, bi izkuntza auetaz izateko: Ludi'ko gizaseme guzienaz eta norberaren Eŕi'arenaz. Orixe, bearbada, izkuntzaen auziari emateko bide zuzen eta erosoena. Ona emen zer irakurtzen dan Unesko'k egindako liburu ontan: "Empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza" (1954'gaŕeneko garagaŕil̄ean argitaratua) (59'gaŕen oŕialdean): "Ludi guzirako izkuntza



baten ezagupenak Eŕi'en arteko ulerbidea bizkortzeko lagun dezake, eta ari-arazita izan beaŕ endeŕien arteko onginaia geitzeko eskuarte bezela".

Gure euzkal-irakaskintzan, asieran beñepein, obe izango da gai batzuk euzkeraz eta besteak erderaz ematea; eta naiz eta egunen batean, gai guziak euzkeraz ematera elduaŕen, orduan ere egokia izango zaigu, gutxienez, erdera ere ikastea ta irakastea, erdera bat edo bi; gure auŕ eta gazteek bi izkuntzak ongi jakin ditzaten.

Irakaskintzan, mal̄az-mail ikusteko, irakasteko erabil̄i beaŕ diran izkuntzaetatik, gai bakoitzerako egokiena zein izango ote dan. Auŕetik zal̄a edo, ortarako zuzenbide egokia ematea; erabiltzean ikusi beaŕ.

Goyan aipatu ditugun bi bideetatik, lenengoa izango da, eskierki, erabiltzeko eŕazena; orain arte erabil̄iak izan diran gaien artean bat geyago, euzkerarena, sartu ta kito. Alaz ere, ba-dago ortan zeatzez begiratzeko zerbait, eta ona izango zaigu azpegi ori ere aŕetaz aztertzea.

Irakaskintza-mail guztien artean, guretzat, beaŕ-beaŕena ta gure ajola nagusiena bereganatu beaŕ duena, *lenengo irakaskintza* da.

Ortan jaŕi beaŕ ditugu gure kexutasun, ardura ta nai guztiak, Auŕak asieratik euzkaldun egitea, eta ben-benetako euzkaldun biurtzea izan beaŕ da guretzat lei biziena.

Beraz, gurean, lenengo irakaskintzak, beste elburuen artean, orixe izan beaŕ aŕeta aundienaz burutu beaŕ duena.

Lenbailen, iraduz, asieratik irakasi beaŕ da gure izkuntza Euzkadi'ko uri ta eŕi guztietan. Orixe da lendabiziz antolatu beaŕ dana.

Ortarako eragozpen batzuk aurkituko ditugu. Ona emen zeintzuk:

a) Izari aundi ala txikian euzkal-abertzaletasunik ez duten eŕitaŕak.

b) Euzkeraren irakasleak, ondo irakasteko nor izango diran, naikoak ez eukitzea.

d) Eŕietan aurkituko ditugun erdaldun irakasleak.

e) Eliztiak, irakasteko erak eta irakurtzeko liburuak, beaŕ ainbat ez eukitzea.

a) Eŕitaŕen gogogabea gaintzeko bi bide ditugu erabiltzeko: Bat, Euzko-Jaurlaritza'k guztientzat jaŕi beaŕ-izango duen *eginbidea*. Au esaten dugunean ez dugu esan nai gogorkeriz eta nai ta nai ez, iñor indartu beaŕ-izango danik; baña bidezkoa izango dan neuŕi batean, ezin, agintzaz, eginbide ori jaŕi gabe egotea. Beste bidea, euzkerarenganako zabal-

kunde aundi, bereizi ta egokia egitea; alde guztietan berarenganako begikotasuna soferazteko. Egonafiz ari-izateko ortaz. Lentxoago ta maiz aipatzen dugun Unesko'ren liburuan ere, auxe ikusten dugu (60'gn. ofialdean):

"Efiai eroapenez ari-izatea aolkatu beaf zaiela uste dugu zearo, eta bigafen izkuntzara ama-izkuntzaren bitartez urbildu ditezela". "Asieran, bigafen izkuntza, gaia bezela ikasi beaf da, ots, "atzefiko mintzoera" bezela". "Geroago bigafen izkuntzaz aufek oldozten, itzegiten eta irakurtzen ikasi beaf-izango duten afen, jo-muga ori, sikolojia ta pedagojia'k eskatzen dutenez, jauzi labuf bi auek ematen, lortu diteke: 1'goa, ezer ez jakitetik ama-izkuntzaren abedetzeraño, eta 2'na, ama-izkuntzaren abedetzetik bigafen izkuntzaren abedetzeraño; noski, ezer ez jakitetik bigafen izkuntzaren abedetzeraño egingo litzaken jauzi luzea ematen baño obeto".

Eta liburu ortan bertan (61'gn. ofialdean): "Goiko ikasketan sartzeko xederik izango ez duten ikasleak, bere giñoan alegin aundiagoak egingo dituzte ama-izkuntzaren bidez ezagupen onurakofak berenganatzeko; Irakastola Nagusi'an sartu nai-izango dutenentzat, bigafen izkuntza gero ta gafantzi aundiagoa izango da".

b) Irakasle onak eukitzeko, lenengoz, ongi ordaintzea izango da bidezko baldintza. Irakasle izateari, gurean, sendagiľe edo olako beste bizi-modu bati bezela begiratu beaf-izango zaio, ordaintzeari buruz. Eta beste edonori baño gafantzi aundiago eman, umeen gogoa eratzeko, bide beafa ta bide egokiena, irakasleengan izango dugulako. Gure abefiaren gerokoa irakasleen eskuetan egongo da beti berezienik.

Euzkal-irakaslerik asko euki beaf-izango dugu asieratik. Orain efien eskoletan ari diranen artean, oso gutxi aurkitzeko, ortarako gai edo diranak. Beraz, besteengan biľatu beaf, asieran, lan ori beteko dutenak; eta eskoľetan egunero *beta* naikoa egin beaf, irakaskintza ori egiña izan dedin.

Euzkaldunak diran efietan ez da izango bide ori, ofen zaľa. Efi oietan beti aurkitu diteke, edo apaiza, edo gizon ala emakumeren bat, obetotxo ala ez ain ondo, lan ori bete al-izango duena.

Askoz zaľagoa izango da, erdaldunak diran efietan lan ori burutzea.

Ez da, asieran ere, efaz izango efi guztietarako bidea bera jafi, ez eta egoki ere. Efi bakoitzean, bertan eratuko dan kultura-batzordeak lagundu beaf-izango dio xede oni ardura aundienaz. Efi batzuetan irakasle gazteak izan ditezke, ta auek, euzkeraz ikasteko beartuak izango diranezkero, lenengo egunetik ezpada ere, epe txiki baten bafu, beren burua gai egin al-izango dute. Beste batzuetan, bertan bizi diteken euzkaldunen bat edo beste, apaiza edo ez, onartzeko izango da, beste oberen bat euki arte. Irakasleak adiñekoak izan ezkero ta efian bertan euzkaldunik bizi ezpada, efiko mutil edo neskatiľen bat biali diteke ikasi al-izango duen toki batera, urtebeterako edo; gero, efira itzuli-ta eskoľaetako aufai irakas dizaien. Eta efi bakoitzekoai otu dakieken beste bideren bat ere erabiľiz.



Onelako ikaskayak emango dituztenai —ots, beren bizibidez irakasle ez diranai— egokiro ere ordaindu beaf. Eta ordaintze ori egiteko beafa izango dan dirua, irakaskintzaren erakunde osoari izango zaio beafa ematea. Beraz, euzkal-irakasle bereizi oiek ere erakunde guzian sarturik izango dira.

Pitinka-pitinka, irakasle bereizi oiek, beren lana utziko dute, efiko ikastolaetara euzkaldun izango diran irakasle befiak elduko diranean. Ez noski, beafen-beafez; efi bakoitzean ikusteko, osorik utzi beaf-izango duten ala aufera jafaitu, irakasle guziai beafa edo izango zaien laguntza emateko.

Asieratik ere, irakasleen lau irakastola aundi ta bereziak, gutxienez, antoľatu beaf. Edo orain dagozenak erabefitu; auxe, apika, izango da erosoena; gañera, irakastola oiek Irakastola Nagusi'aren baranoan sartzeko. Eskola oietan, naiz Euzko-Jaurlaritza'ren menpean egon, naiz Lafefi'aren menpean, euzkeraren ikasketak eratu beaf-izango dituzte, lenengo ordutik. Eta eskola aundi oietatik irakaslearen izenaz ateratzeko, beaf-beafa ta ezinbestekoa izango da, euzkera ongienik jakitea; norberak, euzkera irakasteko gai dala, ertsiki erakutsi ondoren. Auxe ondo zaindu ta alboan utzi ezin diteken bidea.

d) Asieran, noski, gure efietan aurkituko ditugun irakasle geyenak, gizonen artean batez ere, erdaldunak izango dira, zalantzik gabe. Auengan, guztiengan, beren bizibidetik sortzen diran eskubideak ontzat artu beaf-izango ditugu, ala beafik. Baña befogei urte bete gabeko diranai, onez-onean, euzkera ikasteko *eginbidea* jafi beaf-izango zaie; ortarako, zuurki, epe bat ematen eta bideak ere jartzen; bai ta lansari berezia eskeintzen euzkera beren eskoletan irakasten asi ditezeneko.

Erdal-irakasle guztiai argi esan beaf zaie nolako beafa zaigun euzkera gure Efi osoan zabaltzea; eta elburu ortarako guztiai ere beren laguntza eskatu; bakoitzak bere indafen neufian eman dizaigun.

e) Beafak izango zaizkigu eliztiak; bi, iru edo lau maľetan egiñak;

batzuk euzkeraz idatzita, besteak erderaz, euzko-euzkaldunai ala euzko--erdaldunai eskeintzeko; eta asieran bizkaieraz eta gipuzkoeraz, laburdieraz eta zuberoeraz egiñak. Egizko eliztiak baño, apika, "ikasteko erak" eta era eŕezenak izango zaizkigu obeak.

Beaŕa izango da, elizti edo ikasteko era oiek, Euzkadi osorako *era berean* egiñak izatea. Oŕengatik, liburuak egin baño lenago, egokia izango da *era* berezi ori, onena nolakoa izango zaigun ikustea.

Irakurtzen ikasteko liburuak, naiz bizkaierazko ta gipuzkoerazkoak, naiz laburdierazko ta zuberoerazkoak, *berdin* izateko Euzkadi osorako. Al-izan ezkero, irakurtzeko liburuak ere, bi maĺetan egiteko: lenengoa, eliztiaren bigaŕen maĺara eldu ondoren erabiltzeko; eta bigaŕena, eliztiaren irugaŕen maĺa ikasi ta gero asteko edo.

Liburu oiek baño lenago, umeentzako liburu tipiak oso egokiak izango lirake, erderaz "kartilla" esaten zaizkienen antzera.

Euzkeraren ikasketa ongi biribiltzeko, "udako egon-aldiak" eta "udako ikastaroak" izango zaizkigu onuratsuak oso; oŕelakoak antolatu beaŕ, beraz.

"Udako ikastaroak", erdaldunak diran irakasleentzat, batez ere, eratuak izango dira; gutxienez lau toki berezietan, bizkaieraz, gipuzkoeraz, laburdieraz eta zuberoeraz emateko.

Euzkeraz ikasten ari-izango diran mutil-neskaentzat, beste uda-egonaldia bereziak ere antolatzea txit egokia izango litzake. Ikastaroan geyen ikasiko dutenentzako saria bezela.

Beste egon-aldi berezi batzuk ere antola litezke: "Ikasleen edo auŕen trukea"'ren bidez; gurasoen baimenez eta bereziki egingo litzaken erakuntza baten bidez.

Euzkadi osoan ari-izango diran iŕati guztiak, egunero, ta egunean bein gutxienez, euzkeraren ikaskayak emateko beartuak izango dira.

Gurbiĺago ta askoz astiroago erabiltzeko, bigaŕen bidea dugu, naiz eta eŕietan eta irakasteko gaietan, zedaŕi askoz txikiagoetan barna ari beaŕ-izango dugun aŕen. Ona izango da, guztiagatik, beste azpegi berezi ori ongienik azterkatzea: Euzkaldun eŕietan, euzkera, lenengo irakaskintzan *bidez* nola sartu. Ortik asi beaŕ eta ortan emateko ditugun lenengo uŕats gaŕantzitsuenak.

Enurarik gabe, gure irakaskintzari buruz dauzkagun arlo guztietatik, auxe beaŕen duguna, eta bide batez, gure aŕeta ta ardura aundienak eskatzen dizkiguna: Euzkera, irakaskintzan, *bidez* sartzea; ots, kultura orokaŕaren gaiak, gai guztiak, euzkeraz irakasi ta ikastea.



Gizonarentzat, jaiotako tokian (sendi, etxe ta eŕian) dagozen biziera ta oiturak izaten dira, lenengoz, bere izaera moldatzen dutenak; egia. Baña, geyenetan, eskola ta ikastetxeetan, gizonak bere aurtzaroa ta gaztezaroa igaro beaŕ ditu, eta toki oietan ikasten duena ta beren baranoan bizi-izaten dan eguratsaren eragipena, nai ta nai ez, bere gogoa eratzeko izaten dira indaŕ aundiena dutenak; etxe ta sendiak baño askoz aundiago be. Ezin ukatzekoa dugu ori, gurean eta nunai gertatzen baita.

Oso egokitzat eukitzeko, eiki, etxe ta eskolako eguratsak berdin xamaŕ izatea, bigaŕena lenengoaren jaŕaitzaĺea izan dedin. Baña bi oiek berdin baldin ezpadira, bigaŕenak iratotzen du, gizon geyenengan, sendiaren baitan artutako ta aŕ lezaketen guzia. Eguzkipeko bazteŕ guztietan ikusten dugu oŕela gertatzen dana. Zer esanik ez gurean; gure Eŕia'an erdal-eskolara doan euskaldun-umeak aurki galtzen du bere euskal-izakera, erdal-irakasleak gogotik arazoten dioten erdal-bidez; noski, sartu zan bezela, ezer jakin gabe, eskolatik irteten ezpada.

Ortan ikusi beaŕ Euzkadi'n egiten dan "jenozidio" aundiena; erdal-eskoletan itotzen dabe euzkal-gogoa, erderazkoa txertatzeko. Amaika neke, lan eta atsekabe euzkaldun auŕ batentzat, tutik ere ulertzen ez duen erderaz ari-izateko. Ta ortara beartzen dute, eskolan sartzen dan lenengo egunetik, eta ortan jaŕaitzen diote eskolatik atera arte. Ez aŕitzeko, beraz, irakuŕ eta idazteko, gurean, ainbat eta ainbat mukeŕ ikustea; eskolan jasandakoaz ukan beaŕ duten gomuta mingotsa ain aundia izaten baita.

Ainitz, Euzkalerri'an, oŕela igaro beaŕ-izan duten gizaldiak; ezin ulertzeko, benetan, gure izkuntza au oraindiño nola bizi diteken ikustea. Batez ere, esandako erderatze ortan, kanpotaŕai etxekoek ere oŕen itxu ta gartsuki laguntza eman dietelarik. Zorigabeko, egiz, gure Eŕia, oŕela, ain luzaroan bere biziaren aurka ekiteko.

Lentxoago ta XI'gaŕen atalean ere, Unesko'k argitaratutako liburu bat aitatu dugu. Onela itzegiten da bertan gai oni buruz (50 eta 51'gaŕen oŕialdeetan):

"Gizon bakoitza naiz bere buruaz naiz bizi dan inguruarekiko asmoak eratu ta eŕaten, bere ama-izkuntzaren bidez asten da".

"Auŕak oro, bakoitza berean, kultura-egurats batean jayotzen dira; izkuntza, egurats ori osotzen eta adierazten duen egiĺea da. Oŕengatik bere "ama-izkuntza" dan oŕen jabetzea, kultura-eguratsa bereganatzeko auŕak dagien ekinbidearen atal bat da; oŕela, izkuntza ori, auŕaren lendabiziko gogaiak eratzean bide gaŕantziduna dala esan diteke".

"Azi-erarì buruzko zioengatik, ama-izkuntzaren erabiltzea alik eta irakaskintzaren mail aurreratuenerano eda dedila esondatzen dugu. Berezìz, ikasleai eskola-eratzearen astea ama-izkuntzaz egitea dagokie, obeki ulertzen dutena dalako eta eskola-bizian ama-izkuntzaz asteak, etxetik eskolarako tartea ere laburtzen duelako".

"Etxetik eskolako bizira igarotzean, aurak oren iñarosaldi aundia artzen duela-ta, orixe biguntzeko alegin aundienak egitea bear-bearezkoa dala uste dugu".

"Lutelesti-ikaskaya edo orokarean beste gai batena ere, erazagoa izango zaio (aurari) bere ama-izkuntzaren bidez ematen baldin bazaio".

"Ama-izkuntzaren erabiltzeak, aurari etxeko izkuntzaz erakutsi dakionean, etxe ta eskolaren artean ulerbide obea eragingo du".

Ordua da, ziñez, gure gogoa eutsi ta indartzeko, bai ta zabaltzeko ere, bidea nun dagoen ikusteko: bera itoa izan dan lekuan bertan, eskolan. Eskola izan bear guretzat lanegiteko zelai zabal eta egokiena; eskolan bakarik gaizkatuko da euzkera, ta gure izkuntza onekin batera, gure euzkal-gogoa be.

Lenengo bidean ikusi dugu zer egin diteken, euzkera, *gaiaz,* eskola ta alde guztietan sartzeko. Bigaren ontan, *bidez* erabiltzeko, nun eta nola ari gaitezken ikusi bear dugu.

Jakiña, euzkera *bidez* sartzeko, arean, euzkeraren bidez kultura-gaiak ikasi al-izateko, mugari estuagoetan barna ari-izan bear, batez ere gure irakaskintza guzia, geron asmoai arauz antolatuko dan asieran.

Unealdi ortan, berariz, euzkaldun izango diran erietan soilik egiteko, euzkeraren bidez, beren eskoletako irakaskintza. Apika, beste eri edo uri batzuetan ere, baña izari txikiagoan. Dana dala, ora oartzeko dugun *zedari* estu bat, euzkaldun eriak, gaur Euzkadi'n gutxienak diralako.

Euzkal-irakaskintza, enura gabe, lenengo irakaskintzan asteko; ezin beste maletako gaiak euzkeraz irakastea, lendik lenengokoan orela egin gabe. Eta emen dugu *bigaren zedaria*: asteko, lenengo irakaskintzan, lendabiziko maletako eskoletan soilik egin-beara.

Bi zedari estu oietan, ba-dugu, ukan ere, eragozpen aundi bat: *izkelgiena*. Gure eskola, euzkaldun etxearen jaraipena izateko, ta orela beara dugularik, ortxe aiztu ezin dezakegun izkelgien auzia.

Gure irakaskintzan bearez eta gure elertian egokiz, guzia elburu bati artez-artez zuzendurik izan bear, ots, euzkeraren batasuna egiteko elburuari. Jomuga ori eskolarena ere izateko; eta emendik datorkigu len



esandako izkelgien auzia nolako eragozpena izango zaigun batasun ortaruntz ibili al-izateko.

Asieran gure lenengo irakaskintza *iru* edo *lau* izkelgietan antolatzea noraezeko izango zaigu: bizkaieraz, zuberoaeraz eta gipuzko-laburdi-napareraz, iru auekin lendabiziko alditik bat eginda; edo: bizkaieraz, zuberoeraz, gipuzkeraz eta laburdi-napareraz, lenengo alditik, lengo iruen ordez, bi auekin bat eginda. Eziña baita, ene iritziz, alde guzietarako izkelgi bat bakarik, lenengotik, erabiltzea.

Izkelgi batzuetan, beraz, irakasteko erak eta liburuak egin eta erabiltzeko. Ala ere, batzuk eta besteak berdin-berdin izan bear, izkelgiarena izanezik, beste bereizkizunik gabe. Eta izkelgi guzietako liburu danak, ori bai, ortografia bera ta itz berezi beriak berak, lenengo egunetik erabiltzeko.

Bi baldintza oiek izango dira batasun guziaren asiera. Gero izkelgi bakoitzean ere, aditzerak eta atzizkien bidez egiten diran itzen joskera ta eratze guziak, izkelgi barutiko eri guzietarako berdin-berdiñak be izan bear.

Orela, malaka-malaka joango giñake batasun osotaruntz, lenengo azpegi ta mail auetan barna asieratik ari-izaten: Ortografia bera ta itz beriak berak izkelgi guztietan; izkelgi bakoitzaren batasun ertsia, eta izkelgi guziak lauetara edo iruetara gutxituz (irakasteko erak eta ikas-liburuak egiteko, noski).

Batasunaren asmo ori, jakiña, irakaskintzan lanegingo duten guziengan indartsuki sartu bear, batez ere euzkaldun irakasle guziengan. Oien baitan sutsuki ta sakon bizi-izan bear gogai au: euzkera ta euzkal-gogoaren bizirako gure izkuntzaren batasun orek garantzi nagusiena duela. Berak, gero, beren ikasleengan orobat sorerazteko.

Bi talde aundietan izango ditugu, irakaskintzaren aldetik, gure soreriko eri ta uri guziak: lenengo irakaskintza, talde batek *euzkeraz* egingo du, beste batek, *erderaz*; eta bigaren talde ontakoek euzkera ikasi bear-izango badute, lenengokoek erabat erdera ere. Eta ba-dugu, ortarako jariko dan erakundean, egiazko "elebitza"-era sarturik. Ona emen, bada, len, atal ontan bertan ere aipatu dugun beste arloa.

Nolako neurian erabili bear-izango dira izkuntza biak, onuragaria izan dedin "elebitza" erabiltzeko? Iru jomuga auek begiratzeko ditugu, ene aburuz, gure irakaskintzan elebitzaren bidez ari-izateko: euzkal-gogoa eutsi, indartu ta zabaltzea; euzkaldun auraren etorkizuna; eta euzkaldun auraren onura ta alik eta gutxienik neke-eraztea.

Zal̄a iruditzen zait gai oŕi buruz norabide ertsiak esondatzea; eziña baita erki ta eŕi guzietarako berdin-berdiñak ematea. Esandako iru elburu oiek guzientzako onarturik, gero, toki bakoitzean ikusteko nola jokatu beaŕ-izango dan; irakasleak, kultura-batzordeak eta jaurlaritzaren begiraleak alkaŕekin erabakitzeko.

Bi izkuntzak erabiltzeko, beraz, gure eskoletan, bakoitza bere neuŕian, eta eŕi bakoitzean ere beaŕa izango dan arauz.

Alan eta guztiz be, ezin ontzat artzeko, gure euzkal-irakaskintza ibiltzen jaŕiko dan egunean, eŕi guztien orduko izakera; oŕela bein-betiko izateko, eskierki. Ezin aiztu dezakegu, urte ta mendeetan barna, gure sorteŕian, gure euzkal-gogoa galtzen etoŕi zaigula, gaur dagoen txirotasuneraño eldu arte. Oraindaño atzeruntz egin dugun bidea, auŕeruntz ibil̄i beaŕ dugu gaurgero; eta astiro ta bat-banaka izan beaŕ bada ere, eten gabe auŕeratu beaŕ dugu gure erdal-eŕiak irabazten, euzkaldunak biurtzeko eta abeŕi osoa egiazko Euzkaleŕia beŕiro izan arte.

Eginbide nagusienetakoa orixe guretzat; alboan iñoiz eta iñola ere utzi beaŕ ez duguna. Ongi ulertzeko, ordea, lan aundi ori egun edo urte gutxietakoa izango ez dana; baña luze ta gogoŕ izan beaŕ bada ere, ortarako abiatu beaŕ-izango gera lenengo ordudanik; eta beti astiro, pizkanaka-pizkanaka, bai, baña gotoŕ eta isituki, oŕen beaŕezkoa zaigun el̄buru nagusieneruntz.

Euzkera *gaiaz* beaŕ dan bezela erabiltzeko, beaŕ-beaŕezkoa da bera irakurtzen ongienik irakastea; liburuak onuragaŕi izan ditezen, lenengoz, irakurtzen ongi jakitea da irakurlearen baldintza beaŕa. Alakotz, aŕeta aundia irakasleengan euzkeraz ondo irakurtzen irakasteko.

Oso gaŕantzi aundikoa dugu euzkeraz ondo irakurtzen jakitea; oŕengatik, egokia izango litzake, iŕatietatik ere ortarako ikaskai edo saio bereziak ematea. Auŕetik zein liburu, eta saio bakoitzean zein oŕialdeetan irakuŕiko dan, auŕetik iragaŕi-ta, entzuleak ongien jaŕaituko lukete liburu gañean, iŕatitik entzungo lituzketen irakurketak. Bide batez, irakurtzen irakatsiko litzake ta gure elertiaren lan onenak entzuleen artean geyago jakineraziko lirake. Oŕa eskolaren geigaŕi egokia nola burutu liteken.

Maiz aipatu dugun "Unesko"'k egindako liburuan, onela irakuŕi diteke (54'gaŕen oŕialdean): "Irakaskintzan ama-izkuntzak erabiltzeari buruz sortzen diran auzien artean, gaŕantzidun eta zal̄enetatikoa, irakurtzeko gaia ornitzea da".

Asmo guzti auek, esateko ere beaŕik ez, irakasleek berenak egin



beaŕ-izango dituzte oro. Irakasleak, gure irakaskintzaren bidez atzeman nai-izango diran elburuak, ez dituzte iñoiz aiztu beaŕ, eta jomuga oiei buruz antola beaŕ-izango dituzte beren ikaskizun guziak. Oŕela, irakaskintzaren baranoan, noraezekoa zaigun ekin-batasuna egiña izango dugu.

Irakaskintzaren bidez betetzeko dugun lan aundia burutzeko, guzioi dagokigu erantzukizun berezia; ortatik ateratzeko, nolakoa izan beaŕ dan euzkal-irakasleena; eta nola gertu egin beaŕ duten oiek beren burua, beren ikastetxe berezietan bertan, eta beren zain eta kontuz eskola bat artu baño lenago.

Eta gure izkuntza bera gaizkatzeko, egiazko euzkal-kultura burutzeko ta, azkenez, gure euzkal-gogoari eusteko, euzkera *bidez* erabiltzea beaŕ-beaŕenezkoa zaigunezkero, gure eginkizun guztien artean lenengoetako bat ori eukitzeko, enura gabe.

Geron ustez, oŕela, *bidez* lenengo irakaskintzan erabiltzean, naiz eta ondorio onenak lortuaŕen, amaŕ urteren bat igaro beaŕ-izango dira, bigaŕen irakaskintzan era berean sartu baño lenago eta ortarako beaŕa izango zaigun eguratsa eda dedin; bai ta bigaŕen irakaskintzan irakasten diran gaien liburu bereziak egiteko betarik izateko.

Naiz liburu oiek egiteko, naiz mail ortan euzkeraz irakasten asteko, gai guztiak, egokia izango dan uŕenkeran ezaŕi beaŕ, eta onela, gaiez-gai sartu al-izango da gure izkuntza au goragoko bigaŕen mail ortan. Ezinbesteko deritzaigu, oŕelaxe, mal̄az-mail ari-izatea; ezin gai guztiakaz batera yardutea.

Eta oŕengatik ere, emen, bigaŕen irakaskintzan izango zaigu beaŕena elebitza erabiltzea. Ikasketa oietan barna gizontzen dira gazteak; orduan moldatzen dute beren gogoa, beren bizi guzirako iraungo zaien eraz, eta beaŕago izango zaie, kari ortaz, beren burua egokienik moldatzea.

Bigaŕen irakaskintza ortatik atera-erazi beaŕ ditugu gure gazteak, lenengoz gaiak ongi ikasita, eta izkuntza bien jabe gero. Oŕa zergatik eratu beaŕ-izango dan ongienik mail̄ ortan elebitza.

Elebitza aitatu ezkero, bigaŕen izkuntza bat ikasi beaŕ dala ulertzen da. Oŕezaz, batzuetan aipatu dugun "Unesko"'ren liburuan (58'gaŕen oŕialdean) onela irakuŕi diteke:

"Len, irakaskintzaren asieran ama-izkuntza erabil̄i beaŕ dala bayeztu dugu, naiz eta beste uŕengoko mal̄etan beste izkuntza erabil̄i beaŕ bada ere. Ama-ikuntzaren iñarkuna bigaŕen izkuntza ikasteko zubia izan beaŕ da".

"Ala ere izkuntza auetako bakoitzak itz-bildumak eta elizti-erak baño askoz geyago inguratzen du; gogai ta aspaldiko aldiñak daramazki eta, neuŕi aundiaz, kultura bereziaren agerkaia da. Berebat, bigaŕen izkuntza ikasteko, ama-izkuntzaren erabiltzeak kultura-oñaŕi bat emateko laguntzen du".

Ezin igaŕi auŕetik eraketa oŕen ondorioak, eta ondore onak izateko, zenbat urte beaŕ-izango diran. Baña, baikortasun aundienaz ere, gutxienez beste amaŕen bat urte izango dira beaŕak, noski, amaŕ urte, gai guztiak irakasten asiko danetik, era berean Irakastola Nagusi'an irakasten danaz orobat egiteko.

Beraz, euzkal-irakaskintza nai-izango genuken bezela antolatzen asi ta gero, ogei, ogetabost edo ogetamaŕ urte igaro beaŕ, euzkera Irakastola Nagusi'an sartzen asi baño lenago. Ez da ori epe luzeegia, eta pozik egoteko, dana urte oietan barna oŕela buruturik izango balitz.

Eta Irakastola Nagusi'an, eta era berean aren galgakide izan ditezken beste ikasketa berezietan ere, auŕeko maĺan bezela, gaiez-gai ari beaŕ-izango da. Elebitza erabiltzekoa beti mail ortan ere, auŕekoan bezela. Eta beste amaŕ, amabost edo ogei urte izango ditugu beaŕak, euzkera, *bidez,* oietan eta irakaskintza guzian sarturik ikusteko. Beŕogei edo beŕogetamaŕen bat urte, guzirako. Eŕi'aren bizirako epe txikia beti.

Ez dugu aiztu beaŕ, epe guzti oien zeaŕ, euzkera *gaiaz* irakasita izango dala, irakaskintza-mail guztietan; euzkeraz, egunkari ta aldizkarietan idatzi egin beaŕ-izango dala, eŕuz; iŕatiz, euzkera bera irakasi ta ekitaldi asko euzkeraz emanak izango ditugula; txiŕikaen bidez ikasteko era bereziak erabiĺiko dirala; antzokietan gero ta geyago ere, eta gizarteko aŕemanetan, gure izkera onen erabiltzea egunerokoa izango dugula.

Oŕela, eiki, eguratsa euzkalduna oso izango da gure bazteŕ guztietan eta eguratsa oŕek irakaskintzakoa lagunduko du neuŕi edeŕean, len aipatu ditugun epeak laburtzeko aña.

## XIV.—Euzkal-Irakasleak gertutzea. Irakastea. Azibidea. Gogo-lantzea (Kultura). Euzkal-Irazkintza (Euzkal-Pedagojia).

Euzkera jasotzeko ta, bide batez, gure Eŕi'aren biziari ere eusteko, ezin ukatu lenengo irakaskintza dugula biderik onen eta beaŕena; eta irakaskintza oŕen oñaŕia irakaslea dugu lendabizi ta beaŕena. Beraz, euzkal-irakasleak eratzea aŕeta aundienaz egitekoa.

Euzkal-irakaslea Euzkal-Irakastola Nagusi'an eratu beaŕ da; goiko ein ortan dagokigu egitea euzkal-irakasleen eratzea, oŕela beaŕa zaigun gaŕantzi aundiena emateko. Gero, bere bizibidearen zeaŕ, Irakastola Nagusi'ari atxikia bizi-izatero ta oŕen eta Eŕi'aren bitartekoa ere izan dedin.

Euzkal-gogoa soŕerazi, eutsi, zabaldu ta indartzeko, eskoletan barna ta irakasleen bidez egiteko; beste bideak ere izan ditezke, noski, baña lenengoz irakaskintzarena, lenengo ta beaŕena. Bigaŕen eta goiko izarian egingo diran beste ikasketak, lenengo irakaskintza izango dute asiera ta eŕo. Ein oietan barna doa, alde guztietan, kulturari dagokion guztia; irakaskintzatik at ere asko egin diteke ta nunai egiten da kulturaren alde, baña danetan irakaskintzaren ondoren eta bere inguruan, alegia.

Orobat gerta beaŕ gurean be; ortik ateratzeko, beraz, irakaskintzari ta lenengo irakaskintzari batez ere, eman nai diogun gaŕantzi aundi ta eŕotikoa. Eta irakaskintza oŕi bizia eman beaŕ diotenen arazoa aŕeta bizienaz begiratzekoa dugu.

Oŕengatik, irakasleak ongi eratu ondoren, beaŕezkoa izango zaigu alik eta ongienik ordaintzea; alde guztietatik itzal aundienaz inguratzea; ta beti laguntza egokiena ematea. Asko da irakasle oiei eskatu beaŕ zaiena, iñori baño geyago esango nuke nik; eta oŕen yardespen aundiaz zamatu beaŕ baldin baditugu, giño ortan ere berak berentzat jaso beaŕ-izango dutena.

Irakaskintza mail guztietan ari-izango diranak, elkargo bat eratuko dute ta mail batetik bestera igarotzeko bidea zabalduko zaie. Asmo batekoak izanik —euzkal-gogoari eustekoa— urtero edo bi urteoro batzaŕak egingo dituzte, irakaskintzaren batzaŕak, bertan era guzietako ira-

kaskintzari buruz yarduteko, esandako asmo oŕi dagokionez batik bat.

Bein irakasle sortu-ta, bere irugaŕen urtean irakasle bakoitzak azterketa bereziak izango ditu auŕeruntz lanean berean jaŕaitzeko; beste iru urteen baŕu bigaŕenez izango ditu bere azterketak, eta beste lau urte igarota, azken azterketa; orduan bein-betiko irakaslea izendatua izango da.

Eŕi bakoitzean, irakasleak bertako kultura-batzordearekin aŕemanetan egongo dira, eŕiari dagozkion kultura-arlo guztiak azterkatzeko ta, beaŕ danean, erabakitzeko.

Irakastola Nagusi'aren ordezkariak izango dira irakasleak eŕietan barna; bai ta eŕiko sendi ta mutil-neskatiĺentzat aolkulari bereziak ere, auŕ eta gazteak, norberari dagokion bide onenean barna abia ditezen.

Agintariak eratutako irakaskintzatik at bizi ditezken beste edonolako ikastetxeetan ere, lenengo maĺetakoetan batez ere, euzkeraren irakastea beaŕ dan bezela betetzeko ertsiki begiratuko da.

Euzkal-irakaslea, euzkerarenganako gogo bero, ben-benetako zalea, gogotsu izan beaŕ zearo; orixe, alegia, berarentzako lenengo baldintza. Asmo berezi ori biotzeraño saŕ dakion, alegin aundienak egiteko; gero, bere aldetik, edonun izango dituen ikasleai oŕenbeste saŕerazi dizaieken. Euzkal-irakasleak, nai ta nai ez, Euzkadi'n zeaŕ, gure euzkeraren asmo bikain oŕen ereintzale izan beaŕ. Euzko-Jaurlaritza'k berak zainduko ditu ondoen, naiz beren gertutzerako naiz beren bizibideagatik ongi ere ordaintzeko bideak.

Irakasle oiek, lendabizi, "euzkeraren irakasleak" izango dira, beste gauza guztien auŕetik, baña euzkera guztik ongi ezaguturik; eta batasuna eltzen ez dan bitartean, euzkelgi guztiak ezagutu beaŕ-izango dituzte txit ondo. Oŕi buruz, irakasleentzako ikasketak, ezin aski izan beren ikastaldi berezietan egingo diranak; oientzat ere, euzkelgi bakoitzeko eŕi egoki batzuetan egokera luzetxoak atondu beaŕ-izango dira, beren ikasketa oiek aundi ta sakonago izan ditezen.

Beraz, *euzkera irakasteko,* lenengoz eta ondoenik, euzkal-irakasleak gertutzea; eta oŕen uŕengo, lenengo irakaskintzako gaiak ere *euzkeraz irakasteko* lain izan beaŕ irakasle guztiak. Bein euzkera oso ondo ezagutu ezkero, ez deritzaigu oŕen zail bigaŕen baldintza ori betetzea.

Oso beaŕa izango zaigu euzkal-irakaslea gertutzea. Ona emen, len (auŕeko ataletan) aipatu dugun "Unesko"'ren liburuan (56'gaŕen oŕialdean) esaten dana: "Beren ikasketak eta beren bizibidearen eratzea bigaŕen izkuntzaren bidez artu dituzten irakasleai ama-izkuntzat irakasten



ikastea zaĺa izaten zaie. Zailtasun oŕen azalpen nagusienak bi motazkoak dira: 1.ª, oldozteko oitura ez duten izkuntzaz irakasi beaŕ dute eta ain zuzen ikasleen kulturari bakanak zaizkion gogaien gaietaz; beraz, aŕotza zaien izkuntzaz azaldu beaŕ dituzte gogaiok; 2.ª, maiz irakasleek ez dauzkate zuzendu edo irakaskintza emateko lagundu dizaieten liburuak, noski, ama-izkuntzaz egiteko; oŕela, beren artezi ta oldez ari-izan beaŕ bigaŕen izkuntzaz, beren bizibidearen eratzea egiteko artu zuten izkuntzaz irakasten dutenean baño izari aundiagoz".

Eta 57'gaŕen oŕialdean: "Irakaslegaiak beren irakaskintzaren ekintza, atal bat bederen, ama-izkuntzaz egin beaŕ-izango dute; gaŕantzitsua baita, oŕela egitea utzi beaŕ zaiela oaŕerazten dugu, eta agintariak ere alegiñak egin beaŕ oŕela izan diteken. Irakaslearen norabidea ta bere bizibidearekiko eratzearen oso gaŕantzidun azpegia, alde guzietan onartua alegia, irakasleai araubide ta liburuxka bereziak ornitzea da, aspaldian egiten zan bezela, buruz irakastearen era erabil ez dezaten".

Irakasleak oŕelaxe ongi gerturik, urte gutxi euzkeraren ezagutzea Euzkadi'ko eŕietan barna buŕustaz edatzeko. Euzkadi'ko irakaskintzetan, irakasleena Euzko-Irakastola Nagusi'arekin bat izango da, ta, len esan dugunez, irakasleak beti bizi beaŕ-izango dute Irakastola Nagusi oŕekin aŕemanetan, bai beren bizibiderako, bai ta beren ikasleak ongien zuzendu al ditzaketen; gure Eŕi'an, toki, alde ta mail guzietako seme-alabak, goiko ikasketarako bideak zabal-zabalik aurkitu beaŕ-izango dituztelako; aruntz abiatzeko ala norberaren egokitasunez beste bide bat artzeko, irakasleak izan beaŕ zuzentzaiĺe onenetakoak. Bere bizibidetzat arturik irakaskintzan sartuko dan guziak, lenengo irakaskintzan, irakasle bezela, gutxienez iru urte egin beaŕ-izango ditu, beste irakaskintza-maĺetara igarotzeko.

Eta beŕiro esango dugu, euzkeraren auzia ta Eŕi-gogoarena, bat bezela, nagusitzat eta sutsuki artu beaŕ-izango dituzte irakasleek, beren lana benetan etekintsu ta onurakoŕ izan dedin. Len ere (IV'gn. atalean) aipatu dugun Villasante aitaren liburuan, "Historia de la Literatura Vasca"'ko 254'gn. oŕialdean, onela ari da idazle ori Ituŕiaga'ri buruz mintzatzean: "Irakaskintzaz ari-izandako apaiz ospegaŕi onen eredugaŕia dan egikerak iruzkin au bururatzen dit, labuŕ emateko barkatuko zaidana. Euzkaldunok auxe ez genuke aiztu beaŕ-izango: eskolako lana, izkuntza ta Eŕi'aren goraberak ezagutu ta maite dituzten gizasemeen eskuetan izango balitz, euzkeraren indartze ta bizkortzerako amaika ondorio lortuko lirakela; bai ta gaztelera beraren irakaskintza obea izateko ere".

Aurai buruz, euzkal-irakasleek xede aundi bi auek euki bear dituzte beren lanerako: Irakastea ta Azitzea; aura irakasi ta aura azi. Naikoa ezpaita gai ta gauzaen ezagupen ugari ta ondo, ikasleen buruan sartzea; orela bakarik, yakintza aundienaren jabe ta gaizki azia eskolaetatik irtengo litzakena, gizartean bizi-izateko, ez litzake iñola ere gizon egokia izango, eta kontu zalenak ateratzen dituen gaurko lankai berezi oietako bat izango genuke, ia gogorik gabe.

Eta beste aldetik, oren sari aipatutako "Unesko"'ren liburuan (59'garen orialdean) onela mintzatzen danez: "Aura gaurko bizian sarerazi bear da, gure eskolak egin dezaketen bezin eraz eta azkar, baña aren lagunartean bizi diran aspaldiko aldiñen ezagupena gutxitu gabe".

Geron iritziz alegiñak egin bear, gure euzkal-eskola ta ikastetxeetatik aura edo gaztea gizon oso bat egiñik atera dedin. Eta ezin orelakorik lortzea ikasleak azita ere irteten ezpadira.

Ez da kezka au oraingoa, noski, ta irakasleak maiz azlari izenaz ere izendatuak izaten dira; asmo biak, irakasi ta aziarenak alkarturik erabilita ikusten ditugu aspaldidanik. Alaz ere, azkenengo aldietan, lankaien aurerapen izugariagatik edo, amaika lankai-gizon azaltzen dira baztetetan, gogoai buruz guztiz atzeraturik daudenak.

1959'garen urtearen azken aldian eta 1960'gareneko uztailean, "Unesko"'k antolatu zituen Lateri arteko Batzorde bereziek egindako bilkuraetan, bigaren irakaskintzari buruz, gai geyegi ta gai bakoitzean geyegi ere irakasten zala esan zan; eta irakaskintzaren gorenengo lanetan ari diranak ziran batzorde aiek betetzen zituztenak (1).

Beste Batzorde berezi batzuk, eskoletarako egitarauak aztertzeko eratu ziranak, Eri geyenetan egitarau oiek gai geyegi dauzkatela, ta maiz bear eta gaitasunari buruz gaizki egokituak ere zirala esan omen zuten.

Beraz, egikera ori onbideratzeko, bearezkoa izango da asmo au baztertzea: yakintza, azibidea ta kultura, irurak alkaren antzekoak edo dirala; eta beste asmo au ere: ikaslea gero ta yakitunago izanez, bere gogoa ere gero ta edatuagoa dala. Irakastea bera baño, umeak artzen duen ikaskizunen tasuna ta eskolan eta lekorean lortzen duen oarmena dira bearagoak.

Mende ontan Mundua beritu edo da eta gaurko biziak ezagupen

(1) Ikus: "Unesko - XXIIe Conférence Internationale de l'Instruction Publique - 1959", eta "XXIIIe Conférence Internationale de l'Instruction Publique - 1960": publication n.° 207 eta publication n.° 217.



askoz geyago bear ditu. Baña ez zuten uste Batzorde aiek egitarauak aunditzean bear beri ori beteko dala. Apika irakasteko erak ditugu beritu bear diranak. Askoz obe, noski, orain ere, "buru bat ongi egiña", "buru bat ongi betea" baño; orela norberak arazo ta auzien guna argi ikus dezaken.

Ezagupenak ez dira umearentzat, bere adimenaren edatzean, gogo-lantzearen mundua atzemateko bideak baño. Asmo ortaz —aipatutako batzorde aietako batek ziñoenez— onela ikusteko, kultura zer dan: izanera zuzen joatea, biziaren unealdi guztietan buruz autatzeko, gogo kementsu ta argidun eukitzea.

"Unesko"'k eraturiko len esan ditugun bilkuraen ondorioaz, Lateri'etako Irakaskintza-Jaurlariai esondatzeko agiriak bereziki egin ziran eta oietako 50'garenean (1960) onela mintzatzen da, bigaren irakaskintzaren egitarauai buruz: "Bigaren irakaskintzaren egitarauak, lenengoaren egitarauen jaraipena bezela artu bear dira; beraz, alegiñak egin bear, irakaskintzaren mail batetik bestera egiteko uratsak alik eta legunenak izan ditezen, ikasleai indarketa geyegi izan ez dakien". (217'garen argitalpenaren 145'garen orialdean).

Gero, 147'garen orialdean, onela esaten da: "Eskola ta kulturazko ta gizartearekiko eguratsarekin aremanak indartzeko, auxe da gura egin bear dana: ikasleen gurasoek eta azitasun-arazoetarako zudu berezia duten erakundeen ordezkariek, egitarauai buruz beren iritziak emateko aukera eukitzea".

Eta 149'garen orialdean: "Egitarauak arau gogorak izatea baño, arau-bide ta zuzen-bide bezela izatea da egokia, bidezkoak izan ditezken egokitasunak egiteko ta irakasleen azkatasunaren aurka ez izateko".

Alakotz, lenengo irakaskintza antolatzean ere, bigarenaren malaruntzeko norabidean jartzeko areta berezia euki bear da. Eta beriro nabarmentzeko dugu, ikasleen gurasoek arazo guzti auetan beren iritzia agererazteko eginbide ertsia dutela; bai ta agintariek orela gerta dedin eraztasun aundienak emateko ere.

Ba-dago gaurko aurerapenak ekari diguten beste arlo aundi ta izigari bat, kulturari buruzkoa dana ta ume, gazte ta gizona ere eratzeko aintzakotzat oso artu bear dana: Irati, Zinema ta Ikus-iratiak sorerazi dutena.

Gero ta edatuagoa dugu, benetan, arigariak diran iru bide oien esker, emen, or edo an esan edo egiten dan guzia, noranai berealaxe zabaltzen dana. Gaur zineman ematen diran mintzak ikusteko zaletasun

orokaŕa dugu Mundu'an! eta mintza ta zinema-aretoak salerostearen neuŕian egiñak eta idekiak ditugunezkero, saleroste oŕen beaŕa ta irabaztea dituzte elburuak. Eta onela, zuzen-biderik gabe ta arian ezarian, eratzen ari da gaur Mundu zabalean gizalagun geyenen gogoa, batasun txit galgaŕiaz, mintza berak Ludi'aren zeaŕ ematen baitira. Oŕa, bide auengaŕi ortaz, gizadiaren kultura ta eratzea, mintzak egin eta ematen dituztenen irabazpide-beaŕen pean ikusi beaŕ ditugula. Len antzertiaz gertatu zana, oraingoan zineman ikusten da; alaz ere ikaragaŕizko neuŕi aundiagoan. Antzertiaren lenengo elburua, gizonak eratze ta irakastea zan; gero, ba-dakigu, elburu ura, endakatu zan askotan, maiz oso, ta antzertia bizibidea bezela antolatu zan nagusiki. Zinemak, zoritxaŕez, beti ikusi beaŕ-izan dugu azken azpegi ortaz, bizibidez bakaŕik. Noski, alegiñak egin dira eguzkipean bide oberenean jartzeko, baña izari orokaŕean bederen poto-egin dute alde guztietan.

Ia orobat esateko iŕatiarekiko. Aberats eta txiro, aundi ta txiki, gizakume guziak entzuten dituzte egunero, ta egun bakoitzean batzuetan, iŕatiak txoko guztietara botatzen dituzten beren egitarauak. Oientzat ez dago mugarik; beraz, alde guzietara zabaltzen dira, izkuntza ta era guztietan. Onen alde zerbait on esateko dugu; danetara egiten danezkero, egitarau asko onak dirala esan beaŕ, naiz eresian naiz elertian naiz beste gaiakaz ere. Alakotz, entuzuleengan yardespena, batzuk ala besteak autatzeko. Ez dago oŕenbeste eŕaztasuna zineman.

Baña ara nun datorkigun ikus-iŕatia, zinema ta iŕatia bat egiña. Azken auŕerapen onen bidez guztien etxeetara eltzen dira, eŕazkien, itza ta egipena; ikusi ta entzuteko ematen diran egitarauak; gizalagunak, naiz eta besaulki batean elbaŕituta josirik egonaŕen, ordu guzietan ikus eta entzun ditzaketen egitarauak; eta guziak, edozelangoak izan, oŕ edo an eman nai ditzaketenak.

Esan diteke, noski, emen ere, iŕatian bezela, danetara dagoela, ta norberak autatu dezakela ona ala txaŕa. Baña oŕen zabalduta ditugun iru bide aundi auetaz, berbera esan dezakegu, dana dala: gizarteak beaŕ duen egokitasunez antolaturik ez daudela, eta egokitasun ori aurki ta ematea ere eŕaza ez dala. Alaz ere, gaurko egunean, oŕ eta an, saiaketan ari da, bide beŕi guzti oiek irakaskintzarako eskuarte bezela egokitzeko xedeaz.

Zuzen-bide onean jaŕi artean, ez ote da oso egokia izango, lenengo eskoletan asi-ta, ume ta gazteen gogoa eratzea, auŕerapen oiek emango dizkien nasketa auŕean, artez erabiĺi al dezaketen? Eskola ta ikastetxeak ez dira, len esan dugunez, ikasteko bakaŕik; norberaren gogoa egokie-



nez atontzeko ere izan beaŕ, bertatik alik eta gizon egiñenak ikasleak irten al ditezken.

Eta ara nun ari beaŕ diran, bereziki, Irazkintza'ren arauak; batez ere, guretzat, euzkal-pedagojia'renak. Onen elburua, gure irakaskintza guziarena bezela, ez da izan beaŕ gizona bakaŕik gertutzea; euzkal-gizona, egiazko euzkalduna, euzkaldun osoa baizik. Beraz, xede ortara zuzendu beaŕ gure Pedagojia guzia, osoa.

Irazkintza oŕek lenengoz eskatzen diguna auxe izateko: Euzkaldun-umea'k lenengo eskoletan, bere etxean erabiltzen diran izkuntza ta oiturak aurkitzea; beaŕ-beaŕenik, geron gardiz, gurean eta eguzkipean, eskola, etxearen jaŕaipenaren antzekoa izatea. Pedagojia guziaren aurka baita, orain arte gure Eŕi'an gertatu dana: umea eskolara doanean, beste ez ezagun mundu guztiz beŕi batera doa, eta lenengo egunetik, iñundik ulertzen ez duen beste izkera bateaz itzegiten diote. Ori ankerkeri izugaŕia da, eta betiko eten egin beaŕ.

Ipiñi ditzagun emen "Unesko"'k 1951'gaŕenean eratutako biĺeran artu ziran erabakien laburpena. Ogei ataletan banatua dago, baña zortzi auek jasotzea askitzat daukagu:

"1—Ama-izkuntza gizasemea mintzatzeko, berezko bidea da, eta aren lendabizietako beaŕa, bere burua alik eta geyen mintzatzeko gai egitea da.

"2—Ikasleak oro beren eskolako ikastaroak ama-izkuntzaz asi beaŕ dituzte.

"3—Izkuntzaren izaeran, gaurko kulturaren bidea izateko, ezer eztago oztoporik izan ditekena.

"4—Izkuntza guziak eskola-irakaskintzaren lenengo iĺebetetan auŕaren beaŕak betetzeko egokiak dira.

"9—Ama-izkuntzaren ordez ezin diteke besterik ongi erabiltzea, eskolan sartu baño lenago auŕak beste izkuntza ortan oiturik ezpadagoz.

"10—Adiñekoai abede-irakaskintza emateko, beren ama-izkuntza erabiĺi beaŕ da, gero bigaŕenera igarotzeko, oŕela nai baldin badute ta egin al-izan ezkero.

"11—Irakas-agintariek mukeŕ dagozenai, ama-izkuntza irakaskintzarako onaŕ dezaten eragin beaŕ diete, baña ez indaŕez aŕerazi.

"12—Abede-irakaskintzari onela bakaŕik eutsi al dakioke: auŕ, gazte ta adiñekoentzat, naiz ikasteko naiz solaserako, irakurgai egokiaren orniketa izatean".

Eratu beaŕ dan irakaskintzan, arau onenak ezaŕiko dira, eta mail ortan ia guzia egiteko daukagunezkero, esate baterako, ikas-gaiak euzkeraz ikasgaŕiak izan ditezen, bakoitzak beaŕ dituen itz bereziak atontzea, noraezekoa dugu. Ortan nola ari beaŕ dan adierazteko, eredu bat jaŕiko dut nere asmoa argiago emateko.

Euskal-eliztia izango dugu lendabiziz atondu beaŕ izango dana. Aŕ dezagun bertan irakasten dan eta ikasi beaŕ dan itz bat, erderaz "adjetivo" deitzen dana. Sei izen ezagutzen ditugu euzkal-idazleen artean "adjetivo" itz ori euzkeraz esateko: Villasante aitak "adjetibua" deitzen du; "Jesus'en Biotzaren Deya" aldizkarian, azken aroan, ematen ari-izan diran ikaskayetan, "albitz" edo "zendin" erabiltzen da; Lafitte kalonjeak, "hitz-lagun" eta "izen-lagun"; Orixe'k eta Oyarzabal'ek, "izen-lagun", eta Aŕuza'k, "izen-ondo". Noski, eskolara lenengo aldiz dijoan euzkaldun auŕari berdin izango zaio naiz adjetibua" naiz "adjetivo" esatea; berarentzat ulergaitzak izen biak, ez diote oiek ezer esango. "Albitz" naiz "zendin" itzak ez dira, eiki, argitsuago izango asieran umeentzat. "Hitz-lagun" itzak geixeago esango dio, entzun eta bereala, itz ori osotzen duten biak ezagunak zaizkiolako, baña itz-mota asko dagoz eta zentzunetik oso uŕutian geratuko da zein itz lagundu beaŕ zaion ikusten ez duelarik edo itz guztien lagunak berdin dirala uste dezake. "Izen-lagun" askoz egokiagoa da, naiz eta itz guztiak alkaŕenganako lagunak izan. "Izen-ondo", ordea, zentzunaren are urbil̃ago ageriko zaio, itz guztiak ezpaitira izenak, eta izenaren baranoan zedaŕitua ikusiko du berealaxe "Izen-ondo"'ren esanaia: izenaren ondoan jaŕi beaŕ-izango da, alegia, "izen-ondoa". Orixe, beraz, euskaldun umearentzat asmoa ulertzeko bide eŕezena; oŕengatik, esandako sei izen oietatik, seigaŕena da egokiena irakaskintzan erabiltzeko. Gañera, etxean entzunez ikasita, zentzun oŕen antzeko beste gauzak aipatu nai dituenean berari berez sortzen zaion berezelaxe, "izen-ondo" itz ori eratua dagoela oaŕ dezake euzkaldun umeak. Geron ustez, Irazkintza utsa dugu oŕela ari-izatea; euzkal-Irazkintza. Orixe, alakotz, gure Irakaskintza atontzeko ibil̃i beaŕ dan bidea. Euzkaldun umeari zer ote zaion eŕezena ta egokiena begiratzea; eta iritzi ortaz, ikasteko gai guzietarako yardun beaŕ, gure irakaskintza etekintsu ta emankoŕa izan dedin.



Ez da izango gurean Pedagojia ona, beste nunbait zer egiten dan ikustea ta besterik gabe gure eskoletan ezartzea; naiz eta Ludi'ko ikaskera onena izan, gurean ezaŕi baño lenago, gure izakerarako ta umeen ulermenerako ta egokitasunerako on-ona ote dan, aŕeta aundienaz ikusi beaŕ-izango da. Ba-liteke batean ona dana, bestean egoki ez izatea, txaŕa oso baldin ezpada ere.

Euzkal-Irazkintza'k umearen egokitasuna begiratzen duen batera, Euzkadi'ren beaŕari ere so-egingo dio, Euzkadi osoa Euzkal-Eŕi izan dedin eta azpegi guztietan euzkaldun oso izateko; alakotz, umeak Euzkadi oŕen semeak izateko gertu beaŕ; eta egitan, Euzkadi, euzkal-eskolatik irtengo danak eraikiko du, nai ta nai ez.

Aŕ dezagun Pedagojia itzaren itzorkuna —PAIDAGÔGIA—; guziok dakigu itz oŕek zer esan nai duen: auŕak irakasi ta azteko antze edo araua. Oŕa oŕ izari zabalean Pedagojia zer dan. Baña ezin arauak berberak izan, bazteŕ guzietako umeekin erabiltzeko; ortan ere enda ta Eŕi bakoizean berezitasunak daude begiratzeko, batez ere erabil̃i beaŕ dan izkuntzari buruz. Ori argi-argi dagoelakoan gagoz; beraz, euzkal-umearekin ari-izateko, berari dagozkion berezitasunak eskatzen dituzten bideetan barna ari beaŕ-izango da, egiazko lan ona, lan onena, burutu al-izateko. Alakotz ere "Euzkal-Irazkintza", "Euzkal-auŕak irakasi ta azteko arau edo antzea" izan beaŕ. Ots, irakasi ta azteko, bietarako.

Euzkal-auŕak eta euzkaldun izan diteken edonork, euzkerarekin aŕeman ertsiena izango du; euzkera baita gure izakera bedegaŕena erakusten eta eusten duena. "Euzkal-Irazkintza"'k, oŕengatik, gure izkuntza artu beaŕ-izango du bere asmo ta egipenak ongien betetzeko, ezinbesteko bide bezela.

Eta era berean euzkal-irakaskintza, euzkal-pedagojiaz ari-izateko; ezin oŕ edo ango ikasi-erak, naiz eta onenak izan, artu ta gurean itsuki erabil̃i; irazkintza bakoitzak bere era berezia du, ta euzkal-irazkintza, gurea, euzko-era. Ez dira izkuntzak ez eta pedagojiak ere, egikera baten auŕean burua makurtu beaŕ diranak, ezin izan aiek egikeraetarako, egikerak izan beaŕ pedagojia ta bereziki izkuntzaetarako. Egi utsa dugu ori eta gure irakaskintzari buruzko egin diteken guzirako, giltzaŕi bezela eukitzeko, geron gardiz.

Euzkal-ekintza ontan ere, geyenetan bezela, guzietan esango genuke obeto, gure izkuntzak duen iturburu bizian artu beaŕ ditugu gure beaŕetarako ura garden guziak, gure egiazko euzkal-bizirako beaŕ-beaŕenak, baitaezpadakoak ditugulako.

## XV.—"H"'ri buruz txostena. Mordoīo-bidearekiko iruzkiña.

Gure euzkeraren arazoetan iritziak ugari; au dala, ura zala, ori izanen dela, beti bakoitzak bere aburuari jarraitu bear; eta bein iritzi bat onarturik, oso zala izaten zaigu iritzi orekiko enurarik eukitzea.

Alaz ere, zerbaitean ba-gera guziok bat: euzkerarenganako maitasunean. Ortaz alkarturik gagoz, baña norberaren maitasun orek, berdin ez diran bideetan barna eramaten gaitu; ta alkarrengandik urutiruntz abiatu gera, sarri.

Maitasunean bat geranezkero ez ote litzake egokia izango, guzion bideak alkartzea?, ta alkartu ondoren, guziontzako bat bakarrik, onena, egokiena, etekintsuena, autatzea?

Bidezkoa dirudi ori; ortarako, geron ustez, iritzi guziak agirian jarri bear-izango genituzke ta alkar erkatu, ororen batasunerako yoranez beterik. Eta beti, alegia, alkarrenganako adei aundienaz yardutean.

Xede ortaz, gaur, euzkaldun guziek ontzat artzen ez duten "H" izkiaz zerbait esan nai dugu. Iru zatitan egiña doakizue gure lantxo au: A) "H"'ri buruz, izkuntza batzuekiko jaso ditugun bi iritzi; B) Euzkeraz erabiltzen dan "H"'az euzkaldunak ez diran bi izkuntzalarien usteak; D) Gure aburua.

A) 1. Izkuntzalari bezela oso ezaguna dan Ferdinand de Saussure jaunak, bere "Cours de Linguistique Générale" liburuan (Pavot, Paris, 1966), onela idazten du (itzulpena gaizki egin ezpadugu):

40'*garren orrialdean*: "Enderri baten oiturak, bere izkuntzan eragiten dute, ta, beste aldetik, izkuntzak enderria neurri zabalean egiten du".

50'*garren orrialdean*: "Itzorkun-idazpenaren asiera bera okerrezkoa da. ... . Zergatik idatzi da alemaneraz *thun*, *tun*'en ordez? Igidiñaren atzetik agertzen dan arnas-artutako soñua, "H"'ren bidez adierazten dala esan da; baña, orrela bada, arnas-artzea agertzen dan guzietan izki ori sartu bear-izango litzake, ta amaika itz ditugu iñoiz artu ez dutenak".

52'*gaŕen oŕialdean*: "Arnas-artutako "H"'rik eztago (parantzerari buruz ari da), soñurik ez dan zera ori, izen oŕezaz deitzen ezpada bederen; baña oŕen auŕean ez da egiten ez loturarik ez eta kentzerik ere. Beraz, okeŕa dan baranoan gagoz, eta "H"'a, idazpenetik sortu dan gezuŕezko izakia baño besterik ez da".

53'*gaŕen oŕialdean*: "Itz baten oguzkera tinkotzen duena, ez da bera idazteko era ,bere edestia baizik. ... Gauza bat bakaŕik dago begiratzeko, ain zuen geyen aiztutzen dana, itzaren etorbidea, bere itzorkuna".

"Baña izkiaren nausikeria uŕutiago doa oindiño; ororengan ezaŕerazi-indaŕez, izkuntza ere eragin eta aldatzen du. Ori, elerti zabala duten izkuntzetan gertatzen da bakaŕik, oietan idatzitakoak gaŕantzi aundia daukalako. Oŕela, ikusten dan irudiak okeŕezko oguzkerak soŕerazten ditu; benetan, eri agertzen dan egipena dugu".

56'*gaŕen oŕialdean*: "Izkuntzalariak auxe eskatzen du lenengoz: oguzitako soñuak adierazteko, eskuartea eman dakiola, baña okeŕik ez izateko eraz".

2. "Gascon-Dictionnaire" liburua idatzi duen A. Durrieux jaunak onela diño:

38'*gaŕen oŕialdean*: "Arnas-artutakoa dan "H" izkia, Greziataŕen abedean etzegoelarik, beraren ordez, beren igidin batzuei, ats-artzea zuzen atxiki zieten. Igidin oien artean "T" izan zan bat, eta onela egin zan: ϴ th (theta). Abede'ari buruzko jokera ori Helendaŕen berebizikoaz geratu da".

"Lateradunek, Helendaŕai, ϴ erabil̄ita egiñak zeuzkaten itzak, gero artu zizkietenean, moŕoizuŕian bakaŕik egin zuten ori, oguzpenak ortarako bearturik izan gabe. Gascondaŕek era ori bera erabil̄i zuten lenago, ta orobat egin zuten parantziaŕek ere".

B) 1. "Euzko-Jakintza" aldizkarian (V eta VI - 1947 - Agoŕ-abendu"'ak), C. C. Uhlenbeck jaunak, "Les couches anciennes du Vocabulaire basque" bere idazlanean, onela diño:

551'*gaŕen oŕialdean*: "Gaurkoan, Gavel'ek (Gram. 161) h- (g-, k-)'a "etorkia" bezela dauka, baña lenago (Phon. 459 sv. 462) jatoŕizkoa zan, *gh* asteko soñua zala uste zuen". "Bonaparte'k idorotako izkelgi-gaietan oñaŕia arturik, nik auxe uste dut orain ere: gedin bateaz asten diran zedaŕizko izenordeak, gedin oŕen auŕean zegoen eztaŕiz egindako soñu



bat galdu dute. Ipaŕaldeko izkelgietan erabiltzen dan h-'a, soñu oŕen atza da. Euzkeraren atzizkia dan mugitza, *har-* (*ar-*) zedaŕizkoaren aulkera dana, len, bearbada, *kar-* izan zan".

2. Izkuntzalari ospetsua dan eta euzkerari buruz ainbat idatzi duen René Lafon jaunak, "Le système du verbe basque au XVIe siècle" (Tome premier, Bordeaux 11-1943) bere liburuan, onela ematen du bere iritzia:

9'*gaŕen oŕialdean*: "...*h* bat; bere etorburua ta edaduraren zabalgoak oraindik aterabiderik aurkitu etzaien ebazkizunak soŕerazten dituzte".

528'*gaŕen oŕialdean*: "Euzkerazko *h*'a, edozein ikuspegian, ez da asko azterturik izan. Auxe da gogoratzeko egokia: Eŕonkarieraz, bigaŕen notiña adierazten duena, aosapaiaz egiten dan gedin-erdi bat da. Neronek auxe oartu dut: Zuberoa'ko Basaburuan, Laŕañe'n eta Santa-Garazi'n, Eŕonkari aranekin luzaroan aŕemonetan bizi-izan diran muga ondoko eŕietan, *h*'a, garbi-garbi, aosapaiaz egiten da, onelako itzetan: *hi* "toi", *hiru* "trois", *hiri* (edo *hiy*) "ville", ta maŕuzkatzearen soñu sendoarekin ateratzen da".

D) Iritzi guzi oiek ikusita, naiz gure "H"'ari buruz naiz zentzun orakaŕean ere, ondorio auek atera ditzakegula uste dugu: "H"'egiazko soñuari ez dagokiola ta bere sortzea gauza oso argia ez dala.

Izki oŕi, *arnas-artutako H* deitzen zaio, ta, egitan, *H* ori oguzten danean, maiz ez da arnas-artzerik egiten, arnas-egoztea baizik; beraz, izena ta egipena alkaŕen ostetasunean agertzen dira.

Goazen orain *H* ori euzkeraz nola erabiltzen dan ikustera; noski, ba-dakigu ikuste au oso txiki, labuŕ eta iraizean egiña dugula, ta yakintzaren arauz *H*'ren arazoa beste aunitzetik begiratzekoa dala, baña guretzat eziña da yakintzaren goiko mal̄etan ibiltzea; beste apalago batzuetan ari gera ta gure xedeetarako emen aipatuko duguna naikoa izango dalakoan gagoz, barneko iskia auxe izanik: euzkeraren bizia geron indaŕ txikien neuŕiaz laguntzea.

Lau toki berezietan agertzen da gure izkuntzan erabil̄tze ori: 1) R, L ta N izkien atzetik; 2) beste igidiñen atzetik; 3) gediñen auŕean, itzaren asieran; 4) bi gediñen artean, gedin oiek berdin ala ezberdiñak izan.

1) R, L ta N izkien atzetik daramaten itzak (esate baterako: urhats, bilho, lanho) bietara idazten dira, H'az ala H'rik gabe, onela: Urrats (uŕats), billo (bil̄o), laino (laño). Oŕengatik auxe da usteko bidezkoa:

*H* ori itz oietan sartu zanean, aur̃eko igidiñaren bigar̃en soñua, soñu gogor̃a, adierazteko izan zala, beste izkuntza batzuetan egiten dan bezela; gero, *H* beti oguzi bear̃ dan usteak (Lhande'ren iztegian esaten danez), itz baterako, idazteko ta oguzteko, bi era onartzera eraman gaitu. Ori ezin deitu dezakegu, iñola ere, izkuntzaren aberastasuna, nasketa ta eragozpena baño; eta ona izango litzaiguke itz oietatik H'a zearo ezabatzea.

2) Beste igidiñen atzetik agertzen dan *H*'a, geyenetan ez bide da argi oguzten, eta ori or̃ela daramaten itzak, askoz argiago esan eta entzuten dira *H*'rik gabe. Beste aldetik, ba-dirudi, batzuetan bederen, erabiltze ori parantzearari artuta dagoela. Beraz, oietan ere *H* kentzea oso egokia bezela agertzen da, ta len erabiltzen zuen Laburdi'ko aldizkari batean ("Otoizlari") bazterțu dute iritzi egokiaz.

3) Itzaren asieran, gediñaren aur̃ean, *H* darabiltenek, azalpen au ematen dute or̃elaxe egiteko: Itz batzuek, zentzun bat baño geyago daukate, ta *H*'ren bidez bereizten dituzte alkar̃engandik zentzun oiek, ortarako ongi datorkiela esaten. Baña itz baten zentzunak, batzuk izan ditezke, ta zentzun bakoitzerako, idazteko era berezia erabil̃i bear̃ bada, era oiek geyegi izango lirake. Ziñez uste dugu, ortarako *H*'a erabil-bear̃ik eztagoela. Izkuntza guzietan dagoz zentzun batzuk dituzten itzak, eta beti esakunaren esan-naiak ematen du, argi, itz bakoitzaren zentzun egokia.

4) Bi gediñen artean azaltzen danean, bi gedin oiek berdin ez diranean (behar, nahi, bihotz, ...) sar̃i *H*'rik gabe oguzten dira daramaten itzak, batez ere abesten danean, eta or̃ela guztiz argiago entzuten eta ulertzen dira itz oiek. Beraz, ez dugu ikusten zertarako sartu bear̃ dan or̃elakoetan *H*'a. Bi gediñak berdin diranean, orduan agertzen da nunbait *H* erabiltzeko egokitasuna, bi gedin oiek bat egiñik gera ez ditezen eta obeki entzun-erazteko. Alabaña, ortan be ezin esan dezakegu bear̃ aundirik dagoela ta kendu ere egin liteke.

Ezin uka dezakegu, gaur, Laburdi, Benapar̃oa ta Zuberoa'ko er̃ietan *H* ori oguzten dutela; ez eta, itz batzuetan, *H*'a beste izki baten, *G* edo *K*'ren aztarna dugula. Eiki, *H, J, G* ta *K*, soñu berberaren mal̃ak dirala-ta, batetik bestera igo ala jetsi egitea bidezkoa dala uste bear̃ dugu. Baña asieran aipatu ditugun iritzien arauz, gurean ere, *H* izkia, itz batzuetakoa beñepein, lenengoz idatzi egin zala uste dezakegu, ta gero ezpañetara eldu. Alakotz, berdin egin genezake bide ori alderantzizko norabidean, kendu lendabizi idazkietan eta or̃ela berez jausiko litzake ezpañetatik ere.



Eta gure izkuntzak eluke ezer galduko *H* ori zearo utziko bagenu; aitzitik, guziontzako argiago ta garbiago izango genuke; oso atsegiña ez dan sasi-soñu bat gutxiago izango genuke, ta idazteko izki bat gutxiago ere; gañera, idazteko ta ikasteko, izkuntza er̃azagoa izango litzake.

Beste izkuntzetan ere, *H* ori ta oguzten ez diran beste igidiñak be kentzen ari dira. 1938'gar̃enean argitaratu zan parantzerazko "Quillet" iztegi aundian, 2562'gar̃en or̃ialdean, onelakoa irakur̃ diteke: "l'h aspirée tend à s'effacer" (arnas-artutakoa dan *H* ezabatzen doa).

Askotan aipatua izan dan Mil̃an Deun'en idazkian, Araba'ko er̃i aunitzen izenak agertzen dira, asieran ala erdian *H*'az idatzita; asieran 45 bider; erdian, gediñen artean, 51 bider; erdian, igidiñen atzetik, 23. Eta batzuen iritziz, ortan, *H* ori oguzia izan zala usteko, aztarna bezela agertzen da.

Igidiñen atzean agertzen diranen artean auetxek ditugu: L'ren atzetik 14 bider; N'ren atzetik 2 bider; R'ren atzetik, 5; J'ren atzetik, 1; eta Z'ren atzetik, beste bat.

L ta N'ren atzetik *H* daramaten er̃ien izenak, gaur, geyenak, L ta N'az oguzten dira, garbi. R'ren atzetik *H* daramatenak, gaur, bi R'az esaten dira; ta oietatik bat, "Harhaia", onela ere agertzen da: "Harrahia", bigar̃en *H*'a beste tokian jar̃ita.

Izen oietan be, bi L, N, bi R ta bi S ere ikusten dira; bai ta B ta V (Huri*b*arri ta Huri*v*arri).

-AHIN sail̃eaz amaitzen diran izen auek agertzen dira: HAGUR*AHIN*, MUNNI*AHIN*, ANDUI*AHIN*; baña beste bat onela ikusten da: HURABAGIN. Izen oiek, gaur, -AIN egiten dute amaitzeko. Baña, antziñean, bein *g*'az eta beste batzuetan *h*'az idatzi zuenak, ba-dirudi soñuren bat entzun zuela, ta bera nabaritzeko, zalantzan edo, berdin ez diran bi igidin erabil̃i zituela; alaz ere ez da ustekoa orduko idazlariek ortaz kexutasun aundirik ukan zutela.

Dana dala, *H* ori, egitan, oguzia izan bazan, gaur eta aspaldidanik, ez da erabiltzen, ez izenak esateko ez eta idazteko ere; ta aztarnaren bat bezela, bi *R* daramazkiten izenak dauzkagu soil̃ik.

Esandako izen oietan agertzen dan *H'a,* oñar̃i txikia bada ere, ar̃ dezakegu Euzkadi osoan oguzia izan zala usteko. Baña or̃ela izan ezkero, zergatik galdu da zearo egoaldean, eta zergatik geratu da ipar̃aldean? Egoaldean españeraren eragiteagatik, eta ipar̃aldean parantzerarenagatik? Ez dugu uste erantzun argiak eman ditezkela, baña erantzun egokia aurkitzea ere oso bear̃a etzaigulakoan gagoz.

Beste ikuspegi au gaŕantzidunagoa dala esan beaŕ: Egoaldean *H* aspaldidanik ez erabiltzeagatik, euzkerak ez du ezer galdu, ta itzak ipaŕaldean baño argiago esaten eta entzuten dira. Oŕengatik oso bidezkoa deritzaigu, ipaŕaldean ere beste ainbeste egitea; oŕ be itzak argiago entzungo lirake ta eŕazago idatzi ere; ta izari ortan Euzkadi guzirako batasuna egiña izango genuke.

Yakintza'ren aldetik argibideak eman ditezke, noski, *H*'ri buruz, eta argibide oiek geu ontzat artzeko gerturik gagoz; ba-dira oŕelakoak eginda, ta, besteen artean, Mitxelena jaunaren "Fonética histórica vasca" liburuan (Donostia, 1961) esaten dana ikustekoa dugu txit. Baña euzkeraren biziari dagokion aldetik, H *ori* zearo uztea, guztiz beaŕa ta oso egokia agertzen zaigu; egunean-egunean erabiltzerako, alegia, ez yakintzaren ikasketarako. Beste izkuntzetan oŕen antzekoa egiten ari dira, espańeraz ere, beaŕak ez diran izki batzuk kentzen dituztela. Beraz, ez giñake gu bakaŕik izango orixe egiteko. Ta, guziaren gain, euzkeraren bizia da lenengoz begiratu beaŕ duguna; geron iritziz, bizi ori, indarturik izango genuke *H* izkia zearo baztertuko bagenu, kentzea gañera egiteko gauza eŕeza dugularik. Len, apika, itz batzuetarako bederen, idazleen bidetik eldu zan *H* ori Eŕi'raño, ta gaur bide ortatik ere eŕaz utzi lezake Eŕi'ak be. Eŕaz eta ongi burutu diteken lana (1).

Esandakoa idatzi ta askoz geroago jakin dugunez ipaŕaldeko izkelgietan zer gertatzen dan jakiteko, ikus dezagun Iruña'ko "Fontes Linguae Vasconum" (Año VII, Num. 19, enero-abril 1975) aldizkarian agertzen dan "Nicole Moutard" idazleak parantzeraz ematen duen "Etude Phonologique sur les Dialectes Basques" lanean esaten duena; aldizkariaren 35'gn. oŕialdean irakuŕ ditekenez: "Oŕela, irugaŕen atalean oaŕ-erazi duguna, ta Haritschelar jaunak, Baigoŕi'ko Estebe Deuna'ren alderdiari buruz, itzez bayeztu diguna (cf 5.5), ots, izkelgi auetan (sortaldeko euzkal-napartaŕak diran izkelgi-ordekoetan) /h/ ezabatzeko dagoen egiazko jokera, Zize eŕialderako ere berbera dagoela dirudi".

Beraz, ipaŕaldeko izkelgietan *H* kentzeko jokera baldin badago, ez al da zentzunezko bidea jokera ori laguntzea, kentze egoki ori buruturik izan dedin?, ta oŕela, lortu nai dan batasuna, ortan, berez etoŕiko litzakenezkero?

H kentzeko jokera bera, beste izkuntzetan ere ikusten da.

---

(1) Oneraño, "Euskaltzaindi"'aren beŕogetamaŕ urtean, bazkun oŕi egil̃eak, bere zorion-aguŕarekin, bialdu zion txostena.



Ona emen, len aipatu dudan Saussure jaunaren idaztian (198'gn. oŕialdean) irakuŕi ditekena:

"Doitxeraz ... gedinen artean, barneko *h* guzia ayenatu da: Leihen = leien; sehen = seen".

Paris'eko "Le Monde de l'éducation" izpaŕingian, 1976'ko epail̃an irten zan zenbakian, Frantzia'n alpeŕik edo dagozen igidin batzuk, eta beren artean H ere, kentzeko eskatu dute izkuntzari buruz ari diran batzuek, eta ez gutxi; esate baterako: "ph"'ren ordez "f", ta "th"'ren ordez "t" bakaŕik erabiltzeko.

Eta, esan digutenez, Italia'n be, beste oŕelakoren bat egiña daukate dagoaneko.

... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ...

Gaŕantzi aundikoa dalakoan gagoz, azken urte auetan euzkeraz idazteko ta mintzatzeko ere sortu dan mordol̃o-bidea: Gaŕantzi ori ezin esan dezakegu euzkeraren aldekoa danik, aurkakoa baizik, eta neuŕi oso aundian gañera.

Mordol̃o-jokera nola ta zergatik jayo dan begiratzea egokia izango zaigu, berari buruz egin nai dugun iruzkiña ongi gatzaturik izan dezagun. Eta auŕetik, izkuntzari zuzen ez dagokion eŕiketaren kutsutua daukagula oaŕerazi nai dugu, orain beŕiro euzkal-bideetan abiatu dan lenengo unealditik.

Orain beŕiro izan dala diñogu, gauza beŕia ez dalako; joan diran mendetako idazleak ere bide ortan barna ibil̃i ziran eta beren euzkaltzaletasuna egiazkoa izan zala ezin uka dezakegu; baña, euzkerari eusteko beren lan guziak alpeŕik oso egiñak izan ziran eta euzkera galtze-bidean doakigu gaur ere.

Lau aro aunditan ikus dezakegu euzkeraren alde egindakoa: 1) Detxepare'k bere liburua argitaratu zuenetik Arana Goiri'ren ikaskizunak agertu arte; 2) Arana Goiri'k jaŕitako eskola asi zanetik Euskaltzaindi sortu arte; 3) Sortze ortatik 1936'ko guda piztu zan arte; 4) Guda ortatik orain arte.

*Lenengo aroan,* lanegin zuten idazle guziak laterakoiak izan ziran oso, aiei buruz idatzi duten guzien iritziaz. Laterakoi izate ori berez sortu zitzaien guziai ta ez da guretzat ortan aŕigaŕia izan diteken ezer. Idazle aietatik asko, geyenak edo, eliz-gizon izan ziran eta guziok dakigu, ongi, aiek beren ikasketa guziak lateraz egin beaŕ-izan zituztela. Ez ikasi bakaŕik, erabil̃i ere beaŕ-izan zuten, egunero Meza ta beste otoi asko esa-

teko, bai ta beste gaiak erabiltzeko ere. Gañera, latera ta izkuntza ortako idazle onenak guztiz goratuak izan ziran aien aroetan (eta gaur ere askotan), latera kulturarako ezinbestekoa ta bakaŕa zala orduan uste zutelarik. Latera-giro bete-betean bizi ta lanegin zuten idazle aiek eta oŕengatik beren gogoa guztiz laterazko gogoa biurtu zitzaien, beren ikasketa ta gogo-bozoaren zeaŕ. Ba-dakigu, latera-giroa indaŕez galtzen ari-izan dala mendez-mende; baña aspaldiko bere indaŕa ain aundia izan zalarik eta egitan lateraz burututako kultura ain zabal eta sakona dugula-ta, oraindik ere aintzakotzat artzen da alde orotan, eta kultura-gaietan eragiten ari zaigu indaŕez.

Lateraren bidean, beraz, zebiĺen aspaldiko gure idazle ta kulturadun guzien gogoa; ta beste izkuntzak beren burua jasoten ari ziranean, bat-banaka izanezik, etzuten ezer egin euzkeraz ere beste ainbeste gerta zedin; eta gure mintzoerarentzat etzan pizkunderik izan. Oŕengatik gutxi izan ziran beratzaz oroitu ziranak eta gutxi aiek idazten yardun zutenean, latera-gogoaz gatzatu zituzten beren lan guziak; oŕela, lan aiek, neuŕi aundian, mordoĺoz josiak ikusi beaŕ ditugu. Orduan lateraz eta gaur beste izkuntzetaz ere, itzegin, irakuŕi ta idazteko, lenengoz, guzien eliztia ikasten zan eta ikasten da sakon eta zabal; euzkeraz etzan era ortaz jokatu ta norberak betetzen zuen utz ori bere moduz, ez ororentzat izan zitekean oñaŕi berean. Eta aiek bide izan ziran gaur euzkeran ikusten dugun ainbeste erderakada sartzeko. Gero, gure Eŕi'an España ta Frantzia'k jaŕi-erazi zituzten beren izkuntzak, beren irakaskintzak eta beren bizi-era guziak, jokera ari indaŕ izugaŕia eman diote, gure euzkera txirotu ta il-zorian utzi arte. Alakotz, gaur jasan beaŕ dugun ondorio ituna ez da, iñola ere, iñor aŕitzeko.

*Bigaŕen aroan,* euzkal- bizi guziari bezela, euzkerari ere Arana Goiri'k eman zion astiñaldi aundi ta sakona. Bere ustez —egia dan usteaz— erdaldun-gogoak gurean eragiteaz gure abeŕiari era guziko kalteak ekaŕi dizkio, ta gure Eŕi'ak bere gogo bereziari ez eustean, ilkoŕa dan okeŕa egin zuen. Dei zolienetakoa egin zion Arana Goiri'k bere abeŕiari ta bazteŕ guzietan, dei ori eltzean, oyartzunak sortu ziran buŕustaz; eta deiaren egia alderdi guzietan onartua izan zan. Gero, osasunaren biĺa joateko, erdalduna zan guziaren aurka jaŕi ziran-abertzaleak, eta, bidezkoa zanez, erdera beraren aurka ta euzkeran sartuta zegozen erderakada guzien aurka ere. Arana Goiri'k sakonez ikasi zuen gure izkuntza ta bere eskola irasi zuen; oso gazte joan zitzaigun gure gizon burutsu ta bioztun ura, ta eziña izan zitzaion bere euzkal-irakasketan auŕeragoraño eltzea; oŕengatik, bere eskola, lenengo eskola, euzkera zearo garbitzeko xedeaz egiña geratu zan; eta astiñaldiarengatik, bere eskola ura uŕunegi edo joan zan, batzuetan garbikerietan sartzeko aña. Aien aroan eta Arana Goiri'ren asmoak soŕerazi zuten giro berezian, ulertzekoa da orduko jokera; gaurko egunetan be, erdalduna dan aldetik eldu zaizkigun zoritxaŕ aundietaz gogoratzean, berdin jokatzeko gogoa sortzen zaigu barne-barnetik, gure azkatasun osoaren iŕikatzen, gure Eŕi'aren bizia berari dagokion eraz auŕera eraman al-izateko oŕen beaŕa zaigula ikustean.



Bai, Arana Goiri'ren eskola garbizalea izan zan oso, eta ba-liteke norabide ortan oso uŕuti joan zitzaigula. Baña okeŕ ori —okeŕa baldin bada— gauza oso txikia da berari zoŕ diogunaren ondoan: Euzkerarenganako maitasuna, Eŕi'aren bizirako euzkerak duen gaŕantzia nolakoa dan erakustea, euzkera erabiltzeko zaletasuna, ongienik ezagutzeko dugun beaŕa ta irakaskintza ta gai guzietarako erabiltzekoa dan eginbidea, bai ta gure izkuntza gordetzeko gogoa, idazteko ta irakurtzeko egokitasuna ere. Arana Goiri'k eskola ori irasi zanetik, euzkeraren alde egin dan guziak ari zoŕ dizkio gaŕa, adorea ta kemena. Argienik ikusi zuen arek abeŕiarentzat euzkera zer dan, bai ta berari eusteko dagoen bide beaŕena: abertzaletasuna; "abertzaleak baldin badagoz, euzkera gaizkatuko da", esan zuen garbi. Ortik ateratzeko ondorio beaŕa: abertzale baten lenengoetako eginbidea, euzkera jakitea, euzkeraz ari-izatea, euzkera erabiltzea ta euzkeraren alde tai gabeko lanean beti yardutea.

Eskola ura bere osotasunean jaŕaitzea egokia ezpada, oŕela uste dutenek ere ba-dute ta beti ukanen dute artan ikasteko bidea. Beraz, erokeria izan beaŕ ez ezagutzea ta aundiagoa uŕuñutzea. Baña oŕelaxe bide gera euzkaldunok, edozein gauza, txit begikoa ezpazaigu, zearo zapuzteko gerturik gagoz, eta gauza ori eŕikide dan gure anaya eskeintzen diguna baldin bada, miĺa bideŕ areago. Oŕelaxe, gaur, eskola artakoa ala arenganako zaletasun txikiren bat agertzen duena bada, berealaxe "garbizale" izena egozten zaio mukerkiz, izuŕi nazkagaŕienaz kutsuturik edo ankerkeri aundienaren eŕuduna izango balitz bezela.

Garbizaleak oŕen gaizki begiratzea geyegizko dan zerbait dala iruditzen zaigu, eta batzuengan ba-dirudi garbizaletasunaren aurka jotzea baño, Arana Goiri'ren izenak adierazten duenaren aurka egitea berezikiagoa dala. Ta oŕela, naiez baldin ezpada ere, bide ortatik euzkaldunen beste banatzea etoŕiko ote litzaiguken bilduŕa gure baitan. Oŕengatik, euzko-abertzaleai gurbil izatea ta jokatzea beaŕ-beaŕa zaie.

*Irugaen aroan,* Euskaltzaindi'tik eta batez ere bere lenengo zuzen-

daria izan zan Azkue jaunarengandik, norabide egokia esondatu zan: etzan ontzat artzen garbitasunean geyegizko mutuŕera jotzea, baña ez eta mordol̄okeria izango litzaken beste mutuŕera ere; ta erdiko bidea aolkatua izan zan, oberena bezela. Zentzunezkoa izan zan aolku ura ta orduko idazle geyenak ontzat artu zuten eta oŕela idazten ari-izan ziran. Euskaltzaindi'an idazle onenak eta izkuntzalari ospetsuenak bildu ziran; gure euzkerak beaŕ zuena aiek burutuko zutela uste-izan genuen euzkaltzaleok, eta an erabiltzen ziran gaiak eta andik sortzen ziran ikaskizunak, gogoz eta yoranez arturik izan ziran guzien aldetik. Aro artan atera zituzten "Euskera" aldizkariaren zenbakiak ortxe dagoz, eta beren oŕialdeetan barna edonork ikus dezake gure mintzairaren arazoa gorako mal̄etan nola zeramaten euzkaltzañek. Ez da aiztu beaŕ Euskaltzaindi "Eusko-Ikaskuntza" bazkunetik sortu zala, ta bazkun oŕek RIEB zeritzan bere aldizkaria ta aldiro ateratzen zuen beste aldizkari txikiagoak alde batetik, eta urte guzietan udaroan antolatzen zituen ikastaroetan eta lau urteetan bein egiten zituen batzaŕ aundietan, bestetik, euskeraren alde burutzen zuen lana nolako aundia zan, Euskaltzaindi'aren bidetik zuzenduta. Ta ba-dago beste zerbait iñola ere aiztu beaŕ eztana: Euzko-Ikaskuntza ta Euskaltzaindi soŕerazteko asmoa, 1918'gaŕen urtean, Bizkaya'ko Diputazio'an zegozen aldun abertzaleena izan zala. Abertzale aiek Arana Goiri'ren jaŕaitzal̄eak ziran, eta oŕengatik ain zuzen, aiengan esandako asmoa gatzatu zan; ta Diputazio artan erabakia arturik, Araba, Gipuzkoa ta Napaŕoa'ko beste Diputazio'ai eskeiñi zien, asmoa guzien artean auŕera eramateko xedeaz. Ontzat artu zuten guziek asmo ura, ta bereala, urte aren irail̄ean, Oñate'n atondu ta burutu zuten lenengo Batzaŕ aundia; andik sortu zan Eusko-Ikaskuntza, ta onengandik, geroxeago, Euskaltzaindia. Oŕa, euzkaltzale ta euzkaldun guziek ongi jakin beaŕ-izango luketena, egiazko euzkaltzaletasuna nundik eta nola sortu ta bideratu zan, zeatzez ezagutzeko.

Bide aietatik auŕera ta ongi zijoan euzkeraren arazoa ... 1936'gaŕen urtean guda piztu arte. Guda arek guzia bera bota zuen, eta urte luzeetan ezer ere egin eziñean bizi-izan ziran euzkaltzaleak. Azkenez, euzkerari jaŕitako kateak lasaitu ziran zerbait, eta laugaŕen aroan sartu giñan.

*Laugaŕen aro* ortan, gudaren ondorio bezela, ala askorengan arinkeria ta zabarkeria kokatu ziralako, ba-zirudien mende onen auŕeko urteetan egindako guzia aiztutzeko xedea sortzen zala; ta auŕeko beste mendeetan izandako idazleak eredu bakartzat artzeko asmoa zabaltzen asi zan, beste guzia uŕuñatzeko. Asmo ori euzkaltzañak diran batzuengan



ere garatu da, ta gizaldi onen idazle gazteak be bide ortan barna ikusten ditugu asko. Euskaltzaindi'ak berak, 1956'gaŕenean Arantzazu'n ukan zuen batzaŕ batean, bere lengo bidea esondatu zien idazleai, ta ala ere Euskaltzaindi'aren "Euskera" aldizkarian bertan etzaio aolku ari jaramonik egiten, edonor txunditurik geratzeko eraz.

Urte auetan atera diran aldizkari batzuk oŕela datoz, mordol̄okeriz beteta; iŕatiz entzuten dana, oŕelaxe entzun beaŕ dugu maiz; ipaŕaldekoak ziran len mordol̄okeriz idazten zutenak, baña txiki geratu dira ortan egoaldeko gaurkoen alboan. Eta bilduŕ gera: bide ortan barna gero ta auŕerago joan beaŕ baldin bada, azkenez euzkeraren ordez euzkal-erdal-mordol̄okeri nazkagaŕia izango dugu gurean; eta ari euzkera deituaŕen, iñundik ere ez dugu izango egiazko euzkera.

Zeintzuk dira mordol̄o bidean abiaturik dagozenen xedeak? Uste al dute bide oŕen eskeŕ euzkera auŕera aterako dala? Baña, len esan dugunez, berak baño askoz lenago, ipaŕaldean oŕela ari-izan dira aspaldidanik, eta ala ere euzkera atzeraka doakigu egoaldean bezelaxe. Beraz, ortxe dugu argi, bide ori ona ez dala, xede ortarako bederen; ori gorabera euzkera galtzen eta galtzen. Zein izan diteke beste xede bat?, eŕitaŕek itzegiten duten bezela idaztea, eŕitaŕ oiek uleŕ dezaten? Baña, gaur, gure eritaŕ guziak edo geyenak beñepein, erdal-eskolara joan dira ta an erdera ta erderaz ikasi dute guzia, euzkera ezertarako erabil̄i gabe; ta oŕengatik bereziki, beren euzkera erderaz kutsaturik dago bazteŕ guzietan. Eta gañera, idazleak ez dute, iñun, eŕi xearentzat idazten, ongi irakurtzen dakitenentzat baño; ta alde guzietan idatzitakoaren ezagupena eukitzeko, irakurtzen ikasten da lenengoz, eta ondo irakurtzen; beraz, idazlea ez da eŕi xearenganaño jeisten, eŕitaŕak dira idazleenganaño igoten diranak, idatzitakoa jakiteko. Alakotz, gure idazleak ere ikastunentzat idatzi beaŕ dute, txit beaŕezkoa dugu ori; ta ikastunek ez dute mordol̄orik beaŕ ulertzeko.

Zein izan diteke mordol̄ozaleen beste xedea? Garbikerien aurka jotzea bakaŕik? Bidezkoa izango litzake, orduan, garbikeriak uztea baño besterik ez egitea. Zergatik jotzen dute oŕen itsusiz beste mutuŕera? Ez dugu aiztu beaŕ, garbikeriaren aurkakoa zikinkeria dala; beraz, ez ote da zikintzen gure izkuntza mordol̄okeri oien bidez? Izan al diteke, iñoiz, zikinkeria garbikeria baño obea? Ez, iñola ere ez; eta mutuŕ batera ez joateko, beste mutuŕera jotzea erokeria dugu ta buru gabeko jokera. Ortan ez daragi buruak, nai ez danaren aurkako giriñak baizik.

Beste gauza bat ere ikustekoa dugu, jokera oŕen antzekoa dana, edo,

apika, lenengoa bigaŕenaren antzeko. Guda izugaŕi bat jasan beaŕ-izan dugu mende ontan, orain beŕogei urte asi zana. Guda aren irabazleak argi erakutsi zuten lenengo unealditik, euzkera ta euzkaldun-usai txikiena zeramana ere suntzitzeko naia; ta alegiñetan ari dira, eten gabe, ebaki aundi bat egiteko xedeaz: orain zaŕak geranok eta gizaldi beŕien artean gogo-ebaki sakon bat egitea. Ortarako, beren arduraz artu dute ume ta gazteen azikera, ta beren iritziz gogoŕ igurtzita, España'ren asmoa sartzen diete barneraño, eskoletan bereziki ta beste bide guzien barna; bide batez, gutzaz itzegin beaŕ dutenean, gizon gaiztoenak bezela aurkezten gaituzte gizaldi beŕietakoai, gureganako ezespena gutxienez biotz guzietan ereintzeko xedeaz; gutxienez diñogu, askotan goŕotoa dala dirudi guziengan piztu nai dutela. Oŕela, Arana Goiri'k soŕerazi zuen euzkal-abertzaletasuna asi zanetik eta berak gurean euzkalduna zan guzia ondatzen abiatu ziran arteko aldia, nolabait ezabatu nai-izan dute berai dagokien edestitik. Zubi bat egin naiean gañetik, euzkal-abertzaletasunaren uretan iñor saŕ ez dedin; eta gerorako españaŕentzat gure asmo guziak ustelkeri bat bezela gera dakizkieken.

Oŕen antzeko zerbait ere gerta diteke euzkerari buruz: mordoĺokeria Arana Goiri sortu baño lenago, guretaŕek zerabilten bidea zan; ez alaz ere oraingoa dan aña. Eta mordoĺokerietan barna abiatzen bagera, ez ote da suntziturik geratuko Arana Goiri'k eta bere jaŕaitzaleek egindako guzia? Ba al dago xede ori daukan mordoĺozaleren bat edo bat?, edo ba al dira batzuk?; eztakigu jakiña, baña ezin kendu dezakegu susmo ori gugandik.

Aitoŕ ditezken ala ezin ditezken xedeak alboan utzirik, goazen zuzen begiratzera: naiz ebazkizuna naiz bere ondorioak begira ta aztertzera.

Jaŕi ditzagun auŕetik egi borobil batzuk:

1) Euzkera, berez, ez da laterazko izkuntza;

2) Euzkerak bere bizi ta indaŕ bereziak dauzka;

3) Euzkera ez da iñoiz Eŕi osoarentzat eskolako izkuntzaz erabiĺi;

4) Euzkeraren ordez, gure eskoletan eta aspaldidanik, erdera erabiltzen da, ta erdal-gogoa saŕerazten da eskolara doazen guziengan;

5) Euzkeraren ordez, biziari dagozkien beste mail guzietan be, erdera erabiltzeko beartua izan da gure Eŕia aspaldi-aspaldidanik ere;



6) Euzkerari, oŕengatik, erdal-itz, esakun eta zentzunak be itsatsi zaizkio, berarenak ziran besteak bazterturik geratzeko;

7) Euzkerarenganako ez dago euzkaldunen artean, beaŕa izango litzaken maitasuna, askoz gutxiago kexutasunik ere;

8) Euzkerak, bere semeak izan diran euzkaldunen zabarkeria jasan beaŕ-izan du, betidanik;

9) Euzkera izkelgi batzuetan sakabanaturik bizi da;

10) Euzkera batutzeko asmoz izkelgi bakoitzekoak ez dute ia ezer egin nai beste izkelgietara urbiltzeko ere;

11) Euzkeraz eŕaz eta biotz-miñik gabe uzten du euzkaldunak bazteŕean;

12) Euzkera, Euzkadi'ren bizirako duen gaŕantzi aundi ta bein-betikoa ez bide dute ikusten euzkaldunek;

13) Euzkera, esandakoengatik, iltzera doakigu, ta aŕitzekoa izan beaŕ oindiño bizirik irautea.

Euzkerak jasandako guziaren eŕudunak bi dira: Bat, España ta Frantzia; bestea, euzkaldunak berak. Lenengoak, betidanik eta betiko, euzkera suntzitu nai dutelako; bigaŕenak, euzkerari eusteko duten eginbidea bete nai ez dutelako. Jokera bi oiek batera alkartzen diralarik, eta oso egoki gañera.

Negargaŕizkoak diran eta jaŕi dugun zeŕenda ortan agertutako oaŕetatik, lenengo biak nabaritu nai ditugu beŕiro: Euzkera, berez, laterazko izkuntza ez dala; ta, Euzkerak bere bizi ta indaŕ bereziak ba-dauzkala. Ezin uka ditezke bi egi borobil oiek. Oŕengatik, euzkeraren alde lan egokia egin beaŕ baldin bada, egi oiek ezin aiztu ditzakegu, iñola ere. Alakotz, euzkeraren alde egin beaŕ dan laña, ezin eraman dezakegu laterazko bideetan barna, bide oiek laterazkoa danari bakaŕik dagozkiolako; eta, beste aldetik, euzkerak bere bizi ta indaŕ bereziak dauzkanezkero, bizi oŕen barna ibiĺi beaŕ dugu ta bere indaŕak erabiĺi ere, egiazko ta beaŕenezko lana buruturik izan dezagun.

Mordoĺo-bidea artu dutenak, nai ta nai ez, euzkera erderatzen ari dira, laterazko ta beste erderazko bideetan barna daramatelako, ta, oŕela, euzkera gogorkerien bidez aultzen eta elkortzen dutelako. Orain arte

euzkeraz idatzi duten guziak, erderaz ikasi ta jaso dute dakiten guzia, ta ikaste oŕen bidez erdal-gogoa berenganatu dute; erdal-gogo oŕen bitartez ari-izateko beartuak izan dira, biziari dagokion guzirako, ta, jakiña, euzkeraz idazteko ere. Oŕengatik, mordoĺozaleek, euzkera, beren erdal-gogozko bideetara daramate, ta bide oietan barna ibiltzean, azkenez, euzkera erderaz biurturik geratuko da, euzkaldunak erdera erabiltzen eta batez ere ikasten, erdaldun biurtu diran bezelaxe.

Mordoĺo-bide ortan barna, itz beŕiak egiten ari dira eŕuz, eta geyen-geyenetan espańeratik artzen dituzte beaŕ zaizkienak, naiz eta askotan dagozen euzkerazkoak egokiak izan, euzkerazko oiek baztertzeko xede aundia izango bailitzan. Baña, garbizale ez agertzeagatik oŕela jokatzen badute, zergatik artzen dituzte beren oñaŕi-itzak espańeratik eta ez englanderatik edo eŕusoeratik edo beste erdera batetik? Jakiña, ori dagitenak ongi dakitena espańera dalako ta ori eŕezena zaielako, noski. Baña oŕela jokatzean, gurean espańera ta espańerazko gogoa barnerańo sartu nai digutenen xedea egokienik laguntzen dute. Gure Eŕi'an espańerakiko, berez, gutxienik daukana euzkera izan dugu beti; ta orain euzkeran bertan, espańerazko itz, esakun eta jokerak sartzen badira, euzkera espańeratzen joango zaigu, bide oŕen amayean gure izkuntza zearo ezabatu ta suntziturik gera dedin. Eta bein ortara eldu ezkero, ez euzkera ez eta Euzkaleŕi'rik ez dugu izango; alpeŕik izanen zaigu txit, euzkal-abizenak aurkeztea ta euzkaldun-izena eramatea; guzi ori izena bakaŕik izango da ta besterik ez; egiazko euzkal-bizia iĺa izango da gure luŕ gañean.

Beraz, geron gardiz, mordoĺo-bidea, euskerarentzat bakaŕik ez, gure Eŕi'arentzat ere eriotz-bidea da. Guziei, emen ageŕerazten ditugun asmoak, beren baitan aztertu ta irabiatu ditzatela eskatzen diegu. Gaur mordoĺo-bidean ari diranak xede onez diardutelakoan gagoz eta beren naimen onari dei-egiten diogu, ia okeŕean ari diranentz, bakoitzak bere oldozmenez ikusi dezan. Gure arazo aundi ori bizi-izan ala iltzekoa dugu; bere gaŕantzia, alakotz, aundienetako ta bein-betikoa da; ezin arinki erabiĺi, astiro ta sakonki baizik.

Ez dezagun atera euzkera bere bide berezietatik; ikas dezagun ongi gure izkuntza, bide oiek zeintzuk diran ezagutzeko; ta erabiĺi ditzagun euzkeran bertan dagozen jokera ta indaŕak. Beaŕ-beaŕa zaigu ori, euzkera bera gaizkatzeko ta euzkal-giro osotik euzkaldun osoa ere sortu al-izan diteken.

**XVI.—Kultura guziaren eten gabeko edatzea. Elburu ortarako, Gizartelesti'aren sartze-beaŕa. Zortzi orduko lanetik at egunez, beste geyagorik debekatzea, eŕitaŕ guztiak kultura atsikitzeko asti aski izan dezaten. Lana gizonarentzat, ez gizona lanerako. Xede berberaz, Eŕiketa dala-ta, euzkal-erazko eŕi-jaurgoa jaŕi-erazi.**

Ez da atal ontan erabiĺi nai dugun gaia, beŕia, ez gurean ez eta besteetan ere: Kultura guziaren edatzea, gizon eta Eŕi'engan. Gure Eŕi'an XVIII'gaŕen mendean asmo ortaz bildu ziran jaun batzuk —Azkoitia'ko Zalduntxoak— orduan Europa zeaŕ edatzen ari zan kultura aipagaŕi ura Euzkal-Eŕi'ra ere ekaŕi nai-izan zutenak; oso goresgaŕia izan zan asmo ura, ondorio edeŕ eta egoki izan ondoren, arin eraindu zana, geron mugaetatik ateko beste eskuak bertan sartu ziranetik. Oŕela gertatu zaio gure Eŕi'ari Kondairan barna, amaika asmo ta ekintzakaz; amaika ta geyenetan ere, gure osasunerako zer egin beaŕ dugun jakin dezagun; oso eŕaz amor-egin du beti euzkaldunak edozertan, eta orixe okeŕ aundia izan dugu beti, kalte aundiak ekaŕi dizkigun okeŕa.

Baña goazen gure arira: Guk gure Eŕi'an kultura guzia, kultura-gai guziak erabiltzea, beaŕa dugu; euzkeraz erabiltzeko, jakiña. Gai guztiak eta gure bazteŕ guzietarańo ere ezagupena eldu dedin; noski, gure Eŕia, egitan, kulturazko Eŕia izan dezagun. Edatze orokaŕ ori, gañera, eten gabe egitekoa; bere osotasunean belaun bakoitzarengan berdin, gizasemeak beti, guzietarako, utzetik asi beaŕ duelako. Ororekin, beraz, asiera ta jaŕaipena berak erabiltzeko; beti, tai gabe.

Alegia, egiazko gure irakaskintza bein betiko bere galgan izan arte, ots, Euzkadi osoa Euzkaleŕia izan arte, eziña izango da neuŕi berean gure eskualde ta eŕi guzietan berdin ari-izatea; baña arańo igoten geran bitartean ere, uŕats guziak asmo oŕi buruz emateko izango ditugu.

Edatzea, zabalera ta sakoneraz ari-izateko; zabaleran, gai guzietara alde batetik eta gure gizalagun guziengana bestetik; sakoneran, guziek ezagupenak alik eta ongien, alik eta geyenen berengana ditzaketen. Ajo-

la oŕezaz, alpeŕik edo esatea erakunde on eta aundia euki beaŕ dugula; beti obeki jotzeko asmoz, aldatzeko gerturik euki beaŕ-izango dugun erakundea.

Oŕa izari ortan izan beaŕ dugun elburua. Eta, noski, bere auŕean berealaxe sortzen zaigu guzien eta norberaren bizi-beaŕa, askotan gogoari dagozkion arazoetarako astirik uzten ez duena; ez astirik ez eta almenik ere saŕi, beaŕ ori oŕen aundi ta ertsia izaten baita. Ara zergatik Euzkadi'n ororen bizia antolatu beaŕ dan, kultura gaietan ari-izateko iñorentzat eragozpenik izan ez dedin eraz. Eta ara nola datozkigun gure asmoaren lagun onak izateko, Gizartelesti'aren xede ta elburu egokiak.

Gizartelestia, yakintza beŕi bat bezela zabaldu zaigu izen ori daraman irakaskintza, gu jayo ta bizi geran mende landu ontan batez ere. Beaŕ-beaŕa zaigu gure kulturaren arazoetarako, gizartekoa ere erabiltzea. Maiz esan dugunez, gure gizon ororentzat eta gure Eŕi guzirako nai dugu geuk gure euzkal-irakaskintza, gure euzkal-kultura, eta bien bidez Ludi'ko kultura osoa ere. Alde batetik, oŕela egitea zuzenbidezkoa izango dalako; baña bestetik, beaŕena dugulako; notiñez gure Eŕia oŕen txikia izanik, ezin dezakegu euzkaldunik uŕuñatzea, geron kulturaren euslea izan dedin bat ere alboan utzi gabe, euzkaldun guziak orixe izan ditezen.

Gurean bizia gaur atondua dagoen bezela ,egokitasunik ez, kulturaren ezagupena ta ortik soŕ diteken onura, guzienganatzeko; gaur gutxienak ditugu geron Eŕi'an eta eguzpikean ere esango genuke, kulturaren ondasunak gozartzen dituztenak. Bidegabekeri aundia ori ere, gizartelestiak bere kexutasunen artean biziago, euki beaŕ-izango lukena. Ba-dakigu bizi-izateko beaŕa, laŕia dugula oso, ta bera zaintzeko ta onbideratzeko lan izugaŕia egin beaŕ dala, ortan ari diranentzat aski ta askotan geyegi izaten dana. Baña jakitea, kultura, gogoaren ogia dugu, ta ogi ori bereganatzeko, edozein motazko langiĺearengan eskubide oso-osoa ikusi beaŕ; ta gorputzarena bezela, ori ere emateko egiazko alegiñak ditugu egiteko noraezekoak. Gizartearen arloa beraz, gure irakaskintza ta kulturarena.

Ba-dakigu, ongi jakin ere, ez dala arlo ori eŕaz ez eta egun eta urte gutxietan ere zuzentzeko aña; ba-dakigu, ondotxo ere, aspaldidanik egin eta borobilduta dagozen aberastasunak eta bizikera eroso asko, beaztopo ikaragaŕiak izango dirala, bekoak biziaren maĺetan gora ari-izateko, eta onelakoetan beti gertatu dan bezela, indaŕez-indaŕ ibiĺi beaŕ-izango dala mail bakoitza irabazteko. Baña, nai ta nai ez, guda dugu



bizia, gizonengan areriorik topatzen ezpada ere; askoz aundiagoa, anayak geran gizonak alkaŕen aurka jotzen dugunean, eskierki. Dana dala, elburua ona, oso ona ta, gañera, beaŕa dugunezkero, ezin geldirik geratu jasan beaŕ dan guda oŕen auŕean; ekin egin beaŕ, ororena dan eskubideari eusteko ta gure abeŕiak duen beaŕ goŕi oŕen alde.

Auengaŕia da gizonen artean oŕen saŕi ikusi beaŕ dana; naiz Eŕi naiz gizonengan, indartsua dan batek alegiñak dagizki lagun-urkoa zapaltzeko, ontaz edo artaz, ortarako amaika aitzaki aipatzen, oŕela jokatzeko eskubide argi-argiak izango bailituen. Menpekoak bere eskubide, egiazko eskubidea eskatzen du; indaŕik ezpadu jaramonik ez, uŕuñaturik geratzen da osoro; eta indarketan asten bada, bereak eta bost entzun beaŕ, gizartearen arerio zitalena izango balitz bezela, ta indarka ere ixiĺerazten dute aurki. Baña aul ura, egitan altsu biurzen bada, ta lortutako indaŕaren eskeŕ bere kateak austen baditu, orduan ontzat artzen dute alde guztietan eta, ao betean, ongi jokatu zuela nunai esaten da. Indaŕa dugu, beraz, nagusi, ta indaŕik ez duenak, Ludi ontako gaurko erakundean, onartzeko eskubiderik ere ez duela esan beaŕ. Oŕelaxe bein eta beŕiro gizonen artean, eguzkiak gizona argitu zuen lenengo egunetik; eta betiko? Ala dirudi, zoritxaŕez ... eta asieran, alkaŕi entzuten eta alkaŕenganako adei-onez, gauza ta bereizitasun guztiak ongi antolatzea ain eŕaz iruditzen dalarik. Edozein moduz ezin ametsik egin; bizia bera dan bezela artu beaŕ dugu ta auŕera norberak jo, gizon eta Eŕi'ak, al duen ongienik. Gizartelestia, alakotz, irakaskintza ta kulturaren arloetan bete-betean sartu beaŕ.

Bizi-izateko lanaren arazoetan, lankai-aro ontan batez ere sortu diran eztabaida ta buŕuketan barna, eskubide oso ona zan bat lortu zuten langiĺeen alde ziardutenak: egunerako, zortzi orduko lana eguzkipean ontzat artzea. Egitarau polit eta borobiĺa ortarako xedeetan: zortzi ordu lanerako, zortzi atsedenerako eta beste zortzi norberarentzat, jateko, sendiaren beaŕetarako, gogoa lantzeko, ikasteko ta abaŕ. Egokiagorik? Alaz ere asmo edeŕ ori egitean jartzeko bideak ez dira oso eŕaz eta erosoak izan. Lanerako zortzi ordukoa ugazabak ontzat artu beaŕ-izan bazuten ere, obari berezia eskeiñi zioten geyago lanegin nai zuenari, eta beren etxeko beaŕetarako diru geyago ateratzea langiĺe geyenentzat noraezeko zitzaielako egokitzat artu ziran sari aundixeago ematen zieten beste ordu batzuk, zortzietatik at. Baña oŕela, naiz eta apuŕ bat geyago irabazi, langiĺeak beren gogorako beaŕa zuten astirik gabe geratu ziran; ondorioz, gogoak landu eziñean, gizon oiek gizadian ia gauzaen antzeko biurtu

dira; gizartearentzat oŕen kalte aundia dan ez jakite ori zabalduta dago oso, amaika ta amaika gizonengan ikusi beaŕ dana. Alegia, ez jakiñak askoz obeto eramaten dira emendik ara ta andik oŕa; eta eramate ortan, azkaŕa danak nai duena egiten du; saŕitan beaŕ ez dan eraz ere ezer eztakiten oiei buruz; oŕela, gizoste ori berdin doakigu eskumara ala ezkeŕera, bere zuzentzaľeak eramaten duten arauz; kaltegaŕi oso, eta ain zuzen oŕengatik.

Guztiz moztuta geratu zan, egunaren orduak iru zortziko aietan banatzeko asmo ona. Alde batetik, nagusienaz, ola, lantegi, denda ta landolaen beaŕengatik, sari aunditxoagoz, zortzi ordu baño geyago sartu beaŕ. Baña langiľeen aldetik ere, azke geratzen zaizkien orduetan beren gogoa lantzeko alegiñak aski egin ez dituztelako. Egia esan beaŕ alan eta guztiz: yarei-aldi ori beaŕ-izango litzaken bezela ustiatzeko ez daude erakunde bereziak antolatuak, eta geyenetan lanetik ateratzen danak eztaki nora jo ta nola ari, agian bere barnean oartzen duen ikasi ta jakiteko yorana asetzeko. Ortan ere gizartearena eŕua; ez da ikusi edo ez ikusi nai-izan, izari ortan gizaseme guztiengan lortzen dan irabazpidea, azkenez eta ziuŕ, gizarte guziarena ere izaten dala, Eŕi ta eŕitaŕ guzientzako onura edeŕaz.

Beste azpegi batetik ere arazo au begiratzea dagokigu: Egun, lan-biziaren bidez, gizona "tresna" bat bezela erabiltzeko edo dago; ain zuzen oŕengatik, iñoiz baño geyago gaur beaŕ du gizonak —langiľeak batik bat— kulturarako asti geyago eukitzea, bere gizon-garaitasuna gorde al-izateko. Osterantzean, ura, "tresna", "robot" baten antzeko izango da.

Beraz, lanerako orduak gutxiago erabiľi beaŕ ditugu, eta kulturarako geyago. Gizona da eutsi ta gora jaso beaŕ duguna; Luŕ'erako eta, siñisten dugunon iritziz, batez ere, Zeru'rako. Bide ori artzen ezpada, gizona —langiľea bereziki— naiz eta "robot" auŕeratuena izan, aberearen uŕengoa baño besterik ez dugu izango.

Beaŕ-beaŕa izango zaigu euzkaldunoi alegin aundienak egitea gure Eŕi'an bidegabekeri guziak zuzentzeko, eta aŕeta aundiaz ibiltzea beste beŕirik gure artean koka ez dedin. Gizarteari buruzko bidegabekeria aundienetakoa dugu, beste Eŕi'etan bezela, ta oso egokia izango litzaiguke, guziok bizi-izateko erakunde egoki ta askoz obea soŕeraztea. Lenengoz zuzenbidezkoa izango dalako; gero, emen aipatu dugun arlo berezirako, euzkera ta euzkal-kulturarako ere ezinbestekoa dugulako.

Noski, gure kultura guzia edatzeko ta euzkeraz emandako beste



kultura-mota guzia zabaltzeko, ez da naikoa izango irakaskintza osoa euzkeraz emateko antolatua izatea; oŕez gain, eta gaur erabiltzeko ditugun auŕerapen guziak bidetzat arturik —aldizkari, iŕati, zinema, ikus--iŕatia, txiŕika ta abaŕ— amaika ikaskizun, itzaldi ta ikastaroak antolatzea noraezekoa izango zaigu, oso. Jakiña, oietako geyen-geyenak egunez lanean ari diranentzat izateko batez ere. Orobat nekazarientzako, beren ordu onenetan ere emateko. Ikastaro ta ekiñaldi guzti oiek azpegi auetarako zuzendurik izan beaŕ: lenengoz, irakaskizunen egokitasuna; gero, egitarauak, auŕetik alik eta ongien egitea; ordu egokienak; eta ikasle edo entzulea izateko lan dagiten geyenak ikaskizunak artzeko astia naikoa eukitzea. Ikastaldi guzti oiei, agintariek eusteko, eskierki.

Debekatu al liteke zortzi ordu baño geyagotan lanik egitea? Lanaren bizia ez da alde guztietan berdin; oŕengatik ez deritzaigu oso egoki debekatze ori erabakitzea, orokaŕa izan dedin neuŕian bederen. Baña zortzi orduetan egin diteken lana beaŕ dan bezela ordainerazi ezkero, langiľe geyenak uko egingo liokete egunean ordu geyago sartzeko asmoari. Eta oitura bezela geratuko litzake oŕela ari-izatea. Beŕogei orduko lan-astea ere elburu bikaña, bakoitzak astero berarentzako egun bi euki ditzan.

Oso atzeratuta dago euzkera gaurko kulturaren gauzetarako; bestetik, gure izkuntza gero ta gutxiago mintzatzen da; eta beaŕa zaigu bi utz aundi oiek betetzea, azkaŕ gañera: lenengoz, azken bazteŕeraño euzkeraren ezagupena zabaltzen; gero, eŕiaren kultura goratzeko euzkeraren bidez onaŕerazten. Aldi berean ,elburu bi oietarako lanak betetzen ari--izateko.

Asko mintzatzeko ta azpegian ugari ikusteko, esku-lan eta buru--lana, bi lan-mota oien arteko izan ditezken aŕemanetako gaiaz. Asieran, gizon batentzat oso egokia izango litzake bietakoak egin, gizonaren baitan alkaŕi osotu dizaioten; gizona berarentzat onuragaŕi oso, askoren iritziz. Jakiña, eguneroko bizian zaľa izan beaŕ gizon geyenentzako bi lan--mota oiek izatea, batez ere bietatik bizi-izateko aña ateratzeko. Baña oŕela ezpada, ona izango da egun guzian buru-lanean yarduten duenarentzat, lan ori amaitu ondoren, atseden antzo, beste esku-lan bat eukitzea. Eta orobat, esku-langiľearentzat alderantziz; bere bizirako lana egin ondoren, egokienetakoa izango zaio buru-lan bateaz ari-izatea, bere gogoa lantzeko, ezagupen geyago atxikitzeko, ots, bere kultura guzia geitzeko.

Oŕela, gizonaren gorputz eta gogoa, beaŕezkoa dan bezin ongi eli-

katurik egongo lirake. Gizona, bere osotasunean artu beaŕ dugu ta oŕengatik aintzakotzat artu ere bere yoran on guziak. Zoritxaŕez, egiazko ajolik ez ortarako, bizia antolatu digutenen artean; oŕela jotzeagatik guztiz alkaŕen aurka ari diran giza-mota biak indaŕez ari zaizkigu: dirudunak, ekintzaen jabeak, eta langiĺeak, txiroak; alkaŕi gogo onez ez entzuteagatik, beren arteko aŕemana gero ta gorbiztuago biurtu zaigu, ta gaur alkaŕengan ikusten dute guziek beren arerio txaŕena. Bi giza-mota oien tartea, gero ta aundiago ikusi beaŕ eta gero ta zaĺago ere gutxitzeko bidea. Nola egokera ortaz alkaŕen gogoentzako beaŕa ontzat artzea? Oŕezaz ez eta oldoztu ere; eguneko ordu guziak beaŕ dituzte alkaŕen aurkako gudan semeikorik ez galtzeko ta uŕatsak auŕeruntz emateko. Astirik ez norberaren gogo-lanetarako; nola urkoaren beaŕaz era ortan oldoztea?

Bizikera ori ez dagokio gizonari, basatiari ezpada; orduan, oyan erdian al gagoz oraindiño? Ala dirudi. "Gizona gizonari otso"; ala esan da aspaldi-aspaldidanik, eta egiñalak egiten bide dirala esan beaŕ aspaldiko esakun ori, *oraindik* egia dala adierazteko. Oŕa gogo-izarian egiña dugun auŕerapena.

Bere bizia igarotzean gizonak dagizkien gauza guztiak, alkaŕenganako aŕemanetan ari-izan beaŕ; guziak dagizkiena gizona bera dalako, eta nai ta nai ez, aiek gizonagan alkaŕekin aurkitzen dira. Ezin zearo alkaŕengandik aldatu ta bereizi. Anitz eta anitz ari dira gizonari buruzko gai bakaŕ batean sartzeko naiean, beste guziak uŕuñatuz; alpeŕik, ordea, goiz ala berandu, gai batean sakon sartzen bada, beste gaiak ere ikutu beaŕ, bide-erdira irtengo baitzaizkio.

Oŕelaxe ta oŕengatik aipatzen dugu atal ontan gizarte-arazoa; berdin aipatu beaŕ-izango dugu, gero, eŕiketa'rena. Eta beti kulturarenarekin izan beaŕ dituzten aŕemanakatik.

Beraz, oso beaŕa zaigu gizarteari buruz gure sorteŕian bizia ongienik antolatzea. Ez da naikoa izango, esate baterako, euzkaldun guztiak irakaskintza-mail guzietara igoteko eskubidea bera daukatela esatea; ez eta eskubide ori bete al-izateko bide egokiak jartzea; geron ustez, uŕutieneraño eldu beaŕ; ezin ontzat artu, beraren eta bereen bizia auŕera eraman al-izateko, egun guzian eten gabeko lanean iñoren ari-izan beaŕa; noraezeko izango da guziak eta norberak, bizi-izateko egin beaŕizango duten lanaren landa, beren gogoa eratzeko ta beren gogoaren beaŕ guziak asetzeko, egunean-egunean asti aski eukitzea.

Gizonaren eskubidea, bere gorputza bezela, bere gogoa ere elikatzea da; gizonaren aurkako ari-izatea dugu, beraz, gorputzari eusteko bakaŕik erabiltzea; nai ta nai ez, oŕela jokatzea dugu, bizia gizonarentzat oŕen estuki atontzean.



Ba-dirudi orain arte lan-antolatze guziak begiratuta, gizona lanerako dala; ez, lana da gizonarentzat izan beaŕ dana: lana, gizonaren bizirako erabiltzekoa. Orixe gizonari berari dagokion elburua. Bestela, gizona abere baten antzeko artzea da. Ta ordua dugu gizonak aintzakotzat artzeko, bai ta itzalez eta adeiez beterik gizon guztiengan, norberak berarengan ikusi nai duena begiratzeko ere.

Paris'en ateratzen dan "Témoignage Chrétien" asterokoan, 1961'ko lotaziĺaren 22'gaŕenean, "Biologie et Racisme" izenpuruaz, idazlan edeŕ bat agertu zan; bere egiĺeak, Dr. Paul Chauchar jaunak, onela ziñoen: "Gure eginbidea, gizon guziak bere giza al-izate osoak eman ditzakena da".

Gizonen artean, egiazko alkartasunean, edozein gizonak bere eskubideen izarian jasan lezakena, beste guztientzako mingaŕia ere izan beaŕ-izango litzake. Uŕuti gagoz, noski, gizadiarentzako oŕelako erakunde berezitik; ba-liteke iñoiz ere Ludi ontan ikusiko ez dana izatea; baña alan eta guztiz be, oŕuntz abiatzeko guztiz beartuak geralakoan nago.

Alde guztietan ortarako uŕats sendoak emateko, eta bakoitzak bere etxean noski. Guri Euzkadi'n ari-izatea dagokigu, gure anai euzkaldun guzientzako bizi-bide onena antolatzea. Lenengoz, zuzentzakoa dalako, eta gañera gure euzkal-kultura elikatzeko, guziei ere bere laguntza eskatu al-izateko.

Gorputzarentzako beaŕak ongienik atonduta, gogoarenak ere mail guztietan eta sakonki bete al ditzagun. Bide bi oien zeaŕ Euzkadi'ren bizia, berarentzat eta Ludi'ko beste gizonentzat ere emankoŕena izan dedin.

Guretzat eta besteentzat bidezko ta egokia izan beaŕ gure euzkal-kultura eutsi ta edatzea. Ona emen Chauchar jaunak len esandako bere idazlanean ematen duen iritzia: "Iŕikitzekoa izango litzake kultura guztiak beren zabaltzera el ditezela, sartaldeko kulturaren auŕean ayenatu baño, auxe gizadiarentzat galtzea izango bailitzake". "Endakerizale guzia bere burua ezagutzen ez duen eria da, burutu gabeko gizona, giza-aurkakoa. Baña ez da eldu beaŕ oŕengatik, enda-aurkako izan diteken oarkabeko minkunkeriraño, gaurko kultura bereizitasunen bizi argia ukatuko lukena ta arinkerizkoak izango liraken endaen arteko alkartzetaraño elduko litzakena". "Gizartelariak kultura-batasuna auengaŕia

izango luke. Beti bezela, emen ere, Batzaŕ Nagusi'aren Eliza'k eta yakintzak bat egiten dute, ez endaen berezitzea ala orokerizko batutzea iŕikitzeko, beren gizatasun osorano guztien iristea egitan izan dediľa baño, legezko bereizitasunai buruz lotsaren barnean. Endarekiko okeŕari gizonen anaitasunezko ta legezko berdintasuna auŕez-auŕe jartzen zaio; berdintasun ori, ala ere, alkaŕen osotasunean ikusi beaŕ, baña idetasun ertsiaz naspiľatu gabe".

Lentxoago esan dugunez eŕiketaz ere yardun beaŕ dugu, izari ortako bizia gizonaren onerako egokienik ere antolatu beaŕ dalako; oŕela, bakoitza ta ororen kulturarako laguntzazko bidea izan dedin. Kulturarena gizonaren gogoari dagokionezkero ta biziaren azpegi guzietatik ori, gogoarena, nagusiena dalako, naiz eŕiketa naiz gizartearena arenganako laguntzaľeak izan beaŕ, ta xede ortarako antolatzea dagokigu, ala beaŕik.

Eŕiketari buruz, orain arte gizonek antolatu dituzten bideetatik onena, Eŕi-jaurgoa oñaŕiz artzen duena bide dugu. Ez da gaurkoa asmo ori; apika, Ludi'an izan diran lendabiziko eratzaľeak ere bide ortatik abiatu ziran eta mendeen bidean, izenez beñepein, oŕela agertzen zaizkigu emen eta an makiña bat erakunde.

Gurean ere; amaika aldiz entzun eta esan dugu gure Eŕi'an arbasoak zerabilten eŕiketa-era, Eŕi-jaurgo'aren izarian auŕeratuena ta egokienetakoa izan zala. Etxeko ta kanpoko goreslariak, bat izan dira gure abeŕiaren erakunde aren bizi ta ekintza goratzean; gure Eŕi'aren omena mail ortan eraikia dugu egitan.

Ba-du indaŕa Eŕi-jaurgo'aren asmoak, eta gure egunetan nunai ikusten da oŕela dala; eskumako erakunde ertsienetik, ezkeŕeko antolatze goŕienerano, mail guztietan, Eŕi-jaurgo itza norberaren eŕiketa-egitarauan izenpurutzat artzen dute; emengoek 'Eŕi-jaurgo antolakoŕa', angoek 'Eŕi-jaurgo eŕikoia', beste aldekoek 'Eŕi-jaurgo kristaua' edo 'Gizarteko Eŕi-jaurgoa'; bakoitzak izenondo bat, norberari on zaiona, gañeratzen diote, guziek berenganatu nai duten 'Eŕi-jaurgo' izenari. Oŕela, nai ta nai ez, Eŕi-jaurgo'arekiko aintza, ao batez abesten dute danak. Eta norberaren aurkakoak dagiena eraso beaŕ danean, Eŕi-jaurgoa izunez darabiľela salatzen da. Iñoiz ere Eŕi-jaurgoa bera txartzat artzean, ez eta arestian fatxista amoŕatuenak izan diranen artean ere. Oro beraz, izenez, Eŕi-jaurgo'aren alde.

Gaur Eŕi-jaurgoa erabiltzeko, eta dirudienez erabiltze ori ongienik egiten danean, alderdien bidea agertzen da onenetako bezela; geyenen iritziz, noski, arazoa ausnartzeko zerbait gelditzen eztiraŕentzat, ez edo



dago beste biderik, eta izatekotan ere iñundik ez die buruak ematen oiei ura baño obea izan ditekenik; ba-dirudi geyenen abururako erakunde onenera eldu dala gizadia, alderdien bidean sartu danezkero.

Eskierki, Kondairan barna aspaldidanik ezagutu dira margo askotako talde edo alderdiak gizonen artean. Alaz ere, iñoiz egun bizi diran moduan; gaurko alderdiak zerbait oso berezia daukate ta, ene ustez, egokia izan beaŕ berezitasun ori azterkatzea, ta batez ere Eŕi'ai bizirako egokia ote zaien ikustea.

Orain bizi diran alderdiak, geyen-geyenak, guziak ezpadira, asmoai buruz eratuak dagoz. Bakoitzak asmo baten inguruan biltzen ditu bere lagunak eta asmo oŕi eusteko xedea izaten da alderdikide guzientzat nagusiena. Asmo oien artean, gaur geyenak, Eŕi askoren zeaŕ baŕeyaturik daude; batzuk Ludi'ko bazteŕ orotara, ta oŕela endeŕi-lagunarteko alkartasunak ere sortu dira; beraz, Eŕi'en gañeko neuŕian.

Ez da asmo txaŕa Ludi guziko bizia inguratzeko naia; gizon guziok anayak gera, anayak izan beaŕ eta anayak bezela bizi-izatea dagokigu. Egi utsa. Baña galbide bat ikusteko, norabide ortan: Ludia begiratzeaŕen, Eŕi'en arazo ta beaŕak uŕuñatzea; eta Eŕi bakoitza, gogoaren izarian, kulturarekiko, zerbait bada ta bere bizian barna, berarentzat eta gizadiarentzat ere, etekin obe ta geyago lortu ta eman al baldin badu, uzta oparotsu guzti ori galtzeko zorian egon gaitezke. Asmo-alderdien zabalean ortxe galtzori aundi bat.

Alabaña, Eŕi'en eta Ludi osoaren beaŕak alkartu ditezke, ta ez deritzaigu alkartze ori egitea oso zaľa izan ditekenik. Beste aldetik ikusi beaŕ da bereziago ia alderdien erakundea, egiz, onuratsua danik, benetan Eŕi-jaurgoari buruz egokia dugun ala oŕela izan dezakegun.

Gaur jaurleak izendatzeko, era batzuetako auteskundeak egiten dira bazteŕetan ,eta autatzeko aurkezten diran sandi ta berendiak oro, alderdiak dira ipintzen dituztenak; eta gizaseme guztiak, emaztekiak ere askotan, autesle ditugu. Amaikatxo deadaŕ eskubide ori guziengan onartzeko entzun eta entzuten beaŕ diranak.

Sutsu ateratzen zaizkigu autagaiak eŕiz-eŕi autarkiak irabazteko xedeaz, askotan eŕi oiek eta beren beaŕak ezagutu gabe; saŕi, beaŕ oiekiko ajolarik gabe. Eta gartsu ere autesleak beren autarkia emateko sartzen dira, maiz ere, geyenetan edo, beaŕ-izango litzaken bezela iñundik ezagutzen ez duten emengo ala angoaren alde. Ororen eskubide ori oŕela betetzean, ikustekoak dira gorenengo bide oŕen zaleak lerde dariotela,

onela mintzatzen: Eŕi'ak bere autarkia eman du, Eŕi'ak bere naia ageri--erazi du, oŕa Eŕi-jaurgoa!

Eman dezagun autatze bide ori baldintza onenetan erabiĺi dala, begira dezagun Eŕi guzietatik ondore onenak ikusten diranetan; jakiña, bi edo iru alderdi aundiak soiĺik dauzkaten endeŕi ala lateŕi auŕeratuenen oietan zer jazotzen dan. Alderdi asko dauden tokietan, naste izugaŕia ikusten da beti, endeŕien bizirako eragozpen aundienetako izaten; eta saŕitan, indarkeriz jaŕitako alderdi bakaŕa onartzen duen erakunde gogoŕ bateruntz bidea zabaltzen dute itsuki oso.

Ortxe dugu eredu onenaz bi alderdi aundi baño besterik ez duen endeŕi bat. Auteskundeetan, bi oietatik bat ateratzen da garaile ta bera izaten da jaurlariak jartzen dituena. Ba-dakigu bigaŕen alderdia ez dala geratzen zerbait egiteko eskubiderik gabe; ori ostetasunean geratzen da, bestea salatzeko eskubideaz. Batzuetan eta arlo berezi batzuetarako ere ontzat artzen dute garaileak besteen bat edo batzuk jaurgorako ipintzea. Beraz, ortxe ikusi beaŕ erakunde oŕen bide onen eta egokiena.

Ala ere, nork agintzen du, Eŕi'ak ala alderdiak? Alderdiak noski; oŕek aurkezten ditu autagaiak, eta auteskundeetan oien aurka beste batzuk jaŕi nai-izan ezkero, beste alderdi baten bidez egin beaŕ; ezin edo oso zaĺa beste bidetik betekizun ori egitea. "Alderdien jokua" deitu da askotan autatze-bide ori. Baña zer da alderdi bat?; alderdikide geyenak bil ditzaken aundiena, eŕikide-talde txiki baten elkargoa izaten da geyenetan, endeŕiko seme guziekin erkatzean; eta elkargo ori da agintaritza bere eskuetan artzen duena. Izen batzuk ematen dizkiete eŕitaŕai, oien artean autatzeko, ta paperetan oŕelaxe gertatzen da: gizon batzuk geratzen dira autatuak; baña gizon oiek auteskundeetarako aurkeztean eta gero legeak egiteko biltzen diran batzaŕetan, beren alderdien norabideak jaŕaitzen dituzte geyen-geyenetan; ez dira oiek, beraz, egiazko jaurlariak, beren gañetik eta beren nagusia dagoen alderdia baño. Alakotz, eŕitaŕak etzituzten autatu, egitan, gizon batzuk, beren ordezkariak, aldunak, izan beaŕ-izango liraken gizonak, alderdi bat baño. Oŕela, alderdi ori talde baten elkargoa izanik, gutxienen eskuetan geratzen da geyenena izan beaŕ-izango litzaken almena. Eŕia, naimen onenaz ere, guztiz atzipeturik geratzen da. Oŕa egia.

Ez da, oŕengatik, alderdien jokua Eŕi-jaurgoa erabiltzeko bide egokia. Beste bide egokiago izan diteke, ba edo da, ta izango ezpalitz ere atondu egin beaŕ-izango litzake. Baña ba-dagoela esan dugu; ona emen bat bederen: euzkal-bidea.



Euzkadi'n aspaldian erabiltzen zan bidean, alde guzietatik oŕenbeste goresmen irabazi dituen erakunde artan, sendien gañetik, uri-batzaŕa zan eŕiketa guziaren oñaŕia; oŕa asiera, ta erakunde guziaren beste maĺetarako, uri-batzaŕak ziran beren ordezkariak bialtzen zituztenak. Uri--batzaŕetan, beraz, gure arbasoen eŕiketa guziaren mamia.

Eredu aren antzekorik egin ote diteke gure egun auetan? Baietz uste dugu. Ezin oŕialde auetan erakunde oso baten zeatz guztiak ikasi ta adieraztea; beste batzuk dira liburu onen xedeak, eta eŕiketarena bidez bakaŕik aipatzen dugu, geron elbururako, ortan ere laguntza biĺatzeko naiean.

Ontzat artzen dugu geuk oŕenbeste goratzen dan autatze orokaŕa, ots, gizon eta emakume guziengan, autarkia emateko eskubidea. Baña erokeria deritzaigu bide ori auteskunde guzietarako erabiltzea. Eŕitaŕai, eŕitaŕ guziai, lau urtetik lau urtera, esate baterako, bein bakaŕik eskatuko lieke esandako beren eskubide oŕen ondorioa dan autarkia ematea; autarki ortan, uri ta eŕi bakoitzean jakiña, uri-batzaŕa, osotu beaŕ duten gizonak autatzeko. Eta xede bi auetaz: 1—eŕiko ziñegotziak eta endorea izateko; 2—beste maĺetako erakundeetarako egin beaŕ-izango liraken auteskundeetan, autesleak eta autesle soiĺak izateko. Gure egunetan ere orixe egin da, ta ontzat artu zan bide ori gurean: 1936'ko uŕiĺaren 7'gaŕenean, Agiŕe'taŕ Yoseba Andoni jauna oŕelaxe izan zan Lendakaria izendatua Gernika'n. Beraz, asmoa ez da gurea, gure Eŕi'arena baizik.

Ain eŕikoia izan zan eta gure abeŕiaren ziñopa egin ziguten Ariztimuño'taŕ Yoseba apaiz jaunak onelaxe diño bere "La Democracia en Euzkadi" liburuan (281-2'gaŕen oŕialdeetan) ("Ekin"'ek argitaratutakoan): "Ez gera aburukide autezkunde guztietan, naiz uri-batzaŕ, naiz erki, naiz endeŕikoetan, Eŕi'ak lankai bat bezela joka dezala nai dutenekin. Oñaŕiz Eŕi'an datza Eŕi-jaurgo'aren lenengo jokua, bere uŕenengoko jaurleak autatzeko. Baña bein oiek izendatuta, berak dira eŕiketari buruzko ezagupen aundiagoz, ekin al-izango dutenak, eta arazo ortaz ari-izateko sen obeaz, beste goiko maĺetan sartu beaŕ diranak ongien autatu al-izango dituztenak". "Euskal-uri-batzaŕak yarei izango dira, erkiak eta lateŕiak, auen jatoŕizko elburuak gutxitu gabe, utzi dezaketen goiko eran".

Norbaitek galde dezake: eta alderdiak, eŕiketarekiko alderdiak? Ez zaie oŕelakoei eragozpenik jaŕi beaŕ; nai aña izan ditezela, beren asmoak azkatasunean zabal ditzaten; baña ez diete berai bakaŕik ontzat artu beaŕ Eŕi'ko jaurleak aurkeztea ez eta erabiltzea ere. Jaurle oiek, benetan,

eritaren ordezkariak izan bear; eta eritarak dira, bitartekorik gabe, izendatu bear dituztenak.

Beraz, alik eta bizi aundiena eman bear zaie uri-batzarai, iraungariago izan diteken erakunde bateaz. Eriketari buruz, noski, lenengoz, baña, orela, eritaren kulturarako ta gure izkuntza onen alde ukan bear dituzten eginbideak obeto bete al ditzaketen. Xede oietarako bide oso ontzat daukagu gure uri-batzarak orelaxe izatea.

Alakotz, euzkal-kulturari asti gutxienik kentzeko, ta bide batez, aitzitik, alik eta geyen laguntzeko, Eriketa-bizi egokia jari bear da euzkal-eri-jaurgoaren oñarien gañean; al bada, alderdirik gabe, eta batik bat iraungaria izan diteken eran.

Eta arazo ontan ongi begiratzen badugu, irteera gure Eri'aren izakeran bertan dagoela ikus dezakegu; beste ainbeste gauzetan bezela.

**XVII.—Euzkadi osoan, euzkaldunak oro euzkaldun osoak izan ditezen, bizi guzia antolatzea. Kanporatzen diran euzkaldunak berebat iraun al dezaketen ere. Etxetik at eta barnean oro bat izan, Euzkadi ta Gizadi osoaren onurako; bai ta gizon guzien arteko pakearen onurako ere.**

Aureko atalean nabarigari jari dugu, eritar guztien artean gogo-lantzea egitan eda dedin, bizi-izateko beara dan lanak ez dituela bete egin bear gizonarentzako aldi ta beta guziak. Lana gizonarentzat izan bear dala esan dugu, ez gizona lanerako; beraz, gizona artu bear da beti, lana baño lenago, lana baño mail guztiz gorenagoan. Eta gizonak, orela, egunero euki bear duela asti aski bere gogo-lantzea egin eta obetzeko. Egunean zortzi orduko geyenez egiñik, gizarteak naikoa eman bear diola bere bizirako ta bere pean izan diteken sendiarentzat ere.

Orela, jakiña, gizona guk nai-izango genuken bidean barna joan dedin, indak atondu litezke; erokeria izango bailitzake edonori norabide on bat erakutsi, gero oztopoak jartzen balitzaizkio; osterantzean alegin aundienak ditugu egiteko, alik eta eraztasun eta laguntza aundienak aurki ditzaken. Ezin gizona bakarik uztea, guzia berak egin dezan, batez ere emen aipatzen dugun guziona izan bear dan lanerako.

Landarea bear dan bezela azi dedin, bere zabaltasun guzian edatzeko, egokia zaion eguratsean bizi bear da; eziña da, gero, palmondoa, esate baterako, izoztuta dagoen lurean kozkontzea; bakoitzak eguratsa, giro ta lur bereziak bear ditu, beregan daramazkien indar guziak sor ditezken eta dagokion aunditasun güziraño el dedin.

Orobat gizona, berebat euzkalduna, euzkaldun osoa izateko; jayo-unealdetik asi ta bere bizi guzian euzkaldun eguratsean bizi-izatea dagokio bereziki. Ezin oldoztu dezakegu ortarako, baserietan zedariturik bizi dedila, Goi-Amerika'n bertako indiarak dagozen eraz, edo landare batzuetarako atontzen dan negu-toki berezi batean bezela; ez, euzkaldun gizonak, beste gizon guziak bezin ongi aurkitu bear ditu bide guztiak zabal-zabalik, bere oldozmen eta indar guztien arauz, bizi oparotsu-

ena izan dezaken. Euzkaldun-zuŕian, Euzkadi guzia izan beaŕ zaio, alde guzietatik eta elburu guzietarako, bizi-leku egokia, ots, Euzkadi guzia Euzkaleŕia oso.

Beraz, argi dago euzkaldun osoa ezin izan ditekela berariz egiten dan gauza bat bakaŕik, euzkaldun eguratsean berez soŕ dedin atsonez beteriko lorea baizik. Ortarako, jakiña, bere abeŕi guzia baratze egokia izan beaŕ zaio, arean, euzkaldun utsa.

Alakotz, Euzkadi guzian, bere bazteŕ orotan edatuko dan bizia, euzkaldun izateko antolatu beaŕ-izango da, sorteŕian jayo ta bizi ditezen guziak, egiz, beren gogoen beaŕ guzietarako euzkaldun bideak aurki ditzaketen. Bizi guzia Euzkadi'n euzkaldun izateaz okitua, mukuŕututa egon beaŕ. Oŕela antolatuta izan diteken bizian, egiazko euzkaldun bizian, giza-seme guziak euzkaldunak izango ditugu berez, jayotzez, eratzez, azitzez, beaŕezko bizi-izatez. Eta txit oparotsua izango dan euzkaldun bizi ortan, euzkaldun osoak izango ditugu ondorezko zitu egokiak.

Asko aldatu beaŕ-izango da bizia gure abeŕian, eŕotik oso. Mendeetan barna atzeraka ta bere izakeraren aurka, itsu ta isituki eratua izan da euzkaldunen bizia; ba-dirudi gogoz irendu nai-izan dala euzkaldun semea. Alaz ere, barnean datzan endaren indaŕaz, batzuen batzuk ekin eta auŕera jo dute, ta gizadiaren gogo-aberastasunean euzkaldun bitxi edeŕak agertzen asi dira. Uŕi baña, oso gutxi ta muŕi, gerongandik eman beaŕ-izango genukenerako. Goiko maĺetaraño igo diranak ere, beren izakerari dagozkion bideetan ibiĺi al-izan balira, ezin el ote zitezkean eŕazago ta gorago ere? Nork esan! Baña bidezkoa oŕelaxe uste-izatea. Eta bide batez, zenbat eta zenbat euzkaldun, beren burua edatu al-izan gabe geratu beaŕ-izan diranak, oso aŕotz eta aurkako izan zaizkien bideetan ibiltzea noraezeko izan zaielako!

Esango digute, otean, alde guztietan gertatzen dala ori, beren bidea ezin aurkitzeagatik, atzean geratu dirala giza-semeak asko. Eta egia da; baña iñun, nere ustez, beren abeŕian bertan berezkoa dan bidea, gurean aña eragozpideturik izan zaielako. Europa'n bederen; Apirka ta Amerika'ko luŕaldeetara joan beaŕ-izango litzake beste ainbeste ikusteko. Eskierki, izugaŕia dugu enda zuriak Amerika'n burututako enda-erailtzea, oraindik ere ango indiaŕ geyenak gero ta basatiago biuŕerazten dituztelarik. Biotzez opa diegu ipaŕaldetik egoalderaño an bizi diran indiaŕ guziai, beren izakerari dakogion neuŕian, noizpait beren bizia kozkondu al-izatea. Ba-dakigu len, asieran eta luzaroan ere, zuriak izari ortaz zer zegitena jakin gabe ziardutela, baña eztakigu, gaur, jakiteaz ere, beaŕezkoak diran bi-



deak atontzeko oso gerturik iñor dagoela; batez ere Europa'n bertan oŕenbeste argi, eskubide, yakintza ta auŕerapenen iturburu izan dan alderdi ontan, gurea bezelako enda-erailtzea lasai ikusi ta uzten danean.

Goazen, alabaña, guri dagokiguna ikustera; naiz eta besteen itzal eta babesa eskatuaŕen, geu gera, bereziki, gurekiko diran arazoetan lenengoz eta gogoŕagoz ari beaŕ dugunok. Eiki, guk uzten badugu, nor etoŕiko gurea danari eustera? Geron aldetik ekin eta ekinaŕen, ez da oso eŕaz izango besteren laguntza aurkitzea; bost ajola bakoitzari Ludi ontan alboko etxean edatzen ari dan zorigaiztoaz. Oŕelaxe da bizia, alkartasunezko gogoa beti uŕi, eta bakoitzak atera beaŕ ditu eltzetik bere babak; auxe edozein arazoetan agintzen duen lege gogoŕa. Alaz ere gure Eŕi'aren biziari oŕen zoŕotz dagokion arlo aundi ontan, lege ori barik gure eginbidea da agindu beaŕ diguna; lenago eŕan badugu ere, beŕiro esan beaŕ, gure abeŕiarenganako lendabizi ta gizadi guziarekiko gero, ertsi-ertsi dugun bearkizuna du gure ari-izate ortan ikusi beaŕ dana. Eta bearkizun onek bultzaturik, auŕeruntz jo beaŕ, ekitean, beti ekin eta ekin; aberkideak oro euzkaldun oso izatea jomugatzat arturik.

Gure abeŕi guzia, nai dugun bezela euzkalduntzeko, geron buruz eta gurbil, bai ta gogoŕ ere, yardun beaŕ-izango dugu. Kultura gaietan oso erdaldunduta dago gaur abeŕia, eta biziaren beste azpegietan orobat eskualde geyenetan, ia-ia oraindik euzkeraz mintzatzen danetan ere. Euzkera ta euzkaldun-bizia barnetik maite dituenarentzat oso egokera ituna gaurko gure sorteŕiarena. Eta ortik asi beaŕ dugu gure luŕ gañean bizi-izateko beaŕ dugun geron gogo-etxe beŕia eraikitzeko. Oŕela mintzatuaŕen, ez zaigu aiztutzen, ez ditugu iñola ere aiztu nai, xede ortaz ari-izan diranak eta beren lan onak; aitzitik, lan oiek alpeŕik egiñak ez izateko, guretzat eta gure lan beŕietarako, oñaŕi bezela artu beaŕ ditugu. Abeŕia jasotzea alkartasunean egin ditzagun lanen bidez lortuko da, eta alkartasun ortan, mende onen lenengo erdian egin eta erabiĺitakoak ditugu lenengo tokian jartzeko. Ba-dira, berak bizira eldu arte ezer egin ez dala uste dutenak; ezin murgil gaitezke gu okeŕ aundi ortan; gure auzi ontan ere eratortzea dugu bide erdian, eta auŕeruntz dijoan uaitzean gure burua sartu beaŕ dugu bere oldarmena indaŕtzeko.

Auŕeko ataletan, uste dugunez, argi maŕatu dugu gure auzi aundi ontan nola jokatu beaŕ dugun. Egitarau guzia irakaskintzan asi ta jaŕaitu beaŕ; irakaskintzaz ereiten danak beti bere zitu ta arnari dakarzki ugari; irakaskintzaz ume ta gazteen gogoa eratzen da egokiro, bai; eta ontarako xederik ez izanaŕen, biziaren jokera guzietara sakon yarduteko

ditugun eragipenak, arek eratu ta zuzendurik doaz. Asmo au emen bar̃iro aipatzen badugu, ontarako da: guretzat, gure euzkal-irakaskintzak xede berezi ori ere euki bear̃ duela esateko, gure aber̃i osoa euzkalduntzeko eta or̃ela, bere mugaen barna oro euzkalduna izanez, egiazko euzkaldun osoak geron aberkide guziak izan ditezen. Or̃ela gaizkatuko da euzkera, eta berarekin sorter̃ia ere; bere biziaren bear̃ eta egokitasunerako; bai ta, bere neur̃ian, gizaldi osoaren onurako ere.

Ez edo da gurean bakar̃ik, ez eta bereziki ere gertatzen, ez; baña gurean ere bai, besteetan jazoten dana ikusi bear̃: etxetik at bizi-izatera doanak berealaxe bazter̃eratzen du etxeko guztia; izkuntza lenengoz, oiturak, erlijioa, bai ta batzuek izena ere; ber̃iro jaio nai-izango balu bezela.

Or̃en txikia dugun sorter̃iarentzat kalte aundia dator̃ jokera ortatik. Ba-da, izan ere, gauza txar̃a berarentzat, odolezko semeak galtzea, seme askorena sar̃i, guda baten ondoren batez ere. Baña txar̃agoa, geron ustez, gogo-izarian ere alde egiten dutenen ainbat galtzea. Gorputzez eta gogoz, kaltegar̃izko galtze izugar̃ia, galtze osoa.

Bat edo beste agertzen da noizean bein, atzer̃itik itzulia, aberats okitua, bere er̃iaz gogoratzen duena. Baña oietako geyenak egiten dituzten lanak ere, maiz eta ez jakiñean, euzkal-gogoaren aurka izaten dira, zoritxar̃ez. Bat-banaka egiten diran lan oiek ongi zuzenduta egon bear̃-izango lirake, Er̃i'arentzat ona izango litzaken norabide egokian. Ortarako, noski, —eta euzkal-gogo-lantzearen arloaz batik bat oldozten dugu orain— gure euzkal-irakaskintza ta euzkal-kultura zainduko lituken gorengoeneko erakuntza berezia bizi bear̃-izango litzake gure Er̃i'an, egiazko elburuari artez zuzendurik eta guztien alegiñak onuragar̃ienak egingo litukena.

Jakiña, Euzkadi osoan len aipatu dugun euzkal-eguratsa izango balitz, kanpora joango lirakenak egurats or̃en barnean eraturik izango lirake ta or̃engatik ez zitzaien aiztuko beren aber̃iaz orain gertatzen dan bezin er̃az eta usu. Alaz ere, orduan be, gure kulturaren begiraleak erakunde berezia antolatu bear̃-izango lukete gure kanpotar̃ak aber̃iarentzat betiko galduak izan ez zitezen.

Aitzitik, oiek ere, naiz eta beste Er̃i'etan, beste izkuntza ta beste kultura ikasi ta berenganatu bear̃-izanar̃en, euzkaldun osoak jar̃aitzeko gogo biziaz ari bear̃-izango lukete, ortara gazte-gaztedanik nai biziaz makurtuta izanik.

Ez deritzaigu ori gauza zal̃a izango litzakenik; euzkeraz gero ta



gertuago, norberaren gogo-almenak gero ta indartsuago ere; noski, jayo ezkeroztik, gogo berean bere izaera guzia eraturik izango litzakelako; eta bere gogoari dagokion bidean barna ari-izango bailitzaken, oztoporik ez, indarkeririk ez, bere izaera zearo eratzeko; ez beste izkuntza ta beste kulturaren oztoporik, ez eta oiek indar̃ez ar̃eraziko lizkiokenik ere.

Eta euzkalduna, euzkal-gogo utsez atondurik, bere gogo or̃en almenak egokienez gertuta, beste edozein kulturara joan liteke bere berezitasunaz er̃azago jabetzeko; bildur̃ik ez orduan, kultura ber̃iagatik, bere Er̃i'koa aiztuko litzaiokenik.

Beraz, kanpora joango dan euzkaldunarentzat, oso egokia dugu euzkaldun osoa egiña atzer̃ira abiatzea. Baña Euzkadi'ri ere oso noraezeko ta bear̃a zaio eguzkipeko bazter̃etan bizi ditezken beren semeak, or̃elakoak izatea. Gutxi gera euzkaldunok; aber̃iaren mugaen barna beti ere gutxi izateko, ala bear̃ik. Eta gure barneko kopurua or̃en zedar̃itua izango dugulako, beti edatze medar̃a izango da Euzkadi guzikoa, gure izkuntza ta gure kultura, bear̃ zaizkien mal̃etan igota, bertan iraunerazteko. Bear̃-bear̃a izango zaie barnekoai, kanpoan ere zabaltzeko bideak aurkitzea; eta bide oiek lekorera joandako euzkaldunen artean aurkitu bear̃; nun, osterantzean?

Euzkera ta euzkal-kulturaren edatzerako, bai ta bear̃ dan bezela eusteko ere, argi-argi agertzen zaigu, biak norabide bietara beti abiatzea: sorter̃iaren barneko bazter̃ guzietara, eta atzer̃ian bizi-izango diran euzkaldunek eratuko duten alkartasunera; biak ere, azkenez, bat egiten. Batasun ortan ikusi bear̃ gure izkuntza ta kulturaren gerokoa. Eta kanpoan betiko kokatuko diranak, egiazko euzkaltzaleak izanik, beren ondorengoai gogo berea ar̃erazten badiete, gure euzkal-baranoa benetan zabalduko litzake.

Eskierki, kanpoan bizi ezkero ta bertan jayotako umeak, dena den Er̃i'an, or̃en azierakundeetan sartzen badira, oso zal̃a izango zaie oiei euzkal-gogoan norberarena edatzea; aitzitik, guztiz menperaturik geratuko dira edonungo erdal-irakaskintzaz batik bat. Eta euzkaldunai kanpoan jayoko zaizkien ume oiek euzkaldun jar̃ai-erazteko ez dugu ikusten bi bide baño: egon ditezken tokietan, euzkal-ikastetxeak idekitzea, ala umeak euzkal-azitasuna berenganatzeko Euzkadi'ra bialtzea. Naiz lenengoak naiz bigar̃enez diñogun bialtze ori Euzkadi'ren agintariak eratzeko ta eusteko; noski, gurasoen laguntzarekin eta atzer̃ian bizi-izango diran euzkal-erakunde ta bazkun guzienarekin ere.

Barnerano sartu bear̃-izango litzake euzkaldunen aburuan, or̃ela jo-

katzeak izango duen gafantzia. Lenengoz, gizaseme bakoitzarentzat, euzkal-kulturaz egiña izan ezkero, biziaren aufean bere burua sendoago ikusiko duelako; eta bigafenez, berarentzako ofen on izan dan euzkal-gogoa, ofela, gero ta indartsuago izango dalako.

Geyago oraindik. Orain arte, erakunderik gabe ta norberak bere kabuz jokatzean, euzkaldunak, ibilitako alde guztietan, ofen oniritzita izan baldin badira, egon diran Efi'entzako oso onuragafitzat arturik, guk nai-izango genuken bezela joango balira, bidezkoa zaigu oniritzi ta onartze oiek aundituak izango lirakela uste-izatea. Eta ondorioz, argi agertzen da gizadiarentzat ere euzkaldun-osoaren egipena egokia izango litzakela.

Noski. Asmo auetan barna ari geralarik, euzkaldun osoa bere abefiarentzat beafa ta gizadiarentzat egokia dala ikusten dugunean, pozez betetzen zaigu barne guzia, bi xede oietarako euzkaldun osoaren asmoa txit berebizikoa agertzen dalako. Gizonaren, abefiaren eta gizadiaren onari buruz, kezka berezi ta sakona geron baitan daramagularik. Zoritxafa izango litzake guretzat, esandako iru on oiek nolabait gure erakundeetan alkafen aurka bezela ageriko balira. Baña, ikusi dugunez, ederkienik alkartzen dira irurak, gure abefian biziari eta batez be gogo--biziari eman nai-izango genioken norabidean.

Gure indafen izarian, bai, baña ofen barnean eragin dezakegun gogo bizienaz, Mundu'ko pakearen alde lan egitea, bearkizun ertsia dugu guretzat, gizon guzientzako bezela. Eta guzientzako onuragafi izateko gure erakundeak egin nai baldin baditugu, ondorioz, pakearen alde ere izango dirala bayeztu beaf.

Gure bizi ta izakera ofela eutsi ta sendotzeko geron izkuntza ta kulturaren bidez, ots, gure gogo berezia indartzearen bidez, egin nai baldin badugu, orobat opa diegu Ludi'ko beste endefi guziei ere; norberak bere gogoaz berebat egin dezan. Ez ote litzake ofela guzientzako zuzentza, egokienez indartua izango?; eta norberak zuzentza orokaf ofen pean bere burua babesturik ikusita, ez ote genuke izango benetan pakea, gogof zabaldu ta tinkoturik gañera?

Gizadiarentzat pakea ofen on aundia izanik, bera lagundu ta indartzeko, txafak izan ez ditezen bide guztiak erabiltzea dugu egoki. Guk gure Efi'arentzat egin nai ditugun erakunde guztiak, ortarako ere buruturik ikusi nai-izango genituzke. Ezin, zindozufian, beste xedeaz jokatzea.

Al-izango balitz ere, ezin ontzat artu, gure abefiaren muga tartean kokatu ta bakartzeko asmorik; luditafak gera, beste gizonen anayak, eta



ofengatik oienganako, gizon guzienganako, eginbideak ditugu, aiek guganako bezela, noski.

Ludi guziko biziari buruz kexutasunez beterik egon beaf dugu; ez geron aldetik bizi ofekiko eragozpenik ez izateko bakafik, bai ta bizi ofen edatzerako gure laguntasun aundiena emateko ere. Gernika'ko ereserkiaren "eman da zabal zazu" esakun ospetsua mila bider esan eta erabili da, guregandiko asmo ta xede zabalak adierazteko. Onak ditugu, eskierki, asmo ta xede oiek, baña emateko euki beaf da, ta gure Efi'ak ez du eukiko, ez berarentzat ez eta besteentzat ere, iltzen bada. Ofa zergatik, besteentzat ere gure bizia onuratsua izan diteken.

Esan eta jafi dezagun, alakotz, argi ta garbi, gure Efi'aren eriotzaz iñorentzako onik jafaituko ez dala, kaisarkerizko asmoetarako ez baldin bada, eiki. Osterantzean, gure Efi'aren biziak iñorentzako kalterik ere ekafiko ez duela; eta gañera, bizi ori, bere izarian beti, gizadiarentzat oso onuratsua izango dala.

Beraz, gure abefiaren biziari eustean, guretzat eta gizon ororentzako lan egokia beteko dugu, enurarik gabe. Eta ororentzat ona dana, ez ote dugu gizadiari ofen beafa zaion pakea laguntzeko ta indartzeko bide egokienetakoa izango? Orixe geron iritzia, bai ta geron nai biziena ere: eskierki, gure Efi'arentzat eta gizadi guziarentzat onuratsu izatea.

## XVIII.—Barnerako ta kanporako euzkal-kulturak duen gafantzia. Euzkadi'ren xede nagusia. Erlijioa. Euzkaldunak, Euzkadi ta Gizadi'arentzat.

Aufeko atalean erabiIitako asmoetan barna, geyago ari-izatea dagokigulakoan nago. Eiki, gure Efi'ari bide ona aurki ta eskeiñi nai baldin badiogu, beafezkoa zaigu bere bizirako, bere barne-bizirako batik bat, aukerakoa ote dan ikustea; ergelkeria izango bailitzake bere burua gal dezan eta bere gogoa itotzeko bidean ibiIi-eraztea; berebat gaitzesteko berekoikeria ere, gizaditik alde, aurkako izango ezpalitz ere, inda loretsuen zeaf lasai ta gozoki yardutea.

Maiz irakufi dugu ba-dagoela, gizonaren izakera ta bere lufaren artean, ongi ulertzen ez dan esigafi antzekoren bat, estu-estu alkartzen dituen ertsigafi berezia (1); eta ofen eskef, biena dan zerbait ori dela kari, biziaren arlo guztien aufean bereziki jokatzen du beti gizonak bere lufekoa dan eraz.

Baña ertsigafizkoa dan ori egia izan dedin eta beti berbera izateko, noraezekoa dugu Efi'aren gogoa, bere eratortzean, jatofizkoa izatea, eten gabe betidanik nabarigafi izan duena; aldatuko balitz eta beste gogo-mamia Efi'ak beretzat artuko balu, len aitatutako esigafiaren bidez edo, gogo befi ofezaz elikatuko luke gizona, beste bat biuferazten.

Ofela aldatuko litzaken gizonak gogo befiaz lanegingo luke, ta ofen norabidean ari-izango litzake, ordañez, bere Efi'arengan gogo befi ori sendotzeko. Edonolaz Efi ta gizonak beti alkaf eragiten eta eratzen. Ezin aiztu dezakegu iñoiz alkafenganako afeman ori, eta bidezkoa zaigu ofengatik Efi ta gizonagan xede bereaz eragitea, gurean, jakiña, euzkal-gogoaren bidean barna biak yardun dezaten.

Euzkal-gogo-lantzea dugu eskuarte, onena ortarako, beste ataletan ere adierazi dugun bezela. Beraren bidez euzkal-gogoari ofen beafa zaion euzkera sendotuago izango dugu beti, eta eragitearen beafez bere bar-

(1) Ikusi II'gafen atala.

nean daramazkien oldozmena edatzeko bideak igaŕi ezin ditezken zedaŕietaraño zabalduko dira, enurarik gabe. Euzkal-adimenak ere, oŕela yoriturik, eŕuzago, eŕezago ta esku-zabalago emango ditu bere arnari mamitsuak.

Beste aldetik, bere gogo-betean eta bere gogo bereziak indarturik bizi dan Eŕia, barne-biziari oŕen gogokoak zaizkion ertiaren zituak, buŕuztaz ere emateko egokiena izango da ezpairik gabe; eta bide batez biotz-ikutzeari oŕen gozoak zaizkion abesti ta elerti ta mota guziko ertiek, eta gogo-margo dundu duen bizi guziak, ari damazkioten ertizko emaitza bikañak eskeintzeko bidean ere, bipil ibiltzen izango dugu.

Buru ta biotza, bizia ibiľi-erazten dutenak; buru-adimena ta biotz-ikumenak auŕeruntz bultzatzen dituzte gizonak, oldoztu ta oaŕarazitako bide ta norabideetan barna; eta orobat gizonak betezen dituzten Eŕi'ak eta gizadia, egokiak izan beaŕ diran artez-indaetan barna, elburu yaukaleneruntz beti.

Argi ta garbienik agertzen zaigu, guzti oŕengatik, euzkal-gogoa lantzeko dugun beaŕa; gure Eŕi guzia ala-nolako lantegia dugula esan genezake, bertan aŕeta ta ardura guztien bidez egiteko dagoen zerbait burutzeko; eskierki, Eŕia lantegia izanez, bertatik atera beaŕ dana gizona dugu, euzkaldun gizona, euzkaldun osoa, asieratik ere gizona bera beaŕezko gai berezia izanik. Oŕela, umearodanik artzeko, gure gizona, eta gizon garatua izan arte, eratzeko oŕen egokiak diran auŕ eta gaztearen urteak Euzkal-Eŕi'aren ixtunen zeaŕ joan-erazteko yoranez ustiatu beaŕ; euzkal-bizira oŕela gerturik jauzi dedin.

Oŕa, bada, euzkal-gogo-lantzearen gaŕantzia, Euzkadi guziaren gizon oro ta bakoitzean ari-izanda, gure Eŕi'ak Euzkal-Eŕia izaten jaŕai al dezaken. Barne-barneraño sartzekoa da gu guztion baitan, Euzkal-Eŕi bi itz auen zentzuna; agian, ortan sakon azterkatu ezkero, aski orixe, besterik esan gabe, nola jokatu beaŕ dugun ikusteko. Eta Euzkal-Eŕia, ain zuzen, oŕela lendabiziko elburutzat artzean, itsu ta buru-belaŕi, euzkal-irakaskintzan geron burua, antsiz beterik, murgiltzeko. Orixe gure xedeetarako izan diteken egiazko bide beaŕen eta ezinbestekoena.

Onena, eskierki, euzkaldun osoa, Eŕia, Euzkal-Eŕia izateko; onena, euzkal-irakaskintza ertsiak eratuko duen euzkalduna, bere abeŕia beragan ere osotzeko. Alakotz, orixe bidea, euzkal-auŕa artu ta bere ikasketa guzietarako euzkal-irakaskintzaz bere aziera guzia eratu ta bere jakintza osoa eundu. Gure Eŕi'an orixe izateko bide ta jokera euzkera gaizkatze-



ko, indartzeko; euzkal-gogo-lantzea burutzeko ta Euzkal-Eŕi'aren bizia auŕeruntz eraman al-izateko.

Gaŕantzi izugaŕia euzkal-gogo-lantzearena, gure etxe barnean eraman beaŕ dugun bizirako. Orobat kanporako ere; berebat kanpoan bizi ditezken euzkaldun guztientzat eta guziz kanpotaŕak izango ditugun beste gizon ororentzat ere.

Biziaren gorabera guztien auŕean, euzkaldunentzat euzkal-eraz ekitea on eta onuratsuena dugularik, berdin izango zaio kanpoan bizi danari ta dagoenean soŕ dakizkioken beaŕ guzietarako. Eta etxetik, euzkaldun osoa izaten, atera bazan, oŕelaxe jaŕaitzea izango zaio egokiena, yarduteko aurki ditzaken unealdi danetarako.

Eŕu aundia izango litzake euzkaldunarentzat kanpoan idoroko dituen beste kulturaetan buru-belaŕi sartzeko, berarena alboratzea, eragozpentzat arturik. Egingaŕi dugu oso, beste kulturaetakoa bereganatzea, norberarena zapuztu gabe. Nai izan ezkero, barneraño sartuta izan dezaken bere gogoarena, eŕaz ta lan txikiaren bidez bere baitan iraun-erazi dezake norberak, iraun eta indartu ere, egokia izango baitzaio oŕela jokatzea; eta bide batez egiazko laguntza ona izango du egikera ortaz, bere bizi beŕirako artu beaŕ-izango duen beste kultura bereziaren izaera jabetzeko. Bi kultura, oŕengatik, bereganatzeko; eta lenengoa, bere gogoarena, ezarian-ezarian eta oartzeke, berarekin eramango duenezkero, bigaŕena izango du atxikitzeko bakaŕa. Eta bere lan guzia ontan zedaŕitzeko: bere kulturari eutsi, lan eŕaza; eta beŕiaz jabetu, aundiagoa, Lan ortan egokia izango zaio edonori kultura biak erkatu, bide onenetakoa izango baita orixe, bietan ere auŕeratzeko.

Geroz, euzkal-gogo-lantzea, ezin izan diteke beste kultura atxikitzeko eragozpena; aitzitik, eskuarte ta bide egokiena baizik bigaŕenean barna abiatzeko ta ziuŕ ibiltzeko. Euzkaldunarentzat, euzkal-gogo-lantzea, izan ditezken gertuera, lankai ta izkiĺu onena da. Jakiña, euzkaldunari, edonori bereak bezin ongi, beaŕen eta egokienak izan beaŕ zaizkio bere bideak, bizi-izateko, yarduteko, bere burua eratzeko, ari-izateko ta bere barneko gogo-indaŕ guziak edatzeko; oso ageri ta nabarigaŕi orixe eguzkipean eta nunai; oso bidezkoa beraz, euskaldunarentzat orobat izatea. Oŕela gertuko du bere burua bizirako ongienik, eta oŕela izango du etxetik at ere ari-izateko bide onena, egiazko laguntza, ta auŕera jotzeko aukerako indaŕa ere.

Ausaz, erbestean bizi-izaten, euzkaldunak semerik baldin badu, ona ere izango zaio bere odolekoak euzkaldun eraz azitzea. Oŕela, aita ta

semeen artean ertsiago izango dute alkaŕ ditzaken lokaŕia; osterantzean, asieratik semea beste kulturan murgiltzen bada, oso eŕaz autsiko da lokaŕi ori ta, ötean, aita ta semeen artean, gogo-amil aundia sortuko da, gaintzeko oso zaĺa izango zaiena.

Oso zudu aundikoa oŕengatik atzeŕian bizi diran euzkaldunentzat beren ikastetxe bereziak eukitzea; oŕela, euzkal-sendiengan jaŕaituko luke egokienik euzkal-gogoa, guzientzat oŕen on aundiak ekaŕi litzakena; eta on guztien artean beaŕena, sendiaren gogo-batasuna iraun-erazteko izango zana. Gero semeak ere lortzeko, len beren gurasoak iritxi zutena; ots, beren izakera borobiltzeko, euzkaldun gogoa indartzeko eta izan diteken edonungo erdalduna bezin ongi bizia irabazteko ere. Eta gurasoak, Euzkadi'n bizirik izango genuken eguratsan bertan, beren semeak azi-eraziko balituzte, auengan tinkoago geratuko litzake euzkal-gogo berezia, eta aiek bezin ongi gerturik izango lirake. Alakotz, oso bidezkoa deritzaigu eta noraezezko ere, kanpotako euzkaldunen semeentzat, abeŕian bertan ikasle bezela ari-izateko izan ditezken bide eroso ta zabalak atontzea. Euzkaldun oientzat eta euzkal-kulturarentzat onuragaŕi oso.

Gaŕantzi aundikoa, beraz, euzkal-gogo-lantzea etxe-barne ta kanporako; azpegi bietan euzkaldunen egokitasuna bakaŕik begiraturik, euzkaldun osoa izanda, ekiteko beren barneko indaŕ guztiak zabal-zabalik edatuta izango dituztelako, eta oŕengatik etekin oberenak eman al-izateko gerturik egongo ziralako. Oŕela, bizi beaŕ-izango liraken Eŕi'etan ere, aien etekin aundien oiek, zitu edeŕenak bezela, uztatuko lituzkete, goieneko izarian ongi egiten.

Ba-dakigu eguneroko bizian gauzak ez dirala norberak bere ametsetan ikusten dituen bezela; baña biziaren edozein ekintzarako, goyenekoa jaŕaitu beaŕ dugu, asieratik eta elburu bikañenetaruntz joateko alegin aundienetan barna. Ez da egoki eziña itza eŕaz esatea, zaĺa dirudien edozeren auŕean; zailtasunak azkortu egin beaŕ gaitu zearo.

Guzti onen ondorengoz, argi agertzen da Euzkadi'k euki beaŕ duen xede nagusia: euzkal-irakaskintza indartzea, euzkal-gogo-lantzea sendotzea, ta oŕela euzkaldun alik eta osoena egitea. Xede egokia, xede beaŕa, xede bikaña. Bere biziari eusteko ezinbestekoa, bere semeak eratzeko noraezezkoa, gizadiarentzat onuragaŕi izan dedin aukerakoena. Oŕela ikusten dugu geron baitan, argi; oŕela ikusi-erazi nai-izango genieke gure aberkide guziei; oŕela opa diegu bai sorteŕiari bai ta gizadiari ere, bientzako oŕen ona dakusgunezkero. Geyago ere; geron gardiz Euzkadi'rentzat



xede jaŕaitzea, ez egokia bakaŕik, eukitzeko beaŕena dala deritzaigu, ertsiki gure sorteŕiari dagokion eginbide aundia. Bai, elburu nagusirako xede nagusia.

Ikusiko al du iñoiz gure abeŕiak oŕela bere eginbeaŕa? Eta ikusi, argi ere ikusi ezkero, izango al du indaŕa naikoa xede ortaz eta elburu ortaruntz bipilki abiatzeko ta ... eltzeko? Ortxe, saŕi, gure kezkak. Mende luzeak daramazki Euzkadi'k bere nortasuna galtzen; oso beeraño eldu da amiltze ortan onezkero; iltzer artu dugu geron besoetan, ari-izateko al-izan geranean ...; itxaropena jasotzeko eragozpen aunitz; adorea berotzeko izotz geyegi. Igo nai-izango genuken erpiña, be-toki ontatik oŕen goitua agertzen zaigularik; araño eltzeko dugun aldapa oŕen aundi ta latza izanik ..., eziña esateko urbiĺenen egon beaŕ. Oro agertzen da, askotan, beltz eta zaĺa, guzia zakaŕ, dana gaŕatz.

Txil egiteko, etsita egoteko, ala ere, etzaio euzkaldunari oraindiño ordua eldu, geron ustez; izan ere, ba-du gure abendak indaŕa aski, lan aundienetakoak bere gain artzeko be. Auxe beaŕa, eskierki, lan ortan sartzea erabakitzeko: egitan onuragaŕi zaiola argi ikustea, argi, garbi ta nabari.

Urbiĺegira begiratzeko oitua edo dago gure Eŕia, aspaldidanik; oŕetxek kalte aundia ekaŕi dio noski, uŕutira so ez egiteagatik, bere orduan beaŕezkoak ziran uŕatsak eman ez zituelako; eta oŕela bizian barna atzeratuta geratu beaŕ-izan da. Uŕunera begiratzen ikasi beaŕ-izango du gure abeŕiak elburu bikañenak lortu nai baldin baditu. Eta aipa ta azterkatzen ari geran bi elburu nagusiak, arean, euzkaldun osoarena ta beraren bidez egin litekena, oso uŕutian agertzen dira gaurko gure Eŕi'aren egokerako.

Beraz, oso uŕunean ditugun betekizunak, gaur ikusi beaŕ ditu sorteŕiak; eta ondo ikusi ondoren, berenganuntz gogo guztiaz abiatu. Naiz ikustean naiz abiatzean, zuzendariak izan beaŕ lendabizi jo-mugak adierazten; eŕi ikasia gero, bideak uŕatzen eta zabaltzen; eŕi osoa azkenez, bide oietan barna ta buruzagiak jaŕitako norabideruntz usu ta leiatsu joan dedin. Burua, beraz, zuzendariengan argi ikusteko, biotza gero eŕi ikasiarengan eŕiari bidea erakus eta egokitzeko, ta siñismena eŕi guziarengan, elbururuntz doazen bideen zeaŕ itsu-itsuen ibiltzeko.

Euzkal-irakaskintza dugu bidea bezela aurkeztuta. Bertan, jakiña, gai batzuk gogoari dagozkionak izango ditugu, irakaskintza guztietan bezela; eta beste batzuk gaikiari. Lenengoak, enurarik gabe, gaŕantzi

aundiago ta berezienetakoak. Eta gogoari dagozkion gai guztien artean, Erlijio'arena dugu lenengoa, nagusiena, bai ta guztien aburuetarako zaŕena ongi atontzeko, gurean eta nunai; gurean batez ere esango genuke, gure auzi guztietan ainbeste erabiŕi baita Erlijioa, alde ta aurkakoen aldetik geyegizko leratasunaz.

Bide erdi-erdian izan dugu beti, ta izango ere, Erlijio auzia, emen alboan ez uzteko, iñola ere ez baztertzeko. Beaŕezkoa zaigu auŕez-auŕe begiratzea, ta oŕen lartsua dugun ori leguntzeko ta guzientzako bide erosoetatik eramateko alegin aundienak egitea.

Gogoari dagokio Erlijioa bereziki, siñestun geranontzat irakaskintza beaŕena bere baitan daramana, gogoa bera irakasten duena; oŕengatik eta norberaren barne-barnean, gure gogape erdian datzan biozketa minberagaŕiena dalako, siñistun eta siñisgabeen aldetik lotsa aundienaz begiratzekoa dugu. Ortan erakusteko, ongienik, alkaŕenganako euki beaŕ ditugun begiramena ta maitasuna. Nola atondu, beraz arlo ori guztientzat onartzekoa izan dedin?

Erlijioa, zalantzik gabe, onela esan dezakegu zer dan: Yainkoa'ganuntz gizona daraman bidea; Yainkoa'ganaño eltzeko, gizonari ikasteko beaŕa zaion yakintza. Orixe, eskierki, siñestunen aburuaz. Ezin utzi dezakegu, oŕengatik arlo ori irakaskintza guziaren alboan, bertan bete-betean sartu baizik.

Arlo oŕek dauzkan bi azpegi auek, auŕe-auŕean euki beaŕ ditugu, oŕezaz zuzenago izan dedin iritzi on eta sendoa jaŕi al-izateko:

1—Gizona, Erlijioa bera ta onen irakaskintzak ontzat artzeko ala ez, yarei da ta yarei izan beaŕ, Yainkoa'k Berak emandako azkatasunaz; azkatasunik gabe ez dago erantzukizunik ez eta maitasunik ere, ta Erlijioa Maitasuna bera dan Yainkoa'ren ituŕi oparotsua dugu. Zoŕotza da, gero, Yainkoa'k gizonari eman dion azkatasuna, Bera'ren aurkako ogen egin al-izatekoraño baita. Nork eta nola azkatasun oŕen aurka ezer egiteko? Oso ontzat artzekoa dugu, alakotz, Erlijio'aren auŕean gizona beti aren legeak ontzat artzeko bere esku izatea. Jakiña, beti ere, jokera baten ala bestearen ondoreak, garaiz onartzeko bearturik.

2—Beste aldetik, Yainkoa'ren auŕean —bai ta gizadiarekiko ere— gizonak dauzkan erantzukizunen artean, norberaren semeak elikatu ta aztea dugu beaŕenetakoa. Elikatzearena ez dugu uste iñork uka egin duenik; aztearena, beŕiz, gogoaren elikatzea dana, maiz eta eguzkipean ikusten dugu ontzat artzen ez dana, gizonaren azkatasuna, oŕela, zeaŕo zapaltzen.



Eskolara doan umeak, gazteak ere, gaztezaroaren asieran bederen, gai oni buruz eztauka erantzukizunik; bere ezagupenak motzak dira, beaŕ dan bezela tinkotu gabe; ta eziña da oŕela erabaki al dezan nortasunik izan. Beaŕa zaio, oŕengatik, zuzendurik izatea. Eta egokitasunez zuzentzeko iñor oberik bere aita baño; ain zuzen aren gorputz eta gogoarena, eginbide ertsiena bezela, oni dagokiolako. Aitak, alakotz, agindu egin beaŕ semeari onen uŕats guztietan, semea yardesteko nor izan arte.

Aita izan beaŕ, beraz, irakaskintzan erabakitzeko gai, eta lendabiziz Erlijio'ari buruz. Eta endeŕi ala lateŕien agintariek aitaren eskubide ta eginbidea dan ori bete al-izateko, bide ta bide zabalak jaŕi beaŕ dituzte. Aitak erabakitzeko, beraz, bere semeak Erlijio'aren irakaskintzak artu beaŕ dituen ala ez. Eta agintariak onartzeko beti aitaren erabakiak, bai ta babesteko ere (1). Ongi antolatu beaŕ da auzi au, ziñez; eta IX'gaŕen atalean orixe nola egin liteken adierazi dugu, geron gardiz.

Auzi au ta besteak ere, alik eta asmo zabalenaz erabiŕirik, ume, gazte ta gizonak euzkal-gogoak eratuta izan beaŕ; eta gogo oŕen barnean alkaŕenganako lotsa ta maitasuna bizi ta agertu beaŕ dira bere tasunen arteko berezienetakoen antzera; oŕialde auetan esan dugun bezela, ez beste gizonengandik gure bereizitasuna nabaritzeko izan lekiguken aŕokeri-apetaren bat betetzeaŕen, gure Eŕia bizi dedin beaŕen eta ezinbestekoa dugulako baizik.

Oŕela, beraz, euzkaldunak Euzkadi'rentzat izan beaŕ; gure abeŕia bizi dedin ta bere bizi oŕen bideen zeaŕ auŕeruntz jaŕai dezaken. Baña sorteŕiaren izate berezia ere ez dugu nai, ezin dezakegu oŕela nai-izatea, berarentzat eta bere semeentzat ere bizi egokian ari-izateko bakaŕik. Gure abeŕia, bere semeen bidez, gizadiarentzat ere onuragaŕia izatea nai dugu, eta, len be esan dugunez, ainbat eta euzkaldunago, ainbeste izango dugu Ludi'ko gizaseme guztientzako etenkitsuago ere. Alakotz, Euzkadi Gizadi'arentzat izan beaŕ, beartuak baikaude eguzkipeko biztanle guziak beti anaitzat eukitzea, eta oŕengatik guzienganako ere maitasun aundienaz ari-izatea euki beaŕ dugu bearkizun ertsienetakoaz.

(1) Ikus beŕiro, XX'gaŕen atalean, 1948'gaŕenean ONU'k egindako "Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna"'ren 26'gaŕen atala.

Txit egokia izango zaigu beti asmo oietaz gogoratzea; ořela gure eginkizun guztietan zuzen eta gotoŕ eten gabe yarduteko. Eta zoriona bezela euki beaŕ dugu, eraman nai dugun bidean barna gure egokitasuna ta gizadiarena alkaŕekin joan ditezkela ikustea. Iritzi ořezaz auŕera jo dezakegu lasai, guregan gerekoikeririk gorde gabe, argi ta garbi erakutsi ditzakegun xedeetan barna.

**XIX.—Euzkaldunen eskubide, eginbeaŕ eta erantzukizunak. Guziak bete al-izateko, beaŕa ta ezinbestekoa zaien azkatasuna.**

---

Euzkal-kulturari damaiogun gaŕantzia oŕen aundia izanik, berez ere ořela baita, ikustekoak ditugu arlo zabal onen inguru ta barnean dauden euzkaldunen eskubide, eginbeaŕ eta erantzukizunak; eta guzti auek ongien betetzeko zer dagokigun, baldintza bezela, egiteko beaŕenik.

Euzkaldunok, Ludi ontako beste giza-lagun guziak legez, bizi-eskubidea dugula, nork ukatuko liguke? Eta bizi-eskubidea diñogunean ba-dirudi guzia esana dagoela, ain borobiĺak baitira itz bi auek: bizia, eskubidea. Alabaña, auek bezelakoak diran aunditasunezko itzak erabiltzean, beren zentzuna oŕen orokaŕa dalako, geyenetan norberak artzen du zentzun ori bere barneko iritziaren arauz eta askotan ondorengoak, naiz eta iturburu batetik sortuak izan, alkaŕengandik aldenduak geratzen dira oso.

Beaŕezkoa zaigu, alakotz, eskubide, bai ta eginbeaŕ, eta erantzukizun itzen zentzuna zedaŕitzea, geuk uste dugun orotarako dan iritziaren izarian.

Bizi-eskubidea, guretzat eskatzen dugunaz mintzatzean, beste gizon guztiai dagokien neuŕian oldozten dugu. Eta edonungo gizonaren bizi-eskubidea, bere gorputza ta bere gogoaren bizi-eskubidea izan beaŕ. Ez dugu aiztu nai aspaldiko esaera: "Lenengoz bizi, gero yakintzari eman"; baña "bizi" itz oŕen barnean ezin izan dezakegu gorputzari bakaŕik dagokion bizia, emen bezela, Eŕi bateaz mintzatzean batez ere. "Bizi" ořek, Eŕi batentzat bereziki, gizon batentzat ere noski, gogoarena be inguratu beaŕ; osterantzean, abere-zentzuna baño besterik izango elukelako.

Ořialde auetan gorputzarenari tokirik ematen etzaiola-ta, gogoarena dugu aipatzeko beaŕa. Eta Euzkadi'k beste Eŕi guziek bezela, gogo-biziaren eskubidea duela bayezten dugu goraki. Jakiña ta bidezkoa: edonorengan eskubiderik izan ezkero, norberaren gogoa bereziki lantzekoa dugu, zalantzik gabe, lenengoetakoa. Eskierki, Eŕi batentzat batik bat, gogoan datza bizia; euzkal-gogoan, beraz, euzkal-bizia.

"Euzkal-gogoa" diñogunean —eta ontan ere gure Eŕi'aren izena ken genezake Ludi'ko beste edozein batena jartzeko—, euzkaldun ororen gogo berezia aipatu nai ta beaŕ dugu, ain zuzen, gure Eŕi'ari bere nortasuna ematen dion gogoa.

Lantzekoa dugu, beraz, euzkal-gogoa, bizi dedin; guziok bat egiten gaituen gogo ori, geuk, eta ez beste iñork, landu beaŕ dugu, bera ta gu alkaŕengan bizi baikera, eta berak gugan bizi beaŕ baldin badu, orobat esan dezakegu guk ere beragan bizi beaŕ dugula; oŕa aldatu ezin ditezken arlo baten azpegi biak, alkaŕi beaŕ-beaŕezkoen zaizkionak.

Nun ote eskuarterik lantze ori burutzeko? Ortan ere ezmezik ez, izkuntzan ta onen bidez erabiliko dan euzkal-kulturan, bi bide auek bereziki euzkal-gogoari dagozkiolarik; biak ere, ezinbestekoan, alkaŕ osotzen dutenak. Eta bi bide oien landa ezin besterik aurkitu euzkal-gogoa auŕera eraman al-izateko; beste izkuntza, esate baterako, bidez artuko balitz, berak elikatutako gogoak, berari dagokion kulturaz eratuak geratuko lirake, euzkaldunik izango ez zan beste kulturaz, eta oŕela egiazko euzkal-gogoa iĺa izango genuke, zearo. Guzti oiengatik, arean, euzkera ta euzkal-kultura euzkaldunen eskubidekoak osoz.

Baña euzkera, gure izkuntza, ta gure kultura ere elikatzeko eta zabaltzeko, bideak erabiĺi beaŕ, eta erdira sortzen zaigun arazo beŕi ortarako, Eŕi guztiena izan diteken edo izan beaŕ duena izango dugu geuk ere baitezpadako. Eta Eŕi guztietan beren izkuntza ta beren kulturaz mintzatzen danean, besterik esan gabe, irakaskintzaz oroitu beaŕ, orixe baita kultura guztien oñaŕia ta mintzoeraren eusle bikañena, bakaŕ-bakaŕa ez baldin bada. Guk, beraz, geron irakaskintzaz ere oldoztu beaŕ; orixe gure beaŕenezko ekintza; noraezeko ta ezinbestekoa euzkal-irakaskintza antolatzea, ongi ta geuk antolatzea; ezin baztéŕean utzi guretzako bizia dan betekizun nagusi ori.

Gereziak bezela, alkaŕen ondoren azaltzen zaizkigu arloak: bizi-beaŕa, gogo-biziarena, euzkera, euzkal-kultura ta euzkal-irakaskintza; guztiak gure eskubidean barna, nai ta nai ez, alkartzen diranak; gure bizi-eskubideak besarkatzen dituen azpegi bereziak; ura uste orotakoz aipaturik, auek zeatzetan adierazi nai ditugunak. Alkarturik oso ditugu azpegi oiek eta guziak bildurik eratzen duten osotasuna, apurturik geratuko litzake bere zati bat bakaŕik ukatuko edo muŕiztuko balitz.

Argi dago, beraz, gure eskubidea nolakoa dan eta, edaturik, noraño ikusten dugun eta ikusi beaŕ dan. Ortan, beste aldetik, isituki dagokigu geron asmoa beaŕ dan bezela aurkeztea, ots, gure eskubide ori eskatzean beste Eŕi'enganako ontzat artzen dugun neuŕian berean baño mail goragokoan ezartzea nai ez dugula; ez eta beeragoko galgan ere. Eŕi guziai opa dieguna, orixe bera geron abeŕiarentazt nai duguna, ez geyagorik ez eta gutxiagorik ere.



Beste alde batetik dagokigu gure arlo aundi ori begiratzea. Gure eskubidea zein eta nolakoa dan azaldu dugu lentxoago; eta eskubide ori beste edozein bezela, daukanaren landa-aldetik ere ikustekoa da; noski guk soiĺik ez, besteak ere ontzat artzekoa da, eta guretzat eskubidea dana, besteentzat eginbidea izan beaŕ, ura ontzat artzeko ain zuzen eta bere auŕean lotsa-izateko.

Gureganontzeko beste norabidean ere arloa azterkatzea dagokigu, gerontzat eginbeaŕa dan aldetik. Noski, geron eskubidea besteenganako baldin bada, geron eginbeaŕa gureganako izan beaŕ, arazo ontan. Eta ba-dago guretzat eginbide ertsia gure Eŕi'aren bizian barna eta bizi oŕen auŕean. Guzion ama bezela euki beaŕ dugu abeŕia, ta nungo semearentzat ez dago eginbeaŕik bere amaren bizia jokuan agertzen danean? Izari ortan ikusteko, emen aipatu nai dugun euzkaldunen eginbeaŕa.

Egin eta ekiteko jayo bide da gizona, eta bizian barna sartzen ari danean ortarako eldua dala ikusten du bere burua, barnetik sortzen zaizkion egiteko gurariak oarturik. Zer egin? Zertan ekin? Auetxek asieran bakoitzari aurkezten zaizkion itaunak; eta erantzunak nola, ondorengoak ala; galdera oiek asiera ortan idekitzen diran bide askoren auŕean egiñak ditugu, ta, batzuk utzi ta beste batzuk artzean, beaŕezkoa dan erantzupena ematea, emengo ala ango, oŕuntz ala aruntz sortzen diran ainbeste bideetan sartzea izaten da.

Bidezkoa da, egiaz, gizon batentzat, ibiltzen asteko dagoenean, zalantzan ari-izatea, bizi osorako izan diteken bidea, erokeriz artu beaŕ ezpaita. Baña erabakitzean zentzunez yarduteko, arean, gizon batek gogoari eman beaŕ dio nagusitasuna, auŕean dituen bide-margo guztien artean. Orixe, egiazki okeŕik ez egiteko eman diteken aolku egokia; gizonarentzat gogoaren nagusitasuna lenengoa izan beaŕ dalako.

Euzkaldun zindozuŕian, gogoarena aipatu ezkero, euzkal-gogoa ulertu beaŕ, naiz norberari naiz ororena dugun sorteŕiari buruz oldoztean. Alakotz, euzkal-gogoa deitzen dan bidean barna dagokio euzkaldunari sartu ta ibiltzea; ta bein norabide onean jaŕirik, beaŕezkoa izango zaio uŕatsetan yardun, bide ortan sortuko zaizkion aldapa guztien zeaŕ, naiz eta asgiro ona ezpadago ere. Ortxe dugun ibilkariari auŕera jotzeko beaŕezkoa zaio, eta gizona dalarik ez du gibela biurtuko.

Aipatutako bide-aldapa oietan, enura gabe, ikusteko ta erabiltzeko izango ditugu, len eskubideai buruz esan ditugun eskuarte berberak: euzkera, euzkal-kultura ta euzkal-irakaskintza; eta oietxek izango dira, euzkal-gogo bidean barna auŕeruntz jo nai duen edonorentzat, buruz eta biotzez erabiĺi beaŕ-izango dituen bide-lagunak.

Alakotz, euzkera landu beaŕ euzkal-ibilkari oŕek, alik ondoen gañera, ta euzkal-kultura bereganatu ere; orixe, bereganatu ta eratu bide batez. Baña kultura bat eratzea ez da gizon baten ez eta gizon batzuen lanetik bakaŕik irtengo danaz burutuko dana, barano bakoitzean sarturik dauden guztiengandik egingo danaz baizik. Euzkal-baranoko guziak, beraz, egin eta burutuko dute egiazko euzkal-kultura. Elburua, geroztik, Euzkadi osoaŕena dalako, bere seme guztien eta bakoitzarena izan beaŕ.

Argi baño argiago. Kulturarena adimenari dagokio, adimena gogoaren izarian ekiteko eskuarte bikañena dalarik; euzkal-kulturarena, euzkal-adimenari ain zuzen. Kulturarena, ikasten eta irakasten, idazten eta irakurtzen, oldozten beraz, egiten da batik bat. Ortxe, alakotz, euzkal-adimenak jotzeko izango dituen ingure berebizikoak, euzkal-kulturaren burni landua ateratzeko.

Ezin, alegia, guziok irakasle ta idazle izan; bai, ordea, ikasle ta irakurle. Eta alde guztietan orixe bera gertatzen da: irakasle ta idazle gutxi, ikasle ta irakurle ainitz; irakasle batentzat ikasle batzuk edo asko, eta idazle batentzat miĺaka irakurle. Ba-ditugu, beraz, maĺak, euzkal-kulturan barna ibiltzeko; beerakoenak guztioi dagozkigu, goragokoenak adimen zolientzat izan beaŕ; eŕazago aiek, noski; bakanago auek; baña oso beaŕak guziak ororen elbururako.

Gure euzkera ta gure euzkal-kultura auŕera eramateko, euzkal-irakasle ta ikasle, euzkal-idazle ta irakurle, geitu beaŕ-izango dira, orain ametsa dirudien neuŕi askoz aundiagoan; auŕean dugun elbururako utza baita gaur esku artean darabilgun guztia. Ortik ateratzeko abeŕi-biziarenganako guziok eta bakoitzak dugun eginbide aundi ta ertsia.

Norаño geitu, baña, esandakoak? Eziña da, eskierki, zenbaki bat jartzea; baña beste kulturak begiratu ezkero, nola ezaŕi dezakegu, irakurleentzat esate baterako, beŕogetamaŕ miĺa baño gutxiago, egiazko euzkal-kulturaren eusleak aski izateko? Tokian gaude, egun, ortaraño eltzeko; baña beaŕa zaigu eltzea, ta beaŕ oŕek, oŕen aundia izanik, gure eginbidearen neuŕia ematen digu, argi.

Izari ortan jartzeko ditugu, alakotz, euzkaldunen eginbeaŕak: euzkal-gogoan norberak bere burua elikatu; bide batez, euzkal-gogo ori indartu; euzkal-gogoan barna ibiltzeko bideetan sartu; eta bide auek, euzkera, euzkal-kultura ta euzkal-irakaskintza deiturik ditugula, naiz irakasle naiz ikasle, zein idazle zein irakurle, gogoŕ, buruz eta biotzez, oietaz ari-izatea ezinbestekoa da oso. Ortxe zeatzez adierazita, Euzkadi'renganako euzkaldunen eginbeaŕak.



Alabaña, sakon dezagun beste izarian gure eginbidearen gaia; onela:

Jopu dugu gaur abeŕia; orixe egi mingotza. Jopu, ondorengoz, bere seme geran guziok, batez ere Euzkadi abeŕitzat sutsuki daukagunok. Jopu biok, ama ta semeok; auxe, egi gaŕatza.

Sorteŕia guziok osotzen dugularik, ba-dirudi aren egokeraz mintzatu ezkero, guziona aipatzen dugula. Baña ba-dagoz gure arazo ontan ikusgaŕiak diran azpegi bereziak. Bitaz mintzatuko gera emen oso aintzakotzat ditugulako.

Abeŕia jopu dugula diñogu ta oŕela da: Endeŕi bat izanik, endeŕi bedegaŕenetakoa gañera, eskubide osoaren jabe da azkatasunean bizi-izateko, bere esku ari-izateko, yarei oso Ludi'ko beste Eŕi'en artean agertzeko. Eta bere osotasunez oŕela egon beaŕean, bi zatitan erdibitua ikusi beaŕ dugu Europa'ko bi lateŕi aundien pean; zati biak lateŕi oietako erki aŕuntak biurturik.

Bere legeen ordez, sorteŕiak ontzat artu beaŕ ditu zapaltzale biek indaŕez ezartzen dizkiotenak. Bere oiturak, folklore'ren izarian bakaŕik azaltzeko, ta ori ere lateŕi aientzako onuragaŕia dalako. Bere semeak, arerioen eskola, gudarozte ta erakunde guztietan sartu beaŕ, beren izaeran guztiz endekatuak izateko. Bere izkuntza alde guztietatik egotzita, toki guztietan uŕuñatua, gaur iŕati ta ikus-iŕatiaren bidez etxeetako txoko maiteenetatik ere. Eta bere lege, oiturak eta izkuntza barik, arerioenak artu beaŕ, gogoz eta maitasunez artzeko gañera indarturik. Orixe gure abeŕiaren egokera ituna, guziok jasan beaŕ duguna ain zuzen; gurea, beraz, sorteŕiaren zoritxaŕa.

Ori abeŕiari buruzko lendabiziko azpegia. Ba-dago beste azpegi berezi bat; eta lenengoa saŕi ta ozen aipatua izan bada ere, bigaŕen onezaz ozta-ozta mintzatu oi da. Gaŕantzidun oso, ala ere, eta gure aŕeta biziena bertan jartzekoa dugu.

Gu ere, euzkaldunok, bakoitza ta guziok, jopu gera geron baitan, España ta Frantzia'ren jopu. Geron baitan diñogunean, gure gogoan esan nai dugu. Ona emen zergatik eta nolako:

Guziok joan beaŕ-izan dugu erdal-eskoletara, ikastetxeetara ta ikaskintza artzeko gure Eŕi'an dagozen toki guztietara. Oietan artu dugu, bereziki, norberak bereganatu duen kultura guzia, aundia naiz txikia izan. Eta ikasketa guztiekin batera, erabiĺi beaŕ-izan dugun izkuntzaren bidez, ain zuzen, izkera oŕen gogoa, gogo bedegaŕa, gugan itsatsi da sakon, gure bizi osoan gurekin eraman beaŕ-izango duguna.

Alde guztietan gertatzen dana: Irakaskintza ez da, egiz, yakintza-gaiak ikasteko bakaŕik. Irakaskintzak (beŕiro ere esango dugu) ume ta gazteengan batez ere, eragiten duenezkero, bera emateko ta artzeko erabiltzen dan izkuntzak, naiz eta irakasleen xederik ezpada ere, bere gogoa ezartzen du ikasle guztiengan eta elburu ortarako gizona bizi dan aro aukerakoenean. Burni goriaz aragian egin liteken ikuŕ ezabagaitzaz baño sakonagoaz gañera; eziña edo izango baita edonorentzat esandako gogo ori uztea, bizi-izango dan urte guztietan.

Beŕitzeko ditugu emen III'gaŕen atalean aipatzen diran iru asmo auek: Unamuno'rena: "itzen bidez oldozten da"; Vendryes'ena: "Esakunen bidez oldozten dugu; ta Naert'ena: "oldozkun guzik, naiz eta doi-doi eratua bada ere, izkuntza dagoela adierazten du ta onengandik alderatzea eziña da".

Batera datozkigu iru asmo oiek, geron baitan zer eta zergatik gertatzen dan ongi azaltzen dutenak.

Esan dudanez, erderaz gureganatzeko eragin gaituzte, aspaldidanik, eskoletan eta ikastetxeetan ikasi dugun guzia, euzkera zearo alboraturik. Oŕela, erdal-itzen bidez eman dizkigute ikaskizun guziak, eta, oŕela beartuŕik, geuk ere erdal-itzen bidez ulertu dugu guzia. Ondorioz, gure kultura osoa erdal-itzen bidez burutu egin dugulako, gure oldozpen geyenak, guztiak ezpadira, era berean, bereztasunez eratzen ditugu gero, gai orotarako ta gure bizi guzirako ere. Ta gaur erdal-itzen bidez oldozten dugu, ala beaŕik.

Ortan ikusi beaŕ, batik bat, nola eldu geran erderaren jopu izatera ta nola gagozen erdal-jopu biurturik.

Oŕtan ikusteko ere, Frantzia'k eta España'k, gure euzkal-gogoa itotzeko, ta beraren ordez, geron baitan, beren erdal-gogoak txertzatzeko ibiĺi ta erabiĺi duten bidea, bai ta, oŕela, gure euzkal-biziaren aurka burutu duten kalte izugaŕia.

Barneraño sarturik dugu erdal-gogo ori, euzkal-idazleen lan geyenetan, euzkeraz egindako idazkietan, azaltzen dana; ta euzkeraz irakurtzen ditugun asmoak, idazleen baitan erderaz oldoztuta izan dirala agertzen da, askotan erdal-oldozkunak euzkerara itzez-itz aldatuak ditugularik.



Gaurko idazleai zaĺa izango zaie bide ortatik at irtetea, naiz eta ortarako alegin aundienak egin. Ez da beren eŕua, alegia, bide ortan ibiltzea, indaŕez artutako erdal-kulturarena baño; nai ta nai ez, ortarako guztiz bearturik izan baitira. Oŕengatik, idaztean, oni begiratu beaŕ diote aŕeta berezienaz: erderaz egindako oldozpena, ia nola, euzkal-gogoaz, euzkal-izaeraz, euzkeratzen duten.

Baña gure euzkal-bizirako ta gure euzkal-gogo-lantzerako ez da ori ere aski izango. Gure elburua aruntzago jaŕi beaŕ dugu: gure oldozpen guziak euzkal-itzen bidez egin al-izateraño. Orduan bai, orduan gure oldozpenak, beren zentzun eta lits guziekin, bitartekorik gabe, euzkeraz azalduko dira, gure solas, ikaskizun eta idazki guzietan. Eta oŕela egin al-izango ditugu, egitan, gure euzkal-elertia, gure euzkal-olerkia ta gure euzkal-kultura. Bitartean motz geratuko gera beti.

Nola oŕeraño eldu? Oŕialde auen zeaŕ aipatzen dugun bidea erabiltzean: euzkal-irakaskintzaren bidez. Auŕ-eskoletan asi ta ikas-gai guzietan barna, goikoenen ikastetxeetaraño, ikasteko guzi-guzia, euzkeraz emandako ta artutako irakaskintzaz, ororenganatzean. Ikas-bide oŕen buruan, euzkaldunak euzkal-itzen bidez oldoztuko du, ta orduan bakaŕik yarei dagoela, ziñez, esan al-izango du.

Gaur erdal-kutsutuak gaude guziok; esan dudanez, ume ta gaztezaroan gureganatutako ta barne-barneraño itsatsita daramagun gogoaz. Eta oŕela artu dugunezkero, ia eziña izango zaigu, naiz eta alegin aundienak egin, gogo oŕengandik geron burua zearo azkatzea.

Alan eta guztiz be, geuk bai, izari baten maĺean guk, euzkaldunok, bai, zerbait egin dezakegu; besteak ere apika, baña geure buruaz ari gera emen mintzatzen. Bide bat dugu, bide bakaŕa, erdal-gogoa nolabaiteko neuŕian uzteko ta bide batez euzkal-gogoa gure baitan artzeko: Euzkera; auxe da gure bidea, bide bakaŕa; eziña ta alpeŕik izango da besterik biĺatzea. Izkuntza baten bidez, erderaz, erdal-gogoa artu bagenu, beste izkuntza bateaz, euzkeraz, ala beaŕ, euzkal-gogoa gureganatuko dugu.

Alaz ere, ta len eŕan dugunez, irakaskintzan itsatsitako gogoa gure bizi guzirako iraungo zaigulako, eziña izango zaigu, euzkeraren bidez ere, gogo ori guztiz ezabatzea. Neuŕi batean bai, ordea, ta aundiagoa izango zaigu neuŕi ori, gure izkeraren ezagupena lortuko dugun giñoan.

Euzkera ikasi duen euzkaldunak bere burua azkatu du, ta ura dara-

biŕen bakoitzean jopu-kateak bereziki austen ditu; bere lepoan ezaŕitako kateak eta abeŕia lotuten diranak, guziak bat baitira.

Izari ortan sorteŕiaren azkatasuna euzkaldun guzionen bilgoa da; ta ura lotuten duen katearen estunak gure lepoetan daramazkigu, bakoitzak bat, norberarena. Gugan dago, oŕengatik, eta bakoitzari dagokigu, gure estuna, abeŕi ta guzion katearena, apurtzea ta poŕokatzea ere. Eta egoki bakaŕik ez, beaŕezkoa, eginbidea izan beaŕ guziontzat eginkizun ori betetzea.

Katearen estun bat apurtzea, esan genezake, bakoitzari abeŕiak eman digun betekizuna dala. Ortaz guziok berdin, guzioi eman baitigu arek lana bera; ondorengoz, guziongan ere betekizun oŕen erantzukizuna. Ez da txikia, gero, ori, gaŕantzidun osoa baño. Noski, neuŕi ortan guziok egin dezakegu lan berbera; guziok lortu dezakegu geron baitan sorteŕiaren azkatasuna, etxean edo etxetik at, arerioen pean ala oiengandik uŕun. Ortarako naia da bakaŕik jokuan ipiñi beaŕ duguna. Argi ikusi lenengoz joku ori nola agertzen zaigun, eta naimena sendoki tinkatu gero.

Norberarengan datza abeŕiaren askatasun-zati bat irixteko almena. Abertzale izan ezkero, benetan, nor geratuko da bere eginkizun berezi ori bete gabe? Oŕa nola bizi gaitezken eten gabeko lanean, gure bizi guzian, egiazko zituak biltzen eta gozatzen ere; gozagaŕia baita abeŕiaren azkatasuna, esandako neuŕiaz ere, norberaren baitan iritxi ta ikustea. Orixe gure auziak duen azpegi begiko ta onurakoŕa; abertzaleen artean begira ta azterkatzeko egokia.

Eskubude ta eginbeaŕakaz itzegiten, noraezekoa zaigu erantzukizunakaz ere mintzatzea; eginbeaŕa danean, bera betetzeko erantzukizuna ere bidezkoa baita.

Agian, naikoa edo izatea arazo ori oŕela aipaturik uztea, azpegi bat bestearen ondorengoa baita. Baña euzkaldunek dituzten erantzukizunen mugak Euzkadi'renak baño aruntzakoan ikusi beaŕ dira, zabaltasun aundiagoan ditugulako.

Asko mintaztzen da, ta bidezkoa dugu, Eŕi baten semea izanik, euzkaldunak bere amarenganako dituen eginbeaŕ eta erantzukizunetaz. Nork ukatu bearkizun oŕen zindotasuna? Berez sortzen dira oŕelakoak gizonen biotzetan, eta beren tokietan dauden buruak oŕela bayeztu dute beti. Maitasun-erantzukizuna dei genezake ori, eta maitalezuŕian bidezkoa da maitasun oŕen ondorengoa.

Baña geron xedea ez da emen aipatzen ari geran gure auzi aundi



au, biotzari dagozkion maŕetan erabiltzea, buruarenetan baizik. Ez ditugu iñolaz ere uŕuñatu nai biotzaren bideak, ongi baitakigu oiek duten indaŕa; baña otz-otzean bada ere, buruak ikus ditzake ongienik onenak zeintzuk izan ditezken, eta burua ere euzkeraren eta euzkal-kulturaren alde jaŕi nai dugu yardule.

Oŕela, beraz, buruaz begiratuko ditugu beren izkuntzarekiko euzkaldunak dituzten erantzukizunak. Onela ikusteko lenengoa: Euzkalduna, jayotzean, beste gizon guztiak bezela, bearkizunak betetzeko dugu jaioa; amaika dira auek, norberari bere bizian barna bide-erdira irtengo zaizkionak. Euzkaldunak, gizon guztiai dagozkienen artean, ba-du bat, berezi oso ta berari bakaŕik dagokiona: euzkalduna izatea, ots, euzkaldun osoa izatea, berarengan euzkal-gogoari eusteko, bai ta indartzeko ere eginbide ertsia. Emen, obo itxita deritzaten oietako batean gaude: euzkaldunak, euzkal-gogoan bizi beaŕ duela diñogu; ta, beste aldetik, euzkal-gogoa, bizi-izatekotan, euzkaldunengan bizi-izango dala. Alan eta guztiz be euzkaldun gizona da, nai-izan ezkero, obo ortatik irten ditekena; baña orduan obo osoa apurtzen du bere baitan, oboa osotzen zuten bi indaŕetatik, berak, nagusienak, utz-egiten duelako. Ortxe, geroztik, argi euzkaldunaren lenengo erantzukizuna: euzkal-gogoa beregan iraun-eraztearena.

Eŕi'aren bizia galbidean izanik, bere gogoan bertan ilkoŕa dan zauri izugaŕia oŕen luzaroan jasaten duelarik, berealaxe sortzen da euzkaldunaren bigaŕen erantzukizuna: berarengandik at irten eta bere abeŕiaren biziaren alde, lanean ari-izatea; anayen artean buruak berotzen, biotzak zirikatzen; gero ta lagun geyago lanerako baturik, bizi ura bizkortzen eta indartzen. Aŕegin oŕetan ez dago aldi-mugarik abertzalearentzat; naiz eta Euzkadi osoa euzkaldundu ezkero, naiz eta anai guztiak abertzale sutsu biurturik izan. Abertzalearen lana bere bizi guzirako izan beaŕ, bere erantzukizunai ongi erantzun nai baldin badie.

Goraxeago, euzkaldunek dituzten erantzukizunaren mugak Euzkadi'renetatik at edatzen dirala esan dugu. Jakiña, euzkal-gogoari euzkal-kultura berezia dagokio; baña kultura ori, gure-gurea izanik, ezin esan diteke gurea bakaŕik dala; euzkal-kultura, Europa ta Ludi'ko gizadiarena da, izan ere; beste kultura guziekin gizadi danari egitan dagokion gogo-aberastasuna osotzen du; eta beste edozein kultura bezela, gurea ilko balitz, esandako aberastasun ortan ere ainbesteko galtzea ikusiko litzake (1).

(1) Ikus, III'gaŕen atalean, Naert jaunaren asmoak.

Beraz, ez gugaitik bakaŕik, gizadiarengatik ere, euzkal-kultura iraunerazi beaŕ da; eta ortarako, ezinbestekoa dugun lana, euzkaldunok gera bete egin beaŕ duguna. Auxe esan genezake: Gizadiak bere aberastasunaren zati bat guri eman digu gordetzeko, zaintzeko, biziarazteko. Agintza oŕi ezin mukeŕ-egin dizaiokegu euzkaldunok, gizadiaren auŕean gure eginbide ertsienetakoa dalako. Ortxe erantzukizun berezia, ukatu ezin ditekena.

Beste erantzukizunak ere aipa genitzake. Esate baterako, siñestunok Yainkoa'rekiko bayezten ditugunak. Noski, euzkaldun egin gaitu Yainkoa'k, oŕela nai-izan duelako, eta oŕela gu egitean, Bere altxoŕaren zati bat, —euzkal-gogoa, euzkal-bizia— eman digu; lurpean, eiki, gorde eztezagun eta egun batean oŕezaz egin duguna Bera'ri aurkezteko.

Amaikatxo aldetik euzkal-gogoarekiko euzkaldunok ditugun eginbide ta erantzukizun. Ez dago, alakotz, gure eskarietan, guretzako eskubidearen margoa bakaŕik ikus ditekena; izari berean, zabal eta ertsiagoan ezpada, bearkizunak eta erantzukizunak onartu ta betetzeko naia, erakutsi gura dogu biziki.

Bidezkoa, oŕengatik, lenengoak eta besteak betetzeko bidea, bide zabala, eskatzea ere. Iñor ez da nor, bide ori ukatzeko, ez eta bertan eragozpenik jartzeko ere. Iñor ez da nor, bide ori nolakoa dugun edo nola izan beaŕ dugun esateko. Iñor ez da nor, bide ortan gure ibiltzea zuzendu nai-izateko. Euzkal-gogoaren eta euzkal-biziaren arazoetan, eskubidea gurea izanik, eta eginbeaŕ eta erantzukizunak guri ere, eta guri bakaŕik, dagozkigularik, geu gera, geuk izan beaŕ, bakaŕ-bakaŕik, bidea erabakitzeko, bertan ibiltzeko ta oŕi buruzko guzia zuzentzeko nor.

Eta geuk asmo onez erabakitakoa Ludi'ko beste giza-lagunai ontzat artzekoa baño ez dagokie; jakiña, gure egipenetan besteren eskubidea apurtzen baldin ezpadugu.

Bidea, alegia, beste giza-talde guziena bezelakoa izan beaŕ gurea ere: azkatasunarena. Nola ezer egin, erantzukizunez, azkatasunean burutzen ezpada? Iñor txunditurik geratzeko al da, guk ere gure bizirako eta gure biziak inguratzen dituen eskubide ta eginbideetarako, azkatasuna eskatzen badugu? Baña ez ote dago ori egipen eta beaŕen bidean?

Alaz ere, guziek eta alde guztietan pozez beterik artu beaŕ izangolitzaken gure azkatasuna, ukatu egin digute ta ukatzen ere oindiño; gure auzokoen aldetik, noski, bereziki.

Alabaña, ukatze ta gogorkeri guztien gañetik, geron azkatasuna eskatzen eta beraren alde lanegiten jaŕaituko dugu isituki auŕeruntz.



Geron eskubidea da, geron bearkizunetarako nai dugu, geron erantzukizunak betetzeko beaŕa zaigu.

Eztakigu oraindik azkatasun ori nola lortuko dugunik; baña etorkizunean ikusten dugu, azkatasuna bera Ludi zabalean bidea egiten ari dalako. Azkatasuna eskatzen ari dira deadarka, gizon eta Eŕi'ak eguzkipeko bazteŕ guzietatik. Gizadiaren oyu sakon eta indartsua dugu azkatasunaren eskatzean; bidea egiten ari, eta zabaltzen, eta sakontzen. Ezin izan diteke guztiz alpeŕik azkatasunaren alde ixuritako odola; emankoŕa dugu beti odol ori, eta bere uzta oritzen ari zaigu, eldu-beaŕean. Azkatasunaren aro berezian ez ote gera sartzen ari?

Guzientzako azkatasuna guretzat ere izan beaŕ, izari berean, gutxienez. Ludi'an Eŕi berezi bat gera, Europa'n kultura zaŕa, zaŕena ezpada. Kondairan barna, saŕi ikusten da gure endeŕia azkatasunaren alde gudatzen, etxean eta etxetik at, berarengatik odola buŕustaz ematen. Gure izana ta izateko naia auŕetik jaŕita, ba-dira gure Eŕia'an berarentzako azkatasuna irabazten duten amaika zaio. Nun, zuzentasunez, oien aurka guri jeiki dakigukenik?

Azkatasuna guretzat, edonorentzat ere, biziaren bidea da. Bidegabekeri aundiena oŕelako biderik istea; zuzenbidezkoa, ostera, bide ori zabal eta indartzea. Guzientzat, guretzat ere; ez dugu guretzat bide berezirik, guzientzako ideki ta eda dediña baizik. Gizonen artean gizonak, eta Eŕi'en artean Eŕi'a, anaiak oro ta pakean bizi al gaitezken.

XX.—Endeŕi-azkatasuna, beaŕena euzkaldun gizonarentzat; orobat beraren eta bere Eŕi'aren bizirako; berebat beste gizonenganako dituen eginbideak bete al-izateko.

---

Beaŕa da azkatasuna gizonarentzat. Ludi ontan, ausaz, ez edo da beste bayetzarik au baño obeki onartua izan danik. Ao-betez esan dezakegu eztagoela eguzkipean bere buruarentzat azkatasuna nai ez duen iñor; eta emen edo an ukatzen baldin bada, besteentzat egiten da ukatze ori, iñoiz ez norberarentzat.

Ororen oro beraz, azkatasuna maite dutenak; eta ala ere —gizonok geran mutiŕak!—, maiz urko lagunari ezeztu egiten zaio; eta gizona gizonaren anaya dala goraki esanda gero. Oŕa gizadiaren zoritxaŕa, anayari berari ukatu, bakoitzak bere buruarentzat on eta noraezeko artzen duena. Berekoikeriak edo, bere kaŕanka-otzaz, bizia geldierazten du, gogortasunez, maitasun uaitzean. Eta gizona gizonari, otso beti.

Alan eta guztiz be, Ludi'ko berekoikeri guztien gañetik, azkatasunaren zaletasunak, bidea egiten digu alderdi ta bazteŕ guztietan. Argi ikustekoa dugu ori. Alpeŕik da beste ankerkeri ta kaisarkeri beŕiak soŕ-eragitea; ezin osoro zapaldu gizonaren biotzean indaŕez bizi dan yarei izateko antsia; gizon onenen bulaŕetan beti irakiten izanik, irteera estaltzen bazaio, indartsuago biurtzen da, batzuetan eztanda-egin arte; eta eztanda-orduan aieneka aunitz. Nunai ikusi beaŕ yareitasunaren aldarean buŕustaz ixuritzen dan zindoen odol beroa.

Yarei izateko gizonaren yorana, beraz, biotz-barnean daramagu; eta gizonarena izanik, euzkaldunarena ere, eskierki, ala beaŕez. Beste aldetik, beaŕa oso azkatasuna, gizonak egin beaŕ duen edozertarako egokia zaion erantzukizuna bete al dezan. Eliza'k berak ez dauka gizona eŕuduntzat, obenari buŕuz, obena azkatasunean ezpadagi. Berebat izateko, gizonaren beste egipenetan ere; gizona ez da zentzunik gabeko aberea; gizona adimenduna dugu; beraz, gauzak egitean, uŕatsak ematean, emendik ala andik joateko, bere kabuz erabakitzeko, buruz egin beaŕ; oldoz dezake ta bere oldozmenaren arauz ari ere. Azkatasunean yardun ezpadu, oldozmena, adimena ta naimena, ez dira bere baitan ezer izango,

guztiz zapuztu ta ufuñaturik geratzen baitira; almen oiek, ain zuzen, ematen diote gizonari bere nortasuna, bere garaitasuna; alakotz, oietxek gabe ezin izan diteke gizona gizonik. Ofengatik, ezinbestekoa dugu azkatasuna gizonarengan; orixe, bere eskubide nagusiena edo.

Blai-blai daude paper aunitz, gizonaren eskubideak aipa ta goratzeko erabili dan axoteaz. Gizadiari zuzendutako ojuztapen nagusiak ere, egiñak ditugu menderen bidean; aipatuenetakoa, 1789'gafenean, Frantzia'ko matxinada aundiak lege-araudi nagusia gertutzeko sortu zuen batzafean egindakoa dugu. Bertan, eskubide auek izan ziran ontzat artu, besteen artean: legearekiko gizon guztiak berdin izatea: siñispen eta iritziarekiko, bakoitzaren ustea itzalgafi izatea, erlijio-siñispenai buruz ere; itz eta idaztearen yareitasuna. Eta erabaki guztien ondorioz, gaur ere Frantzia'k duen goiburu au jafi zuten: "Azkatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna". Azketasuna, lenengoa.

"Endefien arteko Eskubide-Erakuntza"'k, 1929'ko ufilaren 12'gafenean, New-York'en egin zuen bilkuran esandako eskubideak berak ojuztatu zituen, beste auek ere gañeratzen: "Edonori norberak autatutako izkuntza erabiltzea ta onen irakastea, Lateri guziek ontzat artu bear dituzte"; "Ez da izango iñorentzat bereizkuntzarik, ez af edo eme, ez enda, izkuntza ala erlijioa ditezela kari"; "Aipatutako azkatasuna, ez itzez, egitez baño egia izateko".

Lendabiziz aipatu dugun ojuztapena egin zanetik, ia befeun urte igaro ondoren, Paris'en ere, 1948'gafeneko lotazilaren 10'gafenean, ONU'k bildutako batzaf nagusian, "Gizonaren eskubideen ojuztapen orokaria" egin zan, gizadiaren efotiko eskubideak, befiz, ojuztatzeko xedeaz. Ona emen orduko agirian eskubide aiek, atal batzuetan, nola agertzen ziran (orduan euzkeraz azaldu zan bezela):

"Gizonaren eskubidegai guzietaz aitorkizuna".

"1'go Atala: Gizon guziak, beren eskuko jaiotzen dira, ta mail berean, eskubide berdiñekin; eta ezagu-argia duten ezkero, elkarren artean anaikiro jokatu bear dute".

"2'garren Atala: Bera nor dan edozein, Aitorkizun ontako eskubide ta aukera guzien jabe da. Ez da iñor baztartzen, edozein eskazi edo arraza, larru-azal, kuntze, izkuntza, uzkurtza, erriketa naiz beste, edozein erritako seme naiz lagunarteko dala, txindiz, jaiotzez eta abar berdin ez bada ere".



"Etzaio begiratuko gañera, zer lege-erriko naiz lurrekiko seme dan nor den ori; ezta ango erriketari ta eskubideeri, naiz erri ori bere gain dagola, naiz besteren menpean edota zaipean, naiz jabegoa mugatua daukala. Ez begiratuko ere, beste erriekin ditun artuemaneri".

"3'garren Atala: Zor zaio edozein gizoni, bizia, bere esku izatea, ta segurantzia".

"4'garren Atala: Iñor ez da egongo zigorpean, edo menpean jopu; nolanaiko joputza ta jopuen sal-erosketa, debekatua dago".

"5'garren Atala: Iñor ez diteke artu oiñazepean, nekepean, odolpean, ez dagokion eran gizona kazkartuz".

"6'garren Atala: Gizon dan edonori, zor zaio, nonai, eskubideen jabedun ezagu dezaten nor-izana dun ezkero".

"7'garren Atala: Lege-aurrean guziok berdin gera, eta bereizkuntzarik gabe, legeak berdin zaitu bear gaitu. Guziori magalpe bera zor digu, Aitorkizun au autsi dezaken bereizkuntzarik iñori egin gabe, ta edo artara eragin gabe".

"9'garren Atala: Arrazoi gabe, ez diteke iñor atzi, lotu, atzerriratu".

"11'garren Atala: 1) Gaizto salatu duten edozein, errugabetzat artu bedi, obendun dala argiratzen ez dan bitartean. Legez, eta auzi agerikoan, bere burua zaitzeko bide guziak seguratu bear zaizkio".

"13'garren Atala: 1) Edozeiñek eskubide du, andik onera ibiltzeko, ta edozein lur-erritan bere bizilekua aukeratzeko.
2) Nornaik ba du eskubide, edozein lege-erritik ateratzeko, bai beretik ere, ta bertara itzultzeko".

"14'garren Atala: 1) Edozeiñek, edozein erritan gordelekua billatzeko eskubide du, an gaizki ba darabilte".

"16'garren Atala: 3) Gizartearen oiñarri jatorra ta berezkoa, sendia da; eta, zor zaio oni laguntza gizarteagandik eta lege-erriagandik".

"18'garren Atala: Edozeiñek aukeran du, bere bururakizuna, bere barne-legea, bere uzkurtza. Aukera onek, eskubide ematen du, uzkurtzaz nai siñestez aldatzeko, bai ta ua aitortzeko, naiz bakarka, naiz baltsan, naiz agerian, naiz ixillean, bide ona erakutsiz, artan jardunez, eta elizkizunez".

"19'garren Atala: Bakoitzak bere esku ditu bere aburua ta itza. Beraz, aburu orrengatik ez bezate nekarazi; utzi bezaiote aukera, besteren berri ta aburuak aztertzeko ta, nolanaiko adierazpidez, mugarik gabe zabaltzeko".

"20'garren Atala: 1) Nornaik eskubide du, eragozpen gabe, besterekin elkartzeko, ta pakezko laguntasuna egiteko.
2) Iñor ez dute beartuko, lagunartean sartzera".

"26'garren Atala: 1) Yakintza artzeko, ba du edozeiñek eskubide. Urrurik edo utsean bear du, lenbiziko yakintza, beintzat. Au, nai ta nai ez'koa bedi. Artarako yakintza bereizia ta ogibidekoa, zabaldu bedi geiagorengana. Goieneko maillako ikaskizuna, guzientzat berdin bedi, bakoitza gai danez.
3) Gurasoek dute eskubide, batez ere, aurren azibidea aukeratzeko".

"27'garren Atala: 1) Eskubide du edozeiñek, gizarteko buru-lanetan artukizun izateko: arte edo antze-lanetan, jakinkizunetan eta lan oieri darizkien irabazietan.
2) Buru-lanen baten jabe danak, naiz jakinkizunetan, naiz ele-ederrean, naiz beste edonolako antzeetan, eskubide du, artatik datorkion irabazira, naiz txinditan, naiz bestela".

"28'garren Atala: Edozeiñek eskubide du, Aitorkizun ontan aipatzen diran eskubideak bete-arazteko, naiz gizartean, naiz Errien artean".

"29'garren Atala: 1) Gizonak gizartean, eginbideak ere baditu; gizartean bestetan ez baitezake bururatu, oso ta eragozpen gabe, bera nordanari dagokiona".

"30'garren Atala: Aitorkizun onek ez dio iñori eskubiderik ematen, ez bakarrari, ez baltsari, ez lege-erriari, Aitorkizun ontan zabaltzen diran eskubideak galarazteko asmoz egin diteken ezertarako".



Orotakoagoa dugu ojuztapen au lengoak baño. Alaz ere, ez du, geron gardiz, beaŕ-beaŕa zaion osotasuna. Ikus dezagun zergatik:

Gizona, luŕ batean, aurkintza batean jayotzen da bizira, gogo ta gorputz biŕutsik oso. Geyenetan, naiz gogo naiz gorputzarekiko, bere nortasuna bakoitzaren sendian barna eratzen ari da, eta bakoitzaren sendian diñogunez, eskierki, oŕen eŕi ta endeŕiaren eguratsean ulertzekoa da. Taŕotzen doalarik, auŕak sendian aŕ dezaken berezitasuna, eskola ta kalean bizi-izango dan eguratsaren indaŕ eta almenen bidez menperatua izaten da; eta gazte ta garako gizona biurtzen danerako, oŕela geratzen da bere bizi guzirako eratua. Orixe noski, arau orokaŕa.

Oŕengatik edo, saŕitan auxe esan da: "gizon eta bera jayo dan luŕak, alkaŕenganako aŕeman estuak dituztela" (1). Egitzat eukitzeko esakun au; eta bi aldeetatik autsi diteke aŕeman ori: bat, gizon edo sendi bakoitza, beste Eŕi batera, erbestera baldin badoa; orduan, beste eguratsa, beste kultura batean murgiltzen da, eta bertan eziña edo zaio berean zebiŕen aisatasunaz ari edo bizi-izatea; ondorengoz, bere azkatasuna guztiz gutxituta ikusteko.

Beste aldetik, orobat gerta dakioke gizonari bere abeŕitik irten gabe bertan beste Eŕi edo Lateŕi indartsuagoak bere kultura berezia aŕeraztendionean. Maizegi gertatu da ori Mundu'an, eta orixe bera dugu aspaldidanik gure abeŕian jazotzen eta ikusten dana. Gure egunetako asmoetan gogorkerizko egite ori obentzat eukitzen da, ta izen berezi ontaz ezagutzen da: "Jenozidio", ots, enda-erailketa.

Orixe, ain zuzen, gurean gertatzen dana; alakotz, gizonaren eskubideak zapuztuta daude gure Eŕi'an, txit uŕuñaturik; eta eskubide oiek ezesten diralako, euzkaldun gizonaren azkatasuna lotuta dugu ta betiko il-zorian. Eiki, ez gera gu soŕik erailketa ortaz iltzer gaudenok; beraz, geron buruaz diñoguna, gure antzeko dauden guziai buruz ere baŕdin esan dezakegu.

Argi dago, arean, euzkaldunari, bere azkatasunaren eskubidea berarengan egia izan dedin, bere Eŕi'aren, Euzkadi'ren eguratsa berezian barna, bere esku ari-izatea beaŕa zaiola. Baña abeŕiaren egurats ori, gure Eŕi'aren mugaen barnean, trinko, zabal, sendo ta sakon, eta euzkal-gogoarekiko zedaŕirik gabe, edatu beaŕ da, bere indaŕ guziaren zitua uztaturik izan diteken. Olako eguratsa zaio beaŕa euzkal-gizonari; ortan ba-

(1) Ikusi II'gaŕen atala.

kaŕik izango da yarei eta bertan ere eman al-izango du berarengandik soŕ diteken onura aundiena.

Auŕeko atalean ikusi dugunez, beaŕa zaigu azkatasuna, eginbide ta erantzukizunak bete al-izateko. Baña euzkal-gizonaren azkatasuna, osoa izateko, oraintxe esan dugun abeŕiaren eguratsan barna bizi-izatekoa da. Eta nola izango dugu euzkal-eguratsa berezi ori, endeŕi bati dagokionez, gure Eŕia bere esku bizi ezpada? Egoki ta beaŕezkoa, bada, geuk gure abeŕiaren azkatasuna lortzeko alegiñetan ari-izatea. Egokia zaigula adierazteko, ortxe dugu gure arerioen betiko pipi-lana; eta lan ori oŕen luzaroan eta oŕen isituki burutzen ari dirala ikustean, galdetzeko edo dugu ia España'k eta Frantzia'k beste xede nagusiagorik ez ote duten, ala berak bizi al-izateko gure Eŕi'aren eriotza beaŕena ez ote zaien.

Bat edo dira españaŕak eta parantziaŕak gure Eŕia iltzeko xedean, naiz eta arloa oŕen garbiki, geyenen buruetan, iñoiz biribildu ezpada ere. Mota guziko izkiĺuak izan dira geron aurka erabilita, eta bereiziki gure gogoaren aurka; bidea, euzkerarekiko yardukitzea. Yakitun batzuk aldendu ezkero, euzkerari buruzko oien aburua, ezespenarena dugu erabat. Ikustekoa da ta entzuteko nazkagaŕi, goiko ta bekoak euzkeratzaz nola mintzatzen diran; Ludi ontan izan diteken gauza uŕuñagaŕienaz bezela, ta, jakiña, yakintza berak aien aoetatik itzegingo balu bezela, erantzunik ukan ezin dezaken epaitza borobiĺa botatzen. Egikera onekin batera, beste erako zabalkundea egiten da alde guztietatik: batzuetan euzkera bizi ontan ezertarako ez dala esaten, besteetan bera ikastea gauza zaĺena dala, eziña ez diñotenean. Zabalkunde-mota bi oiek ederkien osotzen dute len esandako ezespena, ta guzia oŕen orotako izarian egin eta egiten danezkero, amaikatxo euzkaldun tentelak, iñozoak, burua makurtu dure beren izkuntzari buruzko iritzi oien auŕean, eta ondorioz, beren Eŕi'arekiko lotsaz beterik azaltzen. Eta askotan, au bai lotsagaŕi, berak agertzen dira Euzkadi ta euzkeraren arerio aundienak bezela, gurean egiten ari dan enda-erailketan etsaiekin bat-bat egiñik. Guzia, españaŕen edo parantziaŕen aoetan erdeñagaŕizko iŕipaŕerik ikusi baño lenago.

Onela eratu da gure artean, gure inguruan, gaur bizi beaŕ dugun egurats edentsua. Nork esango du euzkal-gizona bertan bere esku bizi ditekenik? Erdal-gogoari men-egite izugaŕi ori Eŕi'an barna ematekotan, nola euzkal-gogoa jaso? Ez ote da ikusten argi ta garbi baño argiago ta garbiago, gaur bizi beaŕ dugun erdal-eguratsan, euzkal-gizona txit jopua dala? Eta beaŕezkoa dan ondorioz, bera, gizona bezela, lendabizi, yarei ere izateko, bere Eŕi'aren azkatasunaren beaŕean dagoela? Eskierki,



norberaren abeŕian eztago gizonarentzat azkatasunik, bere Eŕia, lenengoz, yarei bizi ezpada, ezin.

Alegia, azkatasunaren asmoan, beste ainbestetan bezela, maĺak ditugu, ta mail oiek alkaŕenganako gorago ala berago egon ditezke. Oŕela dala-ta, azkatasun osoraño, maĺez-mail igo diteke. Euzkal-gogoari margo ta bizi ematen dizkiona, eta bide batez, bere gun eta mamiz elikatu ta eusten duena, euzkera da; erdal-gogoarekiko erdera dan bezela. Alakotz, euzkera dugu euzkaldunentzat, gogo-azkatasuna osoraño igoten dan maĺadia, eta oŕen bidez norbera igo diteke, geyago ala gutxiago, oŕela azkatasunaren maĺak irabazten. Beraz, izari batean bederen, bere esku izan nai duenak beti egin dezake zerbait, uŕatsez-uŕats, bere ta abeŕiaren azkatasuna, batera burutzen. Ez du, noski, emengo ala ango euzkaldun batek bakaŕik guzia lortuko, alegin aundienak betetzean ere; baña azkatasunerako eraman nai dugun bidean, norbera auŕeratuko da, ta beste anayei, auŕera ditezen ere, laguntza edeŕa eman al-izango die, azkenez, abeŕiarena eŕazagoa egiten.

Ziñez, orixe egitea dagokigu guzientzakoa dan egiñalean, gure abeŕiaren azkatasuna lortzeko daramagun guda luze ta ikaragaŕi ontan. Eta oso beaŕa zaigu era ortaz ekitea, naiz eta oŕela, sorteŕia bere esku izan arte, geron burua yarei ikustea iñoiz iritxiko ez dugula jakin; naiz eta, diñogu; obe, ausaz, eta oŕetxengatik ain zuzen, oŕelaxe lanegitea dagokigula esatea, ezinbesteko bidea dugulako, ta abeŕiaren azkatasuna ororena baita.

Esandako guzitik, beste asmo au ere sortzen da, iturburutik ur gardena bezela. Gizonak dituen eskubide guztien artean, beste au aipatzea ta ontzat oartzekoa dugu: bere abeŕiaren eskubidea, bere abeŕiaren bizi ta azkatasuna, beste gizonen aldetik ontzat artzeko eskubidea. Ez ote dugu auxe beaŕ-beaŕa, gizonak oro alkaŕekin eta pakean bizi ditezken? Gaurko ontan deadarka ari zaigu, ipaŕ eta egoaldetik, sortalde ta sarkaldetik, pakea beaŕ dala ta norbera buru-belaŕi pakearen alde ari dala bere burua agertu nairik. Baña itzak ezin izan ditezke itz baño, naiz eta ozenkienik esan; eta egipenak itz oietatik uŕun ibiĺi bitartean, alpeŕik izango ditugu itz edeŕ eta deadaŕ aundienak.

Pakea izateko, gizadiaren eŕoetatik datorkigun bidean barna ibiĺi beaŕ. Gizon guztiok alkaŕekiko, gizon bakoitza nor dala txit ontzat artu beaŕ dugu, beregan eta mende ta urteen bidean barna, bereak izan diran erakunde berezienetan: sendian edo etxean eta abeŕian. Ezinbesteko baldintzak, oiek, gizonen artean pakea bizi dedin; oietako bat edo beste

zapuztu ezkero, gudarako uřats bereziena. Itz gutxitan onelaxe labuř dezakegu ori: Gizona itzalgařia izan beař oso, beregan, bere etxean eta bere abeřian; beařezkoa, baitaezpadakoa.

Beařa bai, oso, noski, endeřiaren azkatasuna euzkaldun gizonarentzat, beste edonorentzat bezelaxe; beařa, euzkaldun legez, yarei izateko; eta bizi-izateko, alegia. Egiazko bizia al dugu jopu dan bizia? Ařigařia da nola egon diran, mende ta mendeetan, beste gizonai azkatasuna ukatu ta jopu bizi-erazi dieten ainbeste lagun ankeřak; beste gizonengan, beren kide, beren anaya ikusi nai-izan ez dutenak. Eta oindiño ere, aginkadakaz lortu bear ditu norberak bere buruari dagozkion eskubideak, azkatasunarena oien artean. Auxe gizadiaren zoritxařa! Ařì ta zur geratzekoa, eskubide txikiena ere lortzeko, maiz ainbeste odo'a ixuri beař dala ikusteaz. Eta auengaři osoro, eztabaida ortan gizadiak daraman bide luze ta mingařia.

XX'gařen mende au, nolabait, Eři-azkatasunaren mendea izateko edo dirudi; amaikatxo ditugu atzo jopu ziranak gaur beren gain bizi dirala; eta beste asko ere atzetik doazkiela. Baña alan eta guztiz be, ankerkeri ugari ta kaisarkeri beři eguzkipean ikusi beař.

Alegiñetan endeřiak, bakoitzak berari dagokiona lortuařen. Orobat Euzkadi; bizi nai-izatean, bere bizia eutsi ta babestu dezaken bide bakařaren biľa, bere azkatasunaren biľa. Eziña baita Eři'entzat ere azkatasunik gabe bizi al-izatea. Gizon eta endeřia alkařekin osotzen duten bizi baten atalak dira; ezin ořengatik, gizon yarei izatea abeři jopu batean; berebat ezin abeřia bere esku bizi-izaten ikusterik, bere semeak azkatasunik gabe baldin badaude. Biak bat dira, biyena berbera. Alakotz, endeřiaren azkatasuna, euzkaldun gizonarentzat beařa ta bere bizirako ezinbestekoa baldin bada, orobat endeřiaren beraren bizirako. Azkatasuna, biziaren sortzaiľea dala enurarik gabe esan dezakegu; gizonarengan eta Eři'engan, ororengan.

Ez da naikoa oraindiño, orain arte esan dugun guzia, endeřiaren azkatasuna norañokoa dugun beařa adierazteko. Gizona ez da jayo, bakařik bizi-izateko; baña ez eta endeři bakoitza ez da sortu besteengandik aldenduta egoteko ere. Gizona, sendia (edo etxea) ta endeřia, Ludi'an sortutako izakiak baldin badira, gizadia bera dugu beste maľako izaki orokařa, beste guztiak inguratzen dituena.

Anayak gera gizonak, bai sendi barnean, bai endeřian, baña bai ta gizadian ere. Ukatzekorik ez ortan, kristauen begiakaz batez ere, auzia begiratu ezkero. Era berean orobat esan dezakegu endeřiai buruz; Ludi'ko endeřiak alkařen aintzakotzat izan beař, anayak berak ere, nai ta nai ez; eta anayak bezela bizi beař-izango dira alkařenganako maitasunean.

Anaitasuna diñogunean eta maitasuna ere aipatu ezkero, guziok alkaři zoř dizkiogun eginbideak, oso bereziak ditugula esan beař. Egin eta ekitea dugu bizia Ludi'an; eta egipen guztietan urkoaren eskubide ta beařak gogoratzekoak dira; beti, iñor zauritu nai ezpada, egiazko maitasunean ari beař dalarik.

Bidezkoa, ořengatik, besteenganako ditugun eginbideak ongien bete al-izateko, era ta bide onenak ere aukera ditzagula, indař aundienaz eta onurazkienik yarduteko. Baña, ikusi dugunez, norberaren beař eta bizirako, bere abeřiaren azkatasuna nozaezekoa zaio, eta bide batez, endeřiaren bizirako ere. Beste itzez, endeři bat azke izanik, obeto bizi-izango da ta jokuan bere almen eta indař guziak, obekienik jařiko ditu; oietxek endeřiarenak izatean, noski, berebat endeřiaren semeenak ere; alakotz, naiz gizonez naiz Eři'z, azkatasunean izango dituzte batek eta besteak, egipen oberenak burutu al-izateko bide erosoenak.

Eta era berean, bidezkoa ere danez, gizonek beste gizonenganako ta endeřiek beste endeřiekiko, guzien azkatasunean bete al-izango dituzte alkařenganako eginbide guztiak.

Danetara dugu ona ta beařa, alakotz, azkatasuna. New-York'ko kai auřean irudi edeř bat jaso zioten azkatasunari; gizon eta Eři'en biotz guztietan tinkoenik gorde beař-izango litzake alako irudia, guztien egipenetarako, beratzaz lendabiziz gogoratzeko, ta berari dagokion zeatz txikienean ere iñoiz utzik ez egiteko xedean.

Argi oso agertzen zaigu guri azkatasunaren beařa, ta berekiko beti erne egon eta ibiltzea dagokigu. Ulergaitza, beraz, guretzat, Ludi'aren zeař eta Europa'n batez ere, erakunde beřiak eraikitzeko egiñaletan ari diranak, dirukien bideak darabilzkitela ikustea. Ororen ona ta guztien arteko pakea egitan iritxi nai baldin bada, zearo aldatu beař-izango dira bideak. Ezin artu diteke gizona diru-erakundeetarako, ezin ořelako beste edozein xedetarako ere; diru ta guzia dira gizonarentzat artu beař diranak. Gizona da bizi beař dana, ez emengo ala ango erakuntza; beraz, erakunde guztiak dira gizonarentzat eraiki ta antolatzekoak.

Euzkaldunak gure abeřiarentzat beařa dugun azkatasunaren biľa gabiltz, bide onetatik gureganatzeko alegiñetan gogoř. Oso egokia zaigu, geron baitan asmo auek tinkotzea: Azkatasuna nai dugu, gure Eři'aren biziari, beařen eta ezinbestekoa zaiolako; Eři bezela bizi-izateko, esku-

bidea gurea dalako, eta bizi nai dugulako. Azkatasuna nai dugu, Eŕi'aren bizi yarei ortan, euzkaldun-gizonarentzat ere txit beaŕa dalako, ta azkatasun oŕen bidez, naiz Eŕia naiz gizonak, bizi obea ta lan aundiago burutuko dituztelako; baña bai ta beste gizon eta beste Eŕi'enganako ditugun eginbideak obeki ta etekintsuago bete al-izango ditugulako. Yainkoa'ri eskeŕ, ongienik osotzen dira azkatasunean geron eskubide ta eginbideak. Nola ez gera izango azkatasunaren aldeko puŕukatuak? Nola ez dugu guretzat eta gizon guztientzat azkatasuna nai-izango?

Beaŕ-beaŕa dugu euzkaldunak yarei izatea; ezinbestekoa gure abeŕiaren azkatasuna, beraren barnean bere semeok yarei ere izan gaitezen; eta gizadiarentzat onuratsuenik izateko be. Guretzat nai dugun ori, berebat nai dugu beste gizonentzat ere; ez dago, oŕengatik, gure xedeetan gerekoikeririk; gizadi ororentzat ona dugun erakundea, edeŕa deritzaigun bidea bera, orixe nai dugu guretzat, beste guztientzat gura dugun izari berean.

Azkatasun ori lortzeko erabiĺi ditugun bideak, orain arte bederik, pakearen bideak izan dira, eta auŕerantzean ere berebat izatea nai-izango genuke. Ez dugu uste eguzkipean arlo bat aurkezteko izan diteken bide oberik. Garaitasunean jaŕaitu nairik, geron azalpenak zokondorańo eraman nai-izan ditugu, begi guztien auŕean oŕela ager ditezen.

## XXI.—Biziaren eta bere eskubide, eginbide ta erantzukizunaren auŕean, euzkaldunaren naia.

Jaŕi dezagun —eta egiazki, nai ta nai ez jaŕita dago— euzkalduna, beste edonungo gizona bezela, biziaren eta bere eskubide, eginbide ta erantzukizunen auŕean. Al eta ezin, biziduna dalarik, biziari buru-egin beaŕ; eta bere bizian, eskubideak izango ditu, baña bai ta eginbide ta erantzukizunak ere. Ortan, bizi diran gizon guztien ezinbesteko egokera.

Nola ari beaŕ-izango da euzkaldunak euzkaldunzuŕian? Oŕi auetan barna, euzkaldunen gogo-biziari buruz eman dugu gure iritzi zeatza; euzkaldunak nola jardun beaŕ duten, beren Eŕi'aren biziak, indarturik, iraun dezan. Euzkal-gogoarekiko jaŕi dugu guztia zuzenduta, bai ta gorputzarena ikutu beaŕ-izan dugunean ere. Egiazko bizia gogoan baita; gorputzarena bakaŕik aberearena da, eta gizonagan gogoarena dugu laguntzeko, guziaren gain.

Yainkoa'k euzkaldunen artean euzkalduna jaŕi du euzkal-gizona, bere endeŕia dan Euzkadi'ren seme. Gizonak bere burua azkatzeko, berdin izan beaŕ emen ala an jaiotzea; oŕela ta ortarako Ludi'ko gizon guztiai lege bakaŕa jaŕi zaie, baiezko legea, "Amaŕeko-Legea"; bidezkoa gizon guzientzako lege bat, bide bat bakaŕik izatea; zuri naiz beltz, ori zein goŕizka'k, beren burua berdin gaizka dezaketen.

Gizona Eŕi batean jaiotzea, ezin izan diteke aduŕak egiña. Yainkoa dugu Irazaĺea; gizona irazana, ta Arek Ludi'ko Eŕi batean bereziki kokatua, Bere naimenaren arauz. Eŕi batean gizona jaŕita baldin badago, Eŕi ortan barna, bere betekizunak burutu ditzan izan beaŕ bereziki. Ez du oŕek esan beaŕ, gizonak, berea ez dan beste Eŕi batean bizi-izaten, bere burua gaizkatu ezin dezakela; bere Eŕi'an bizi-izateko, bere bide berezia daukala baizik. Oŕen zeaŕ geyenak joango dira, lekorean gutxienak; legea, beraz, geyenena izan beaŕ.

Gizonak bere Eŕi'an, bere bide berezia baldin badu, berebat Eŕi oŕenganako eginbideak, eta auek betetzeko, ondorengo erantzukizunak

ere. Bidezkoa oso deritzaigu, arlo au onela aurkeztea, eta euzkaldunarentzat beste gizonentzako izari berean, ala beaŕez.

Beaŕezkoena izateko, alakotz, gizon bakoitzak bere Eŕi'aren bizia nola dan eta nola izan beaŕ dan jakitea, bai ta bizi ori nola eutsi ta indaŕ dezaken begiratzea. Oŕela, euzkaldunak ere Euzkadi'ren biziari buruz.

Ausaz, etzegoen guzti ori esateko beaŕ aundirik; betikoa edo dugu iritzi au, enaiz ni lenengoz aipatu dudana, ta guziok ortan aburukide edo gera. Baña gure Eŕi'aren gaurko egokeran, beaŕa iruditzen zait, gure auziaren inguruan oŕenbeste istiĺu ta ardail sorturik dauzkagulako, ta beste aldetik egi nagusiak noizean bein gogoratzea, beti onurakoŕa deritzaidalako.

Oŕa, bada, euzkalduna, biziaren auŕean, euzkal-biziaren auŕean bereziki, ta oŕen baŕuan bide batez. Bere Eŕi'aren biziaren zatia da bera, ta bizi oŕen biziduna ikusi beaŕ bere burua. Gizonak, bere biziaz, bere Eŕi'arena, margoz, indaŕez, litsez, eragin eta ingura dezake; alderantziz, bere Eŕi'aren biziak, arean, euzkaldun ororena ta euzkal-gizadia dan aldetik, euzkaldun gizonarena ere eratu ta eda dezake. Jakiña, eten izango ez diran alkaŕenganako egipenetan yardungo dute bienak.

Euzkadi'ren bizian ondo berezkatuko du euzkaldunak, zer dagokion gorputzari ta zer gogoari, bere endeŕiaren gorputz eta gogoari, eskierki. Eta iñundik ere lenengoa uŕuñatu gabe, bigaŕenari atxikiko zaio, gaŕantzi nagusiena bertan kokaturik dagoela begiratzen, eta egi onezaz jabeturik, berarentzat izango ditu bere yoran eta aŕeta aundienak.

Ludi'an barna sakabanaturik dauden Eŕi'en artean, berea ikusiko du euzkaldunak bizi-izaten, bizi-izateko besteak bezin eskubidez okiturik; bizi-izateko ta Eŕi bezela, endeŕi bezela bizi-izateko, ots, Eŕi bati dagokion izari zabal guzian yarduteko.

Geyago ikusiko du euzkaldunak. Euzkadi, bere abeŕiak, gogo-biziaren barna ibiltzeko egoki ta beaŕa duen bidea, ots, euzkeraren bidea daukala; beste Eŕi'ak, bakoitzak berea, beste izkuntzenak dauzkaten antzera. Argi aurkeztuko zaio, Eŕi baten gogoaz eta bere mintzoeraz, alkaŕenganako jaŕita dagoen aŕeman ertsia, biak alkaŕengandik aldendu eziñezkoak egiten dituena.

Beraz, ez du enurarik izango, Eŕi-gogoa erabiĺi ta eusteko, izkuntza, euzkera, baitezpadakoa duela; au, arentzako bide beaŕena izanik, beaŕ eta ezinbestekoa.

Eta bere sorteŕiari so-egiten, bereala agertuko zaio gaur dagoen zoritxaŕean, kinka gogoŕ eta ilgaŕi: sorteŕiaren laurdena bakaŕik agertzen da egiazko euzkaldun, eta laurden ortan ere euzkal-gogoa usteltzen doala, gero ta lasteŕago. Geyago oraindik: abeŕiaren zoritxaŕ oŕen auŕean, gutxienak dirala zoritxaŕ oŕezaz min artzen dutenak; geyenak, zozokeriz beteta, zorigaiztoari paŕe-egiten diotela; oso gitxik negaŕ.

Bere izkuntza ta bere gogoarenganako edozein eraso ta iseka, ardurarik gabe artu oi dira euzkaldun askoren artean; otz geratzen dira amari egindako iraiñen auŕean, aunitz. Eta izan ere, ba-dira arerioekin bat egiten dutenak, bere Eŕi'aren amaya lenbailen ikusi naiean. Ergel alenak guzti oiek; ulergaitza benetan oŕen ergelkeri aundia.

Ez da, ez, oso atsegiña, bere Eŕi'an barna euzkaldunak ikus dezaken azpegia. Eskubide osoaren jabe izanik, eskubide oŕi eusteko eziñean bizi beaŕ. Eta eskubidea argi da, argi ta garbiena; eta bere sorteŕiarena izanik, ezin euzkaldun zindo batek aiztutzea. Amoŕua, noski, sortu beaŕ, euzkaldunaren biotzean; zergatik ez nere Eŕia bere eskubide osoa edatzean, Ludi'ko beste edozein Eŕi bezela? Txikia dalako? Indaŕik, izkiĺu-indaŕik ez daukalako? Ortxe txiki ta aulen zoritxaŕa Ludi ontan.

Dana dala, zerbait ekin, zerbaiteaz ari baño lenago, egokia izango zaio euzkaldunari bere abeŕiaren eskubideen auŕean jartzea, eskubide oiek ongi begiratu ta aztertzea, buru ariñez ez yarduteko. Bere Eŕi'aren zorigaiztoa, berea bezela artzekoa da bidezko, bera Eŕi'aren zatia baita, berak beste euzkaldunekin Euzkadi osotzen duelako. Orobat, sorteŕiaren eskubidea, berarena da, eta berari dagokio izari osoan ezagutzea ta bizi-izatea. Zalantzik ez, Eŕi'aren eskubidea bere seme guziena ta bakoitzena dugu; guztien alkartzea da Eŕia, ta guztiena dana bakoitzarena izan beaŕ, ala beaŕik.

Oŕela begiratu beaŕ-izango ditu euzkaldunak bere Eŕi'aren eskubideak, beraren eta sorteŕia osotzen duten guzienak dirala; eta, ain zuzen, ortik yalgiko zaio bakoitzari ezinbestekoa zaion eginbidea, eginbide ertsia: eskubide oiei eusteko ta berai ere bizia emateko, zer egin beaŕ duen, zertan eta nola yardun.

Eginbidea, eginbeaŕa. Neketsua beti gizonarentzat bearkuna dan guztia, edozeren bete-beaŕa. Naiz eta berari bakaŕik baldin badagokio ere; askoz geyago, eskierki, besteai be, berarentzako beaŕean bezela, dagokienean; ekin dezatela besteak, zertarako neuk be?; eta besteak, batzuek ala guztiek, bearkun ori betetzen ezpadute, nik bakaŕik ari-izan beaŕ?

Baña gauzak, beste aldetik, alderantziz ere, begira ditezke. Besteak,

batzuek ala guztiek eginbeaŕa bete ezkero, ez al da izango, dana ongi burutzeko, nire laguntzaren ematean bakaŕik?, ez ote da nirea Eŕi'ari peitzen zaion bakaŕa?, ez ete da lotsagaŕia, besteak dagitena neuk egin gabe uztea, ororen bearkun pean neu ere izanik?

Ezin bide egokitzat artu, besteak zer dagiten edo uzten dutena begiratzea, edo norberarena betetzeko besteenaren zai egotea; orixe iñoiz ezer ez egiteko bidea izango dugu; egin eta ekiteko aldia ere igaroten da, ta bidezkoa izan beaŕ oŕengatik, yarduteko aukerakoa izan ditekena ez galtzea. Lanean asteko besteek ekitea baldintza bezela jartzen duenak, berekoikeriz jo-ta dagoela ageŕeraziko du beti. Berekoi ta adore gutxikoa, alegia.

Norberaren almenen arauz, eginbidea, aundiagoa ikusi beaŕ-izango da emengoarengan, angoarengan baño; bidezkoa da izari ortan bakoitzak al dezaken giñoan bere eginbidea neurtzea; baña abeŕiarenganako guziok dugun bearkunari buruz, guziongan berdin ikusteko, ororen eginbidea. Alakotz, iñundik iñora begiratu gabe, bere Eŕia benetan maite duenak, bera ere guztien eginbidean barna murgildurik dagoela ontzat arturik, bere burua aztertu beaŕ-izango du, bere almenak noraño joan ditezken ikusteko; eta bein zer egin dezaken oarturik, ortxe bere bearkuna, orixe, burutzeko alegiñetan, bere eginbidea.

Eztu oŕek esan nai, bere burua bakartu egin beaŕ duela euzkaldun gizonak; gauza bat da norberaren almenak zeintzuk diran ikustea, almen guzti oien bidez eta izarian dagozkion betekizunak burutzeko; eta beste bat, eskierki, bakartasunean ari-izatea. Ain zuzen ere, abeŕiaren alde yardun beaŕ danezkero, guzion yokabidea aberkide ororen alde ta abeŕikoa den guziaren alde ekitea izango da; beraz, norbera bezela ari diran besteengana jo beaŕ, alkaŕengana guziok, lanak batutzeko, anayak laguntzeko, bakoitzaren lanerako bide beŕi ala obe ote dagoen ikus eta aztertzeko, ta alkartasunean al ditekcn onura aundiena lortzeko.

Emen bereziki ezaŕi nai duguna, euzkaldun gizonarentzako eginbidearen asmoa da; gizona dan aldetik, bai, baña euzkalduna danber bereziki. Ludi'an gizon bat bakaŕik izango balitz ere, gizon oŕek bere buruarekiko izango lituke bearkizunak, eta auek betetzeko eginbeaŕa ere; baña gizona ez da bakaŕik bizi, beste gizonekin egon, ari ta bizi beaŕ, jayotzetik iłobiraño, eta alkartasunezko bizi ortan, ortatik eta ortarako, eginbideak datozkio, nai ta nai ez. Ez da ori ere, noski, asmo beŕirik; baña egokia edo zaigu orokaŕa dan eta aspaldidanik azaldutako asmoa



emen beŕiro aipatzea, euzkaldunarentzat alkaŕenganako eginbidea lenengoz ezartzeko ta onartzeko mała nun dagoen begiratzeko.

Gizonak, gizona dan aldetik, beste gizonenganako ukan beaŕ bere eginbideak, beste gizon oiek edonor izan, ororentzat beraz; era berean, euzkaldun gizonak beste euzkaldunenganako berdin. Geyago, euzkaldun guztion artean osotzen dugun Euzkadi'ri berebat, Ludi'ko Eŕi bat dalako, beste Eŕi'enganako eginbideak ukan eta berak betetzea, beaŕa ere izango zaio. Euzkadi'ren bide ori, euzkaldun gizonak, beste gizonenganako eginbeaŕak ongien burutzeko bidea izanik. Ara noła agertzen dan argi, bere abeŕiarentzat eta gizadiarentzat euzkaldunak dituen eginbideak, ederkien alkartzen dirala, ongienik ere betetzeko.

Ońa izango zaio euzkaldunari, bere eginbideak eta auek burutzeko bideak, astiro, luze ta sakon ausnartzea, azterkatzea, begiratzea; eginbide oien artzekodunak zeintzuk dituen iñoiz aiztu gabe, iru auetxek ain zuzen: bere burua, bere sorteŕia eta, izan ere, berea dan gizadia. Emen sorteŕiarenganakoak aipatu nai-izan ditugu bereziki, beste bienganakoak aurkako ez izatean, eta alkaŕenganako ongi betetzekoak diralako. Beaŕezko, gañera, oŕela ekitea, gure lan berezi onen jomuga gure abeŕiari buruzkoa izanik eta geron xede nagusiena dalako.

Argi agertzen zaizkigu, alakotz, euzkalduzuŕian, euzkaldunaren eginbideak; bere eskubideak ere argi azalduta. Eta eskubide ta eginbideetatik, bion alkartzetik, zuzen datozkio gizonari ere, gure euzkaldun gizonari, beaŕezkoak zaizkion erantzukizunak. Gizona erantzunkoŕ izan beaŕ, bete-betean erantzunkoŕa. Yarei izateko, noski, gizona; bere esku ari-izan eta ekiteko; oŕela bakaŕik izango dugu gizona erantzunkoŕ; azkatasunik gabe, erantzukizunik ez. Yarei izatean bakaŕik, bizi diteke gizona bere garaitasunean, eta oŕela, bere izakerari dagokion goyeneko mail ortan ikusi beaŕ dugu gizona, bere betekizunak burutzen. Eskubideak erabiltzen, eginbideak betetzen, erantzukizunak burutzen, azkatasun osoan yarduteko gizona; bere distiradun garaitasunean nagusikiro ekiten.

Erantzunkoŕ gizona; noren auŕean, baña, erantzunkoŕ? Leŕo auen egiłea kristaua, katolikoa izanda, enurarik ez, azken amayean izan beaŕ, Yainkoa'ren auŕean erantzuteko oso. Alaz ere, bai gizadiaren auŕean eta norberaren abeŕiaren auŕean ere. Siñismendun ez dana, gizadiaren eta bere sorteŕiaren auŕean be, siñisten ez dutenen arauz. Eta emen dugu nun alkartu gaitezken siñistunok eta siñismenik ez dutenak: gizadiari

buruz, guzion abeŕiarekiko; ortxe ororen elburu, oŕen beaŕa dugun lana Eŕi'ek alkaŕekin egiteko, ongi bete al-izateko.

Gizona danber yardutean, norberari dagozkion erantzukizunak bete beaŕ; berdin euzkaldun gizonak bere euzkal-erantzukizunak ere. Eta euzkal-eskubide ta euzkal-eginbide nabari oso baldin baditugu, orobat oien artetik datozen euzkal-erantzukizunak ere. Oŕela ongi zedaŕiturik ikusteko, gizonki jokatzean, euzkaldun gizonarentzat bizi-arau zabala; euzkaldun guztientzat berbera izan beaŕ dana.

Eskubideai eustea, eginbideak betetzea eta erantzukizunak burutzea, atsegingaŕi berez, alegia, gizon zindoarentzat. Ez diruz ez eta altxoŕ aundienaz ere, ordaintzen ez dan atsegiña; betekizun oiek betetzeak ematen duena. Orixe, Ludi'an, gizonak irabazteko sari aundia; ulergaitza beste elburu oberik eguzkipean, ortan barne-aberastasuna metaturik baitatza. Benetan, Yainko'arena lendabizi dalarik, axe onen uŕengo; egiazki, gizon baten eta gizon ororen egiñal guziak ura irixteko jokuan gotoŕ ezartzeko.

Euzkaldunarentzat, oŕez gañera, ba-dago beste elburu bikaña, Euskal-Eŕi guziarena, egitan, izateko. Arean, gure VII'gaŕen atalean edatu dugun asmoa, 'euzkaldun oso"arena, Kondairak erakusten dizkigun aldi guztietan iñoiz izan ez dana; euzkal-gogoaz bete-beterik, euzkal-eguratsak eman lezaken garaitasunean, mail goyenetako euzkal-gizona, euzkaldun osoa.

Oŕelakorik Euzkadi'n iñoiz sorturik ikusten bada, eskubide, eginbide ta erantzukizunezko bide guztiak ibiĺita daudela esan al-izango da egiazki. Eta guzti ori soiĺik irixteko, egitekoak ondo ta beaŕez betetzeko, antsiz eta yoranezko alegin guztiak. Sorteŕiaren onurako bakaŕik izango balitz ere, bidezko ta txalogaŕi egiñalak oro. Ama dugu sorteŕia, ta amarentzat on guztiak edeŕ.

Baña beŕiro ere aipatzeko, euzkal-elburuan ikusi beaŕ dugun beste exede bikain au: euzkal-gizona ta Euzkal-Eŕia'k, biak, gizadiarekiko duten bearkun ertsia, euzkaldun osoaren bidez bakaŕik izango dute guziz eta mukuŕuki beteta, yoritasunezko izarian egiña.

Esan genuenez, euzkaldun osoa, euzkal-egurats trinko ta emankoŕ batetik sortu beaŕ da, abeŕiaren txoko izkutueneraño edaturik izango dan euzkal-ugaritasun betekoŕetik. Baña euzkal-egurats ori, euzkal-ugaritasuna, guzion artean burutzekoa dugu; beraz, betetzeko xedeetan, guziok sarturik egon beaŕ baldin badugu, zure ta nire euzkal-egipen txikienaz ere elburu ortarako gure laguntza emango dugu; aundi ala txiki, beaŕa izango dan laguntza. Guztion yoran eta egiñalen semea izango dugu euzkaldun osoa, eta nolabait beragan danok ere kopuruta; alakotz, ezinbestekoa izan beaŕ guzion eta bakoitzaren lana. Abiatzen eta ekitean ere, aiztu ezin dezakegun asmoa dugu auxe: Euzkaldun osoa, guztion artean egingo dugula, guzion lan eta naiaren seme izango dala izatekotan.



Naiaren semea. Euzkal-naiaren semea izateko euzkaldun osoa, abeŕiarentzat eta gizadiarentzat, euzkaldunek eman beaŕ dutena. Naia, oŕen emankoŕa dana; euzkal-naia ... bai ote?

Naia, gizonari oŕen bereziki dagokiona; biotzaren erdian yalgitzen dana; oŕetxengatik bere-berea dana. Eskubideak, eginbideak, erantzukizunak, buruko luŕean landu ta uztatzen diran arnariak ditugu, eta buruan edo dagoen adimenak, argi naiz iĺun, ikusten eta irabiatzen ditu. Adimenezko ezagupen soiĺak ditugu, beraz, egipenetan barna sakabanatzen ezpadira; eta oŕela edatzeko berez ezer ez izanik, igikoŕen bat beaŕ dute, bereziki, antzu oso geldi ez geratzeko.

Igikoŕ nagusia, adimenaren semeak igi-eragin ditzaken bakaŕa, naia dugu, biotzak emateko naia. Emango al du euzkal-biotzak, iñoiz, euzkaldun osoaren asmoa egiazkoa biurtzeko beaŕa dan euzkal-naia? Ortxe untzea.

Buru ta biotzak jokatzekoa dugu, oŕen aundi ta gorenekoa dan euzkal-betekizuna, euzkal-elburu nagusia. Egingaŕi, beaŕa ere dugu oso, elburu ori. Ausaz, sorteŕiarentzako azkatasuna eskatzeko erabil genezaken oñaŕi gotoŕ eta sendoena.

Elburu ortan dago euzkaldunek gizadiari eskeiñi dizaioketen opari mardulena; ene ustez, eskeiñi beaŕ diotena; eskeintzean eta ematean, buru-belaŕi lanegiteko, ta biotzaren eta buruaren almen guztiak, egiñalean tinki atontzeko.

Nola erantzungo dio Euzkaleŕi'ak bere bearkun nagusi oŕi? Eskierki, oraingo egokeratik abiatzeko, egiazko biotza euki beaŕ; baña elburuaren distira yaukalari so-egin beaŕ zaio, bidean asteko, eta jaŕaitzeko.

Gure Eŕi'aren eskubide, eginbide ta erantzukizunak, batera bultzatzen dute euzkalduna elburu ortaruntz, argienik, garbienik, indaŕik berezienaz. Bere bizi-izatearen beaŕa da norabide ortaz ibiltzea. Buruak diñoenez noraezekoa da, ezinbestekoa, baitezpadakoa, eta geronen uste onak eskatzen dutenez, garaitasunean guziaren auŕetik igarotzeko beaŕa. Buruak, egia, ona, zuzenbidea, eginbeaŕa, garaitasunezkoa, besteen-

ganako maitasuna, orixe dala diño. Biotza dugu, gero, ekiteko, buruari erantzun beaŕ diona, "nai dut" esanez.

Siñistunak gera. Sorteŕia maite dugu. Bere baitan egin eta ekiteko, almen aundienetakoak ikusten ditugu. Gaur oso menperaturik datza, bere arerioen pean jopu, ta bere diru-iŕitsak luŕ-jota dauka. Bidea asteko, asieratik oso atzeratuta dagoela aitortu beaŕ. Bere euzkal-izakeran aulduta oso, bere gain jausi diran ainbeste zoritxaŕak dirala kari. Iľa bezela.

Alan eta guztiz be, ez du oraindik eriotzak bereganatu; oraindiño sua dago, azaleko otz guziaren azpian; Eŕi-indaŕak ekiteko gerturik ditugu oroz gain; eskuarte ugari ere jokuan sartzeko. Auxe du abeŕiak egiteko: bere baitan burutsu sartu, gaurko egokera zein dan eta biarko gerokoa zein izan beaŕ dan, neuŕiz eta gurbil azterkatu; bere elburua nun dagoen ikusi ta norabidea biľatu; eta azkenez, ibiltzean sartzeko bil ditzaken indaŕ guztiak alkartu ondoren, bere naimen osoa ekiñaletan ipiñi. Eta bidezkoa danez, guziaren gain, naia sendotu, naia berotu, naia erabiľi.

Soin osoari bizia emateko, biotzari odola dario; abeŕiaren gorputz guziari euzkal-bizia eskeintzeko, nai-odola da euzkal-biotzetik buŕustaz yalgi beaŕ dana. Gure auzi gogoan naia da al-izatea, nunbait izatekotan. Yainkoa'k nai beza, Berea lenengo, Euzkadi-ren naia eŕuz zabaltzea.

## NOTIN, ERAKUNDE TA ARGITAIPEN'EN IZENAK

Atzalburu


Ageŕe'taŕ Yoseba Andoni ... XVI.
Akademi, Frantzia'ko Akademi ... XI.
"Amaŕeko-Legea" ... XXI.
Aralar, J. de ... XI.
Arana Goiri'taŕ Sabin ... IV. - VI. - VIII. - X. - XV.
Ariztimuño'taŕ Yoseba ... V. - XVI.
Armesto ... V.
Aŕuza'taŕ Mikel ... XIV.
Astarloa'taŕ Paulo ... V.
Auzo-eskolak ... XI.
Axular ... I.
"Azkatasuna, Berdintasuna, Anaitasuna" ... XX.
Azkoitia'ko Zaldunak ... V. - VII. - XI. - XVI.
Azkue'taŕ Resurrección María ... V. - VII. - VIII. - XI.
"Basque-Eclair" ... VII.
Belasko'taŕ Ladislao ... V.
Belauste'taŕ Pantzeska ... V.
Ben-Yeuda ... XI.
Bera-Mendizabal ... XI.
"Biologie et Racisme" ... XVI.
Bonaparte, Príncipe de ... V. - VIII. - X. - XV.
Budha ... V.
"Cahiers" ... XI.
Camus'taŕ Paul ... XI.
Casares'taŕ Julio ... XI.
Casas'taŕ José M. ... III.
Cejador'taŕ Julio ... V.
"Cercle de Presse Richelieu" ... XI.
"Cervantes" ... III.
Chauchar, Dr. Paul ... XVI.
"Club de la grammaire" ... XI.
Comber'taŕ N. ... XI.
"Comité d'étude des termes techniques français" ... XI.
"Conférence Internationale de l'Instruction Publique, XXIIe 1959, XXIIIe 1960" ... XIV.
"Congreso de Estudios Vascos, 1.° - Oñate - 1918" ... XI.

Atzalburu

"Coupe Emile-de-Girardin" ... XI.
"Cours de Linguistique Générale" ... XV.
"Défense de la langue française" ... XI.
Detxepare ... VII. - XV.
Diccionari ... XI.
Diputazioa (Bizkaya'ko Diputazioa) ... XI.
Dudan'dar Camille ... XI.
Duhamel'dar Georges ... XI.
Durrieux ... XV.
Duvoisin ... XI.
"Ekin" - Buenos Aires ... XI. - XVI.
"El Conde de Peñaflorida y los Caballeritos de Azcoitia" ... XI.
"Eliza'ren Batzar Nagusia" ... XVI.
"El lenguaje" ... III. - V. - VIII. - XI.
"Empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza" ... XIII.
"Enbata" ... VII.
"Enderien arteko Eskubide-Erakuntza" ... XX.
Erdaltzaindia ... V.
"Erotiko azpideari buruzko ikasketa". "Ama-izkuntzak irakaskintzan erabiltzea" ... XI.
Etxeberia'tar P. Aita ... VI.
"Euskal-Esnalea" ... XI.
Euskaltzaindia ... IX. - XI.
"Euskera" ... XI.
"Euskerazaleak" ... XII.
"Eusko-Ikaskuntza" ... VI. - VII. - IX. - X. - XI.
"Euzkeltzale-Bazkuna ... XI.
"Euzko-Deya" - Paris ... VI.
"Euzko-Gogoa" ... VI. - XI
"Euzko-Jakintza" ... XV.
Euzko-Jaurlaritza ... IX. - XII. - XIII. - XIV.
"Eziña menperatua" ... V.
"Fichier Français" ... XI.
"Fonética histórica vasca" ... XV.
"Fontes Linguae Vasconum" ... XV.
Garitaonaindia ... VII. - VIII.
"Gascon-Dictionnaire" ... XV.
Gavel ... V. - XV.
Gernika'koArbola-Gernika'koEreserkia ... I. - XVII.
Giltsu Aita ... XI.
"Giza-soña" ... XI.
"Gizonaren eskubidegai guzietaz Aitorkizuna" ... IX. - XVIII.
"Gizonaren eskubideen ojustapen orokara" ... XX.



Atzalburu

Goikoetxea'tar Yon Apaiza ... VII.
"Gure Herria" ... III.
Haritchelar ... XV.
Harriet ... XI.
"Historia de la literatura vasca" ... IV. - XIV.
"Ikas" ... VIII.
"Ikastolak" ... VIII.
Irakastola Nagusia - Oñate - Gasteiz ... VII.
"Itun-Beria" ... XI.
"Itun-Zara" ... XI.
Iturriaga ... XIV.
Iztueta'tar Juan Ignazio ... IV.
"Jesus'en Biotzaren Deya" ... XIV.
Kanpion'dar Arturo ... V.
"Kili-Kili" ... XII.
Kostolányi, Desiré ... XI.
Kultura-Batzordea ... IX.
"La Democracia en Euzkadi" ... V. - XVI.
Lafitte'tar P. ... XIV.
Lafon, Réné ... V. - XV.
Lande'tar Pierre Aita ... XI.
"Larousse" ... XI.
Larzabal'dar P. Apaiza ... VII.
Laramendi'tar Imanol ... V.
"La Tribune de Genève" ... XI.
Leizaola'tar Yosu Mirena ... VI.
Leizarraga'tar Joannes ... XI.
"Les Couches anciennes du Vocabulaire basque" ... XV.
"Le système du verbe basque au XVIe siècle" ... XV.
Lizardi'tar Xabier ... VII.
"Los Euskaros" ... V.
Matxinada, Frantzia'ko Matxinada ... XX.
Mayans ... V.
Menéndez Pidal, Ramón ... V.
"Millan Deun'en idazkia" ... XV.
Mitxelena ... XV.
Mois ... XI.
Mokoroa'tar Justo Aita ... XI.
Montoliu'tar Manuel ... III.
Moutard, Nicole ... XV.
Munibe ... XI.
Muñoa ... XI.
Muxika ... XI.

Naert'taŕ Kepa ... III. - XIX.
"Office du vocabulaire français" ... XI.
Olabide'taŕ Eŕaimun ... III. - VI. - X. - XI.
Omaetxebaŕia'taŕ Iñaki Aita ... XI.
Onu ... IX. - XVIII. - XX.
Ormaetxea'taŕ Nikola. Orixe ... VI. - XI. - XIV.
Oyarzabal'daŕ Martin ... XIV.
"Pavot" ... XV.
Peñaflorida, Conde de ... XI.
Picaud, Aymeric ... V.
"Polytechnique" ... XV.
"Príncipe de Viana" ... VII.
"Quillet" ... XV.
Roget ... XI.
Sander ... XI.
Saussure, Ferdinand de ... XV.
Sauvageot ... XI.
Snell'daŕ Honoré ... XI.
"Témoignage Chrétien" ... II. - XVI.
"Thesaurus" ... XI.
"Thora" ... XI.
Tovar ... V.
Trombetti ... V.
Uhlenbeck, C. C. ... XV.
Unamuno'taŕ Mikel ... III. - XIX.
Unesko ... X. - XI. - XIII. - XIV.
Urkijo'taŕ Julio ... V.
Vendryes, J. ... III. - V. - VIII. - XI. - XIX.
"Vie et Langage" ... XI.
Villasante Aita ... IV. - XIV.
Whorf'taŕ Benjamin ... III.
"Yakintza'en Akademi" ... XI.
Zanotto ... XI.

# AURKIBIDEA

Itzauŕea ... 5

I. Euzkadi, Euzkaleŕia, Eŕia danezkero, beste Eŕi guztiak bezela, *biziarena* du auzi nagusiena; eskubidez eta beaŕez ... 9

II. Eŕi batek, bizi-izateko, Eŕi-bizi izateko, *gogoaren izarian*, bere gogoaren izarian, zabal eta edatu beaŕ du bere ari-izatea; oŕela, bere *izakera* bereziaz agertzean ... 15

III. Eŕi baten izakera, gogoari dagokionez, gogo-arlo guzientzakoa dan bidean barna ibiĺi ta nabari beaŕ da, norberaren bide bakaŕa dan *izkuntzaren* zeaŕ ... 21

IV. Euzkaleŕi'arentzat, beŕe gogo ta izakera edatu ta zabaltzeko, ba-dago berarena dan bide berezia: *Euzkera,* bere izkuntza ... 29

V. Euzkeraren *alde* ta *aurkakoak* ... 37

VI. Euzkeraren indaŕa. Euzkeraren korapiĺo ta koskak. Euzkeraren almenak ... 49

VII. Euzkal-kultura. Euzkal-eguratsa. Euzkaldun osoa ... 55

VIII. Kultura edatzeko oñaŕi beaŕa: Irakaskintza. Euzkal-kulturari dagokiona: Euzkal-irakaskintza ... 67

IX. Euzkal-irakaskintzarako egitarau orokaŕa. Baitezpadako asiera, lenengo irakaskintza. Beitik goruntz abiatzea. Euzkadi'n erdaldunak diranentzako irakaskintza ... 77

X. Euzkeraren gaurko egokera. Euzkal-izkelgiak. Euzkeraren batasuna. Euzkal-irakaskintza, euzkeraren batasunerako bide egokiena. Euzkera gaizkatzeko egitaraua ... 83

XI. Iztegi ta itz beŕien beaŕa. Izkelgi guzietako itzak onartu ta guzientzako erabiltzea. Asmo-iztegia. Irakaskintzarako gai guzientzako iztegi bereziak. Orobat beste gai ororentzat. Olabide'ren asmoak ... 95

XII. Iztegi bereziak eta irakaskintzarako liburuak; aiek lenengoz, auek gero. Ikas-liburuak ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 117

XIII. Euzkadi'ko eri ta uri guztietan, euzkera *gaiaz*; euzkal-erietan, *bidez*. Elebitza. *Gaiaz*, nola erabili. *Bidez*, asteko, *lenengo irakaskintzan* bakarik. Amar urteren bat orela igaro ondoren, *bigarren irakaskintzan* sartu, *gaiez-gai*. *Bigaren irakaskintzan*, bereziki, *elebitza* erabiltzeko. Beste amaren bat urte bigarenean asi ta gero, Irakastola Nagusi'an eta beste Ikastola Aundietan, *gaiez-gai* ere sartu. Beti elebitza erabiltzen ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 123

XIV. Euzkal-Irakasleak gertutzea. Irakastea. Azibidea. Gogo-lantzea (Kultura). Euzkal-Irazkintza (Euzkal-Pedagojia) ... ... ... ... ... ... ... 135

XV. "H"'ri buruz txostena. Mordolo-bidearekiko iruzkiña ... ... ... ... 145

XVI. Kultura guziaren eten gabeko edatzea. Elburu ortarako, Gizartelesti'aren sartze-beara. Zortzi orduko lanetik at egunez, beste geyagorik debekatzea, eritar guztiak kultura atsikitzeko asti aski izan dezaten. Lana gizonarentzat, ez gizona lanerako. Xede berberaz, Eriketa dala-ta, euzkal-erazko eri-jaurgoa jari-erazi ... ... ... ... ... 159

XVII. Euzkadi osoan, euzkaldunak oro euzkaldun osoak izan ditezen, bizi guzia antolatzea. Kanporatzen diran euzkaldunak berebat iraun al dezaketen ere. Etxetik at eta barnean oro bat izan, Euzkadi ta Gizadi osoaren onurako; bai ta gizon guzien arteko pakearen onurako ere ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 171

XVIII. Barnerako ta kanporako euzkal-kulturak duen garantzia. Euzkadi'ren xede nagusia. Erlijioa. Euzkaldunak, Euzkadi ta Gizadi' arentzat ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 179

XIX. Euzkaldunen eskubide eginbear eta erantzukizunak. Guziak bete al-izateko, beara ta ezinbestekoa zaien azkatasuna ... ... ... ... ... ... 187

XX. Enderi-azkatasuna, bearena euzkaldun gizonarentzat; orobat beraren eta bere Eri'aren bizirako; berebat beste gizonenganako dituen eginbideak bete al-izateko ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 199

XXI. Biziaren eta bere eskubide, eginbide ta erantzukizunaren aurean, euzkaldunaren naia. ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... ... 209

## KARDABERAZ LIBURUXKAK

1.° KARDABERAZ
2.° UME TXIKIENTZAKO SOINKETA
3.° EUSKAL-ERRIKO JAINKO TXIKIAK (A. Arrinda).
4.° KARDABERAZ - 2.
5.° KARDABERAZ - 3.
6.° AMEZKETA'KO PERNANDO (A. Albisu).
7.° KARDABERAZ - 4

---

8.° PAKEAREN ERREGIÑA - MEZA (J. Pildain).
9.° 20 IPUI ETA ANTZERKITXO BAT (A. Albisu Ayerdi).

## KARDABERAZ BAZKUNA

1924'an sortua, Gazteizko Seminarioan, Euskeraren alde.

1936'an galdua. 1970'an berritua.

Zertarako? a) Euskera jator batean

b) Kristau-pentsakera barruan (ezi zabala) lan egiteko.

*Bazkideak* (gizon ala emakume) milla pta. ordainduko dute sarrerako ta beste milla urtero. Diru oiekin ateratzen da KARDABERAZ BILDUMA, bazkideentzako ezean.

*Arpidedunak* (bazkide nai ez dutenak) liburuak artzera beartzen dituzte beuren buruak.

Bazkide naiz arpidedum egiteko nora jo? Leku auetara:

Kardaberaz Bazkuna:

Tolosa'ra: Juan José Garmendia Arcelus
Técnicas de Difusión.
San Francisco, 1.
Apdo. 83.

KARDABERAZ BAZKUNA

IDATZI TA ZABALDU

"AURRERA-BETI"